


LOIOLA

HISTORIA ETA ARKITEKTURA



ETOR ARGITALETXEA

Argitalpen hau ETOR ARGITALETXEAK sortu, tajutu eta bere arduraz inprimatu du, Aita José Ramón Egillor-ek S.I. egindako lana ornituz. Eta Gipuzkoako Foru Aldundia ETOR ekin maila berdiñeko editorekide diralarik kaleratzen da.

ARGAZKIAK

SANTIAGO YANIZ

Argazki batzuk

Loiolako Santutegia

Iñaki Agirre

ETORen artxiboa

© J. R. EGUILLOR S.I. /LOIOLAKO JESUITAK

© EUSKO KULTUR ERAGINTZA ETOR, S.A.

Argitarakidetzatza:

ETOR- GIPIIZKOAKO FORU ALDUNDIA

Fotokonposaketa: ETOR/Donostia

Fotomekanika: GAMA/Logroño

Inprimategia:

GRÁFICAS VAL VERDE S.A./Donostia

Papera: KNP

Banaketa: ETOR

Euskalerría, 2-2º. Donostia

Urrut. 943/42-12-49

ISBN: 84-85527-88-7

D.L. 676-91

LOIOLA

HISTORIA ETA ARKITEKTURA

J.R. EGUILLOR S.I.

H. HAGER - R. M . DE HORNEDO S.I.

Sumarioa

| | |
|--|-----------|
| AURKEZPENA | 9 |
| SARREA | 11 |
| LEHEN ZATIA: ATAUERREKO TEMAK | 13 |
| Loiolako Etxe eta Santutegia | 15 |
| I. San Inazioaren Etxea historiko nola sortu zen | 15 |
| II. San Inazioaren egonaldiak bere etxean | 16 |
| III. Etxe Santuaren barruari historiko ze tratu eman zion | 18 |
| IV. Loiolako Maiorazgoaren eta etxearen oinordekoak | 21 |
| Oharrak | 24 |
| Loiolako San Inazioaren errege-kolejioaren eta eleizaren fundazioa | 26 |
| Sarrera | 26 |
| Zuazolakoen aldia | 27 |
| Nola sortu zen fundazioa | 32 |
| Oharrak | 38 |
| BIGARREN ZATIA: MONUMENTU-ERAIKIN HAUNDIA | 41 |
| Carlo Fontana Loiolako eleizaren eta kolejioaren proiektuaren autore | 43 |
| 1. Aurreko zer-nolak eta histori-laburpena. | 43 |
| 2. Fontanaren lehen proiektuak galdu. | 44 |
| 3. Hager-ek Erroman haren ordeko proiektu bat aurkitu, eta gaurko konstrukzioarekin konparatu. | 44 |
| 4. Altzatua Fontanaren beste obren aldean. | 45 |
| 5. Lehen proiektuen aldakerak noiz eta zergatik egingo ziren hipotesiak. | 47 |
| 6. Proiektuak eta San Inazioaren etxeari begira egindako haien aldakerak; itxura egiteko gezuretxeaurrea. | 48 |
| 7. Fontanaren proiektua tradizioaren aurrean. | 49 |
| 8. Monumentua bazter inguru horretan oso ederki jarria. | 51 |
| Oharrak | 53 |
| Loiolako errege-kolejioaren eta eleizaren konstrukzioa 1688an hasi zenetik 1767an eten arte | 58 |
| Carlo Fontana arkitektu aukeratu (1681) | 58 |
| Lehen planuak. Aldakuntzak. | 58 |

| | |
|---|------------|
| Saneamentua | 59 |
| Eraikuntzaren lehen pausoak | 60 |
| Eskailera haundia. Martín de Zaldúa (1692-1695) | 61 |
| Etxe Santua eta eskailera | 62 |
| Eleizaren proiektua (1696-1700) | 64 |
| Eleizaren eta eskubi egoaren obrak. Italiako itxurako solairua eta Zalduarena. | 65 |
| Eskailera nagusia aurrera jarraitu (1702) | 66 |
| Obrak asko gutxitu (1704). Osatzeko obrak (1704-1711) | 67 |
| Kontsultak. Solairuak eta klaustroa itxi (1711-1712). | 70 |
| Obraren direkzioa | 71 |
| Arroztegia | 72 |
| Konstrukzioaren gastua | 72 |
| Eleiza. Deliberazioak (1717) | 73 |
| Obran Sebastián de Lecuna sartzen da (1719-1720) | 74 |
| Joaquin de Churrigerak esku hartzen du (1720) | 75 |
| Eskailera nagusiko lore haundia (1720) | 78 |
| Bolandisten bisita (1721) | 78 |
| Atearkupea (1720-1724) | 79 |
| Armarriak (1717-1722) | 80 |
| Idurigileak (1723-1729) | 81 |
| Eleizaren konstrukzioaren jarraipena | 82 |
| Kupula | 83 |
| Naranja erdia | 85 |
| Eleizaren zola | 87 |
| Eleiza inauguratu (1738) | 90 |
| Sagastume aparejadore (1739) | 90 |
| Eleizan aldaketak | 91 |
| Ignacio Ibero erretaula egile | 92 |
| Konstrukzioaren erdi aldea | 94 |
| José Lecuona Anaia. | 94 |
| Aldare nagusia | 95 |
| Pulpituak, albo-aldareak, kanpaiak | 97 |
| Seminarioa | 99 |
| Etxeatzea. Etxe barnea | 101 |
| Carmonaren irudiak | 102 |
| Jesuiten arkitekturaren Loiolaren influjoa | 103 |
| Oharrak | 103 |
| Azpeitiako Ibero maisuak Loiolako Santutegia eraikitzen | 108 |
| I. Iberotarren jatorria | 108 |
| II. Ignacio de Iberoren curriculum vitae. | 109 |
| III. Argibide batzuk | 113 |
| IV. Ignacio de Iberoren lan jakin batzuk | 114 |
| V. Francisco de Iberoren currículum vitae | 114 |
| VI. Francisco de Iberoren eskutitz batzuk | 115 |
| VII. «Iberoren Etxea» | 118 |
| Loiolako San Inazioaren Basilikaren lektura | 120 |
| HIRUGARREN ZATIA: OSATZEKO GAIK | 123 |
| I. Loiolan jesuiten aldizkako egonaldiak | 124 |

| | |
|---|------------|
| II. Loiolako momumentu-etxearen jabeak | 127 |
| III. Loiolako obraren bukaera | 131 |
| IV. Loiolako Santutegi-ingurua ordenatzeko proiektua | 136 |
| 1. Santutegi etxearen konzepzioa | 136 |
| 2. Gaur egun monumentuaren ingurua | 138 |
| 3. Proiektuaren oinarri-planteamentuak | 138 |
| DOKUMENTU-ERAKINA | 143 |
| 1.- Institución del Mayorazgo de Loyola por Martín Garcia de Oñaz (años 1518 y 1536) | 144 |
| 2.- Honor y calidad de la Casa de Loyola (año 1569) | 145 |
| 3.- Luces en la Santa Casa en la noche del Jueves Santo (año 1655) | 152 |
| 4.- Juro Real número 1 (año 1679) | 154 |
| 5.- La casa y terrenos de Loyola desincorporados del Mayorazgo (año 1681) | 159 |
| 6.- Donación de la Casa de Loyola y fundación del colegio (año 1682) | 163 |
| 7.- Real patronato de la fundación del colegio de Loyola (año 1683) | 167 |
| 8.- Escalera de Zaldua (año 1702) | 169 |
| 9.- Fundación del Real Colegio (año 1715) | 171 |
| 10.- Intervención de Joaquín de Churriguera (año 1720) | 176 |
| Consulta de Sebastián Lecuona | 176 |
| Parecer de Fr. Pedro Martínez sobre la construcción de los arcos de la iglesia. | 176 |
| Carta del Procurador Hº Martín de Vergara al Provincial de Castilla P. Pablo Francisco Mazarío | 178 |
| Respuesta a la carta anterior (en el mismo pliego) | 179 |
| 11.- Acta Sanctorum (Bollandiana). Gloria postuma (años 1729 y 1642)2 | 180 |
| I. Idea de la casa de Loyola; capilla del Santo Padre. | 180 |
| II. Más datos sobre la capilla; relicario del Santo; colegio e iglesia. | 182 |
| III. Veneración publica del Santuario de Loyola; milagros. | 185 |
| 12.- Expulsión de los jesuitas de Loyola y Azcoitia (año 1767) | 187 |
| 13.- Los elgoibarreses rescatan las imágenes y alhajas de Loyola y las llevan a la granja de San Ildfonso. El Rey nombra a San Ignacio capitán general del ejército de Guipúzcoa (año 1794) 200 | |
| 14.- Inventario de las reliquias y alhajas dejadas por los elgoibarreses en la granja de San Ildfonso (año 1794) | 205 |
| 15.- Los Pizarra, custodios de las alhajas de Loyola (años 1806-1816) | 207 |
| Nómina de las alhajas que se citan arriba | 218 |
| 16.- Carlistas en Loyola (años 1836-1840 y 1873-1876)6 | 221 |
| Año 1836 | 221 |
| Año 1838 | 222 |
| Año 1839 | 225 |
| Año 1840 | 226 |
| Año 1873 | 226 |

| | |
|--|-----|
| Año 1874 | 227 |
| Año 1875 | 228 |
| Año 1876 | 228 |
| 17.- Documentos fundamentales de la propiedad de Loyola a favor de la Diputación Provincial de Guipúzcoa (años 1842-1855) | 230 |
| DOCUMENTO I | 230 |
| DOCUMENTO II | 232 |
| DOCUMENTO III | 232 |
| DOCUMENTO IV | 233 |
| 18.- Terminación de las obras de Loyola (años 1885-1888) | 235 |

AURKEZPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiak pozik hartzen du bere babespean eta aurkezten du Loiolako Arkibu-zainaren, A. José Ramón Eguillor-en, estudio argi hau; agirian dago A. José Ramón Eguillor-ek Fontanaren Loiolako monumentu-etxearen historiaz ia dena dakiela. Pozik eskaintzen du ere, bai maketaren aldetik bai argazkien aldetik guziz edizio eder hau, Etor edit-etxea nor den ondo agertzen duena.

Loiola hasieratik espiritu-sinbolo bat izan da. Erljio-turismoak Basilikan eta San Inazioaren jaiotetxean bere zeru-gogoen leku bat aurkitu du. Baina, horrez gainera, Loiola kultura-sinbolo bat da, Gipuzkoak sortutako arte-obarrik berezietakoa.

Foru Aldundiak orain dela gutxi Loiola ber-eraikitzeke proiektu haundia hasi zuenean, haatik eman zuen pauso hori, Monumentuak gordetzen zituen meritu haundienak jende gehienarentzat ez-ezagunak zirela uste zuelako. Horregatik Loiola berriz agertu behar zen. Bere arte eta historia geure jatorriko kultur-ondarea bait zen.

Gure Erdi-Aro beheko feudalismoaren historiak, bere Ahaide Nagusien eta Herrien arteko talde-gudekin, XV. mendean, Oñaz taldeko Loiola sendian bere zantzuak utzi zituen. Ilustraziñoak XVIII. mendean bere expropiazio eta restituzioekin ez zuen Loiola jo gabe utzi. XIX. Mendeko karlista eta liberalen arteko gudak Loiola bataren alde eta bestearen aurka jarri zuen. Eta XX.mendeko historia ere ez da Loiolan bere urratsak utzi gabe igaro.

Loiolako arte-obra Loiola bera da; hori agertzen du bere nahas ezineko kanpo-orrazeak; hori, bere monumentu-eskailerek eta barneko bailagibel ederrek. Italiako Carlo Fontanaren barrokoa eta tokiko maisuek sartutako aldaketak, Loiolan, antzetsu bildu dira eta XVIII. Mendeko barrokismoaren estilo klasiko eta modernoaren artean elkargune bat aurkitu dute. Harrigarria da, bestalde, nola eraiki zuten hiri-monumentu bat landa erdian, nola saiatu ziren Iraurgi ibarreko mendi eta oihanak Berniniren arte eta kultura goiarekin elkartzeko.

Gipuzkoako Aldundiak Loiola: Historia eta Arkitektura, edizio eder hau pozik eskaintzen du. Zera uste du ziur, Loiolan, Inigo jaio zenetik bostehun urte betetzen direlako, munduko bost aldeetatik biltzen den jende ikasiari obra on bat eskuratzen diola, eta 2000. urtean sartzera doan gure Gizarteari bizi-malla goratzen lagunduko diola.

1991, Ekainak 1.

Imanol Murua Arregi

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Juan Jose Zubimendi Imaz

Hirigintza, Arkitektura eta Ingurugiroko Foru Diputatua

SARREA

Hogei urte baino gehiago da ni Loiolara destinatu eta etorri nintzela, eta handik gutxira hango Historia-Arkibua zaintzeko kargua eman zidaten. Horregatik, ez San Inazioaren figura bakarrik, baina haren etxe eta Santutegia ere bertagotik ezagutzeko aukeran jarri nindutenez gero, poliki-poliki zera ikusten joan nintzen, Arkibo hartan Monumentu-Etxe haundiari zegozkion dokumentu asko zeudela argiratu gabe edo ia inork ere ezagutzen ez zituenak.

Gauzak horrela zeudela, Loiolara aleman batek idatzi zuen, Hellmut Hager-ek, Pennsylvania-ko Unibertsidadeko arte-irakasleak. Gizonak Carlo Fontana berezi estudiatu zuen ordurako, eta gainera zorionez haren Loiolako proiektuen -zoritxarrez galduen- dibujo bat agertu zuen Erroman, eta dokumentu gehiagoren atzetik zebilen.

Bestalde, Madriden Rafal M^o de Hornedo S.I. aurkitzen zen, literaturan eta arten kritikoa famatua. Honek, 1956. urtean, San Inazioaren heriotzaren 4. mendeurrena ospatzen zelata, «Miscelanea Comillas» aldizkarian, Loiolako Basilika ederraz, ordurarte argiratu zen gauzik onena idatzi zuen.

Biei deitu nien 1975. urteko udan Loiolan biltzeko. Eta orduan zera adierazi nien, Loiolako Historia-Arkibuan agertutako dokumentu berriekin osatu zitzatela heuren lanak, monumentu-etxeaz ahal zitekeen estudiorik osatuena aurkeztearren, dokumenturen bat oraindik ere hutsegingo bazenere. Nik dokumentu berriak jarriko nituen aurrean, haien lanak koordinatuko nituen, eta gainera Loiolako historia eta arkitekturaz interesko puntu batzuk erantsiko nituen.

Batzar txiki gogoangarriak ale hau ekarri du. Bere gorputza, batez ere, Hager-en eta Hornedo-ren estudioek osatzen dute.

Hager-ek zera egiten du, Loiola egitean egin den proiektua berak agertu duen lehenarekin konparatu, eta jeneral, Loiolako monumentua gainontzeko Fontanaren obra eta proiektuekin konparatu, eta obra hontan haren zantzu bereziak argitzen saiatzen da.

Hornedok kronologiko konstrukzioaren historia unez-une kontatzen du, 1688an hasi zenetik 1767an eten arte, garrantziko haundieneko puntu eta uneak agertzen ditu, eta, detalle txikienetan ere, autore nortzuk izan diren eta obra nola egin zen ezagutzen saiatzen da.

Liburuaren muin-alde hori nere bi estudioek osatzen dute: bata, Ibero Maisuez, Inazio eta Frantzisko aita-sembleez, eta ze esku hartu zuten monumentua eraikitzen; eta bestea, ze San Inazioaren zentzu duen haren basilika ederrak.

A. Hornedok berak aurretik beste estudio bat jartzen du -Hager-en eta berearen aurrekoa-, hau da, nola gertu eta burutu zen Errege-Kolejioaren fundazioa.

Nere aldetik, beste tema batzuk jarri nahi izan ditut lehen, San Inazioaren Etxeari

doazkonak, haren etxea baita Santutegiaren muin-lekua eta bitxi horrentzako egin bait zen monumentu haundia haren bitxi-ontzi: historiko nola sortu den; San Inazioren egonaldiak bere etxean, haatik gurtzen bai dugu etxe hori; joandako gizaldietan ze erlijio-arte tratu eman zaion etxe horri; eta Loiolatarren jatorri-zuhaitzeko zein adar izan diren Etxe eta Maiorazgu horren jabe.

Eta gero, osatzeko gai gisan, zera erantsi dut, etxe honetan bizi izan direnen histori-sintesi bat, nola izan diren haiek legezko jabe, eta nola burutu ziren obrak XIX.mende azkenean eta oraingoan ere.

Azkenean, Loiolakoen dokumentu-eraskin luze bat, haien erroak eta historia azaltzen dituen.

Nere kolaboradoreei eskerrak ematen dizkiet ilusio osoz jaso zutelako nere proposizioa eta oso egonarriz lan egin dutelako, eta lan-eragozpen guziak eta gaisoaldiak ere superatu zituztelako.

Hau bakarrik erantsi nahi dut, liburu hau -lehenago adierazi dudan bezala- orain dela urte asko hasi ginela egiten, eta, arrazoi bat baino gehiagogatik, uste baino beranduago argitaratzen dela. Berandu horregatik batzuek Gipuzkoako barroko estiloaz eta Loiolako Santuetxeaz heuren tesi eta liburuetan, liburu honetako eta Loiolako Arkibu pribatuko material asko eta baliotsuak argiratu dituzte, lagun giroan eta sekreto eta isileko konfiatu zitzaizkienak. Geldi bedi hori egiaren alde eta adiskidetasun eta leialtasun legearen onerako.

Lan guziok San Inaziori -Loiolako Etxe eta Santutegiko gizandiari- eskaintzen dizkiot, haren hurrengo bi jubileu-urterako lehen-ale bezala; datorren urtean, 1990an, 450 urte betetzen baidira Erroman Jesusen Lagundia aprobatu zutenetik eta 1991an 500 urte Loiolan Inigo jaio zenetik.

Loiola, Apirilak 22, 1989
José Ramón Eguillor S.I.

LEHEN ZATIA: ATAURREKO TEMAK

Loiolako Etxe eta Santutegia

Loiolako San Inazioaren Santutegia Gipuzkoa Probintzi erdian aurkitzen da, Iraurgi Ibar ederrean, Urola ibai ertzaren eskuin aldean. Azpeitiko udalean dago, eta hiri honetatik harat hiribide luze eta zuzen-zuzenak eramaten du. Erromako *«Via della Conciliazione»* gogorazten du bideak, landa barnean badihoa ere, ez hiri barnean: azkenean, parkeko zuhaitz tartean, kupula haundia, bi dorre alboan, harri-zut batzuk inguruan, eta gainean, buru, linterna bikain bat.

Eraikuntza osoa monumentu haundi bat da -basilika, inperio-eskailerak, bailagibelak, klaustroak, gela zabalak- eta bere eskuin egoan bitxi bat gordetzen du: Etxe Santua, Loiolako Inigo Lopez-en jaiotetxea (1491); han bihurtu zen ere Jainkoagana Iruña defenditzen hartutako zauria sendatzen zihoakion bitartean (1521-1522).

José Ramón Eguillor S.I.

I. San Inazioaren Etxea historiko nola sortu zen

San Inazioaren eta haren anai-arreben aitarenaldetik, haien belaunaldiaren aurreko bederatzi belaunaldi ezagutzen ditugu, Oñaz eta Loiola (1) etxe bietakoak. Oñazko etxe hau mendian dago, Loiolatik ordu erdiko bidean. Oñazko Lope Garcia Jauna, Oñazko oinordekoa, ezagutzen dugun hirugarren jaun ospetsua, 1261an, *Loiolako Ines Andrearekin* ezkontzen da, ezagutzen dugun lehen andre ospetsu eta Loiola etxeke oinordekoarekin.

Ines Andre hau beste Ines Andre baten ama da, eta hura zazpi anai haien -San Inazioaren laugarren aitona- belaunaldikoen- ama izan zen. Zazpi anai hauek, San Inazio Iruñan zauritu bainobi gizaldi lehenago hain zuzen ere, giputzekin batera, Tolosa inguruan Beotibarko gudan esku hartu zuten, eta guda irabazi. Horregatik Alfonso XI.ak, Castilla Leongo erregeak, xingola bat eman zien zazpi anaiengatik zazpi mendela gorri, urre zaharreko fondo gainean- eta xingola hori, Oñazkoen irudi bezala agertzen da Loiolako lapikotzar eta otsoen eskubi aldean sendiko armarrarian (2). Lapiko haundiak aberatsa esan nahi du eta otsoak indarra.

Beotibarko zazpi anai horien seme bat -etxeke Jauna eta San Inazioaren hirugarren aitona - *Loiolako Beltran Yanez* Jauna izan zen. Haren garaian Castilla-Leongo erregeek Loiola Etxeari mesede haundiak egin zizkieten emandako serbitzuengatik: Juan I.ak, Azpeitiako Barrenola eta Aranaz (gaur Aratz) burniolen gainean 2000 marabediko betiko juro bat eman zion, eta Enrique III. ak Azpeitiko parroki-eleizaren eta haren menpekoen gaineko patronatua. Beltran Jauna Oñazko taldeko lehenengo artean aurkitzen zen, eta seguru asko hark eraikiko zuen, XIV. Mendeko azken urteetan, ganboakoen aurkako babes-gaztelu bezala, dorre-etxea (3); haren harresiak oraindik ere zutik daude Etxe Santuaren behaldea: ibar lauaren gainean, muino batean dago, 1,90 m. lodiko hormekin, eta haien barnean, etxearen lau aldeetan, bakoitzean babesteko bi kañoi zeuzkan, heuren dagokien kañoi-zuloekin, goitik beheraino harrizkoa zen, eta luzea probabile orain baino altuagoa.

Hurrengo jaunak, *Lazkao* Etxeko, Gipuzkoako burueneko, bigarren semeak, Loiolako oinordeko *Sancha Yáñez Andrearekin* ezkonduak -San Inazioaren aitaren aldetiko biraitonak dira- Loiolako ondareari gartsu eragin eta parrokiaren gaineko patronatua sendo eta sotil zaituz gainera, Ganboa aldekoek Dorre-etxeari egin eraso gogor bati eman behar izan zion aurpegi; baino Ganboatarrak ezin hartu izan zuten «harresi sendokoa baitzen» (4), Lope Garcia de Salazar-ek dioen bezala.

Ez zen gauza bera gertatu aitonaekin, *Loiolako Juan Pérez Jaunarekin*. Orduan guda ez zen Oñazko eta Ganboako taldeen artean, baina alde batean herriak eta herrietako anaidiak aurkitzen ziren erregeak lagun, eta bestean Jaun guziak; Jaunen indarkeria garbitu nahi zen. 1456. Urtean Jaunek guda-erronka bat bota zioten Gipuzkoako zortzi herrietako Anaidiari.

Arazo hau konpontzeko Castillatik IV. Enrique erregea etorri zen; hark jaunen dorreetxeak lurreratzeko agindu zuen -batzuk, Loiolakoa bezala, lana oso zaila zelako, moztuak bakarrik gelditu baziren ere- eta zigor horrez gainera, jaunak erbestera bidali zituen, Andaluziara, mairuen aurka gudatzeko: batzuk urte beterako, besteak birako, besteak hiru urterako, eta buraenak -San Inazioaren aitona bezala- lau urterako Jimena de la Frontera- ra, Cadiz ingurura (5).

Epea bete baino lehen, 1460an, erregeak itzultzeko eta etxea beste tokietan edo moztuaren gainean berriz eraikitzeko baimena eman zien, baina ez guda-dorre bezala, beste bizitzeko etxe bezala baizik. San Inazioaren aitona bere etxearen goikaldea arriluz egin zuen, mudejar estiloko sinfoas politekin (6).

Etxe horretan, erdi gaztelu, erdi mudejar-jauregian jaiotzen Inigo, probabile hamairu anai-arreben atzena (zortzi anai eta bost arreba), 1491. go urrian gutxi gora-behera (7).

II. San Inazioaren egonaldiak bere etxean

Inigoren ama, *Likonako Marina Sanchez Andrea* zen. Hurren Azkoitiako Balda etxetik zetorren, baina *Likonako Martín García Jaunaren* alaba zen, Bizkaiako Ondarroa herrikoa zelako, »Ondarroa doktore» deituaren alaba; seguru asko Inigok sei urtebete inguru zituela hilko zen.

Hurrengo urtean, 1498an, Loiolara *Araozko Magdalena Andrea* etorri zen, Bergarakoa zen eta Isabel Erregin Andre Katolikoaren ohorezko dama. Harek, Inigoren anai zaharrenarekin –Oñaz eta Loiolako Martín Garciarekin, ordutik 1538. arte etxeko oinordeko eta Jaunarekin- ezkondu zelako, Inigoren ezkon-arreba izan behar zuen eta egitan umearen bigarren ama.

Probabile, 1506. urte aldera, *Beltran Jaunak*, 1507an hil baino urtebete lehenago, Inigo, hamabost urteko gaztea, Arevalora (Avilara) bidali zuen, *Juan Velazquez de Cuellar Jaunaren*, Fernando Katolikuaren diruzain nagusiaren etxera. Sendi biok ahaidekoak ziren andreen aldetik, eta harat, etxe artako semeen artera, gortemoduan edukatzeko asmoarekin bidali zuten, eta gero, behin sasoiara heltzen zenean, gorte hartan bertan kargu on bat betetzeko. Lehenbiziko asmoa bete zen, baina bigarrena ustel gertatu zen, Juan Jauna eta haren inguruko guziak oso erori zirelako, Carlos Jauna, errege bezala Espainara etorri zenean.

Hamaika urteko tarte horretan, eta 26tik 30era Najerako Duke eta Nabarrako Errege Ordearen, *Antonio Manrique de Lara-ren*, serbitzuan igarotako hurrengo beste lau urtetan, Inigok maiz samar egiten zituen Loiolara joan-etorri batzuk (8).

Baina, bere garrantzi haundieneko egonaldia orduan egin zuen: frantzes erasoaren aurka Iruña defenditzen gartsu aritu eta eskuineko hanka oso zauritu ondoren, honera sendatzera eta indarberritzera ekarri zutenean: bederatzi hilabete egon zen hemen, eta orduan hiru operazio «ezer esan gabe eta eskuak gogor estutu beste keinurik egin gabe» sufritu ondoren, irakurri eta reflektitu bidez Jainkoagana bihurtu zen. Utz diezaiozun Inazio berari, hirugarren pertsonan bada ere, bere Erromes Bidean kontatzen, urte batzuk geroago A. Luis Goncalves de Cámarak idatzi zigun bezala (9):

»Eta munduko liburu eta nobelak, zaldunenak esaten zaienak, oso atsegin irakurtzen zituelako, bere burua onik aurkitu zuenean, denbora pasatzeko haietako batzuk eskatu zituen. Baina etxe hartan, ez zen hark irakurri ohi zuenik aurkitu, eta hala erdaraz idatzitako *Vita Christi* bat eta Santuen bizitzaren liburu bat eman zioten.

Liburuak behin eta berriz irakurtzean, han idatzitakoa pixkanaka gustatzen joan zitzaion...Izan ere, Gure Jaunaren eta santuen bizitzak irakurtzean, pentsatzen geratzen zen eta arrazoi hauek zizkioen berekiko: zer izango litzateke Frantzisko Santuak egin zuena egingo banu? Zer, Domingo Santuak egin zuena egingo banu? Eta horrela on aurkitzen zuen gauza asko pentsatzen zuen, eta bere buruari beti gauza zailak eta haundiak jartzen zizkion aurrean, eta, aurrean jartzean, errez egingo zituela iruditzen zitzaion...

Gero mundukoak etortzen zitzaizkion, eta haietan ere aldi luzean gelditzen zen ... Are, diferentzi hau zegoen: mundukoaz pentsatzean bizi gozatzen zuela; baina aspertu ondoren uztean, bere burua lehor eta goibel aurkitzen zuela. Aitzitik, santuak egiten ikusitako penitentziak egin behar zituela pentsatzean, ez orduan bakarrik, pentsatzean, zuen gozatzen, baina asperturik utzi eta gero ere, pozez eta alai gelditzen zen...

Ikasbide honetatik argi ez gutxi harturik, bere lehengo bizitza serio hausnartzen hasi zen eta haatik penitentzia haundia egin beharra zeukala pentsatzen...

Gogo santu hauek ikustaldi batek sendotu zizkion; honela: behin gauez esna zegoela, Andre Mariaren irudia Jesus haur santuarekin argi-argi ikusi zuen, eta hura ikustez luzaroan poz haundia hartu zuen eta lehengo bizitza...nazkatua gelditu zen».

San Inazioaren konbertsioa, Loiolan hasitakoa, Erromara eta Lur Santura ontziratzeko Barcelonara zihoala, bizi guziko bekatuen konfesio jeneral batekin bukatu zuen. Aitortza hori astiro egin zuen, hiru egunean eta idatziz, Montserrateko monako frantziar batekin; eta Manresan igarotakohamaika hilabetetan guziz sendotua gelditu zen konbertsio hori eta behin betiko orientatua. Han, bisio haundien artean eta gero «San Inazioaren Espiritu Ejertzizioak» deituko zaien ejertzizioak eginez, apostoliko bizitzeko erabakia hartu zuen arimak salbatzearen, ez batikbat hasieran egindako penitentzia gogorrak egiten bizitzeko.

San Inazio, bai, joan zen Barcelonara, Erromara, Veneziara eta Jerusalemara; baina, ez zioten han gelditzen utzi -berak nahi zuen bezala- apostoliko bizitzeko. Europara itzuli zenean eta apaiz ordenatu ahal izateko, Barzelonan hasi zen bere estudioak egiten, Alcalan jarraitu zituen eta Salamancan bukatu nahi izan, baina ezinean, Parisko Unibertsidadera joan zen zortzi urtebeterako. Han Filosofian doktoratu ondoren, Teologija ikasten hasi zen, eta bere ikaskideen artean bere sei lehenlagunak biltzen ditu; hauekin fundatuko du Jesusen Lagundia.

Loiolatik Jainkoagana bihurturik irten zenetik hamairu urtera, 1535an, San Inazio, medikuen aholkuari kaso eginda, Paristik bere jaioterrira itzultzen da. Baina, orduan, ez zen bere Loiolako etxera, aberats bat bezala alojatzera joan; Magdalena ospitalean gelditu zen, Azpeitiko sarreran, behartsu bat bezala. Hiru hilabete zoragarri igaro zituen pobre eta dotrina erakusten eta predikatzen; horrela bere gaztezaroko ejemplu txarrei ordain bikaina eman zien. Azkenean bakarrik, bere ezkon-arreba santuak, Araozko Magdalena Andreak behin eta berriz eskatu ziolako igaro zuen gau bat Loiolan, sendiko arazo itsusi bat konpontzen. Horrela esan zion atzen agur bere sendi eta etxeari, Veneziarako -han bildu behar bait zuen bere Parisko lagunekin denak apaiz ordenatzeko- eta Erromarako irten baino lehen. Ez zen gehiago etorriko. Erroman, bere bizitzako azken hemeretzi urtetan, Jesusen Lagundia fundatu zuen (10).

III. Etxe Santuaren barruari historiko ze tratu eman zion

Liburu honetan Loiolako monumentu-etxearen historia egiten hasi baino lehen, ikus dezagun pixka bat San Inazioren etxea bera edo Etxe Santua -monumentu haundiaren muina edo bitxia-gizaldietan zehar ze tratu eman zaion aztertzeko.

Etxea kanpotik -eraikuntza berri barruan estaliegia edo itoegia badago ere- San Inazio jaio zenean eta han bizi zenean bezala dago gutxi gora-behera; baina, barrutik, aldakuntza asko eta haundiak jasan ditu. Oso goiz hasi ziren aldatzen. Lehenbizi, Juan de Borja Jauna -1552etik ezkontide Jauna, San Inazio artean ere bizi zela-, eta gero jesuitak 1682an han bizitzera etorri zirenean (11).

Hau gaurko ikusle berriak, bere histori eta arkeoloji-zentzu berriarekin, ezin ulertu du, monumentuak aldatu gabe ikusi nahi bai ditu, izen haundia eman zioten pertsona famatu haiek bizi zirenean zeuden bezala. Hala da, denok ahal balitz Loiola izan zen etxearen antzekoena ikusi nahi genuke. Alabaina, zer gertatu den explikatuz beharra dago.

Ez dakigu ze sentimendu izan eta adierazi zituen *Xabierko San Frantziskok*, 1540an, Portugalera eta Indiara zihoala, bidenabar, Erroman Inaziok bere iloba Beltran Loiolako Jaunarentzat konfiatutako karta entregatzera Inazioren etxera heldu zenean (12). Cienfuegos Kardenalak bere Bizitzan Borjako San Frantziskoz zera kontatzen digu, hamaika urte geroago, Gipuzkoan sartu eta beste ezer baino lehen Loiolako etxea bisitatzera joan zenean, haren horma eta zolei muin ematen zuela Aita Inaziori zeukakion debozioz (13); eta pixka bat geroago, Oinatin apaiz ordenatu zutenean, San Inaziori zeukakion debozioz ere, bere lehen meza bakarrik etxearen Antzinako Otoitz-lekuan eman nahi izan zuela.

1579. urtean, jesulagunen Castilla Probintzia-ko Bisitadoreak, A. Santiago de Avellanadak, Loiolako etxea bisitatu ondoren, eskutitz bat idatzi zuen Erromara; Lagundiko Jeneralari, A.A. Everardo Mercuriano-ri idatzen zion, eta han nabaritutako bidezko susmoa agertzen zion: «Ziur nago, etxe hura Lagundiarena izango balitz, Lagundiosoarentzat debozio bereziko santu-etxe bat izango litzatekeela, etxe hartan egon nintzen aldian argi ikusi eta nabaritu nuen bezala» (14).

San Inazioren konbertsio-gelari, hura beatu egin baino lehen ere, 1604. go inbentario batean, *»Aita Inazioren otoitz-leku«* deitzen zaio. Hura 1609an beatu egin zutenean, horren haundi egin zen harenganako debozioa, hurrengo urtean, 1610an, bai Azpeiti herriak, bai eta Gipuzkoako Batzar Nagusiak ere, Zumaiako San Pedro eleizan bildurik, Inazio Beatua heuren patroia deklaratu zuten (15), eta horrela Etxe Santua bisitatzera gero eta jende gehiago zetorren; eta areago oraindik 1622an Inazio santu egin zutenean. 1633. urtean beste inbentario batek, oso zehatz, «San Inazioren kapilako» eta haren kapila bihurtutako sakristiako atua ugaria zenbatzen du (16)

XVII. mende erdi aldera, 1655. urtean, ohiez-lako gauza bat gertatu zen. Ez genuke errez sinistuko, gauza horretaz Iruñeako Gotzaitegian irikitako prozesuan hogeita bost lekukok zinitzez aitortu izan ez balu: Martxoko 24an, Ostegun Santu gauean, Egiazko Gurutzearen penitentzi-prozesioa Azpeitiko kaleetan barna zihoala, Enparan zubia igarotzean, urrutian Loiolako Etxeak argi-argi distiratsen zuela ikusi zuten (17).

Den honek zera esan nahi du, Loiolako etxea, Inazio oso gogorra zutelako, oso goiz eta monumentu-etxe haundia eraiki baino askoz ere lehenago, *Etxe Santu* bezala ikusten hasi zela jendea. Eta ez oharkabea bezala, baino osoro oharturik, eta hori bai eleiz bai herri-agirietan.

Azkoitiko Residentzi-Kolejioan 1634tik 1653ra bitartean idatzitako dokumentu batek izenburu hau darama: «Loiolako San Inazio gure Aitaren *Santutegian* aurkitzen diren

ondasunen zerrenda; pertsona batzuek kapila hartarako emandako ondasunak dira, eta Azkoitiko residentzi honetan deposituan gordetzen dira, han kolejio bat fundatu arte, eta bitartean gure Aita Santuaren (Inazio-ren) jaia ospatzeko serbitzen dute, etab.», eta gero 1653. go beste zerrenda-zati bat dago; honela hasten da: »*Loiolako Santutegian* aurkitzen diren bitxien oroit-agiria... (18)

Formula honekin eta zentzu honetan oso nabaria da 1671an Fr. Pedro Rochek, Iruñeako gotzai frantziskorenak, emandako eta Loiolako Arkibuan (19) kontserbatzen den dokumentua: «Gipuzkoako Probintzian barna, gure obispaduari dagozkion herrietan konfirmatzera bide egiten ninhoala, debozio katolikoarekin Loiolako *Santutegi* argia (Loiolako Inazio Patriarka Santu eta Lagundiaren fundadorea etxe eta leku hartan jaio eta hazi zelako horrela deitua) bisitatu dugunez gero; eta Jainko gure Jaunak horren birtute harrigarriak jarritako toki hartan bertan oso edifikatu eta jaineratu ondoren, zera adierazi digute, *Santutegi* horretan urte tartean herriak bildu ohi diren egunetan, neurri gabeko abuso eta zabarkeri batzuk gertatzen direla, eta lotsik gorde gabe toki agurgarri horri irain egiten diotela; horregatik, Etxe Santuaren eta haren kapila ederrean jarria dagoen Santuaren Erlikiaren jaureskuntz haundiena nahi dugunez gero, eta hortik Jainko Gure Jaunaren ohore eta aintza haundiena sor dadila; eta lotsagabekeria horren aurka gure eskuan dagoen erremeio bat eskatzen digutenez gero, zera erabakitzen dugu: gauza horren ardura eta zaintza Usabarazako Martin Jaunari, orain Etxe Santu horretako Kapelluari, gomendatzen diogula, berak beharrezkoak iruditzen zaizkion zentzuzko bideak erabiliz, eta nahikoak ez badira, eleiz-gaitzespen bidez erremitu dezan; eta eleiz-zentsura horiek ezartzeko gure eskuak dezakeen eskubide guzia ematen diogu, eta beharrezko balitz, oraindik ere haundiagotzeko, eta erabil dezala leku horretan gure ordego osoa. Azpeitian, irailaren 25an, 1671an emana».

1676. urtean, Zuazolako Matias Ignazio Jauna, heriotz orduan, bere testamentua egiten hasten da, eta ez duela bukatuko ikustean, bere emazte Lasaldeko Ana Andreari eskubide ematen dio, bera hil ondoren hark buka dezan. Hura honela hasten da: «Jakin bezate eskubide-karta hau ikusten duten guziek, nik Oñaz eta Loiolako Matias Ignaziok, Calatrava ordenako zaldunak, Azpeitia herri honetako eta Azkoitiako auzoak, Loiolako Santutegi eta Etxondoaren eta hari dagozkion gauzen jabeak..., Loiolako Etxe eta *Santutegi* honetan ohean gaiso nengoela...» Eta honela bukatzen du: «... Loiolako etxe eta *Santutegi* honetan eman nuen...» Eta hilabete batzuk geroago Lasaldeko Ana Andreak, beste klausula asko eta askoren artean, honela jarraitzen du: «Baitere zera deklaritzen dut, Larraarko Joan Jaunari Loiolako *Santutegiko* kapellautzaren errenta edo estipendioa zaiola zor, lau urtebete serbitu duelako, hau da, urte bakoitzean hogeitamar belloiezko errial» (20).

Egin dezagun salto bat eta hel gaitezen Lagundiko Aitengana. 1682. urtean Etxe Santuaren jabegoa hartzera etorri ziren, eta hogeitasei urtebete bitartean han bizi ondoren, Etxe Santuaren inguruan eraikitzen doazen konstrukzio berriko lehen geletara aldatu dira. Badago Loiolako Arkibuan beste dokumentu nabari bat. Hark hau du izenburu: «1715. Loiolako Errege-Kolejioaren fundazioa». Dokumentu hau Francisco de Baza Erretoreari atributzen zaio (21). Laburtzeko, hasiera utzirik, honela jarraitzen du: Gureek «Loiolako Etxondo eta *Santutegiaren* jabe egin aurretik, sinesdunek hura *Santutegi* ospatsu bezala maiz bisitatzeko bazuten ere, eta XV. Gregorio Aita santuak 1622an betiko jubileua -San Inazioaren jai egun bezperatik zortzi egunerarte etengabe irabazi zitekeena-, eman bazion ere, gure eskuan dagoenez geroztik maizago bisitatzeko jendeak, ez bera aurkitzen den Gipuzkoa Probintzikoek bakarrik, baino bai eta Bizkaia Jaurgotik, Arabakotik, Nabarra erreinutik, eta guziz Kristau Erregearen mendean dagoen Frantzes Kantauritik. Eta motibo hau dago, Kapila Santuan jaunartzeko gogoz etortzen diren sinesdunek gure arteko

Konfesoreak prest aurkitzen dituztela eta oso astegin zaizkienak gainera Santuaren semeak direlako, haren mesedea iristeko bai datoz erromes. Kolejioak, bere barruan Loiolako Etxondo eta *Santutegia* daukala, etab.»

Orain Etxe Santua inplizito edo esplizito *Santutegi* bat den idea sakondu behar dugu, hori zaigu interes. Idea hori San Inazioren egunetatik etaharen heriotzatik bertatik datorkigu, gehiago oraindik hura beatu eta santu egin zutenetik, eta gehiago Jesusen Lagundiaren eskuetara aldatu zenetik (22).

Hortik ondoren berez sortu zen etxeari ze tratu eman behar zitzaion jakiteko araua: ez, Inazio pertsona haundi bat zelako, arkeoloji-araua bakarrik, baina Santu haundi bat oso senide Santua eta maitea zelako- santutegi- eta erlijio-araua. Santu baten eta horrelako Santu baten etxea? Oso maite dezagun, oso apaindu dezagun -hori bai, joandako gizaldietako barroko-estiloan edo barrokatuan- eta batez ere kapilak egin, kapila asko eta aldare asko, meza asko baino gehiago emateko eta entzuteko! Eta hori ez XVII.gizaldian eta hurrengoetan bakarrik, baina bai eta gure XX.gizaldi honen hasieran ere, Etxe Santuaren barrua osoa berritu zenean, usteldua edo zahartua hobetzen eta berritzen saiatu zirenean (23).

Zer lortu zen: zoritxarrez urteetan zehar eta aldakuntza asko egin direlako, etxe barruko material-elementu gehienak galdu badira ere, Inaziori historiko zegokiona gogoratu, hori zen beharrezkoena, eta gero, horren ondoan, jesulagunen tradizio aberatsa kontserbatu. Tradizio horrek Fundadorearen figura osatzen du eta hori ere gizaldietako historia da, zoritxarrez ere, apaingarri eta kapila mordo haundiegira erori bazen ere, zamatuegia gaurko arte-gustorako, baina historiaren, artearen eta pietatearen aldetik egiazko balioko elementu asko dituen.

Orain (1990-1991) San Inazioren jaiotzaren bostehun urte betetzen direla eta, obra haundia egin da Etxe Santua sendotzen eta birmoldatzen. Obra hauek helburu hau izan dute, etxea sendotu ondoren, bere santu izakera galdu gabe, Santua eta haren sendia jaiotako eta bizitako jauregi-dorre-etxearen antza ahal bezain beste recuperatu.

Obrak egitean, atarian etxeko atera igotzeko aldapa txikia agertu da, bai eta dorrearen egoaldean beste etxe baten hormaren zimentua ere. Zimentu horrek hiru metro baino gehiago zituen, eta horren gainean eraikitako gorputza San Inazioren aitona dorre-etxeari erantsi zion, dorre-etxea -IV. Enrike Erregak agindu zuelako 1457. urtetik moztua- berriz eraiki zuenean. Etxe barruan antzinako beste etxe baten zimentuak azaldu dira eta sukaldeko kebiderearen zuloa, janari-tokia, sapaldak, liburu-tokia...

Birmoldatzeari berari gagozkiola:

1. Beheko edo lehenengo plantak Oñaz taldeko guda-etxearen itxura gogorra iruditu nahi izan du.
2. Bigarrenak, sukalde inguruko nagusi-morroien sendi bizitza gogoratu nahi izan du.
3. Hirugarrenak, etxearen egoitz nagusia, eta han antzinako otoitz-lekua, arma-gela, San Inazio jaiotako etxeko Jaunen gelak, jan-tokia eta Jaun-saloi haundia.

Eta hiru egoitz hauetan, joandako gizaldietan zer izan ziren agertzeko eta gogoratzeko, erlijio-gai batzuk utzi edo jarri badira ere.

4. Laugarren eta azken egoitza osoa Santu-Etxearen erdi-leku eta tokirik bereziena bezala kontserbatu da, hau da, han dago -»Konbertsio Kapila» deritzan- gela; han bihurtu zen Inigo Jainkoagana. Laugarren egoitza horretan «Kapila» gela bera itxisamarra gelditu da -hala behar zuen ere-, kanpoko hotsik sar ez dadin barrura eta

ikusleen eragozpenik batere gabe meza emaneta otoitz egin dadin. Etxea ikustera datorrenak kristaldun leiho zabal batetik barrura begira dezake eta gero bere bidea jarraitu.

IV. Loiolako Maiorazgoaren eta etxearen oinordekoak

Kapitulu labur hau erasten diogu, ez historia osatzeko bakarrik, edo zeinen eskuetan egon zen ikusteko eta zeinen eskuetatik aldatu zen Loiolako Etxea Austriako Mariana Andre Erregin-Amaren eskuetara, eta handik nola pasa zen Jesusen Lagundiaren eskuetara gogoratzeko bakarrik, baina bai eta Loiolan zein San Inazioaren sendiko ondorengok jarraitzen duen zati baten jabe izaten ikusteko ere, lehengo jabeek Etxea eskuz aldatzean baldintza hori ipini bait zuten, Etxearen orde, konstrukzio berrian, beste zati bat eman behar zitzaiela (24).

Sendiaren eskuz-eskuko maiorazgua -Oñazko eta Loiolako Etxeek heuren posesioekin osatzen zutena- San Inazioaren anai eta etxeko nagusi Martin Jaunak, errege-enperadore Carlos Jauna-ren eskubidearekin, lehenbizi 1518an eta gero azkenik 1536an, hil baino bi urte lehenago, *errege-maiorazgo* egin zuen, sendoago geldi zedin.

Hasieran ondarearen transmisio hau ohi bezala egin zen aitengandik semeengana hiru belaunaldietan. *Martin Jaunaren* ondorengo bere semea *Beltran Jauna* izan zen; Beltran Jaunaren ondorengo bere alaba *Lorenza Andrea*, Juan Jaunarekin, Borjako San Franciscoren bigarren semearekin, ezkondua; Lorenza Andrearen atzetik bere alaba *Leonor Andrea* etorri zen, Borjako San Franciscoren iloba batekin, Pedro de Centelles Jaunarekin ezkondua. Senar-emazte hauek ez zuten seme-alabarik izan, eta, 1613an Leonor Andrea hiltzean, maiorazgua bere ahizpa Magdalena Andrearen eskuetara pasa zen, ordurako alarguna eta seme-alabarik gabea, Juan Urban Pérez de Vivero Altamirako Bizkonde eta Fuensaldañako Konde Jaunarekin ezkondua egon zena.

1625. urtean Fuensaldañako Emaduke Magdalena A^a hil zenean, oso pleito (25) luze bat sortu zen, maiorazguan ondorengo nor izango, Loiola-ko alboko bi adarren artean: *Azkoitiako Floreaga Etxeko Zuazolak* alde batetik (Martin Jaunaren biloba bat, Beltran Jaunaren alaba, Lorenza Andreoinordekoaren ahizpa, Magdalena A^a ere zeritzana, 1557an Zuazolako Pedro Jaunarekin ezkondu zen), eta *Oropesa eta Alcañices-ko Markesak* bestetik. Hauek Martin Garda III. Jaunaren (c.1549-1598) (Martín Garcia II. Jaunaren semearen, Martín Garcia I. Jaunaren, Maiorazgua fundatu zuenaren birsemearen) ondorengoak ziren. Martín Garcia III.ak Peru eta Chilen Espainiaren alde serbitzu haundiak egin zituen eta Beatriz Clara Coyarekin, azkeneko enperadore inkaren ilobarekin, ezkondu zen.

Behin eta berriz gora jo ondoren, azkenean Errege-Kontsejuak, 1668an, auzian Azkoitiako adarraren alde epaitu zuen, *Zuazolako Matias Igancioren* alde. Baina, gutxi gozatu zuten Zuazolakoek heuren garaipena Loiolako Jaun bezala, 1676. go Uztailaren 3an hil bait zen Matías Ignacio Jauna, eta hurrengo urteko -1677ko- hil berean eta egun berean hil bait zen ere bizirik gelditzen zitzaien seme bakarra, *José Ignacio*. Eta horrela, maiorazgua, batere diskusiorik gabe, auzia galdutako Peruko adarrera pasa zen, eta, hala, *Teresa Dominguez de Velasco* Andrea egin zen Loiolaren jabe. Teresa hau Luis Antonio Enríquez de Cabrera y Toledo Jaunarekin, Castillako hamargarren almirantearen semearekin, ezkondua zegoen. Hauek jarri zuten 1681an Loiolako etxea Austriako Mariana Erregin-Amaren eskuetan, eta honek, bere aldetik, 1682. urtean Jesusen Lagundiaren eskuetara pasa zuen (26).

Teresa A^a 1711an hil zen eta Luis J^a 1713an, eta oinordeko bere seme biak izan zituzten: lehenbizi *Pascual*, ondorengorik gabe 1739an hilzena, eta gero *Almudena A^a*, ondorengorik Gabe ere 1741an hil zena.

Deskribitutako Loiolako Etxeko hiru adarrak ahitu zirenean, 1741an *Antonio de Idiaquez Garnicak* aurkeztu zituen zeuzkan eskubideak. Antonio hau Granada de Egako 2. Dukea zen, eta *Marina Usoren*, -Martín Jaunaren (27), Maiorazgua fundatu zuenaren alaba txikiaren- ondorengoa. Eta adar horretatik datoz gaur egungo Granada de Egako Dukeak.

Oñaz-Loiolako Jaunak eta Errege-maiorazguan lehen ondorea

Oñazko Lope c. 1180 Oñazko Garcia López c. 1221 Oñazko García López Loiolako Inés=Loiolako Juan Pérez c. 1280

Loiolako Juan Pérez Jauna=Loiolako María Pérez

Loiolako Beltran Ibañez + c. 1405 (Loiolako dorre-etxea egin zuen)
=Leeteko Ochanda Martínez

Loiolako Sancha Ibañez + c. 1464=Lazkauko Lope García + c. 1441

Loiolako Juan Pérez=Iraketako Sancha Pérez

Oñazko Beltrán Ibañez + c. 1507

=Likonako Marina Sánchez

Martín Garcia I c. 1478-1538 (<u>S. Inazioren anaia. Errege-Maiorazguaren fundadorea</u>)

=Araozko Magdalena + 1539

Oñaz eta Loiolako Beltrán + 1549=Recaldeko Juana

Oñazko Lorenza c. 1538-1575=Borjako Juana 1536-1606

Leonor +1613 ondoren gabe=Pedro de Centelles

Magdalena (haren ahizpa) + 1625 ondoren gabe=Juan Pérez de Vivero, Fuensaldañako kondea

1625. urtean Magdalena A^a hil zenean, pleito luze bat hasi zen Azkoitiako Zuazolako eta Peruko Oropesako Markesen artean. Auzi horretan, azkenean, 1668an, Errege-Kontsejuak Zuazolako alde epaitu zuen.

Loiolako Errege-Maiorazguan 2.en ondorea.

Martín Garcia I + 1538=Araozko Magdalena + 1539

Oñaz eta Loiolako Beltrán + 1549

=Recaldeko Juana

Oñazko Magdalena (<u>Lorenza oinordekoaren ahizpa</u>) c. 1540-1600

=Zuazolako Pedro + 1578

Zuazolako Matías +1619=Eizaguirreko Ana

Zuazolako Pedro + 1641=Eguigurengo Maria

Zuazolako Matías Ignazio (1668an <u>heredatu zuen</u>)+ 1676=Lasaldeko Ana

Zuazolako José Ignacio + 1677. Ondorenik gabe.

1677an Zuazolakoen ondore-adarra ahitu zenean, diskusio gabe oinordeko Oropesako Markesak egin ziren, eta haien eskuetatik dorre-etxea 1681an Austriako Mariana Andrearen eskuetara aldatu zen eta hurrengo urtean (1682) Jesusen Lagundiaren eskuetara.

Loiolako Errege-Maiorazguaren 3.en ondorea.

Martín Garcia I + 1538=Araozko Magdalena + 1539

Martín Garcia II (<u>Beltran oinordekoaren anaia</u>)c. 1520-1560.=Oyangurengo Maria Nicolasa

Martín Garcia III c. 1549-1598=Beatriz Clara Coya

Loiola eta Coyako Ana Maria + 1630

=Borja eta Almansako Juan Enríquez, Alcañices-ko Markesa+ 1634, Indietan lehen Oropesako Markesak.

Almansako Juan Enríquez 1615-1675=Juana de Velasco Guzman + 1688

Teresa Dominga Enríquez de Velasco +1711 (<u>1677an here-datu zuen</u>).=Luis Antonio Enríquez de Cabrera +1713

Pascual Enríquez de Cabrera + 1739 ondorenik gabe=Josefa Pacheco

M^a Almudena Enríquez ede Cabrera (<u>haren ahizpa</u>), <u>azkenOropesako markesa</u> + 1741 ondorenik gabe.

1741an Oropesako Markesak ahitu zirenean, oinordekoAntonio de Idiaquez de Garnica, Egako Granadako II Duke Jauna egin zen, Maiorazgoa fundatu zuenaren alaba txikienaren ondorengo zelako.

Loiolako Errege-Maiorazguaren 4. ondorea.

Martín Garcia I + 1538

=Araozko Magdalena + 1539

Oñazko Marina Uso (<u>Beltrán oinordekoaren arreba txikiena</u>).

=Aquerzako Esteban

Aquerza Loyolako Marina=Iraeta Eguiako Ortuño

Iraetako Catalina=Irrragako Diego

Irrraga Iraetako Ines=Eguia Gongorako Francisco

Eguia Irrragako María Luisa=Idiaquez Isasiko Francisco

Idiáquez Eguia Pedro

Idiáquez Garnikako Antonio, Egako Granadako II Dukea

=Garro-Xavier Echeverzeko M- Isabel, Xavierko V. Emakondea.

<u>Antonio Jaunak 1741an heredatu zuen</u>. eta haren oinordekoak dira gaur egungo Egako Granadako Dukeak.

[N.B. Jenealoji-kuadro guzi hauetarako ikus Dalmases], Fontes Documentales, [Roma 1977, 816-823 oo].

Oharrak

- 1.- CANDIDO DE DALMASES A.ak bere *Fontes Documentales de S. Ignatio. Documenta de S. Ignatii familiaeta patria, iuventute, primis sociis, obran, Monumento Historica Societatis Iesu, Romae*, 1977, kolekzio haundiko 115.liburuan, azken aldera 732-824 orrietan, bere ikerlanen resumen estu bat eman du, eta, jeneral, San Inazioaren sendiaren Jenealojiaz egindako estudio guzien resumen bat; jenealojia hori 1180tik 1741ra iristen da. Estudio horretan oinarritzen gara batez ere sintesi hau egiteko, eta irakurleak zehatzago zerbait jakin nahi badu, jo beza Jenealoji-estudio horretara, interes bereziko puntu partikular baterako bakarrik aitatuko ditugu iturriak berak.
- 2.- Oñaz-Loiolako sendi-armarria Martín Garcia Jaunak, San Inazioaren anaiak erabaki zuen betiko. Hori, Maiorazgua eraikitzeke dokumentuan, Carlos V.aren eskubidearekin egin zuen, lehen 1518an eta gero betiko 1536an. 1518an egindakoaren zirri- borrua Loiolako Histori-Arkibuan aurkitzen da. 1536koaren orijinala Egako Granadako Villahermosaren Duke-Arkibuan dago, eta haren lehen orritik hartu zuen A.Dalmases-ek *Fontes Documentales* obran reproduzten duen marrazkia: ikus obra honetan, 472-506 orrietan, dokumentu osoa eta haren estudioa.
DALMASES-EK berak *Oñaz-Loiolako etxearen armarriaz*, R.S.B. de los Amigos del Pais Boletinean, XXXIV(1978) urtean, 636-639 o., estudio labur bat argiratu zuen.
3. Bere testamentuan, 1405.go Urtarrilan egindakoan, bere emazteari hitzegiten diola, honela esaten du: «Nik hau nahi dut, zuk, Ochanda Mz. Andreak, *biok berriz eraiki dugun* Loiolako Dorre-Etxearen erdia eduki dezazula, eta harekin batean bai eta Loiolako toki eta orubean dagoen tolare-etxea ere, eta orubeari erasten zaizkion errotak (=igarak) erebai». Beherago bere seme Juani ondarez Dorre-Etxea, Oñaz-koa eta parrokiaren gainean eta Barrenóla eta Aranazko burniolen gainean dituen eskubideak uzten dizkio (Juan hau Castillan gazte hilko zen). Ikus HENAO-VILLALTA- N, *Averiguaciones de las antigüedades de Cantabria*, VI, 289-290 orrietan. Tolosa, 1895.
- 4.- L. G. de Salazar, *Las bienandanzas e Fortunas*. XV.mendeko kodize bat. Textu osoaren lehen edizioa... Rodrí-guez Herrero Angel-ek. Bilbao, 1967, 1. XXII, IV t., 170-171 o.
- 5.- Bai jaunen erronkaren bai erregearen epaiaren textuaren, XVI gizaldiko kopia bat dago LHA, 1-41, 3z.
- 6.- Barkamenaz eta moztutako etxeak berriz eraikitzeke eskubideaz -den hori baldintza batzuen behan- IV Enrique erregearen bi eskutitzen kopiak dauzkagu, Segovian 1460.go Uztailaren 23 eta 26an fetxatuak. Kopia hauek frantzesera itzuliak daude, eta orain dela gizaldi bat A. LEONARDO CROS-ek Espainako zenbait arkibutan aurkitutako dokumentu-kolekzioko zati bat dira. A. CROS hau San Inazioaren historigile berrien aintzindari izan zen. Histori-jakintza bidea ziurrago egin bazezakeen ere, balio haundiko tesoro bat da.A. M. Olphe Galliard-i, Jesulagunen Toulouse Probintziako arkibozainari esker dauzkagu dokumentu horiek, (han aurkitzen bai da «Cros Fondua»), behin 1971. urtean Loiolara visita bat egitera etorri zenean ekarritakoak dira.
- 7.- Jaiotegunaz, ikus DALMASES-en resumen bat, FD, 170 o.
- 8.- Jainkoagana bihurtu baino lehenagoko eta bihurtu inguruko San Inazioaren bizitzaz A. PEDRO DE LETURIA-ren estudio asko genituen, batez ere, *El gentilhomme Iñigo López de Loyola en su patria y en su siglo* (Labor Editoriala,Pro Ecclesia et Patria Kolekzioa, 20 z., len ed. 1949) eta haren heriotzaren ondoren A. IGNAZIO IPARRAGUIRREK idatzi hauetan bildu zituenak: *Estudios Ignacianos, I Estudios Biográficos*, Roma, Institutum Historicum, 1957. Orri horietan, gainera, A. Leturiaren S. Inazioaren bibliografía osoa eskaintzen da.
Geroago, beste estudioen artean, A. JOSE M^a RECONDOK egin dituenak erantsi zaizkie: *Itinerario de Iñigo de Loyola herido Pamplona-Loyola*, »Razón y Fe«, 153/1956,205-220 o., eta *El Proceso de Esteban Zuasti. Primer documento oficial de la herida de Iñigo de Loyola en Pamplona*,»Principe de Viana« aldizkarian, 82 eta 83 z., 1961, 5-10 or.
Azkenaldi honetan A. LUIS FERNANDEZ MARTINEK, Castillako gaiak berezi ezagutzen dituenak, oso harriz utzi gaitu, San Inaziori buruz oso aurkitu ederrak egin dituelako Simancasko arkibuan. Bere ikerlanak, batez ere, *Los años juveniles de Iñigo de Loyola. Su formación en Castilla*, liburuan (Caja de Ahorros Popular de Valladolid, 1981) eskaini dizkigu. Oraingo gure gaiari gagozkiola, interes berezikoak dira Juan Velazquez de Cuellar Jaunaz idazten dituen I eta II atalak, bai eta Iruñako Gazteluko Alkaidearen aurkako -Miguel de Herrera-ren aurkako- prozesuaz idazten duen V.ena ere.
- 9.- Ikus *Obras Completas de San Ignacio de Loyola*, 2en edizioa, BAC. Madrid. 1963, 67-150 or.
- 10.- Paristik Azpeitira 1535an S.Inazioaren etorriaz, hurabeatu egiteko 1595an Azpeitiko Prozesua da oinarritzko dokumentua. Lehen kodize agurgarria Loiolako Histori-Arkibuan gordetzen da (LHA, 1- 3-1). «Moumumenta Historica S.I.n» argiratu zen. Series IV. Vol. II, pag. V-XII et 167-259.Matriti. 1918.

- Dokumentu horren datuek A. JUAN M^a PEREZ ARREGUIK idatzitako histori-monografia politaren - *San Inazioen Azpeitia* liburuaren- 3.kapitula egiten dute. 1^{en} edizioa, Madrid, 1921; 2^{en} edizioa, Zarauz, 1956.
- 11.-San Inazioen etxean 1682an bizitzera sartu zen (eta 26 urtebete biziko zen) lehen bazkun txikiaren Kontu-liburulan (LHA, 2-3), zera esaten da, Uztailaren 13tik Urriaren 31 arte aritu zirela etxea konpontzen, eta mugatuago, zera esaten du adibidez: «egindako obrak, bizilekuak, ofizinak, eleiza (=Sortzez Garbiaren kapila), etxean eta kapilan (=Antzinako Otoitz-lekuan) jarritako bitxiak», etab.
 - 12.- Ikus SCHURHAMMER-AREITIO, *Francisco Javier*. Haren bizitza eta garaia. Espain-edizioan 2^{en} liburua, 414-417. Bilbao, 1969. Xabier-ek Erromatik San Inazioen aldetik haren iloba Beltran Loiolako Jaunarentzako zekarren eskutitza 1540.go Martxoaren 20koa da.
 - 13.- 1^{en} edizioa, Madrid, 1717, 164 or.
 - 14.- Dokumentua «Archivum Romanum» S.I.koa da (ARSI, Hisp. 128, f. 260 v-261r), eta DALMASES-EK reproduzten du, FD, 825 or.
 - 15.- Azpeitiko San Inazioen eta Euskal Herrien patroigoez, ikus HENAO-VILLALTA, VIL 295-312 or.
 - 16.- Lehenago Meza Antzinako Otoitz-lekuan bakarrik ematen zen; santu egiterakoan, Santua gaiso egon zen gelan ere aldare bat jarri eta meza ematen hasi ziren. Horrela gogoratzen eta esaten zion bere seme apaiz bati -kontatzen duenari- «sasoi hartan han bizi zen» emalekuko batek, Salamancako Unibertsidadeko liburutegiko dokumentu baten arauera (Ms/435, Jesulagunak. Histori-paperak: «Varios» liburuan, fol. 13). Referentzi hau Carmen Frías F.I.ri zor diot.
 - 17.- Dokumentu asko LHAan, 1-3-3, 7 z.
 - 18.- Orain arte aitatu ditugun inbentario guzien original edo kopiak LHAan 1-1-7 karpetan konserbatzen dira.
 - 19.- LHA, 1-4 «Etxe Santua» kaja: «XVII.gizaldiko dokumentuak». HENAO-VILLALTAK reproduzten du: VII,273 or.
 - 20.-LHA, 1-13, 13 z.
 - 21.-LHA, 1-4-1, 34 z.
 - 22.- San Inaziori bere Etxe Santuan daukakioten jaieraz, zera ikus daiteke: XVII.gizaldian HENAO-VILLALTA V.85-163 or. XVIII. gizaldian *Acta Sanctorum de los Bolandistas*, 7.liburua, Uztailaren 31.eguna, batez ere San Inazio-ri dedikatua, 777-783 or.; XIX gizaldian A. RAFAEL PEREZ-EN liburu bitxia, *La Santa Casa de Loyola*, Bilbao, 1891, 47 eta ondorengo or.; eta gehienbat XX. Gizaldirako gai ugari aurkitzen da LHAan, 1-3.
 - 23.- Etxe Santuaren azken birmoldaketa Manuel M^a Smith Ibarra Jaunak dirijitu zuen 1905tik 1919ra. Bilboko arkitektu argi honetaz, Bilboko ere M^a Teresa Paliza Monduate Andreñoak, Salamancako Unibertsidadeko arte-irakasleak, oraintxe (1988) ere doktore-tesia argiratu du: *Manuel María de Smith Ibarra, Arkitektua. Bizkaiko Foru Aldundia*. Loiolako Etxe Santuaren birmoldaketaz 406-409 orrietan idazten du.
 - 24.- Gai guzi honetarako, hasieran esan bezala, oinarri DALMASES, FD, «Genealogía» 732-824 orrietan hartzen dugu.
 - 25.- Auzi ospetsu eta luze-luze honetaz «Genealogía» barruan DALMASES-EK kapitulo berezi bat jartzen du «Delite pro possessione maioratus loyolensis (1626-1668), 816-819 or. la dena LHAko, 1-1, dukumentazio ugarian oinarritzen, eta batez ere *Memorial aiustadoren* (1-1-2) dokumentazioan; han prozesuko zati inpreso behinenak biltzen dira.
 - 26.- Ikus DALMASES, FD, 814-815 or. Bai eta liburu hontan bertan ere HORNEDOREN estudioa *Fundación del Colegio e Iglesia de Loyola*.
 - 27.- Dokumentuak Tolosan Gipuzkoako Arkibu Jeneralean daude: «Corregimiento. Civiles. Lecuona 2468, 99 z.», eta Azkoitian 1741.go Agostuaren 8an emandako eske eta epaiaren zati behinena DALMASEK reproduzten du, FD,820-823 or.

Loiolako San Inazioren errege-kolejioaren eta eleizaren fundazioa

Sarrera

Rafael M. de Hornedo S.I.

Artikulo hau «J. Ignacio Tellechea Idigorasi omenaldian» Donostiari buruz Boletín de Estudios Históricos aldizkarian argiratu zen 16-17 II (1982-1983). Orain hemen berriz argiratzen da -honerako egin zen hain zuzen ere- zeredozer korrejitu eta haunditu badugu ere.

Loiolaren fundazioaz dokumento asko dago; A. Gabriel de Henaok ezaguterazi ditu (1). Alabaina, dokumentu berri eta askok, lehenago genekiena osatzen digutela, oso fundazio zail hura nola hasi zen zehatz-mehatz inbestigatzeko bide ematen digu, eta horrek fundazio hura osoago, argiago eta mugatuago ikusteko aukera.

Has gaitezen bide egiten abia-UNETIK, eta horizera da, Castilla Probintziako jesulagunek heuren fundadorea jaiotako eta Jainkoagana bihurtutako etxearen jabe egin nahi zutela.

Gogo horiek oso bide onetik zihoazela, zerak agertzen du, Loiolako sendi eta etxeoko pertsonak, XVI.gizaldian eta XVII.aren hasieran oso disposizio onean aurkitzen zirela arazo horren inguru; horrela jasotzen du A. Cándido Dalmases S.I.koak bere liburuaren azkenean: *Fontes Documentales de S. Ignatio de Loyola Romae*, 1977,824-826 or. Handik ateratzen ditugu dato hauek eta zati batzuk reproduzi egiten ditugu.

Lehenbizi Marina Usoa Andrea, San Inazioren anai Oñaz eta Loiolako Martín Garcíaren alaba txikiena. Martín honek fundatu zuen maiorazgua Carlos V.aren eskubidearekin bere seme Beltran Jaunarentzat. Marina Usoa Loiolako etxearen administradorea zen. Bere iloba-biloba Lorenza Andreak, aitzitik, eta bere beste iloba-biloba Leonor Andreak, maiorazguaren oinordekoek, Loiolatik at bizi behar izan zuten, beren senarrek, Borjako Juan eta Centelles-ko Pedro Jaunek, betebeharreko karguengatik. Horrela, bada, Santiago de Avellaneda Aitak, Castilla Probintziako Bisitadoreak, Logroñotik Everardo Mercuriano Aita Jeneralari 1579.go irailaren 29an idatzitako eskutitzan, honela ematen dio Loiolako etxean egindako bisitaren berri:

»Loiolako etxera etorri nintzen; han, etxeakoandreak, gure Aitaren ilobak, nere laguna eta ni bi egun eduki ginduen, eta orduan nere espiritua bizi-bizi kontsolatu zen, bai gure Aita non jaio zen eta Jainkoak haren gaisoaldian ze tokitan hotsegin zion ikusten nuelako, bai andre hark gure Aita hasieran Jainko errukitsuak nondik bideratu zuen zehatz-mehatz kontatzen zidalako...»

»Andre hau, Loiolako Maria deritzana, bildur zen etxeoko Jaunak, Gandiako jaunek, etxe hura Azpeitian duten gainontzeko eskubidearekin salduko ote zuen, eta etxea beste jendeen eskuetara etorriko ote zen, eta hark oso bizi zera nahi zuen, etxe hura, bederen, Lagundiaren eskuetara etor zedila, eta litekeen gauza izango zela esaten zidan Gandiako Jaunek saltzen bazuten, beste andre batek, María Nicolás deritzanak (Loiolako Martín García II.aren emazteak, Loiolako Martín García III.aren, Peru eta Chilekoaren aita eta amak), Azpeitian bizi denak, bere testamentuan utzi digunarekin erosten bada, eta bere seme Loiolako Martín Garcíarekin, Nueva Españan bizi den gure Aita Inazioren ilobarekin, erabakia daukana kontuan hartzen badugu, hark ere horixe nahi bai du, Etxearen ondarea Lagundiaren eskuetan geldidadila, gure Aitaren eta haren sendiaren egiazko ondorengo ginelako...» Ziur nago,

etxe hura Lagundiarena izango balitz, Lagundi osoarentzat debozio bereziko santu-etxe bat izango litzatekeela, etxe hartan egon nintzen aldian argi ikusi eta nabaritu nuen bezala»...

Marinak aitaturiko Loiolako Andrea, Borjako Leonor Andrea zen. Bai hark bai Loiolako maiorazguan jarraitu zion haren ahizpa Magdalenak, Loiolako etxea Jesusen Lagundiaren eskuetan jartzeko asmoa zuten.

Leonor Andreari gagozkiola, A. Luis Vazquez-ek, Jeneralari Azkoitian Lagundiak zuen etxetik idaztean, zera azaltzen zion, ze eragozpen sortzen zuen Lagundiaren kolejio bat Azkoitian onartzeko Loiola urbil aurkitzeak:

»Fundazio hau onartzeko litekeen eragozpen osoa, hemendik sortzen da, superioreek eta Lagundi osoak Loiolako etxearen jabe egiteko duten asmotik, hortan dagoeneko saiatu direla ematen ere bai du; eta zera diote, Borja eta Loiolako Leonor Andreak, gaur egun etxe haren jabeak, eman duela eskubidea errege-baimena iristearren etxe hura Lagundiari emateko eta haren orde beste bat lortzeko, eta hori (sic) Leonor Andreak bere dirutik egin eta landu nahi duela....»

1603.urteko Castilla Probintzi-Batzarrak, bere 24.postulatuan, Loiolako etxea erosteko baimena eskatzen du, hortarako dirua zentsuran hartu edo haren orde beste etxalderen bat eman behar bada ere». Erromatik 1604.go Apirilari jasotako erantzuna, ez daiteke eragingarriagoa izan:»Etxea erosteko eskaintzen den aukera ona gal ez dadin, Probintzi-buruari, nola edo hala ahalik azkarren hura bereganatzeko baimena ematen diogu» (2).

Ez dakit Leonor Andrearen bizitzan alde horretara beste pausorik eman zen ala ez. Ondorengorik gabe hil zenean, maiorazguan, 1613an, bere ahizpa Magdalenak jarraitu zion, Juan Pérez deVivero Jaunarekin ezkondua zegoelako Fuensaldañako emakondeak. Magdalena Andrea oraindik ere aldeago agertu zen. Hori ematen du A. Jeneral Mucio Vitelleschi-k eta VII. Batzar Jeneraleko Aita Kongregatuek 1616.go Urtarrilaren 21an emakondeari idatzitako eskutitz batek. Karta hartan zera ulertu zutela esaten zioten: «berak ere hori nahi zuela, Lagundia Loiolako etxondoaren jabe egin dadila, han jaio bait zen lurrerako eta bere konbertsio bidez zerurako ere gure Aita Inazio zoriontsua; eta arazo hori horren ondo eta horren haren gustora hasi zenez gero, Batzar osoak zera eskatzen diola, mesede horri aurrera eragin diezaiola, eta desira duen azken oneraino eraman dezala» (3).

Aguro hutsaldu ziren horren itxaropen ederrak, sendia, Beltran Jaunaren ondorengo beste, aurka jarri bait zen.

Zuazolakoen aldia

Beltran Jaunak, Lorentzaz –Fuensaldañako emakondearen amaz- gainera, beste alaba bat, Magdalena zeritzana ere, izan zuen (4), eta hau Azkoitiako Zuazolako Pedro Jaun zaldunarekin ezkondu zen, Floreago etxeko Jaunarekin. Zera dakigu, haren ondorengo batek, bere aitonaren izena zuenak, Zuazolako Pedrok, pleito batzuk izan zituela Madrileko Justizi-auzitegi gorenean, bere izeba emakondearekin eta «Jesusen lagundiko aitekin, haiek Loiolako etxondoa besteren eskuetara aldatu nahi zutelako eta nik oinordeko bezala aurka ekiten nuelako» (5).

Eta izan ere, maiorazguaren fundazio-eskriurak osoro debekatzen zuen besteren eskuetara aldatzea; hori izan zen eragozpenik haundiena Loiolako etxondoa adkiritu nahi izan zen bakoitzean. Honela zioen: «Fundatzen ziren ondasunak zati ezinak zitezela eta ezin saldu, enajenada, trukatu, merkatu halakoak, ez expreso ez tazito

behartzekoak, betiko sekulako daitekeen edo litekeen ezergatik ere» (6).

Eta debeku hori halakoa zen, hori intentatzen zuenak bere maiorazgo-eskubidea galdu egiten zuen. Horregatik, Zuazolako Pedro, oso setatsu Magdalenaren pretentsioaren aurka, hau da, Loiolako etxondoa Lagundiari ematekoaren aurka jarri zen.

Pedro Jaunak aurrera eramandako oposizio honen barruan, interes berezia eskaintzen du, haren 1625.go Apirileko 24an, Valladolideko Epaitegian emakondearen aurka egindako eskeak. Zera eskatzen zuen, gaitzetsi zezala hura, fundadoreak Maiorazguaren ondasunak ez enajentzeko egin debekua hautsi zuelako. Eta hori bidezkoa ezbazen, debeka dezaiola ondorengoa aukeratzen, eta deklaratu zezala ez daukala haren eta haren seme-alaben kalte aukeratzeko eskubiderik, hari zegokiola-ta etxondoa.

Arrazoi osoz ekiten zuen Pedro Jaunak, bere eskean, bigarren puntuan, hau da, aukeratzeko eskubidean, behinena kontsideraturik, egun horietan hori bait zen emakondearen pentsamentua, binkulo eta maiorazguan oinordeko bere lehengusu bigarrena Oñaz eta Loiolako Ana Maria izendatu nahi bait zuen (7), eta Zuazolako Pedro Jauna atean utzi. Horrela deklaratu zuen herri-eskrituran Valladolid-en, 1625.go Apirilaren 24an (8).

Fuensaldañako emakondeak hartutako erabaki horregatik askoz ere zailagoa egin zen Loiolako etxoandoa Jesusen Lagundira aldatze hori, veste oso pleito luze bat hasi bait zen Zuazolako eta Alcañices-ko Markesen artean.

Izan ere, handik gutxira, 1625.go Abenduaren 25an, Fuensaldañako emakondea hil eta segituan, 1626.go Urtarrilaren 2an, Alcañices-ko marquesa aguro ibili zen, Azpeitiko ohiko juezaren aurrean, ahal dun baten bidez, maiorazguaren ondasunen posesioa reklamatzeko, eta beste hirugarren baten kalte gabe hari emateko agindu zuen. Hurrengo egunean, 3an, ohiko juezaren aurrean ere, Zuazolako Pedro Jaunak, bere izenean eta bere seme Matías Ignacioren izenean, eske bera egin zuen, eta berebat posesioa eman egin zioten.

Orduan Azpeitiko alkateak, aurkezturiko agirietan, inbestigazio gehiago eskatzen zuten defekto batzuk zeudela jakin zuenean, berriz ere ikusteko agindu zuen. Hurrengo egunetan berriz ikusi ondoren, Urtarrilaren 17an, «ohiko juezak, juez-dekretuak ikusi ondoren, beste bat eman zuen, eta han Markesei eman posesioa rebokatu eta Zuazolako Pedrori eman zitzaiona konfirmatu egin zuen» (9).

Ohiko juezak emandako epaiaren aurka Alcañices-ko markesek Valladolid-eko auzitegira jo zuten otsailaren 7an. Sei urtebete luzatu zuten auziagaita ikusten, eta azkenean Valladolid-eko Kantzeladunak, 1632.go Agostuaren 11an, zera epaitzen zuen, maiorazgua Loiolako Ana Maria Andrearena zela, eta hura hil ondoren, haren seme Borja eta Loiolako Juan Enríquez Juan Jaunarena.

Epai horren aurka berriz jotzen du 1643.go Urtarrilaren 19an, Zuazolako Pedro Jaunak, auzia berriz ikusteko.

Alde auzizale biek pleitua luzea izango zela jakinik, biek batera erabaki hau hartzen dute (Valladolid, 1635, Urriak 29), auziak dirauen bitartean maiorazguak dakartzan frutuak erdibana banatzeko.

Azkenean, hogeitamar urte igaro ondoren, Valladolid-eko Kantzeladunak «Berriz ikusteko» auzi hartan epai egin zuen, lehengoa rebokatu eta, 1665.go Abenduaren 4an, Loiolako maiorazgua Zuazolako Matías Ignaziorena zela erabaki.

Baina, pleitu hau ez zen hemen bukatu, Luis Enríquez Jaunak, Alcañices-ko

Markesak, «berriz ikusteko» epaiaren aurka «bigarren eskean»apelatu bait zuen.

Erregeak, 1666.go otsailaren 24an, zera eman zuen, Kontsejuak garbi zezala behin betiko pleitua. Kontsejuak, 1668.go Urtarrilaren 31an, Zuazolako Matías Ignazioaren alde epaitu zuen. Eta 1668.go maiatzaren 9an Loiolako maiorazguaren eta Azpeitiako eleiz-patronatuaren jabe egin zen.

Zuazola eta Alcañices-en artean Loiolako maiorazguaren jabe nor zen horren pleito luzeak iraun zuen bitartean, San Inazioaren etxea adkiritzeko asmoak nahitaez geldirik iraun behar izan zuen. Ez horregatik egon ziren jesulagunek ezer egin gabe. Eta lan horiek, hamazazpigarren gizaldi erdian, zera iritsi nahi zuten, heredade-juroak erosi bidez fundazioa aseguratzeko urte-errenta bat lortu. Juro horiek obligazio honekin erosten ziren, «Loiolako San Inazio patriarka aintzatsua jaio zen Etxondoan egingo zen fundazio eta Eleizaren konstruzioan gastatzeko» (10).

Loiolako fundazioari zegozkion juroak, Errege-mesede hutsez eman ez zirelako, baina errege-pribilejioz mila bakoitza hogeit mila saldu zenez gero -hau da, juro bakoitzaren balioa hogeit bider gehiago zenez gero- haiek erosteko Castilla Probintziak ondasun asko destinatatu behar izan zituen.

Ondasun horien zatirik haundiena Amerikatik etorri zen, eta batez ere, Alonso de Buiza A.aren aldetik. Aita hau Perun bizi zen, eta aportazio hori bere biziko zer-nolak inguratzen dutelako, ez dugu denbora galduko kontatzen badugu (11).

A. Buiza, Erroman edukitako Batzar Nagusi batetik Perura itzultzean, Loiolan gelditu zen. Han, San Inazioaren jaiotetxean kolejio haundi bat eraikitzeko idea biztu zitzaion, hura jesuitentzat, Caleruega dominikuentzat edo Montserrat eta Monte Casino benediktinuentzat dena izan zedin.

1647tik aurrera Buiza Aita Loiolarako limosna biltzen hasi zen, batez ere Perun bizi ziren gipuzkoarren artean. 1651.urtean Francisco Pérez de Irzio Jauna, A. Buizak emandako instrukzioekin Espainara etorri zen, Loiolako Jaunekin etxea erosteko tratua egiteko; horretarako berrogeitahamar mila zilarrezko ontza zekartzan. Azkenik, 1653n, A. Buiza bera, A. Jeneralaren baimenarekin eta Castellako Probintzi-Buruak, A. Pimentel-ek eraginda, Espainara etortzeko gertu zen, Perun bildutako limosna guziak berekin zekartzala. Limatik 1653.go Agostuaren 18an itsasoratu zen. Harekin batean, zoritxarren bat gertatzen bazitzaion laguntzeko -gertatu zitzaion bezala- Juan de Rocha Aita zetorren. Indias-etako Cartagenan A. Buiza gaiso erori eta 1654.go martxuaren 30an gure kolejioan hil zen. Itsasaldia A. Rochak jarraitu zuen A. Buizak bere gain zeraman guziarekin.

Espainara heldurik, A. Jacinto Pérez de Neuros, Sevillan India Probintzietako prokuradore Jenerala, oso nabarmen sartu zen tartean. A. Jacinto oso ahalegindu zen, beste inor baino lehen A. Rocharekin biltzen. Cadiz-en A. Rocha ekarritako galeoiek aingura bota zutenean, A. Perez-ek zera lortu zuen, bi mariñel adoretzuk, itsasaldi zakarrari aurpegi emanez, karta bat eraman zezaiotela A. Rochari, eta bera, hurrengo egunean, itsasoa baretu zenean, galeoira alderatu zen txalupa batean. Barkuan edukitako helkar-hizketa horreneta gero Cadiz eta Sevillan edukitakoen ondore bezala, zera asmatu zuten: A. Buizak, berak aditzera izandako A. Jeneralaren karta batek eraginda, asmoa aldatu egin zuela eta zera nahi zuela, Loiolarako zen dirua, Erroman Fundadore Santuaren hilobia eraikitzen gasta zedila. Hori adierazi zion hari bakarrik Cartagenan ia hilian zegoela.

Amarru hauetan zebiltzan bitartean, sekularren artean esamesak gero eta haundiagoak ziren, alegia, jesuitek Perutik heldutako zilar karga haundi bat isilean sartu nahi zutela. Horregatik, Valleumbrosako kondeak, Sevillako Asistenteak, gure

etxe profesua soldaduez inguraturik, han registro bat egiteko agindu zuen. Ezertxo ere aurkituez zutenean, A. Jacinto bere aurrera agertzekoa gindu zuen -A. Rocha ordurako Sevillatik irten zen- eta hark, zinizpean eta herri notarioaren aurrean, zera aitortu zuen, ez zegoela bere eskuan diru hura, ez ziola ere A. Rochan entregatu.

Baina, handik gutxira damu izan eta, laisterka gortera joan zen, eta, Indiasko Kontsejuaren Buruaren aurrean, Madriden Sevillan ukatu zuena aitortu zuen. Gainera, Erregeari oroit-agiri bat entregatu zion. Han zera adierazten zen, nola urte horretan, 1654an, etorri zen Perutik A. Juan de Rocha berekin 37.552 pesu (12) eta bost errial zekartzala; diru hori registro gabe zekarrela, Lagundiko Jeneralak agindutakoaren aurka. Eta, A. Jacinto Perez-ek agindu horiek ez zirela bete aitorturik, bere oldez Gorte honetara etorri zela diruaagertzeko, eta uste on hau zekarrela, diru hori erlijio-obra bat egiteko destinatua zegoelako, Errege onak ez zuela registro-akats hori ikusiko barkatu gabe. Bere oldez diru hori errege-serbitzurako eskaintzen zuela, berak nahi zuen bezala erabiltzeko.

Oroit-agiri hartan zera erasten zen, Castilla Probintziak zera ziola, 37.552 pesu haiek Loiolako etxearen fundazioarenak zirela, eta Jeneralak bazekiela A. Buizak gogoia aldatu eta San Inazio Patriarkaren hilobia Erroman oso nabarmen egiteko asmoa zuela. A. Perez-ek zera eskatzen zuen, Erroman bi eskubide hauetatik sendoagoa zein zen garbitzen zen bitartean, ez zezala Erregeak dirua ordaindu eta gorde zezala, gora-behera hori erabaki arte. Bitartean Erregeak zera erabaki zuen, 37.552 pesu haiek Hazienda Kontseju Buruaren eskuan geldi zitezela.

Egoera horretara heldu ziren A. Buizak Perun Loiolaren fundaziorako horren arduratsu bildutako ondasunak. Eta egoera hori urte askotan luzatuzen. Izan ere, hamar urte geroago, IV Felipek, 1664.go Apirileko 3aren dekreto bidez, zera agindu bazuen ere, Hazienda Kontseju Buruak ordain ziezaiola Castellako Probintzialari 32.060 pesu eta erdi -horretaraino jaitsi ziren 37.552 pesuak sufritutako aberiengatik-, ez zen agindu hori bete, eta egoera berean jarraitu zuen gauzak 1678ra arte, gero ikusiko dugunez.

Fameliak Loiolako etxea saldu nahi ez bazuen ere, ez zen erosteko intenturik faltatu urte hauetan. Horrela, Castellako Probintzialak, 1657.gomartxoko 11an egindako eskutitzan, Zuazolako Matías Ignacio Jaunari «ahalik biziroen -zera eskatzen dio- Probintziari Loiolako etxea saltzearren hitzegiteko eta tratatzeko bide eman dezala» (13). Bere 29ko erantzun luzean, Matias Jauna exkusatu egiten da arrazoi zuriekin, bere burua konprometitu gabe, bere egoerako zer-nolak ekarriz.

Beste garrantzi haundiko gertatu bat, Loiolako fundazioarekin elkartua, aitatu behar da 1657 urte honetan. 1657.go abenduaren 17ko eskutitzan Jerónimo de Barrionuevok bere Avisos liburaan zera idazten du: «Erreginak, seme bat izaten badu, Loiolako San Inaziori jaio zen tokian eleiz bat egiteko eskaintza egin omen dio, gaurko jabeak bere hain antzinako eta gogoangarriko etxondotik inola ere irten nahi ez badu ere» (14).

Ustegabeko berri hau -egia dela dudatzeko ez dago arrazoirik- garai honetan geroko errege-fundazioaren aldeurreko itxaropen ederra bezala agertzen da, baina itxaropen hori bete baino lehen urte asko pasako dira.

Baina, Lagundiarekin 1657an traturik izan ez bazen, bai baina urte batzuk geroago. Jesulagunek Zuazolari pleituan oso efikaz lagundu baitzioten: «Eta hori hain hala zen -zehazten du A.Cachupín Probintzialak- ez zuen Matías Jaunak horren logro aintzatsua errez iritsiko, Lagundiak lagundu izan ez balio, Matías Jaunak aho betez zera eskaini bait zuen, pleitua irabazten bazuen, Loiolako etxea Lagundiari emango

ziola, eta hitz horregatik lagundu zitzaion, eta irabazi ondoren, hain ahaztu du bere eskaintza, ez du ezer gogoratu nahi; eta etxeak balio duen baino askoz ere gehiago eskatzen du, kondizio horietan eman nahi du etxea, limosna egiteko bide polita, ikusten denez»(15).

Hitz hauek, behar baino gogorregiak, azken ondoreari begiratzen bazaio, bai, egiak gertatu ziren, baina ez dute gauza osoa reflejatzten. Izan ere, maiorazguaren jabe egin eta handik hilabete batzuk geroago, Loiolako Jaun berria, bere agindua betez, A. Everardo Nithard-ekin, Erreginaren konfesorearekin, hitz egiten hasi zen. Hizketa horiek lehenbizi Madriden eduki zituzten eta gero Loiolan, han gelditu bait zen Nithard egun batzutan Erromara bide egiten zihoala.

Hortxetik sortzen zen, hain zuzen ere, Aiten nahigabea: Matias Jaunak eta Ana Andreak arazoa Nithard-en eskuetan jarri bait zuten. Izan ere»Everardo -Jerónimo de Córdoba A. Probintzialaren iritzira- hain erebaki gabeko gizona da, ez du ezer egiten, eta egiten badu, hain astiro egiten du, izugarri sufriarazten dio haren zai egon behar duenari».

Alperrik saiatu ziren Aitak, kardenala alde hatera utziz, tratuak Matías Jaunarekin zuzen egiten, Idiaquez-en bidez. Haien argibideek ez zioten hari bere bidezko bildurra kendu. Bere hurrendorengoak -Alcañicesko markesak- tokia hartuko ziola uste bait zuen maiorazguan, fundadoreak jarritako klausulen arauera, eta horren pleitu luzea irabazten kostatuta zitzaiena galtzeko arriskuan jartzen zela. Horregatik, Nithardi idaztean, bere joeran sendotu egiten zen: «Arazo hau nere eskuetan dagoen neurrian zure gain jarri nuen, eta hala ez dut beste inoren eskurik sartzea nahi». Bere aldetik, Ana Andreak, zera kontsideratzen zuen «arazoa Kardenalaren bitartez bideratzea beharrezkoa zela» (16).

Zaila da Nithard-ek nola aktuatu zuen irizten, hain gizon barea zelako eta Madridede gortetik urrutiratu beharra zeukalako. Gauza behintzat zera da, hiru urte igaro zirela horrela, eskutitz hartu-emanetan puntu horretaz berririk gabe. Honela 1676.go uztailaren 2ra heltzen da gauza. Egun hortan Matias Jaunak, gaizki aurkiturik, baino bere senean, azkenaia egin eta ondasun guzien oinordeko bere semea, José Ignazio, jartzen du, eta aitorde eta araduradun haren ama (17).

Matías Jaunaren heriotzak (1676.go uztailaren 3an) ekarri ote zuen aldarik Loiolako etxondoa emateko asuntuan?

Ana Andreak arazo honetan bere senarrarekin guziz bat datorrela ematen badu ere, laister zehartu-eman onak dituen Juan Pablo Oliva Aita Jeneralarekin pentsatzen badugu eta ze maitasun mineko eta eskuzabaleko agertzen den geroago Loiolako Kolegioaren aldera, aldaketaren bat susma daiteke.

Hori pentsa daitekeela ematen du 1676.go udazkenean, bai harentzat bai haren semearentzat ematen den Anaidi Eskutitza Lagundiarekin, eta Loiolaren Etxearen alde Castillako titulo bat lortzeko duen Jose Ignazioren pretentsioari A. Jeneralak agintzen dion laguntzatik (18).

Baina, gazte harengan jarritako hainbeste itxaropen, batbatean usteldu zituen haren heriotzak. 1677.go uztailaren 3an -bere aita baino urtebete geroago xuxen- hil zen José Ignacio.

Hura hiltzean Loiolako Maiorazgua Zuazolengandik Alcañicesengana aldatzen da. Hala ere, haren izen onaren alde eta Zuazolen aldiaren azken puntu bezala esan bedi, ez diola Loiolak sendiko inori Lasaldeko Anari baino gehiago zor, ahal zuen guzia egin bait zuen, bere azkenian 1687.go Urriaren 13an bere ondasun guzien oinordeko Kolejioa uztean.

Nola sortu zen fundazioa

Ze joera zuten Alcañicesko markesek Loiolako etxea Lagundiari emateko arazo hortan, zera aitortzen zuen 1673an A. Jerónimo de Cordobak:»Alcañicesko Markesa Andreak batere zalantzarik gabe emango ziola Loiolako etxea, bere burua behartzen zuela Andre honi limosna hori ateratzera» (19).

Barka biezagu A. Cordobak, baina esan dezagun gauza ez zela idatzitako hitzek ematen zuten bezain egin-erreza, geroago ikusiko dugunez.

Markesen emaitzari bere garrantzia kendu nahi gabe, hobeto zera esango genuke, erregeen eskuartzeko ordua izan zela, Erreginaren ordua, Erregea lagun, Loiolako Patroi eta Fundadore egiteko. Baitere Lagundiaren bizi eta efikaz aktuatzeke ordua, aurreko etapako lan geldiaren eta, praxian, ia ondorerik gabearen aldean.

Ezer baino lehen ohar bi: Bata, Loiolako etxondoa Lagundiaren eskuetara errege-fundazio baten bidez aldatzeko idea, ez dela oraingoa, Zuazolen aldian aurkitzen dela dagoeneko: 1673.go martxoaren 2an Idiaquez-ek Matías Jaunari zera esaten zion, idatz ziezaiola kardenalari eta adieraz ziezaiola, G. A. Inaziori zion debozioagatik, orduntxetik Loiolako etxea Jesusen Lagundiko Aitei, haren semeei, eskaintzen diela, Castellako Erregeek han errege-fundazio bat egin nahi izango dutenean, haren Patroi Castellako Erregeak direla eta beste inor ez, haiena izan dadin».

Bestea, fundazioaren eragozpenik haundienetako bat, ekonomi-eragozpena, jesulagunek askatua eman zieten, gehienbat A. Buizak Perun bildutako eta hainbeste urtetan Errege Haziendak edukitako diru kopuruari esker. Gauzak honela gertatu ziren:

1678.go udan -ezbairik gabe aldez aurreko errege-baimenarekin- Castellako Probintzialak, A. Diego de la Fuente Hurtadok, zera propositu zuen, ordaindu ziezaizkiotela 32.060 pesu eta erdiak, A. Jacinto Pérez-ek 1654an entregatutako 37.552 pesutik gelditzen zirenak. Probintzialak gainera zera eskatzen zuen, ordain ziezaizkiotela kapital horren interesak, ehunetik bostean, 1654.go azaroaren 9tik., fetxa horretan ingresatu bait zuten hiru giltzeko Kutxetan Madrیدهko tesorerian, eta zera eskaintzen zuen, prinzipal eta interes haien ordaina juro-errentan jasoko zituela, mila bakoitza hamar milan estimaturik, eta Sevilla herriko Erreinuan ardoa, ozipina, olio eta haragia sortzen kokatuko zituela. Eta Erregea gehiago serbitzeko, 250.000 belloiezko errial entregatuko zituela dirutan, juro berean mila bakoitza hamar milan ordaindu ziezaioten.

Gai honetaz gertatu zen guzia Kontsejuan tratatu ondoren, eta Errege Hazienda ez zegoela interesak ordaintzera behartua, esaten zen bezala, eta interesak 41.000 pesu baino gehiago izango zirelako, eta printzipala eta ineteresak batean 73.000 zilarrezko pesu baino gehiago izango zirelako, zera rekonozten zen, negoziazio hau ez zitekeela horrela eraman, Errege-Haziendak horrekin hartzen zuen kalteagatik.

Hori adierazi zitzaion A. Juan de Canedari, Castilla Zahar Probintziako Prokuradore Jeneralari. A. Canedak beste proposizio bat egin zuen, han printzipalaren eta interesen ordainari eusten zitzaion, baino serbitzu berririk propositu gabe, beraz lehengo proposizioko 250.000 errialak utziegiten ziren. Ez eta hau ere ez zuten onartu. Orduan A. Canedak oroit-agiri berri bat aurkeztu zuen, bere izenean signatua 1679.go otsailaren 4an, eta han zera jartzen zuen: Lehenbizi, ordaindu ziezaizkiotela 32.062 pesu eta erdiak, zilarra ehunetik 75era gutxiturik; horrela, redukzio horrekin, pesu haiek belloiezko 498.875 errial baliodute, hau da, 15.261.750 marabedi. Interesak, beraz, ez ziren exijitzen. Bigarren, serbitzu berriagatik 300.000 errial

entregatzen dituela, 10.200.000 marabedi balio dutenak. Bi kopuru horiek 25.461.750 marabedi egiten dutela, eta haiengatik juro-errentan urtero 2.546.175 eman behar direla, kontua mila bakoitzagatik hamarmila egiten bada.

Juro honen abantail handia hortantxe zegoen, mila bakoitza hamar milan hartzean, «orain aldi juroak askoz ere diru gutxiagon ematen baidira». Gainera, beste aldeon batzuk ematen ziren, dirua kobreatzeari buruz, Pribilejioan, horrelako agiriei dagokien bezain zehatz, enumeratzen diren bezala (20).

Geroago, 1679.go ekainaren 20an, juro hartan beste 240.205 marabedi jarri ziren, lehen bezala mila bakoitza hamar milan, eta lehengoei erasten bazaizkie 2.786.380 egiten dute. Zifra hori agertzen da hain zuzen ere, Pribilejio-kartan Erregeak Madriden 1679.go agostuaren 8an eman.

Diru kopuru honekin duple eta gehiago egiten zen Loiolako fundazioari zegozkion juroen kapitala. Horregatik, Castilla Probintziak zera uste izan zuen, heldu zela Austriako Marina Erregin Ama Andreami oroit-agiri bat aurkezteko eta han Loiolako Patronatua eskaintzeko ordua.

Han, Zuazolakoen Loiolako etxe eta maiorazgua nola Alcañiceskoen eskuetara aldatu zen kontatu ondoren, zera esaten zen: «Alcañicesko Markesak, oso jaierratsua eta eskuzabal, Loiolako Etxea Lagundiari emango ziokeen, beretzat Patroi-eskubide eta -argia bakarrik reserbatu, baina Erlijioak, lurrian Santuarena izan zenaz veste jabe bat aukeratzea bere egiazko jabeen kentzea izango litzateke; horregatik beti begiak, gogoaketa itxaropenak Zure Haundiaren Errege-Pertsonan ipini ziren».

Ondoren zera erasten zen, Errege G. Jaunaren onak erretzu egin zuela Lagundiaren gogo hau, Santuari, joan den urte 1679an, Indiasetik etorritako dirua -ikusitako dugun bezala- ordaindu.

Horrela, Castilla Probintziak fundazioaren ekonomi-gaia superatu ondoren, ondo buka zezakeen Oroit-agiria eske honekin: «Gaur, Andre, ez du Lagundiak Zure Haundiaren Errege-izena baizik eskatzen, eta Santuaren aintza bereziko galdi dadila zure Haundiaren izena gerorako Patronatu harekin elkartua» (21).

Orain arte kontatu dugunaren ondoren gertaturikoak 1681.go uztailearen 14.go Carlos II.aren errege-zedulan bilduak aurkitzen dira (22). Resumitzen saiatuko naiz.

Lehenbizi, Alcañicesko markesei Erreginak aditzera eman zien «poza hartuko zuela San Inazio jaiotako tokian Lagundiaren Kolejio bat fundatzen bazen, eta bere Haundiak haren Patroi eta Fundadore izan nahi zuela». Markesek atsegina eman nahirik, Mateo de Moya Aitarekin -Erreginaren konfessorearekin- bai eta Pascual de Casanueva Castellako Probintzialarekin eta beste erlijiosuekin ere hitz egiten hasi ziren, eta hartarako etxea eta kolejiorako behar zen tokia eskaini zu-ten, 1681.go maiatzaren 24an Toro hirian emandako eskubide-eskriturak ekartzen dituen baldintzetan.

Gero Kamara Kontsejuari ondasun haiek separatzeko eskubidea eskatu zioten, eta hori 1681.go uztailearen 9ko Kontsejuaren dekretuak eman zien, «obra hasi baino lehen, Maiorazgotik separatzen zenaren balioa tasatu eta depositatzeko».

Dirudienez, ez ziren trankil gelditu markesak Kontsejuaren dekretu honekin. Maiorazguaren fundazio-eskrituraren klausula famatuagatik beti kezkatu, zera iristen saiatu ziren Erregeagandik-agian jesulagunek eraginda-, aitatu dugun 1681.go uztailearen 14ko zedula. Han, «Errege Ahal absolutoa erabiliz, berezko Errege eta Jauna bezala, munduko gauzetan gainean inor ezagutzen ez duena», kolejioa fundatzeko behar den tokia eta etxea separatzeko egin dena eta egingo litzatekeena

ontzat ematen du, «horregatik Maiorazguaren klausulak dakartzan zigorretan erori gabe; eta nonbaitetik haietan erori edo sartu badira, barkatu egiten dizkiet haietako bakar bat ere reserbatu gabe, eta zera nahi eta agintzen dut, ez dezatela haiengatik, ez eta eskubide hori emateko eginbeste tramiteengatik ere Maiorazgua galdu, ez dadila ere beste gradura pasa, ez dezala ere beste edozein klausulak edo debekok, batez ere esandakoak eragotzi».

Oso garbi gelditzen da, Erregearen hitz hauei esker, Alcañicesko markesek gai honetan oso seguru ibili zitezkeela eta horixe ez zuela hain garbi ikusten Zuazolako Matías Ignazio Jaunak bere tratuetan Lagundiarekin.

Kezka guzia gainetik kendurik, markesak Lagundiko Aitekin akordu batera heldu ziren; batera jartzeko, A. Casanuevak, Azkoitian 1681.go agostuaren 7an, bere ahala A. Manuel Rodriguezi eman zion, Villagarcia de Campos-ko Erretoreari. Zergatik aukeratu zuten erretore hau? Dudarik gabe Villagarcia Toro hiriaren ondoan dagoelako. Horrela, ba, irailaren 7an, Alcañicesko markesak belaunez-belauneko eskubidez Loiolako etxondo eta maiorazguaren jabeak alde batetik, eta A. Manuel Rodriguez Lagundiaren eta Castilla Probintziaren izenean bestetik, Toro hirian eskritura bat eman zuten. Han zera agertzen da, nola markesek, alde aurreko Errege-baimenarekin, eta legeak eskatzen dituen beste dekretu eta tramiteakegin ondoren, nola Loiolako Etxearen eskubidea eta patronatua saldu, utzi, renuntziatu eta traspasatu zuten eta haren ezjabe egin ziren Austriako Mariana Erregin Ama Andrearen alde. Eta berebat, han egin behar den Eleiz eta Kolejioa eraikitzeke, eta baratzarako eta gainontzeko ofizinetarako mugatu eta tasatutako lur eta lekuaren salketa, ezjabetza, enajenazio eta traspasoa belloiezko 58.187 errial eta erdian egin zen, hortan tasatu bait zuten, baina baldintza honekin, diru hori Maiorazguan etxe eta leku haien orde subrogatuak geldituko diren beste ondasun edo betiko errentak erosteko eta bihurtzeko erabiltzekotan, eta halaxe eskritura hartan jarritako, onartutako eta adierazitako beste kapitulo eta kondizioekin» (23).

Azkenik, 1681.go azaroaren 24an deskorporatzeko eskritura eman eta abenduaren 7an Erregeak aprobatu ondoren, Erregeak zedula bat bidali zion santiagoren zaldun Manuel de Arce Jaunari, Gipuzkoako Korrejidoreari, eta zera agintzen zion «hartu eta atzitu Etxearen posesioa Nere Errege-Patronatuarena denez», Madrid, urtarrilak 12, 1682.

Bere aldetik, A. Casanueva Probintzialak, Salamancan aurkitzen zenak, Lasquibarko A. Migueli, Azkoitiako Erretoreari, urtarrilaren 19an bere eskubidea ematen zion, Alcañicesko Markesari, Loiolako Etxeko jaunari, errege-eskubidez Etxe hartan Lagundiaren Kolejio bat fundatzeko erositako tokiaren posesioa hartzeko.

Ez zuten Erromako Superiorioreek gauza ahaztutzen: 1681.go Azarearen 8an A. Olivak eskutitzez A. Casanuevari emandako baimenaz gainera, jeneral-karguan bere ondorengoak, Carlos de Noyelle A.ak, 82.go urtarrilaren 30an, eskubide osoa erasten zion geroko Loiolako Kolejioa fundatzeko egoki edo beharrezkoa izango zena paktatzeko eta kontratatzeke (24).

1682.go otsailaren 19an hartu zuen aktu solemne batean Etxe Santuaren posesioa Manuel Arce Jaunak Erreginaren izenean. Posesio seinale bezala, ate nagusiak itxi eta iriki egin zituen, eta Kapila Santu eta agurgarrian sartu eta, aldare aurrean belauniko, Gurutzea hartu zuen, eta, adoratu eta, musu eman zion, Errege-Patronatuaren posesio-aktuaren seinale bezala. Eta zera agindu zuen, ate gainean Errege-Armen armarrria tinkatzeko, eta esan lekuan tinkatzeko orduan, Azpeitia Herriko soldadu-konpaniak errege-zupin-agurra egin zuen.

Aldi berean, egun hortan bertan, otsailaren 19an, Azpeitiko Alkate eta Juezak, Aguirreko eta Araluzeko Ignazio Jaunak, -subrogatzeko ondasunen disposizioa Herriko juezari zegokiolako-Lagundiaren izenean A. Lasquibarko Migeli, Azkoitiako Superioreari, separatu, esitu, utzi, tasatu eta ordaindutako lurren posesioa eman zion, eta lur horietan hauek sartzen ziren: Etxe Santuaren ondoan zeuden pasuak, tarteko zalditegi eta ukulluak, bai eta etxearen iparraldeko, sartaldeko eta egoaldeko erein-lurra ere, gainera baratza eta haren itxitura». Eta posesioaren seinale bezala, A.Lasquibar «lur, baratz eta leku haietan barna ibilizen belar batzuk erauzten, zuhaitz adarrak mozten eta beste posesio-aktu batzuk egiten» (25).

Egun berean bi posesio aktua batean egokitze honetan garbi agertzen da, arazo zail haren tramitazio luzean jesuiten lehia luzapen dena saihesteko.

Orain hau besterik ez zen egin behar, Erreginarekin fundazio-zehazkiak azkendu. Horretarako, A. Casanuevak A. Mateo de Moya aukeratu zuen, hura bait zen egokiena Erreginarekin konfessore kargua zuelako. Valladoliden, 1682.go martxoaren 25an eman zion eskubide berezia» nere eta Probintziaren izenean, Erreginarekin edo haren agindu eta eskubidea duenarekin, Patronatu eta Fundazioaren gainean, kapitula, konzerta eta ajusta dezan, horretarako behar den edo diren eskriturak emanaz» (26).

Egun horretan bertan, martxoko 25an, A. Casanuevak, Valladoliden Gabriel de Medina idazkariaren aurrean beste garrantziko eskritura egin zuen; han zera esaten zuen, «Loiolako fundazioak zenbait jurotatik lau miloi eta ehun eta hogeitahamala mila eta zortzirehun eta hamazazpi marebedi zituela», eta «Probintzialak zera deklaratu zuen, Juroko marabedi horiek Loiolako fundazioari zegozkiola eta harenak zirela, eta bazela ordurako hamar urte baino gehiago harenak zirela, eta hala zinitz egin zuen *yn verbo sacerdotis* betirako Kolejio eta Errege-Fundazioarentzat Kapital eta Errentarako zitezen eta beti urtero jasozitzan» (27).

Prozesu luze hau kronologiko zehatz-mehatz kontatzen saiatu ondoren, orain fundazio-eskritura besterik ez da gelditzen. Hau litzateke toki egokia haren testu osoa emateko. Baina, eskritura hori nahiko ezaguna delako (28), haren resumen bat bakarrik emango dut.

Inbokatze sarrera solemne eta deboto batekin ondoren, Erreginak fundazioara eragin dioten arrazoiak expositzen ditu. Batez ere Lagundiari dizkion debozio-sentimentuak eta haren semeek berari eta Austria Etxeko bere aurrekoei egindako serbitzuengatik esker onezko arrazoiak. Eta gero labor ordurarte fundaziorako eman pausoak gogoratzen ditu.» Beraz, heldu da Jesusen Lagundiari nik eta berak hainbeste desira izan dugun mesedea egin ahal izateko garaia. Eta ejekuzioan jarririk, oraintxetik eta betirako, Gipuzkoako Probintzian, Azpeitia herriko lur eta jurisdikzioan dagoen Loiolako Etxea, Erljio horri, batez ere Castilla Probintziari mesede, dohain eta emaitz on, garbi, xalo, perfektu, seguru eta atzera ezin (Legeak bizen artean dioena) egiten diot, haren ondoan segitun eraiki behar duten Kolejioan -haren inguruan dauden lurra Markesekin egindako kontratuen bidez probintziarenak direnez gero- kontserba eta inkorpora dezaten. Eta han eraikiko den Eleiza eta Kolejioa, Erljio hartako bazkun bat bizi eta egon ahal izateko eta ministerioak ejertzita ahal izateko nahiko haundi eta on dadila. Eta oraintxetik eraikitzen eta fudatzen dudana bezala, betirako Loiolako San Ignazioren titulo eta izenean eraikia eta fundatua geldi bedi.

Eta San Ignazioren Etxe Agurgarriaren, eraikiko den Kolejioaren, haren Eleiz eta kapilen, nere bizi guzian Patroi izango naiz, eta ni hil ondoren nere seme Erregea eta Castilla Erreinuko haren ondorengoak. Eta Patronatu hau Castillari agregatzen diot,

hari batzen eta inkorporatzen, eta zera itxaron dut, hau bihotzez erregutzen eta eskatzen, ez dezatela hargandik separa, baina kontserba dezatela beti Gorte honetako Eskurialeko San Lorentzok eta Ema-erlijioso deskaltzatu eta Enkarnazioko Konbetuek dituzten preeminentzi, eskubide, dohain eta exentzioekin; eta San Inazioren Etxea eta haren ondoan eta haren lurretan betirako eraiko den Kolejio eta Etxea, eta harekin batuko eta hari inkorporatuko zaion guzia, Nere Errege-Patronatu eta Castellako Erregeen Patronatu bezala eduki eta kontsideratu behar da» (29).

Ondoren zera dispositzen du, jar daitezela nere aita-ta-ama Enperadore Jaunen eta aurrekoen eta Espainako Erregeen Armariak, Gorte honetako Inperio-Kolejioan dauden bezala. Eta zera agintzen du «San Inazioren Etxean, han eraikiko den Lagundiaren Kolejio eta Etxean ez dezatela Sekular bat ere hobiratu ez deposita ahal nere baimenik edo Patronatu hartan nere ondorengo Castellako Erregeen baimenik gabe. Alcañizasko Markesei alboko Kapila bat heuren hobi eta Armekin eraiki behar zaie eta gainera Santuaren etxealdean etxalde bat Markesei dagokiena, persona haiek zor zaien ohorez aposenta daitezen, eta kapila edo eleiz hartara tribuna bat, hauek bai dira Loiolako Maiorazgorako subrogatu ziren ondasunen zati bat, Etxe Agurgarriaren orde.»

Eta zera uzten du, «eleiz aurreko Armarriean, idazkun bat ere jar dadila, eta ager dadila han nola Markesek aske eta oldez geroko Etxe eta Patronatua eman zidaten. Eta eleiz eta klaustrotako horma nagusietan bi harnabar jar daitezela gauzabera dioten idazkunekin».

Markesek jarritako baldintzak -Toroko eskrituratik, 1681.go maiatzaren 24an emandakotik hartuak-, bukatu ondoren, Lagundiak hartu dituen obligazioetara igarotzen da:

Argizai zurizko kandela bat eskaini Kolejioaren errege-armekin, eta hori txandaka «urte batean heuren Patriarka eta Aita Santuari, eta bestean ni bizi banaiz neri, eta hil eta gero, nere seme Erregeari eta Castellako Erreinuan haren ondorengoei betirako».

»Eta nik nere bizian eta heriotzan, eta nere seme Erregeak eta Castilla Erreinuko gainontzeko ondorengoek, Jesusen Lagundiko Erlijio Sakratuak bere Regula eta Konstituzioen arauera, bere Kolejioen Fundadore eta Patroiei egiten eta egin behar dizkien pereeminentzi, sufrajio eta obraonak eduki behar ditugu, bakar bat ere hutsegingabe, haietan adierazia dagoen bezala».

Azkenik, Kolejioaren Erretore izango denari, zera enkargatzen dio, urtero bere debozio bereziko egun jakin batzuetan eman daitezela mezabatzuk haren alde.

Orain garrantzi haundieneko obligazioa dator: Lagundiari konstrukzioaz zer dagokion seinalatzen da:

»Eta berebat Probintziak eleiza eta Kolejioa, esandako gainontzekoarekin, nahiko haundi eta ederra eraiki beharko du, fundazioak ahal dueneta haren errenten arauera».

Errenta hauek -Aita Casanuevak, Castilla Zaharreko Probintzialak deklaratuaren arauera, 1682.go martxoaren 25an Valladoliden emandako eskrituratik dakigunez - «lau miloi, eta ehun eta hogeita hamalau mila, eta zortzirehun eta hamazazpi (4.134.817) marabedi ziren, ondorengo juro hauetan» (30).

Loiolako fundazioa besteen aldean zenbat zen jakiteko, Salamancako Kolejioarekin alderatzeakl agunduko du. Clereciaren konstrukzioa Loiolakoa baino askoz ere haundiagoa bazen ere, Felipe III.ak hura eraikitzeke asignatutako juroek 5.645.613 marabedi kopuratzen zuten (31).

»Eta Obligazio horiekin -jarraitzen du eskriturak- donatzen diot Loiolako San Ignazio Aintzatsuaren Etxea Castilla Zahar Probintziari, laua, segurua, iraunkorra eta sendoa, eta hori Errege-Kolejioaren fundadore eta Patroi naizelako, eta Loiolako Etxe Agurgarrirako dudan eskubide eta eginbide osoa eman eta renuntziatu egiten dut, eta Erlijio et Probintzi hari posesioa ematen diot eta hura hartzeko eskubidea. Eta juez aren aurrean egin behar izan ez dadin, donazio-Eskritura hau entregatzeko haiei agintzen dut. Honekin, beste posesioa hartzeko dekreturik gabe, aldatu egin zaiela ulertu behar da; nere Errege-asmu eta nahia zera baita, donazio hau Erlijio eta Probintziari ondoen izango zaion bezala egitea.

Eta betiko sendo, indardun eta iraunkor dadin, nere izen on eta Errege-hitzez zera prometitzen eta aseguratzen dut, ez dudala behin ere hitz hori jango. Eta titulo hau dezaten, zera agintzen dut, eskritura honen arau eta formako hiru, nere Errege-eskuak firmatuak eta Santiagoren Ordenako Zaldun, nere eta Nere seme Erregearen Sekretario Isidro de Angulo eta Velascok refrendatuak bidali daitezela... Eta zera agintzen dut, posesioaren seinale bezala, bi, Luis de Argüellesi, Gorte honetan Lagundiaren eta Castilla Zahar Probintziaren Prokuradore Jeneralari entrega diezaizkiotela, eta bestea Simancasko Errege-Arkibura bidali eta han gorde dezatela. Buen Retiron emana, Maiatzak hogeita lau, mila seirehun eta larogeita bi, lekuko...direla. Nik, Erreginak».

A. Mateo de Moyak, Erreginaren azken disposizioak Lagundiaren aldetik harrera solemne bat eskatzen zuela uste izanik, notario-eskritura bategiteko erabakia hartu zuen; 1682.go maiatzaren 30an egin zuen, Andres de Caltañazar-aren, Errege eta Erreginaren Madrideko numeroko idazkariaren aurrean.

Eskrituran zehar Moya, inkorporatzeko, zenbait dokumentu aurkezten joan zen – lehenago erabili ditudanak-, errege-donazio eta fundazioarekin, Erregin Ama G. Andrea firmatuarekin eta Isidro de Angulo Jaunak refrendatuarekin bukatzeko. Eta idazkariak Eskritura eta Errege donazio hura zertua eta egia zela kautotu zuen.

»Eta Mateo de Moya Aita Agurgarriak, behin ikusi eta ulertu ondoren, zera esan zuen, Erreginak haren bidez Jesusen Lagundiari horren fabore eta mesede haundia egiten dionez gero, haren izenean muin ematen diola Erreginaren eskuari, eta Castilla Zahar Probintziak zor dion bezain apaleskerrak ematen dizkiola, Erreginak donazioa egitean jarri zituen kargak, zer-nolak eta baldintzak bere gain hartzen dituela, eta Probintzia... haiek zehatz gordetzera, obserbatzera eta betetzera guziz eta osoro han adierazten den bezala behartzen duela... Jainkoari eta gurutzeari zinitz egin zion Probintziak eskritura hau gordeko eta beteko duela eta ez dela inola ere haren aurka joango, ez duela ere absoluziorik eskatuko» (32).

Lagundiak bere aldetik fundazio-eskriturak zekarren kondizio bat bete behar zuen: «Eta fundazio hau eta berak dioena, beti seguruago eta sendoago dadin, Prepositu Jeneralak aprobatu behar du, eta aprobazio hori hemendik urtebete barru Probintziako Probintzilak eduki behar du».

Klausula hau betetzeko, A. Carlos de Noyellek, Probintzialari seinalatutako urtebete barruan-dokumentuaren textuan gogoratzen den bezala-onartzeko eskritura egiteko agindu zuen.

Histori-sarrera baten eta eskertzeko ohi diren formulen ondoren, honela dio:

»Erregina antzinako Loiolako Etxe argian eraiki behar den Kolejioaren Patroi bezala onhartzen dugu, bai eta haren bizitzaren ondoren (gorde dezala Jainko Haundiak kalte gabe urte askotan), haren semea II Carlos Errege txit Narea ere, eta Castellako Erreinuaren Errege txit Nare beraren ondorengoak ere, gure Kolejioen fundadore eta

Patroiei eta Ongile haundiei, Lagundi beraren Konstituzioen arauera, eman eta banatu ohi zaizkien abantail, partizipazio eta sufragio guziekin»(33).

Erreginak aktu solemne berezirik behar ez zela dispositu zuelako, egitan jesulagunek -Loiolako Histori-Arkibuan kontserbatzen diren lehen bazkun-dokumentuen arauera- Etxearen posesioa 1682.go ekainaren 16an hartu zuten, dokumentuetan fundazioa hasten zen fetxan. Eta hurrengo egunean, uztailaren 1an, sartu zen bizitzera Etxe hartan lehen jesulagun-bazkun txikia, bazkunaren lehen Erretore Pedro Jerónimo de Córdoba Aita zela: han biziko ziren hogeitasei urte bitartean, 1708an monumentu-konstrukzio berrian gerturiko geletara aldatu ahal izan arte (34).

Alabaina, hurrengo Agostu hileko 14an ospatuzen, berez falta zen legezko aktua: lege kondizio guziekin Etxearen posesio solemnea (35).

Eta Iruñako Gotzaiaren, Frantziskotar Fr. Pedro Roche-ren, baimena bere eleizbarrutian erlijio-fundazio berri bat irikitzeke, 1682 urte horretako bertako Agostuaren 18koa da (36).

Oharrak

- 1.- G. DE HENAO, S.I., *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria* V.t. 133-163 or.
- 2.- Acta Congregationum Provinciae Castellanae. Loiolako Histori Arkibua (LHA) 4-2. Ezer baino lehen, A. José Ramon Eguillori, Arkibua hain ondo ezagutzen duenari, nere esker on-onak adierazi nahi dizkiot, guziz efikaz lagundu didalako une oro estudio hau egiten nuen bitartean.
- 3.- Eskutitz osoa A. ASTRAIN, S.I.an ikus daiteke, *Historia de la Compañía de Jesús en la Asistencia de España*, V, Madrid, 1916, 13 or.
- 4.- Sendiko hiru emakumek daramate Magdalena izena: Araozko Magdalena Andreak, Beltran Jaunaren amak; honen alabak, orain textuan agertzen denak; eta lehenago aitatu dudan Fuensaldañako Emakondeak, haren bilobak.
- 5.- Zuazolako Pedro Jaunaren azkenahia. *Documentos relativos a Loyola Señorial, Testamentos*. LHA, 1-1-3, 12 z.
- 6.- G. DE HENAO, S.I. op.cit., V. t., 136 or.
- 7.- Oñazko Martín Garcia III.aren alaba izan zen (haren aita Martín Garcia II izan zen, Martín Garcia I.aren, Maiorazgua fundatu zuenaren semea). Martín Garcia III Beatriz Clara Coyarekin, Inken Enperadorearen bilobarekin ezkondua zegoen. Inka Emaprintzearen ezkontzatik Loiolako eta Coyako Ana Maria jaio zen. Beraz, Martín Garcia II.aren biloba, eta horregatik, Fuensaldañako Emakondearen lehengusu txikia. Ana Maria, Borjako Juan Enríquez Jaunarekin (Borjako S. Frantziskoren eren-ilobarekin) Alcañicesko Markesarekin, ezkondu zen. Senar-emazte hauek Perura aldatu ziren, eta han Indiasko Oropesako Markes titulua eman zitzaizen. Fuensaldañako emakondeak Peruko Loiolakoen amerikar adar hau aukeratu zuen 1625an Loiolako Maiorazguan berari jarraitzeke, Zuazolakoak atean utzirik. Baina, oinordekotza regulatzen zen eskrituraren normen arauera, ez zegokion emakondeari oinordekoa aukeratzeko eskubiderik-eta gutxiago gainera albo-ahaide batetik- zuzen oinordekoak zirela, hala nola Pedro Jauna, Beltran Jaunaren biloba, eta Matías Ignacio Jauna, eren-biloba.
- 8.- Aukeratzeko eskritura, inpresu aurkitzen diren bostetik, Lehen Oroit-agirian, 11-13 or., ikus daiteke. Eskuz idatzirik izenburu luze honen behan aurkitzen dira: *»Memoriales ajustados del hecho, y informaciones en derecho del pleito sobre la sucesión del Mayorazgo y Casas de Oñaz y Loyola, entre Doña Ana María del Loyola Coya, Marquesa de Oropesa, y Don Pedro de Çuaçola, Floreaga, Oñaz y Loyola. Y assí bien, entre Don Juan Henriquez de Borja, Ynga y Loyola, cavallero de la Orden de Santiago y Marqués de Oropesa y Alcañices, y Don Matías Ignacio de Çuaçola, Floreaga, Oñaz y Loyola, Cavallero de la Orden de Alcántara»* .LHA,1-1-2.
- 9.- *Memoriales ajustados*, 13v-14r eta v or.
- 10.- Juro hauek nolakoak ziren hobeto ulertzeko, gogora ditzagun ejemplo batzuk. 1650an Felipe IV.ak, Errege Katolikuen ganaino igotzen den ohiturari jarraituz, zera erabaki zuen, Estaduaren gastu haundiei laguntzeko, hirurogei mila dukadu saldu zitezela, eta urriaren 17ko errege-zedula baten

bidez zera agindu zuen, Castellako Erreinetako paper seilatuaren eskubidean situa zitezela. Kondizio horietantxe Erregeak, 1652.go Abenduaren 11ko eskutitzaren bidez, Castellako Probintzialari Juro eta Errentako 825.000 marabedi ematen eta saltzen dizkio; horiengatik Tesorero Jeneralari 16.500.000 marabedi ordaindu behar dizkio, mila bakoitza hogeitan, Palencia hiriko eta haren partiduko paper seilatuaren eskubidean situatuak. Berebat, Felipe IV.ak, bigarren situazioko 162.000 dukaduen kontura, 1652.go Azaroaren 9ko karta baten bidez zera ematen du, urtero Juroko 220.000 marabedi mila bakoitza hogeitan; horregatik Castellako Probintzialak 4.400.000 marabedi ordaindu zituen. Berebat, Castellako Prokuradore Jeneralak beste 136.017 marabediko juro bat erosi zuen, 1652.go Apirilaren 30ko sal-karta bidez, mila bat hogeitan, Media Annata de Mercedes-en situatua, eta hargatik 2.720.340 marabedi ordaindu zituen.

Aurreko juro horiek jatorriko Privilegiotik legetutako kopiak dira, Madriden 1720an eginak. Loiolako fundazioari dagozkion juro-sorta batekoak dira. LHA, 2-2.

- 11.- A. Buizak Perun bildutako limosnen gora-beheraz hiru dokumentu dira. Lehenengoa, Erromako Arkibuko Oroit-Agiri bat da, izenburu hau du: «Castellae, Rationesquibus probantur argentum, quod attulit ex Peruana Provincia P. Alphonsus Buiza, pertinere ad Provinciam Castellae pro fundatione Collegii Loyolae» ARSI.F.G. 1459/2. Bigarrena, lehengoa baino zehatzagoa, A. Jeneralari bidalitako beste oroit-agiri bat da -litekeenez, A. Noreñak, Castilla Probintziako Prokuradoreak bidaliko zion-zeran agertzen da, *Documentos Históricos de Loyola Señorial y religiosa*, LHA, 1-4-1. 102 dok. Eta hirugarrena, Juroen kolekzioko Juro zenb. 1, LHA, 2-2.
- 12.- Dirutza hori deklaratu zuen A. Jacinto Perez-ek. Baina, A. Probintzialaren paper soltu batean beste zifrak aurkitzen dira: 60.000 zilarrezko pesu, pesu bakoitza zortzi errialekotan, 12.000 pesu urrezko dobloietan, eta 28.000 pesu urrezko kate eta beste bitxietan. A. Jacintoren zifrarekin alderaturik kalkulatzeko, zera eduki behar da aurrean, honen kontuan pesuari konbentzional hamabost errialeko balioa ematen zaiola. Baina, hemen zortzi ematen zaio. Eta veste 40.000 urrezko pesuekin zer gertatu zen? Litekeenez, A. Jacintok Erromara bidaliko zituen S. Inazioren hilobia egiteko.
- 13.-LHA, 1-4-2.
- 14.- Avisos, III. Madrid, 1893, 427 or. Barrionuevok idatzitako berri hori berandu samar jasotzen du, seguru asko lehenago ez zekielako. Egun batzuk lehenago (1657, azaroak24) guziz zehatz jakin erazi zuen Felipe Prospero Printzearen jaiotza: «Asteazkenean, goizeko hamaika t'erdietan, Erreginak seme bat erditu zuen oso hazia eta haundia»; eta abenduko 12ko eskutitzan konfirmatzen du: «Zera esaten da, Printzea San Isidroren heriotz-egunean eta haren kapilaren lehen harria jarri zenean jaio zela, eta Felipe, Próspero, Isidro eta Andrés izenak eramango dituela eta gainontzeko Santuen letanía». (Avisos, III, 397 eta 415 or.)
- 15.- A. Probintzialak dioena Cachupínekin bat dator:»Lagundiak, pleituan berorren alde grinatzean, politika txarra erabili zuela, ondoreetatik ikus daitekeenez, eta berorrek, Etxea emanda, zera nahi izan zuela, beretzat hain alde onak atera, amarrua besterik ez zela eta ez limosna». Idatzitako keja hauek Frantzisko de Idiáquez Jaunak Valladoliden –han aktuatzen bait zuen honek Matías Jaunaren negozio-eragile bezala- Aitengandik entzun zituen. Textu hori, beraz, Idiáquez-ena da, baina Matías Jaunari zera esaten dio, entzun zuen bezalaxe ematen diola aditzera.
- 16.- Ana de Lasalde Andreak Idiáquezi idatzitako karta, fetxarrik gabe; 1673.go uztailaren eta irailaren artean situa liteke. Biek ze disposiziotan aurkitzen diren, honela laburtzen du: «Nere senarrak zera esaten dit, Kardenal Jaunari idatzi diola, eta bere aldetik ez dela epel ez motel ibiliko dagokiona betetzen. Ondo jakingo du berorrek honekin, ez dugula Lagundiko Aitei hutsegiteko asmorik, baina bide egokienak adinondu besterik ez dugu nahi, eta Kardenal Jaunarekin tratatu dugun gai honetan izen onez eta seguru aurrera ondo egiteko dugun ardurari ez hutsegin».LHA, 1-4-2.
- 17.- Zuazolako Matías Jaunaren azkenahia. *Documentos relativos a Loyola Señorial. Testamentos*. LHA. 1-1-3.
- 18.- Loiolako etxerako Castellako titulo bat edukitzeko pretentsioa Matías Jaunak ordurako eduki zuen, Idiáquezi 1673an idatzitako bere eskutitzetan agertzen den bezala. A.Cordobak bere burua eskaini zuen orduan Gortean pretentsio hori sendotzeko. Seguruasko gero ez zuen ezer egin direkzio horretan, Matías Jaunaren jokua gustatzen ez zitzaiolako. Ziur, behintzat, zera gertatu zen, Matias Jaunak ez zituela bere pretentsioak, orain bere semearengan berritzen direnak,beteak ikusi.
- 19.- LHA, 1-4-2.
- 20.- Juro kolekzioa, zenb. 1. LHA, 2-2.
- 21.- Austriako Mariana Erregin Ama Andreaki aurkeztu zioten Oroit-agiria Loiolako Patronatua eskainiz». ARSI E.G., 1459/2.

- 22.- G.HENAO, op. cit., V.t., 134-138 or. Jatorriko dokumentua, inpresu eta legetua LHA, I-4-2an aurkitzen da.
- 23.- A. Moyak Madriden 1682.go maiatzaren 30an egiteko agindu zuen eskrituran inkorporatua. Haren kopia berribat LHA, I-4-2an aurkitzen da.
- 24.- A. Noyellek Erroman 1682.go maiatzaren 30an A.Casanuevari emandako eskubide-eskriptura; 23. oharrean zitaturiko 1682. maiatzaren 30koan transkriptua aurkitzen da.
- 25.- Posesio bataren eta bestearen deskriptzio osoa HENAO n aurkitzen da, op. cit., V.T., 142-145 eta 147-150 or.
- 26.- Eskubide horren kopia bat 1682.go maiatzaren 30ko eskrituran sartzen da. LHA, 1-4-2.
- 27.- Juro kolekzioa. LHA, 2-2.
- 28.- HENAO n ikus daiteke, op. cit. V.T., 155-160. Ia osoa transkriptzen du, garrantzi gabeko huts batzuekin bakarrik, 30.oharrean subsanutzen dudana ezik.
- 29.- Oraindik ere, A. Luis de Argelles-ek eskatu ziolako, Erregeak Madriden 1683.go maiatzaren 23an konfirmatzeko zedula bat eman zuen, «eta konfirmazio horretan haren Errege-Patronatuaren beste Fundazioen artean anota bedi eta haietako bat bezala eduki dezatela... Eta zedula honen bidezLoiolako Kolejioaren Fundazioa nere Errege-Patronatuan hartzen eta inkorporatzen dut... bere Jaun Haundiak delako donazioa egin zuen karga eta kondizioekin». G.HENAO, op.cit. V. To., 160-162 or.
- 30.- Juroen relazioa -Henaok egiten ez duena-, bakoitzari dagokion situazioarekin, labur eta zifretan honela da: 2.786.380 errentako marabedi Sevilla Erreinuko Errege eskubide eta ekstrakzioan; berak bakarrik zuen mila bakoitza hamar milan izateko aldeon haundia. Gainontzekoak, mila bakoitza hogeita hamar milan, ondoko aukerak dira; 120.825 errentako marabedi, Truxillo-ko lehen miloen situazioan; 110.323 errentako marabedi Leon-go lehen ehuneko batean; 220.000 errentako marabedi Soriako lehenengo ehuneko batean; 136.000 errentako marabedi Castillako Salinasen; 375.000 errentako marabedi Orense-ko paper seilatuaren eskubidean; 136.017 errentako marabedi mesedeetako Annata erdian; 53.000 errentako marabedi 102.940ko zatian esan Annataerdian; 114.837 errentako marabedi Erreinuko Estanku jeneralaren tabakuaren miloetan; 167.988 errentako marabedi Sevilla hiriko miloetan eta bosgarren situazioan. Denek esandako errentako eta juroko 4.134.817 marabedi egiten dituzte.
- 31.- A. RODRIGUEZ G. DE CEBALLOS S.I., *Estudios del Barroco salmantino. El colegio Real de la Compañía de Jesús (1617-1779)*. Salamanca, 1969, 46 or.
- 32.- 1682.go maiatzaren 30ko eskriptura, A. Moyak egiteko agindua, LHA, 1-4-2.
- 33.- Erabili dudan kopiak -Fundazio-Liburua ez baita 1671tik igarotzen- azken-formularik ez duelako, ez du fetxarik.
- 34.- Cfr. Libros de Cuentas, I.t. LHA, 2-3.
- 35.- Jatorriko dokumentaren kopia sinisgarri bat, LHA, 1-4-2.
- 36.- Jatorriko dokumentua LHA n, 1-4-2.

BIGARREN ZATIA:
MONUMENTU-ERAIKIN HAUNDIA

Carlo Fontana Loiolako eleizaren eta kolejoaren proiektuaren autore

Hellmut Hager

1. Aurreko zer-nolak eta histori-laburpena.

1. Carlo Fontanari Loiolako eleiz eta jesuiten Kolejiorako proiektu bat aurkezteko dei egin ziotenean, bere profesio-bizitzako enkargurik haundienetako bat eman zioten. Kolejoaren fundazioaren lehen pausoak nola eman ziren eta haren konstrukzioa aurrera nola joan den Otto Schubert-ek (1), Josef Braun-ek (2), Eduard Coudenhove-Erthal-ek (3), eta berriago Rafael M^a de Hornedok dokumentatu dute (4).

Loiolako jesuiten Kolejioa Austriako Mariana Erregin Amak, Felipe IV.aren alargunak, nahi izan zuelako egin zen, baina haren proiektua Lagundiko Aita Jeneralak, Jesus Pablo de Olivak, tramitatu zuen osoro. Eta Olivak seguru asko eleizaren proiektua bere lagun Bernini-ri (5) eskatuko ziokeen, hura proiektua lehenengo pausoak ematen hasi zenean hil izan ez balitz hainzuzen ere. Orduan enkargua, Carlo Fontanari, Bernini-ren ikasle (6) iaioenari, erori zitzaion.

»Etxe Santua» (10. eta 50. **iam.**) San Inazioaren jaiolekua, konstrukzio (7) berrian inkorporatu behar zen (1. **iam.**), eta Austriako Mariana 1682.go otsailaren 19an haren jabe egin zen. Oliva urtebete lehenago hil zen, 1681.go azaroaren 26an, Fontanaren proiektuak ikusi gabe. Charles de Noyelle etorri zen haren ondoren, hark bidali zituen proiektuak Loiolara 1682tik 1686ra jeneral zenbitartean, eta eraikitzean Fontanaren proiektuari zehatz jarraitzeko instrukzioak eman zituen (8).

»Loiolako kontu eta gastuen 1.en» liburuaren arauera, 1682.go ekainaren 16an fundatu zen, eta bazkunaren lehen sei lagunak Etxe Santuan urte hartako uztailaren 1.en egunean jarri ziren bizitzen, haien janariak, edo Azkoitian jaten zutelako edo Azkotitik zetozkielako, Azkoitiko Kolejoari ordaindu bazitzaizkion ere.

Etxe Santuan bizi ahal izatearren konpontzeko obrak, urte hartako uztailaren 13tik urriaren 31ra arte luzatu ziren (9). Alabaina, monumentu berriaren zangak ez ziren 1688.urte arte irikitzen hasi, eta Lehenengo Harria ofizial 1689.go martxoaren 28an jarri zuten.

Juan Begrand, arkitektu eta Lagundiko anai koadjutorea, Belgicatik ekarri zuten eta obra zaintzeko enkargatu.

Barneko eskailera haundiari buruzko Martin de Zalduaren dokumentu bati esker dakigunez, lehen «Maisua» Jose de la Inçera izan zen; eta 1693.go urtarrilaren 30ko kontratuan, Zaldua bera ere obran Maisu mailan sartu zen, baina kondizio hau jarri zitzaien arkitektu biei, Bergrand-en ardurapean lanegin behar zutela (10). Baina, lehenengo pixka bat geroago, 1694.go otsailaren 19an, hil zenez gero, kargua Zalduak bakarrik eduki zuen, eta han obra 1704an edo pixka bat geroago eten arte iraun zuen.

1713 eta 1714 urteetan, «Echarreta» baserria konpontzen eta Arrotz-etxea eraikitzen, aparejadore eta batean Maisu Antonio de Larraza argina agertzen da.

Eta, 1717an berriz eraikitzen hasi zirenean, Zaldua -(Bizkaiako) Lekeitiko jesulagun-kolejioaren konstrukzioa dirijitzen ari zena-, 1720an Loiolan kontsultore bezala bakarrik agertzen da Joaquín de Churrigerarekin batean. Arkitektu kargua Sebastian de Lecunak zuen, eta aldi honetan diskutitu zen eleizaren arku eta bobeden konstrukzioa (11).

Lecuna Loiolako Kolejioaren lanean maisu bezala 1719.go irailaren I.en egunean sartu zen, eta karguan bere heriotza arte egon zen, Ermuan (Bizkaian) 1733an hil arte.

Urte horretan bertan haren ondoren Ignacio Ibero sartu zen; ordurarte zizelkari iaio eta aparejadore bezala aitatzen dute, eta konstrukzioa, 1766an hil arte, 33 urtean dirijitu zuen.

Eta urte horretako azken hilebeteetan eta 1767.go apirilan jesuitak Espainatik expulstatu arte, Iberoren suhia, Javier Ignacio de Echeverria izan zen Maisu.

Eleiza eta kolejioaren eskubi egoa San Inazioaren jai egunean, 1738.go uztailaren 31an, inauguratu zituzten, barnea artean osoro bukatu gabe bazegoen ere (12).

Hogeita bederatzi urtez lanean jarraitu zuten, 1767an aitaturako jesuiten expulstioa arte. Aldi honetan konstrukzioa bigarren pisuko leihoetaraino igo zen, eta leihoak estali ahal izateko moduan. (Ikus 16. **lam.**) (13).

Konstrukzioak hirurogeita hemeretzi urtez aurrera jarraitu ondoren, obra 118 urtean eten egin zen, eta XIX. gizaldi azken aldera, hiru urteko tarte motzean (1885-1888) bukatu zen, hasi zenetik 200 urtera hain zuzen ere.

2. Fontanaren lehen proiektuak galdu.

2. Kolejioa orain dagoen bezala noraino dagokion Fontanaren proiektuari kuestioa oso ikertua izan da. Hala, adibidez, Coudenhove-Erthal-ek (14) zera onartzen du, «oso probable plantaren proiektua Carlo Fontanari atributu behar zaiolaeta ez beste inori», eta Hornedo 1956ko artikuloan konforme dago interpretazio honekin (15).Orain arte Loiolarako Carlo Fontanaren proiekturik aurkitu ez delako, puntu honek espekulatzeko bide irauten du.

3. Hager-ek Erroman haren ordeko proiektu bat aurkitu, eta gaurko konstrukzioarekin konparatu.

3. Lehenengo proiekturik eza, alde batez bete egin da orain dela gutxi argiratutako eta ezagututako plano batekin (25,30 **lam.**). Zirku-eleiz bat da estruktura haundi baten erdian, rektangulo-fondo zabal batekin, bost bailagibel inkluitzen dituena (16). Proiektu hau Andres Busiri-Vici arkitektu eta arte-historigilearen kolekzioan kontserbatzen da; eta Loiolarekin lotua dagoela nabari da eraikitako jesuiten kolejioarekin konparatzen badugu (2,21 **lam.**) eta gehiago edo gutxiago dagozkien neurrian aztertzen baditugu (17). Baina, diferentzi batzuk ere badirelako, batez ere eleizaren eraikieran eta hark bere inguruko esturturekin gordetzen duen proportzioan, lojiko diseinua azken proiektua baino lehenago fetxatu behar da(18).

Proiektua bere teknikan ez da Carlo Fontanak ohi duen estilokoa, eta, horregatik, bere marrazkia orain galdua dagoen diseinu baten kopia besterik ez dela kontsideratu behar da (19) eta probable XVIII. mende erdian edo pixka bat lehenago

egin zela. Oraingo jabearen, Andres Vici-ren, aurreko batek adkiritu zuen, hura ere profesioz arkitektoa zen; Ancona inguruko Arceviatik Erromara etorri eta han jarri zen bizitzen eta 1785an San Lucas Akademiako kide izatera iritsi zen (20).

Busiri-Vici-ren proiektuko eleizaren eta oraingo monumentuaren arteko diferentzirik haundiena hemen dago, eleizaren lau beso haundietako lau kapila haundiak tratatzeko moduan. Oraingo eleizan, kapila horiek ez dira zirkua mugatzen duen lerroz atzean sartzen, eta erdi lekua mugatzen duten zutabe bikain dupleen orde zutarri bakunakagertzen dira. Kapilen arteko dibisio-hormak kendu egin dira (cfr. L.V. 1696an). Horregatik, zisku itxiak, lehenengo diseinuan, erdileku haundia inguratzen zutenak zirku-estruktura bihurtu dira, zirku-eleizen tradizioan ohi ez bezela, gero ikusiko dugunez.

Azken horman irikitako zisku ez oso sakonetan, aldare berdintsu batzuk jarri dira (21); baina, aldare nagusiak mahai atze eta gainean zabalune haundi bat du, eta Ignacio Iberoren (22) proiektuaren arauera eraikitako erretaula ondo landu bat, aldare-gorputzaren gainean Santu zaindariaren irudiarekin eta beste bi irudi, San Jose eta San Joakin, behe-rago alde bietan (39. **lam.**).

Lehenengo proiektuaren urrats bezala hor gelditzen dira erdiko norman zehar irikitako bideak eleizaren erdi-lekura doazenak; eta aldare nagusiatzean luzatutako toki, marran bi karakol-eskailerak batzeko bide bat besterik ez zena: Bolanduek argiratutako plantaren grabatuan (10. **lam.**)(23) artean ere funtzio hori betetzen zuela indikatzen da. Ignazio Iberok haunditu egin zuen toki hori, baina ez karakol-eskailerak elkarrekin batzeko, atzeko klaustrora irikia, aldare atzean dagoen etxolari fondo argi bat emateko baizik, goiko pisuko San Inazioaren irudiari bezala. Lehenengo eskemaren urrats bat -eta garrantzi haundikoa-Eleiz atariko arkupe konbexua da, bere malda-eskailera duplearekin; hari mail sail bat perpendikular erantsi zaio, Erroman Espainia Plazaren Eskailerarako proiektu batzuen antzera (24).

4. Altzatua Fontanaren beste obren aldean.

4. Zoritxarrez lehenengo proiektuari zegokion altzatuaren marrarik ez da ageri. Hala ere, eleiz barnerako Fontanaren idearen rekonstrukzioa intenta dezakegu, beheko gorputzaren eta kupularen danborraren alturak ez dutela esentzial aldariks ufritu onartzen badugu (36, 38, 40 eta 41 **lam.**).

Gaurko erdilekuaren estruktura, zutarrietan bermaturiko arkuekin, Carlo Fontanaren besteera ikuntzen antzekoa da (hala, esate baterako, Koliseon eraiki behar zen eleizaren proiektua), (37. **lam.**) (25), eta horregatik probable lehenengo proiektuarekin bat etorriko da. Beso zeharren arku estuagoak, agian oraingoak baino bajuagoak izango ziren, «koro txikiei» toki egiteko; koro hauek Erromako Gesun egin zituzten lehenbizi eta beste erlijio-ordenako eleizetan asko ikusten ziren (26). Koro txiki horiek, orain jarrita dauden bezala (kolejioko lagun bakoitzak bere debozioak egiteko beharrezkoak) erdiko zirkura sartzeko ate gainetan zutarrien atzean daudelako, zera ematen du, ez direla Fontanaren proiektuaren arauera egin.

Danbor-barne-hormaren arearen distribuzioan, Flavioren Anfiteatroaren eleizarako Fontanaren proiektuak, zera sujeritzen du, hark gorputz nagusia zutabe edo zutarrien forman eraiki nahi zuela; alabaina, Koliseoaren proiektuan gorputzen artean agertzen den 1:1 proportzioa ez da Loiolan aurkitzen, eta danborra proportzioan bajuxeagoa da. Horregatik, ez bide da zuzen esaten -Condenhove-Erthal-ek egiten duen bezala- «bertikal luzatzen denik», ez ere admetitzen, konstrukzioa zaindu zuten arkitektoek danborraren altura goratu egin zutenik (27). Danborraren zilindru-

hormaren leihoak inguratzen duen arearen dekorazio ugaria alde batera utzita, arkitektu horiek kupularen gorputza pixka bat haunditzen eskuartuko zuten, haren orrazea -Hornedok obserbatu zuenez-Bolandoek argiratutako grabatuan baino pixka bat luzatuagoa bai da (10. **lam.**), han, izan ere, kupula bi oskol haundietan eraikitzea proiektatzen bait zen, Italiako ohituraren eta Fontanaren beraren gustoaren arauera (28). Horregatik Hornedok zuzen zera konkluitzen zuen, grabatuaren jasoerak, Fontanaren lehen proiektuaren elementuak kontserbatzen zituela, eta hipotesi hau geroago konfirmatua aurkituko dugu.

Honek eskola barnea dibisiorik gabe uzten du, eta horrek zera pentsarazten zuen, fajak geroago erantsiak izan zirela. Baina, arku tartean zabaltzen diren errezel haundiak, errege-armarrien inguruan, Fontanak oso begiko dituen apaingaiak dira eta horregatik seguru asko haren diseinu barnekoak izango dira (29). Beste modu bat zera pentsa zitekeen dekorazio hori bera baina freskoan, S. Maria del Popolo-ren Cybo kapilan aurkitzen dugun bezalakoa, adibidez; hura ere oskol-barneko zatigabeko arearekin, ia Loiolako jesuiten kolejiarako lehen proiektuen aldi berekoa da.

Kupula alboan dauden bi dorreak, dudarik gabe lehenengo eskemari dagozkio, Koliseoaren proiektuan honen antzera jarriak agertzen bai dira (18. **lam.**), hemen Erdiko gurutze-besotik kupula atzean diagonaleko puntotetan jarriak badaude ere. Linternak eta dorre-buruek nabari Fontana-ren proiektutik hartutako detaileak dituzte, hala adibidez, argontzien zirkua eta dekoratzeko pitxarrak, Fontanaren arkitekturan horren maiz agertzen direnak (30). Baina, bere ejekuzioa sastarragoa, gogorragoa da, eta irudimen gutxiago agertzen du (58. **lam.**) (31), probabile tokiko arkitektuei inpositutako ekonomiagatik.

Atearkupea bere hiru arkuekin (6,8. **lam.**), Erdikoaren gainean hiru ertz-tinpano hautsi batekin burutua (9. **lam.**), nabari romanua da eta Erromako Piazza del Pópolo-ko bi eleiz bizkietik dator, han Carlo Fontanak Carlo Rainaldi eta Bernini-rekin kolaboratu zuen (4. **lam.**) (32). Baina, arkitektuak hemen beste eredu baten influjoa agertzen du; eredu hori, Rainaldik 1662an egindako Maria in Campitelli Santuaren aurrekaldearen proiektua zen, handik datoz hiru zatiko aurre lerro kurboa, zutabe dupleak eta Erdiko arku inguruko tinpanoa (7. **lam.**) (33). Ateondoko arkuteria Bernini-ren Aricciako Maria Assunta Santutik dator; haren konstrukzioan Fontanak Juan Lorenzo-ren laguntzaile bezala eskuartu zuen (5. **lam.**) (34).

Aldakuntza gehiago nabaritzen dira oraingoko kolejiaren konstrukzioan diseinuarekin alderatzen bada. Egoen remateak, bai aurre bai atzealdean, zuzendu egin dituzte bloke berdintsu bat lortzeko (35). Aldaketa hau ego ertzeko bi eskailera txikiak egoen erdira aldatzearekin lotua dago, eta erdi horretan «inperio eskailera haundi» bihurtu dira, etxeurrearekin paralelo jarriak, bi Erdiko ateetatik sartu daitekeen leku zabal haundietan.

Zalduaren dokumentuak gauzak nola gertatu ziren jakiteko eskema garbi-garbia eskaintzen digu. Aldatzeko lehen pentsamentua batez ere A. Erretore Francisco de Ballesteros-ek izan zuen; hark bi bailagibelen lekua eskailera haundiak egiteko erabiltzeko asmoa izan zuen; horretara pentsamentu honek eragin zion, Espainan horrelako eskailerak monastetxe, konbentu, jauregi eta beste edificio haundi askotan ikusten zirela, eta, horregatik, Loiolako «Errege-Kolejioan» ere oso ondo emango zutela. Proiektua, Fontanaren proiektua asko hobetzen zuena, 1693koa da; Zalduak, Jose de la Inçera konpetidore zuela, eta Bergrand-en zainpean zegoela, aurkeztu zuen bere marra, eta hura segituan hasi ziren egiten. Egiaz «Visitas» liburuak zera esaten du, 1695an eskaileraren obragatik Etxe Santuko bi horma ikutu zirela arku

eta bobedekin. Horregatik, A. Zupide Erretoreak agindu zuelako, eskaileraren konstrukzioa aldi batean geldirik egon zen. Zalduak horren aurka gogor erantzun zuen eta bere 1702.go agostuaren 16ko memorandunean (36), A. Ballesterosi eragindako arrazoiez gainera, eta igoera erosoagoa izango zela adierazi ondoren, bere argumentu nagusia zera izan zen, eskailera berriek, eskubi bailagielean eraikiek (49.1am.), kolejoaren eta etxe-Santuaren elkartzeko bidea zabalduko zutela, hau da, San Inazio bihurtu zen gelako kapilara monumentu-bide bat ia sakratua izango zela. Zalduak ondo aukeratutako argumentuek osoro konbentzitu zuten A. Ribadeo Probintziala eta A. Tirso González Jenerala (37), eta hark eraikitzen jarraitzeko agindu zuen. Gainera, handik bi urtera, 1704an, Suzesio Gerragatik, kolejoa eraikitzen eten egin behar izan zenean, agindu horretan ez zen eskailera sartzen, eta hura bukatu egin zen»Visitas» liburuan aitatzen diren beste detaile batzuk bezala. Baina, eskubi egoko eskailera bakarrik eraiki zuten XVIII.gizaldian (38).

5. Lehen proiektuen aldakerak noiz eta zergatik egingo ziren hipotesiak.

5. Eleizan egindako aldaketak -»Visitas» liburutik, 1696, jakin dezakegunez- askoz ere lehenago erabaki zituzten.

Zimentuak ordurako orain dagoen bezala pentsaturik bota zituzten, hori proiektuak alderatzen badira nabari agertzen da eta garbi ikusten da diagono-kapilei begira osoro antzekoak direlako (39). Lehen planuan ideatutako zutabe dupelek baztertu zirenean, zutarrak monumentuaren erdi aldera haunditu egin ziren, inbelpe dupelek ez jarria konpentsatzeko.

Aldaketa horiek egin ahal izatea, lehen begiratuan, harrigarria ematen du; izan ere, ez Erroman Lagundiko Jeneralak bakarrik, baina bai eta A.Gregorio Sarmiento Probintzialak ere 1689an zera agindu bait zuten zorrotz, Erromatik bidalitako proiektua aldarik batere gabe egin behar zela(40). Horixe bera agintzen da 1692an (41), baina orain ez zer-nola batzuk gabe: garrantziko aldaketek A. Probintzialaren baimena exijitzen zuten, eta arkitektu zaintzaileen iritziarekin batera lortuko ziren. Bestalde, kapilen arteko pasua zabaltzeko erabakia 1695an bakarrik hartu zen, eta, 1696an, A. Francisco de Alençon Probintzialaren bisitan, zera esaten da, hain ondaturia zegoen kartoiezko ereduak, konpontzeko agindu zela; eta gainera beste hau, proiektuen kopia bat ateratzeko Maisuak egunero erabil zitzaizkion (42).

Hala ere, zimentuak gaur eraikia dagoen bezalako eleizarako sartu izateak, problema hau planteatzen du, ze planu zen Busiri-Vizi-ren kolekzioko kopiak ekartzen duena? Hau al zen Carlos de Noyelle Lagundiko Jeneralak aprobatutako eskema, edo aurkeztuetako anteproiektu bat besterik zen, hau da, egindako proiektuaz gainera beste aukera bat? Zimentuak esentzial oraingo eleizaren eskemaren arauera jarri izateak, azkeneko aukera hau baieztuko luke. Baina, zera eduki beharda kontuan, proiektua bidali zenetik zimentuak sartu arte urte batzuk igaro zirela. Carlos de Noyelle, planua aprobatu zuena, ia hiru urte lehenago hil zen, eta dokumentu eta monumentuaren historiari zera atera daiteke garbi, gauzak alda zitezkeela eta egiaz aldatu egin zirela.

Beraz, ez da alboratu behar, Busiri-Vici-ren kolekzioko planua hasieran aprobatutako proiektuaren kopia bat denik. Eta horixe gertatzen dela atera daiteke seguru asko, Erromatik bidalitako eleizaren planuak eta Bolanduen planu grabatuak elkarren artean duten funtsezko antzatiak (30 eta 31.iam.). Analogia estua ikusten da ere zeharreko ardatz ertzetako kapilen, egiteko orduan oraingo absidekerako zisku bihurtu zirenen, artean (33a iam.).

Hori horrela emanik, kuestio hau gelditzen da, ea gutxienez Lagundiko buruek edo Espainako arkitektuek Fontanaren oniritzia eduki al zuten aldaketak egin baino lehen. Zoritxarrez, ez dugu hori jakiteko biderik. Barnean zutabeen lekuan zutarriak jartzeko bezalako erbakiak badu bere aurreko bat Erromako Maria dei Miracoli Santuan; aldaketa hori Carlo Fontanari egotzi dakiokeela ematen du. Alabaina, Loiolako aldakuntza sakonagoa da, inbelleak ez bai dituzte akoplatu Maria dei Miracoli Santuan bezala, baina banakako zutarri lerro bihurtu dituzte. Baitere, zirku-transituko kapilen aldakuntzak Fontanaren planuen rebisio sakona supositzen duela ematen du. Eta kapila baten antzeko planuarekin konparatu badaiteke ere (43), aldatzeko pauso hori Loiolako Aita Jesuitek eman zutela dirudi, antza denez, obrako gastuak gutxitu beharrean aurkitu bait ziren, eta gero gainera jiroa zabaldu egin nahi zuten, eta guzi horiei buruz, erdileku haundiko bobeden kuestioaz eta arkuen konstrakzioaz Churrigerak asesoratu zien.

6. Proiektuak eta San Inazioaren etxeari begira egindako haien aldakerak; itxura egiteko gezuretxeaurrea.

6. Oraingo jesuiten kolejoaren proiektuak beste puntu diferente bat du Busiri-Vizi-ren planuarekin: hemen (25. **lam.**) ez dago Etxe Santua-ren kubo estruktura bere horma lodiko kajarekin seinalatua. Omisio honen explikazio egokiena agian Fontanaren planua kopiatutako arkitektuaren gogoan bilatu beharko da: batez ere eskeman beran interesatua zegoela ematen du, eta osoro marra simetriko bat lortzeko asmoarekin aldatu zuen, eta hori abagune on batean inspirazio-iturri bezala erabiltzeko egingo zuen.

»Visitas» liburuan behin eta berriz agertzen diren Etxe Santuko hormak ez ikutzeko ere aginduek, lehen proiektua egin zuen arkitektuari, Carlo Fontanari, jarritako baldintza gogoratzen dudarik gabe, eta hori, lehenengo etxearen jabeen nahiarekin batera, haiek, 1681an Erreginari ematean, beste kondizioen artean zera jarri bai zuten, »Loiolako etxearen aintzin agurgarriak irauin dezan, konstrukzio berriak ez dezala gaur zutik dagoen antzinako Etxearen hormarik lurrera bota, eta haren ondoan eraikitze baimena bakarrik ematen da» (Cfr. Henao-Villalta, «Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria», V tomoa, 135. or.).

1695. bisitako oroit-agirian aitatu bezala, agindua ez zuten bete -edo bete ahal izan- eskailera haundia egin zutenean, honek bi bider ikutzen bai du: San Inazioaren Etxearekin elkartzen den lekuan, eta bailagibelaren aldetik. Hori saihestuezina izan zenez gero, A. Probintzialak obedientzi-pean zera exijitu zuen, beste horma biak, batez ere etxeurrea, ikutu gabe geldi zitezela. Egiaz, etxeurre nagusiaren ondoan eraikitzen hasitako bobeda batzuk kendu egin zituzten. Lehenago aitaturiko agindua 1704an berriz eman zuten, orduan berriz ere oso gogor monumentu berriak bere inguruko hormekin Etxe Santuaren aldeak ikutu gabe utzi behar zituela esan zen (44).

Baldintza hau etengabe exijitzeak eta Fontanaren planuari jarraitzeko oharrak, zera erakusten du, tokiko buruek ikusten zituztela lehenengo agindua betetzen egindako egiazko ahaleginak, Zalduaren eskaileraren konstrakzioarekin elkartutako aldaketek utzi zuten uneraino. Hortik zera atera dezakegu, tokiko arkitektuek gauza horretan, *mutatis mutandis*, Erromatik bidalitako planuari jarraitu ziotela. Eta gauzak orduan nola ikusi zituzten, gaur ere egia ditzakegu, zera kontuan hartzen badugu, Etxe Santuaren erdiaroko elementu ezberdinak harnean hartzeko eragozpena, guziz Erromako Barroko Altuaren maisu haundien espirituaren arauera soluzionatu zutela eta haien eszenografi-rekursoak oso ondo zekizkitela.

Lehenago aitaturiko aginduak betez, San Inazioaren Etxea monumentu berriak «bere inguruan «hartua dauka, eta kolejio aurre altuaren atzean izkutatzen da; hau, Etxeari begiratzeko dion aldetik, gezur-aurre bat da. (3, 49, 52, 53. **lam.**). Bere leihoak, barruleihoz itxiak, ez daukate atzean Etxeaurre eta Kolejio aurre-horma tartean dagoen aire hutsa baizik. Fontanak rekurtso hau Bernini-gandik ikasi zuela dirudi, horren antzeko rekurtso bat (5, 28. **lam.**) erabili bait zuen Ariccian, Assunta-ren atze itsusia izkutatzeke Chigi jauregiaren aurretik, arealdera orientatu behar bait zen eleiza bere aurrekaldearekin. Gauza honekin elkarturik, Pedro de Cortona ere, Erroman Fontanaren lehen maisua aitatu behar litzateke; hark ere horren antzeko efektu bat iritsi nahi izan bait zuen María de laPaz Santuaren aurrekaldea diseinatu zuenean.

7. Fontanaren proiektua tradizioaren aurrean.

7. Gauza guziz jeneral kontsideratzen badugu, harritzeko gauza da, nola Fontanaren eleiz-proiektuak, Landskroneko Liechtenstein Jauregi-rako bere geroago proiektuak bezala, ez dien tokiko tradizioei lekurik batere ematen (45). Probabile Fontanak ez zituen tradizio horiek ezagutzen ere, ez bai da aitatzeko berak Espainia bisitatu zuenik. Baina haren proiektua ez dator errezago bat jesuiten eleizentzat ezarritako kategoriekin (46).Loiolako Santutegiari jeneral bagagozkio, hau Ama Birjinari konsekratutako santuetxeen, askotan antzinatik ohoretutako domina batekin edo gurtzeko foko erlikiarekin aberastuen, tradizioari lotuago aurkitzen da. Lehenago Maria in Campitelli Santuaren eleizarekin aitaturiko erlazioa-eleiz hau 1656ko izurritearen ondorengo Alejandro VI.aren enkargua izan zen, Jainko Amaren erdiaroko ikono baten egon leku berri izan zedin-ez da aspektu honetan koinzidentzi hutsa (47). Eta analisisa zorrotzago egiten badugu, irargitu daiteke Maria in Campitelli Santurako 1662ko dominaren proiektuak (7. **lam.**), ez bakarrik aurrea hartzen diola Loiolako Santutegiari etxeaurrearen estrukturari doakon horretan, baina bai eta erlijio-bazk-nentzat etxa-gorputz simetrikoak inkluitzen dituen planuaren erdileku den zentro-eleizari doakon horretan ere (48).

Garai hartan, kolejio baten proiektua zentro-eleiz batekin, Erromako San Lukas Akademiaren konkurtso baten gai izan zen. Batere harritzeko gauza ez, haietako proiektu batek -Pompeyo Ferrarirenak, lehen saria irabazi zuenak (13,24 **lam.**) Loiolarako egindako Fontanaren proiektuarekin antza pixka bat baldin badu (49). Hau plano osoaren dispozizioan, eta, berezi, erdiko atzealdearen luzaeran eta aurrekoaren itxuran ikus daiteke (6, 10, 13, 15. **lam.**). Kasu bietan leihoak zabalera ezberdineko sekzioetan, zutarri haundien tartean, sailkatuak daude, Montecitorio-ko Ludovisi de Bernini Jauregiaren (artearen bukatur gabearen) ereduaren arauera. Pompeyo Ferrari-ren altzatuaren marran idatzitako fetxa 1681 da, baina zoritxarrez ez da seguru bezala hartu behar, beste marra batzuk konkurtso bererako Penna hiriko Andres della Vallek eta Milanen jaiotako Ambrosio Ravassik egindakoek, bata bigarren eta besteak hirugarren saria irabazi zutenek, 1678 fetxa daramate (50). Horregatik, ez dago erabakitzerik Ferrari Fontanarekin lotua dagoen ala ez,oso probabile hala badirudi ere, bigarrena 1675an dagoeneko San Lukas Akademiaren instruktore aitatzeko bai dute (51).

Konstrukzio kera honetako ejemplu bat Erroman egindakoa -eta Maria in Campitelli Santuarentzat ondoreak ekarri zituena- Galla Santuaren Arrotz-etxea izan zen, Matias de Rossik egina (1683-1688). Loiolarako Fontanak egindako proiektuaren aldi berekoa izan zen (52) eta, nabari, harekin prototipo komun batez elkartua (53). Espainako kolejioaren diseinurako Carlo Fontanaren esperientzi zati haundi bat, bere arkupe-bailagibel haundiekin (45-48 **lam.**), gero Erromako San Michele arrotz-etxea

haunditzeko planuan erabili zen, baina, zoritxarrez, haren erdia bakarrik egin zen Fontanaren proiektuen arauera (1708-1714) (54).

Busiri-Vici-ren marran eleiz harnearen idea,(30. **lam.**) hala ere, ez dago Maria in Campitelli Santuarentzat egindako proiektuekin lotua; batez ere bi iturri ditu, haietako bat Aricciako Maria Assunta Santuarentzat Berninik egindako proiektua da (28. **lam.**). Bi proiektuek batera zera dute, kapilen disposizioa zentru bereko zirku barnetan, eta kasu bakoitzean antzeko disposizioaren beste elementu bat: batan sakristia, bestean atariko eskailerak.

Assuntaren funtzioa, Fontanaren Loiolako proiekturako abiapuntu bezala, zilindro-eleiz konstruzio baterako proiektuan kalkatua ematen du (29. **lam.**), eta hura ere, bere asmoan, Bernini-ren konstruzio bati oso ertsi dagokio eta ia haren arkupe luzatua kopiatzen du. Baina, proiektu honek ere bere kapilak elkarrekin lotuak dauzka eta Loiolako eleizaren proiektua berezten duen zutarri dupleen zirkua du, bere iturria Juan dei Fiorentini Santurako Miguel Angelen zurezko ereduan duena (55).

Ariccian sakristia Eleizaren toki nagusiarekin elkartzen duten pasabide estuak, eta geroagoko marrazkian, atearkupea eleiz barnearekin elkartzen dutenak, Loiolaren proiektuan zortziraino ugaritu dira eta radial jarriak aurkitzen dira.

Bigarren marrazkia, hala ere, kopia bat da, kasu honetan Bernardo Antonio Vittone-rena (56). Vittonek Fontanaren diseinua transmititzen zuela zerak baieztatu du, eskema hori bera Licchtenstein Gaztelurako, Fontanaren proiektu askotan zentru bereko atari agertzen dela (57). Zein eleizentzat egin zen proiektu hau ez da oraindik jakin. Loiolako San Inazioarekin elkartua dagoen ustea -planuaren estilo-antzek eta Aricciako Berninireneleizaren eta Loiolarako Fontanaren diseinuaren artean erdi-leku bat okupatzeak sujeritzen duten bezala- zerak bermatzen du, barneko zirkuaren diametroa (*Turingo 67 oin* = 22,68 m.) Busiri-Vici-ren marrazkiaren eleizari dagokionazitateak, eta haren diametroa *100 erromar eskubete* = 22m. da.

Hipotesi hau zuzena bada eta Vittonen planuak Loiolaren proiektu aurreko fase bat aurkezten badu, oraindik ere explikatzen egin behar da zergatik ez diren lau kapila haundienak berdin tratatzen, haiek, Erromako diseinuan, zirku hormaz areago proiektatzen bai dira. Egitura berezi hau Fontanak zirku kapila baterako egin planuan prefiguratu dago; planu hori Erromako Arkeologia eta Arte Historiaren Nazio-Institutoaren Liburutegiko albun batean aurkitzen da (27. **lam.**). Marra, izan ere, María del Popólo Santuan dagoen Cybo kapila baterako lehen diseinu bat da (58). 1680 aldera egin dago, baina baztertu egin zuten azkenean onartutako eskemaren alde; Loiolako proiektua baino pixka bat lehenagokoa da. Aldarerako eta atealderako lekuak simetriko pentsatuak daude eta kapilaren zentro-gorputzarekin zentro bera duen zirkuaren sekzio bezala. Fontanaren egiturak Aricciako Berninireneleiza gogoratzen du, han sakristia aldare nagusiaren lekuak Eleizaren gorputzetik separatzen badu ere. Honi begira, beraz, Fontanaren proiektua Lukas eta Martina Santuarentzat Pedro de Cortonak egindako lehen diseinuaren aldeago dago (59); hark Cybo kapilaren eskala txikiago eta posizio itxiagora egokitu zuen, eta Loiolaren proiekturako bigarren prototipo haundiena da.

Oraindik galdera bat gelditzen da erantzun gabe: Jirolak -Fontanaren lehen proiektuan tokiko arkitektoek sartutako aldakuntza bezala kontsideratu dugunak-tipologiko zer ikusirik bai al du zirku-eleizen tradizioarekin?

Zirku-eleiz guzien diseinutan aurkitzen ez bada ere, eraztun-arkupea lehen kristau aldietan agertzen da (Erromako Constanza Santua) (60), eta Quattrocento azkenean

Montefiascone eleizan (34. **lam.**) (61); han Fontanak gainean kupula bat jarri zion (1670-1674) (62). Rodolfo Wittkower-ek oso zuzen jo zuen Baltasar Longhenaren María della Salute Santura; hark, zortzi ertzeko planta bazuen ere, nahiko ondo influizakeen, ez Loiolako jiroa formatzean bakarrik, baina bai eta Fontanaren lehen proiektuko beste aldakuntzetan ere, hala adibidez, barnearen aldaketa -han lerrobakun batek eusten dio egalari, zutabe dupleen lekuan-, zirku-barandak eta irudiak, Loiolan, Wittkower-ek admetitzen duenez, geroago jarritako elementuak (35. **lam.**) (63). Kontextu honetan, interes du oharrazteak bi monumentuen leku haundiek ia diametru bera dutela. Eta, azkenik, eleiz biak -zirkunstantzi diferentzetatik bada ere-eszenografi-kalidade goreneko markak direla (ikus geroago; 57, 61 **lam.**).

Carlo Fontanak Longhenaren edifizio oso ondo ezagutzen zuela supos badaiteke ere, ez zituen seguru asko bere begiak konstruzio hartan jarriko -lehenago ondo bermatua gelditu den bezala-Loiolako proiektuaren azken aldia. Veneziako eleiza -XVII.gizaldi osoko eleiz-edifiziorik garrantzitsuenak- ordurako ospatsuenetako bat zelako, jiroa -Espainan garai hartako zirkuen tradizioz gabe (64)- eta Loiolako eleiz barruan inpositutako aldakuntzak, Loiolako arkitektuei egotzi dakizkieke, oker egoteko bildurrik gabe; hauek,bestalde, eleiz konstruzioan egindako aurrerapenak ondo ezagutzen zituztela ematen du.

Barman Fontanaren planuak sustantzial aldatu bazituzten, kanpo-altzatua, proiektutik epaitu daitekeen neurrian (1. **lam.**) eta ikustean nabari denez, Fontanaren idearen arauera egin zen, eta, horregatik, bere erromar jatorria barruak baino argiago agertzen du. Etxeaurrearen artikulazioa zutarri haundien sisteman eta leihoak sailkatzeko era erromarrak dira, ikusi dugunez. Horrek ez bakarrik digu pentsarazten lehenago aitaturako SanLukas Akademiarako Pompeyo Ferrariren proiektuan (13 **lam.**), baina bai eta Tiber aldera jotzen duen Carlo Fontanaren San Miguel Arrotz-etxea-ren aurpegian ere (12 **lam.**) (65), bai eta izatera heldu ezta «Sienako Kolejio»rako proiektuan ere (11 **lam.**) (66). Kasu bietan etxeurreak antzeko atikuek goratuak aurkitzen ditugu, eta nekez imajina daiteke ez zuela Fontanak Loiolarako horrelako zerbait pentsatuko eta orain dauden tokian jarriko, alboko enfasi bezala kupularen gorputzari subordinatuak. Alabaina, etxearen superestrukturak, orain dauden bezala, Zalduak diseinatu zituen, eta «1702tik 1736rako Fabrika liburuan» zirkunstantzi hau aitatzten da, teilatu eraiki berria kendu egin behar izan zutela Zalduaren «azotea»,etxeurrearen eskubi aldean dagoena eraiki zutenean eta monumentua nabari edertua gelditu zela(67).

8. Monumentua bazter inguru horretan oso ederki jarria.

8. Loiolako Santutegiaren zantzurik nabarienez da, nola dagoen monumentu hori ibar eta mendi tartean kokatua (17, 56, 61 **lam.**); hau Wittkower-ek dagoenako azpimarratu zuen (68),eta gauza harrigarriagoa da oraindik, dirudienez, Fontana ez zela inoiz Espainara etorri pentsatzen badugu. Bere erdiko proiektio konbexuaren aurrekalderako mugimendu ausarta, bere hiru arku haundiek azpimarratua (69), Azpeitia hiri aldera begira, Iraurgi ibarreko bide luzearekin konbinatzen da, eta zama haundiko kupulak, ikuslea pixka bat urrutiratzen bada, ez kolejioaren oso etxe zeharra bakarrik, baina bai eta atzeko lerroko mendi kateak ere kulmentzen dituela dirudi,eta mendiak haren estrukturaren doinu apaleko oihartzun direla (17 **lam.**).

Hauek bezalako aldeonek konbiktuko zioten Noyelleri, agian sasoi hartan Erroman ondoen informatuari, Fontanaren proiektua oso ondo zetorrela.

Loiolako jesuiten kolejioa eraikitzen ari ziren bitartean, Carlo Fontana, Koliseoan

lehen kristau aldian martiretu izandako santuen ohoretan eraki behar zen eleizaren proiektua egiten ari zen (70). Lan horrek berarekin zera zeraman, eleizaren eta Flavio Anfiteatroaren ruinen artean eszenografi lotura bat jarri behar zuen, eta han aukeratutako soluzioa, aurkeztu dugunaren antz-antzekoa izan zela dirudi. Fontanak eleizaren hiru neurri haundien altura -aurrekalde, danbor eta kupularena- Koliseoaren lerroen alturara ajustatu zuen (18 lam.) Alabaina, efektu hori, ikusi aldetik, oso artetsu kalkulatu dago (71). Berezi, ez du eleizak Anfiteatruaren proportzioei ajustatzen zaiela eman behar, aitzitik teatroaren lerroak eleizarekin elkartuak agertzen dira, eta hala lerro kurboko esi haundi batek zaintzen du eleizaren estruktura kanpokotik. Eleiza -proiektatu bai, baino egin behin ere ez zena - area haren ardatzaren azken burutik ikusi ahal izango zen, baina ez zen Loiola bezala izango, distantzira motx samarretik.

Ikusi luzeko fondo kupuladun eleizak kezka-raziko zion berriz ere Fontanari -1690. urte inguruan- Erromako San Pedro Plaza bukatzeko planuak egiten ari zenean (72). Haren proiektu batekzera propositzen zuen, Tiber-tik San Pedro plazaldera zeraman ibilbide bat, ez guziz azken aldi hauetan egindako oraingo «Via de la Conciliazione» ez bezalakoa (73), Urola ibaiari jarraitzen lehengo bidearen orde, orain Loiolako Santutegia Azpeitia hiriarekin lotzen duen ibilbidezuzenaren antzekoa. Proiektu hori justifikatzeko-hiri-area konplikatu samarra garbitu behar baitzen- bi argumentu ekartzen dira, bata, praktikoa;bestea, estetikoa: San Pedro Basilika aldera doaneta handik datorren bidea aldatu, eta Miguel Angelen kupula hobeto ikus ahal egin; hura, bat plazan jartzen bada, beheko konstrukzioaren atzeanizkutatu egiten dela ematen du; azken hau, Miguel Angelen asmoen aurka, XVII. gizaldi hasieran Carlo Madernok eraiki zuen.

Loiolarekin duen antzak ez du ia beste expli-kaziorik eskatzen. Urrutitik begiratzen bada, SanPedroren kupula konstrukzio osoaren erdian dominadore berriz agertzen da. Bat eleizara urbiltzen doan ginoan, kupula nahitaez izkututzen doa gure begientzat, bai Erroman bai Loiolan. Baina, guk ondo ezagututako egoeran aurkitzen dugun Madernoren San Pedroren fatxadan ez bezala –hark plazara ikusleagana horma batek bezala begiratzen bai du- Fontanak -nolabait ere esateko- ez zion bere ilusioa kendu nahi Loiolara urbiltzen zihoanari. Santutegiaren kupula, urbiltzen doan ikuslearentzat, bere inportantzia galtzen doan ginoan,beste foko berri bat jartzen du haren atentzioa erakartzeko. Hori Santutegiaren Atearkupeak bere hiru arkuekin eskaintzen du; haren begi haundiek, heuren mugimendu eraginkorrez, optiko ikusleari eleiza bisitatzera deitzen diote. Bat zera pentsatzera makurtuko litzateke, Erromako eleiz ospetsuenaren ezezko bisual-experientziak funtsezko garrantzia izan zuela Loiolako proiektua asmatzen hasi zirenean. Fontanak horrela guziz efikaz zera irargitu zuen, oso iaioa zela ez ikuskai hobeak bakarrik lortzeko, baina baita aurpegi ezberdinak eskaintzeko ere. Aukera hauetan agertzen du hark bere burua ondoen Berniniren meneko ikasle.

Fontana, pertsona bezala, anbizio haundi samarrekoa zen - hori esan liteke gutxienez- eta segura asko bai enkarguak egiten zizkietenekin bai bere kolegekin ez zen erraz konpontzeko halako arkitektu izango. Horrelako kalifikazioak egotzi zizkion nabari bere XVIII.gizaldiko biografoak Lione Pascolik honelako obserbazio gogor samarrak egin zizkionean: «Ondo hitzegiten zuen, eta hobeto hitzegingo zuen, bere buruaz eta bere obraz gutxiago hitzezin izan balu» (74).

Agian konpetidore gogorregia eta bere konstrukzioen defensore amorratua bazen ere –joera hori nabaritzen da bere idatz luze eta motzetan-Fontana ez zen izan bere konstrakzioek aurki zezaketeen abogadurik iaioena. Alabaina, Loiolako Santuetxe bezalako obrak, mendi eta ibar tartean horren egoki sartuak, bai eta bere

atzekaldean ere horren kontuz marratuak, lur lau zabal gainean, alboko mendi tartean (61 lam.), berez hitzegiten du; eta hau Fontanak hitzegiten edo idazten hasten zenean erabiltzen zuen hizkera baino egiagoan.

Oharrak

Artikulo hau, nere lehenagoko «Carlo Fontana and the Jesuit Sanctuary at Loyola», Journal of the Warburg and Courtauld Institutes, XXXVII, 1974, 180-289 or., estudia-ren bertsio rebisatu eta zeredoezer haunditu bat da. Nere eskerrona agertu nahi nioke A. José Ramón Eguillor-i proiektu honetan kooperatzera maitekiro otsegin zidalako, eta eskerrak eman nahi dizkiot Loiolako Histori Arkibua erabiltzen lagundu didalako eta gauzak asko erraztu dizkidalako. Baitere oso gogoan ditut A. Rafael M^a de Hornedo jesulagunarekin edukitako elkar-hizketak 1975an Loiolan aurkitu ginenean, eta poz handia ematen dit Hornedo Professorearekin batean Loiolako San Inazioaren Santutegiaren gai hau ikertzeko aukera izateak.

- 1.- OTTO SCHUBERT, *Geschichte des Barocks in Spa-nien*, Esslingen, 1908, 163-169.
- 2.- JOSEF BRAUN, *Spaniens alte Jesuitenkirchen. Ein Beitrag zur Geschichte des nachmittelalterlichen Architektur in Spanien (Erganzungsheft zu den Stimmen aus Maria Laach, cxii-cxiii)*, Freiburg. Br., 1913, 150-160 or.
- 3.- EDUARD COUDENHOVE-ERTHAL, *Carlo Fontana und die Architektur des römischen Säpftbarocks*, Vienna, 1930, 134-199 or.
- 4.- RAFAEL M^a DE HORNEDO, «La Basílica de Loyola», *Miscelánea Comillas*, XXV. 1956, 383-480 or.
- 5.- HORNEDO, *op. cit.*, 387 or., FRANCIS HASKELL, *Patrons and Painters*, London, 1963, 85. or.; RUDOLFKUHN, «Gian Paolo Oliva und Gian Lorenzo Bernini», *Rö-mische Quartalschrift*, LXIV, 1969, 229-233 or.
- 6.- Erromako jesuiten jeneral-etxeke arkibuan ez dago argibiderik Bernini enkargatua izan zenez eta Carlo Fontanak enkargua zuzen heredatu zuen ala ez irargitzeko, Erromako María del Popólo Santuaren Cybo kapilaren kasuan izan dela ematen duenez. «Collegia, Loyola» (1459/2 olimbusta N. 88/2) liburuxkak dakartzan datuak oso mugatuak dira kolejoaren fundaziorako, San Inazioaren etxea adkiritzeko, eta Austriako Marianaren patronaturako.
- 7.- *Acta Sanctorum Julii*, VII, 78. or.; ikus HORNEDO, *op. cit.*, 387 or.
- 8.- COUDEN-ERTHAL, *op. cit.*, 135 or.
- 9.- SCHUBERT, *op. cit.*, 263. or., HORNEDO, *op. cit.*, 387. or.
- 10.- Loiola, Histori-Arkibua, DOCUMENTOS HISTÓ-RICOS DE LOYOLA SEÑORIAL Y RELIGIOSA, 1-4-1, 49. z; BRAUN, *op. cit.*, 153. or.
- 11.- HORNEDO, *op. cit.*, 392. or.
- 12.- BRAUN, *op. cit.*, 153. or.
- 13.- HORNEDO, *op. cit.*, 391. or., 1884. inguruan, Pedro de Recondok kolejioa bukatzeko planuak egin zituenean (19, 21, 22, 23, 55, 60 lam.) nola zegoen jakiteko, ikus ordu-ko fotografiak Loiolako Histori-Arkibuan (cf. 16. lam.).
- 14.- COUDEN-ERTHAL, *op. cit.*, 134. or.
- 15.- HORNEDO, *op. cit.*, 411. or.
- 16.- Roma, *Colección Andrea Busiri-Vici*. Eskritura, tinta uher iluna paper zuri gainean (26,6 x 39,7 zm.) ur uherrarekin. Firmarik eta fetxarrik gabe (ikus hurrengo oharra).
- 17.- Marrazkia neurtua dago, baina ez da bereiz ze neurkera erabili den esaten. Alabaina, erromakoa delako, susmatzeko bide ematen du eskala *erromako eskubetea dela*. Suposizio horretan, marrazkiak aurkezten duen kolejoaren luzerahaundiena 620 *eskubete* da (136,40 m.), oraingo konstruzioak baino 19,60 m. gutxiago (156 m. O. SCHUBERT-en planuan, *op. cit.*, berriz COUDEN-ERTHAL-ek argiratuan, *op. cit.*, 136. or., 53. fig.); baina, konstruzioak, Pedro de Recondok 1884an marratutako planuan, direkzio horretan 151,40 m. bakarrik neurtzen ditu. Konstruzioaren zabalera, atze erdiko zabalera ez bestea, 225 *eskubete* da (56,10 m.); diferentzia ez da 6 m. baino gehiagokoa (Schubert-en planuan zabalera 62,50 m. da eta Recondoren planuan 62,00m.).
- 18.- Busiri-Vici-ren planuko eleiza proportzioan pixkabat haundiagoa da. 170 *eskubeteko* (37,40 m.)

- diametruarekin, oraingo eleizaren neurriari (35 m.) 2,40 m. kenduko zizkion. Erdi lekuaren area (100 *eskubeteko*=22 m.ko diametroa) 2 m. gutxitua dago. Planuko beste aldakuntzetarako, ikus aurrerago.
- 19.- Bristoaren orde tinta uher iluna erabiltzea, adibidez, Carlo Fontanaren marrazki autografuari begira diferentzihaundiagoa da, halaxe da ere eskala indikatzeke modua, etazenbakien idazkera. Fontanaren marrazkirako ikus ALLANBRAHAM eta HELLMUT HAGER, *Carlo Fontana. His Drawings in the Collection of Her Majesty the Queen in the Royal Library at Windsor Castle*, London 1977, 19-23 or. Aitatutako fetxa sujeskorra da, marrazkia bere ejekuzioan, garai hartako Erromako San Lukas Academiaren Concorsi Clementini-etarako marrazkiekin aldera bai daiteke. Ikus, adibidez, Nicolas Besnier-ek San Pedoren sakristia berrira-ko 171 lan egindako eskema, edo Paolo Posi-ren proiektuamonastetxe baterako bere eleizarekin 1728an. Cf. H. HA-GER, *Filippo Juvarra e il concorso di modelli del 1715 ban-dito da Clemente XI per la nuova sacrestia di S. Pietro*. Quaderni di Comentari, Roma, 1970, 7. fig., 41. oharra; AN-GELO CIPRIANI, PAOLO MARCONI, ENRICO VALIE-RIANI, *Accademia Nazionale de S. Luca. I disegni di archi-tettura dell'archivio storico dell'Accademia de S. Luca*, Ro-ma, 1974, I. bol., 242, 345... z.
 - 20.- MELCHIORE NISSIRINI, *memorie per servire alla storia della Romana Accademia di S. Luca fino alla morte di Antonio Canova*, Roma 1823, 359 or eta s. 372 or. eta ss., (THIEME-BECKER, XXIV, 1940, 327 or.). Dibujo hau, dibujo-sail ezberdin batekin bildua dago, figurazio- etapaisaje-diseinuekin, baina bai eta Carlo Fontanak Montecitorio Jauregirako egindako planuen kopia batzuekin ere; horiek kolore beltza eta gorria erabiltzen dituztelako berezten dira dibujo honengandik. Bolumen hartan bertan, Clemente XI. arentzat egindako kartela baten diseinua dago, kolore uherrez biztua eta *Girolamo Somak* firmatua, eta arrautz formako gela baten bobeda dekoratzeko dibujo bat *Tomaso Cardanok* («Thomas Cardanus») firmatua; honen izena seirehunaren inguruan aitatzen da Erromako Maria dell'Orto Santuaren konexioan (THIEME-BECKER, V, 1912, 583or.). Diseinu honekin lotua, baina ez esku berekoa, teatro baterako planu bat eta jardin-sarrera baterako atearen altzatubat dago.
 - 21.- Planu grabatuan (31. **lam.**) diagonaleko kapilek, zirku-erdiko ziskuen, oraingo aldare atzetan dauden antzekoen, forma dute eta zeharreko ardatz atzekoena ere bai. (cf. Pedro Recondoren 1884.go planua (33a **lam.**). Grabatuaren fetxarako ikus 23. oharra.
 - 22.- BRAUN, op. cit., 153. or.
 - 23.- «Acta Sanctorum»aren kooperadoreak kolejioa bisitatutako fetxa gutxi gora-behera 1721 da, Loiolako Histori-Arkibua, *Diario Histórico de Loyola*, 1713-1763, 21. or. bisita honetaz ikus bedi gainera HORNEDO, op. cit., 391. or., 24 z.
 - 24.- Cf. batez ere Sebastiano Cipriani-ren, Carlo Fontanaren ikaslearen, proiektua orain dela gutxi CESARED'ONOFRIOK aurkitua. (*Scalinate di Roma*, Roma, 1974, 321-358 or., 253. fig. eta ss.). Fetxa gutxi gora-behera 1717da.
 - 25.- Ikus H. HAGER, «Carlo Fontana's Project for a church in Honour of the «Ecclesia Triumphans» in the Colosseum», Rome, *Journal of the Warburg and Courtauld Institutes*, XXXVI, 1973, 319-337 or.
 - 26.- Hala adibidez, Maria in Campitelli Santurako arrautz formako eleizarako Rainaldi-ren planuan. Ikus FU-RIO FASOLO, *L'Opera de Hieronimo e Carlo Rainaldi*, Roma, 1961, 52. lam.
 - 27.- COUDENHOVE-ERTHAL, op. cit., 135. or., baiepen hau honetan oinarritzen zuen, denen iritzira zirku-leku nagusiaren diametroaren eta haren alturaren arteko garrantzi-ko erlazioan. Hau hark Piazza del Pópolo-n dagoen María dei Miracoli Santuarekin konparatzen du eta Fontanaren Koliseorako eleiz-proiektuarekin. Ez du konparazio batek ere konbentzitzen, izan ere kasu bietan proportzio-sistema kanpoko faktoreei lotua bai dago: lehen ejenpluan, -Coudenhovek admetitzen duen bezala- lehen eraikitako Maria di Monte-santo Santuaren eleiz bizkiaren bertikal-dimentsio faktoreekin; eta bigarrean, Anfiteatroaren alturarenakin, hari adaptatzen bait zion Carlo Fontanak bere proiektua. Loiolan, oraingo kupula baino bajuagoak, ate-arkupeko tinpanuaren atzetik, efektu txar samarra egingo ziokeen eleizari bertatik begiratuko ziokeenari (ikus COUDENHOVE-ERTHAL, op.cit., 6. **lam.**), eta orduan seguru asko Fontanak ez zukeen horrelako gauzarik egin nahi izango. Gainera bi pisuen arteko erlazioa Fontanari egokia iruditzen zaio, María di Montesanto Santuaren eleizarako alturak zera agertzen baitu, hark goiko gorputz osoro desarrollatuen eskemak nahiago zituela (ikus H. HAGER, «Zur planungs und Baugeschichte der Zwillingsskirchen auf der Piazza del Popolo in Rom», *Römische Jahrbuch für Kunstgeschichte*, XI, 1967-1968, 211 or., 155, 157 lam. eta ss.).
 - 28.- CARLO FONTANA, *Il tempio Vaticano e la sua Origine*, Roma, 1694, 361 or. eta ss.; H. HAGER, «La cristicistica della cupola di S. Maria in Vallicella in Roma e i remedi proposti da Carlo Fontana, Carlo Rainaldi e Mattia de Rossi», *Commentari*, XXIV, 1973, 300-318 or.

- 29.- Ikus bedi Austriako Leopoldoren hiletarako dekorazioa María dell'Anima Santuan 1705an (BRAHAM eta HAGER, *op. cit.*, 176, 212 or.; ALLAN BRAHAM, «Funeral Decorations in Early Eighteenth Century Romae», *Victoria and Albert museum Brochure*, 7, London, 1975, 2-14 or., frontispiece and 8. pl., eta Portugalko Pedro II.aren hiletarako Antonio dei Portughesi Santuan 1707an (COUDENHOVE-ERTHAL *op. cit.*, 30. pl.; BRAHAM, *op. cit.*, 22-24 or., 23 eta 24 pl.).
- 30.- COUDENHOVE-ERTHAL, *op. cit.*, 138. or.; BRA-HAN-HAGER, *op. cit.*
- 31.- HAGER, «Zwillingskirchen», *op. cit.* 226 or. 37 z.
- 32.- COUDENHOVE-ERTHAL, *op. cit.* 138. or.
- 33.- RUDOLF WITTKOWER, *Art and Architecture in Italy, 1600-1750*, 3rd. ed., Harmondsworth, 1973, 245 or.; idem, «Carlo Rainaldi and the Roman Architecture on the Full Baroque», *The Art Bulletin*, XIX, 1937, 280. or., 45. fig. FASOLO, *op. cit.* 54. pl.
- 34.- GIOVANNI INCISA DELLA ROCCHETTA, «Notizie sulla fabbrica della Chiesa Collegiata di Ariccia», *Rivista del R. Istituto de Archeologia e Storia dell'Arte*, I, 1929, 281-285 or.; HEINRICH BRAUER and RUDOLF WITTKOWER, *Die Zeichnungen des Gian Lorenzo Bernini*, 1931, Berlin, 1931, 115 or. eta ss.
- 35.- Honek alboko atikoen bidez etxeurrearen alturagratzen zuen; atiko horiek ertz haundian ertzeko sei leihoengainean eraiki ziren.
- 36.- Loiola, Histori-Arkibua, DOCUMENTOS HISTÓRICOS DE LOYOLA SEÑORIAL Y RELIGIOSA, 1-4-1, 52. z.
- 37.- BRAUN, *op. cit.*, 154. or.; HORNEDO, *op. cit.*, 391. or.
- 38.- Beste aldeko eskailera azken aldian eraiki zuten.
- 39.- Cf. 32 eta 33a lam.
- 40.- Loiola, Histori-Arkibua, *Libro de las Visitas que hazen los PP. Provinciales*, 9. fol.
- 41.- Loyola, Histori-Arkibua, *Libro de las Visitas*, 13. fl.
- 42.- «Obra oso aurrera dihoa Jainkoari esker. Bete bedihautsi gabe A. Probintzialak joandako Bisitan prezeptupean agindu zuena, baitere ez dadila ezertan marratik okertu: horretarako haren olak etxe barruan ondo gorderik edukitzea komeni da, eta maisuak gehienbat ateratako eta berarekin daukan kopia bat erabil dezala, eta kartoiezko eredua, oso ondatua dagoena, konpondu dezatela eta lehen bezain ondojar dezatela eta bestea bezalaxe gorde dadila, eta hala guziz benetan enkargatzen diot A. Erretoreari, baitere egin arazi diezaiola Maisuari Eleizaren proiektua planeatu bezala, kapilen pasua zabaltzeko egin aldaketarekin, proiektu hau gabe hura aurrera eramaten itsu joango bait litzateke». Loiola, Histori-Arkibua, »*Visitas*» liburua, 18 fol. eta s.
- [N.B. Dr. Hager-ek, bere estudioan zehar, Loiolako elei-zaren jiroa ederra edo eraztun-arkupea nork egin zuen -Carlo Fontanak ala Martín Zalduek- sakon kontsideratzen du, eta nik nere aldetik, kontsiderazio horiei, Loiolako Histori-Arkibuaren dokumentuak ikertu eta edifizioa bera urte askotan aztertu ondoren beste kontsiderazio batzuk erantsi nahi dizkiet:
1. Lehenbizi, A. Francisco de Alençon Probintzialarentextua Loiolako dokumentazioaren kontextuan honela ulertubehar dela uste dut: «Martín de Zalduek Maisuak, Erromatik bidalitako planuetan beste aldakuntza inportante batzuk ere sartu zituenak - etxeurreko atikoak eta barneko bi eskailera haundiak-, orain beste aldakuntza berri hau sartu du, eleizan kapila batetik besterako pasuak zabaldu egin ditu; planta horrela zabaltzen denez gero, erabaki dezala berak nola altxatu behar den, nola aurrera jarrai jakin dezagun (eta altxatu honek eskatzen zituen arku eta kapilen bobedenpean jiroa edo eraztun-arkupea sortuko zen).
 2. Pasuen zabaltze hori Erromatik etorri izan balitz, handik etorri beharko zuen ere altxatuaren soluzioa: soluzio hau, problema sortu zuenak eman beharko zuen. Gogora bedi, Fontana ez zela behin ere Loiolara etorri, ez planuak egiteko ez eta obra dirijitzeko ere; ez da jakin ere, konstruzioan inoiz ere hargana jo zenik, hura bizi zenean ere obra egitean sortzen ziren problemak solutzeko.
 3. Eleizaren sotanoetan, hau da, eleizaren zimentuetan, kapila batetik besterako pasuak estuak dira, zuzen metro bat dute zabalean, eta zabalera horixe zuten hain zuzen ere kapila batetik besterako pasuek eleizaren lehen plantan. Horregatik, zabaltze horiek ez ziren Erroman ideatu, Loiolan baizik, zimentuak bota ondoren eta eleizaren planta eraikitzen hasitako orduan. Hager D.ak -Witkower ezagutzen eta zititzen duenak, eta estudio oso honetan pasuen zabaltzea Zalduek ideatu zuela admetitzen duenak- 4. numeruan zera afirmatzen duenean «eleiza orain dagoen bezala egiteko, pentsaturik bota zirela zimentuak», expreso diagonal- kapilen estrukturaz ari da eta zortzi zutarrien

haunditzeaz, bahin lehengo zutabe dupleak baztertu zirenean, baina ez ditu hemen tratatzen ari garen sotanoen pasuak ikutzen, ez du kuestio horretan pentsatzen.

Signatua: José Ramón Eguillor S.I.]

- 43.- HAGER, «Loyola», 285 or., 37 z., 68 b lam.
- 44.- Loiolako Histori-Arkibua, »*Visitas*» liburua, 1695eta 1704.
- 45.- COUDENHOVE-ERTHAL, *op. cit.* 141 ss. or., BRAHAM-HAGER, *op. cit.*
- 46.- JEAN VALLERY-RADOT, «Le recueil des plansdédifices de la Compagnie de Jesus conservé a la Bibliothè-que Nationale de Paris», *Bibliotheca Instituti Historici* S.J.,XV, Roma, 1960.
- 47.- Wittkower, «Rainaldi», *op.cit.* The Art Bulletin,XIX, 1987 or. ss; HAGER, «Zwillingskirchen», *op.cit.*, 297or. s.
- 48.- Ikus bedi 1662ko domina eta María in Campitelli Santurako Rainaldi-ren atzen proiektua, Wittkower, «Rainaldi» *op. cit.* The Art Bulletin, XIX, 1937, 287 or., 52, 53 fig.
- 49.- S. Lucas Academiaren Arkibua Erroman, Cartella III-B, 362, planua. Tinta uherrez idatzia, paper zuria, 0,56xl,10 m. Inskripzioak: «Prima Classe dell'Architettura.Pompeo Ferrari Romano. Primo Premio» (gainean, behan, ezkerrean) eta «H» (azpian). 353 numerua, etxeurre nagusiaren altzua. Eskriptura, tinta uher ilunaz paper zurian,0,52 x 1,10. Marrazkipean inskripzio bat: 362 z.ari dagokio.1681 fetxa beste esku batek erantsia. 381 z., sekzioa. Eskriptura, tinta uherra paper zurian, 053ál,10 m. Marrazkipean inskripzioa, 362 z.ari dagokio. 362 eta 353 zenbakiak Bernardo Vittonen kopiatu zituen, París, Musée des Arts Décoratifs, II. bol., 146 eta 148 fol. RUDOLF WITTKOWER,»Vittones Drawings in the Musée des Arts Décoratifs», *Studies in Renaissance and Baroque Art Presented to Anthony Blunt on His 60th. Birthday, London-New York*, 1967, 167.or.
- 50.- MARCONI, CIPRIANI, VALERIANI, *op. cit.*, 20,21, 22 zz, Penna hiriko Andrea de Nicolangelo della Valle-ke gindako proiektua, bigarren saria (inskripzioa: «1678» 363z.an) eta 366, 367, 368 zz.: Milango Carlo Antonio Ravassik egindako proiektua (inskripzioa: «1682» 366 z.an). Diseinu guzietan eleiza aurreko egoaren erdian jarria dago, baina haietako batek ere ez du Loiolako jesuita-kolejioarekin antza berezirik. Nahasmen handia dago Concorsi Accademiciren proiektuen fetxa inguruan; ikus H. HAGER, «Il modello di Ludovico Rusconi Sassi del Concorso per la Facciata di S.Girolamo in Laterano (1732) ed i prospetti a convessità centrale durante la prima meta del Settecento in Roma», *Commentari*, XXIII, 1971, 40 or.
- 51.- HAGER. «Carlo Fontanas Project for a Church»,*op. cit.*, 328 or.
- 52.- Fontanaren original-proiektua 1676 1679 artean datatzeko, ikus bedi H. HAGER, «Carlo Fontanas project for a Church», *op. cit.*, 325. or.
- 53.- Destruktu berria. Etxeurrearen estudioa VASIN, *Magnificenze*, IX, 1759, 177. lam. MARIANO ARMELLINI, *Le chiese de Roma dal IV secolo al XIX*, 2.en ed., Roma,1942, lam, 774. orrian.
- 54.- Konklusio honetarako arrazoiak Hospizioaren pla-nuaren simetrian oinarritzen dira (ikus BRAHAM-HAGER,*op. cit.*, 141 or. eta H. HAGER, «Carlo Fontana e lingrandimento dell'Ospizio di S. Michele. Contributo allo sviluppo architettonico di un'istituzione caritativa del Tardo BaroccoRomano», *Commentari*, XXVI, 1975, 344-359 or.
- 55.- Migel Angelen Erromako S. Giovanni dei Fiorentini-ren eredurako, ikus JAMES ACKERMAN, *The Architecture of Michelangelo*, 2.en ed., I. London, 1966, 69. fig.,71a, 71b.
- 56.- VITTONEREN bolumenaren 186. fol. *Musée desArts Decoratifs-an*, 49. oharrean aitatuan. Eskriptura paperzurian tinta uherrez (0,25á0,19 m.). Preparatzeko lerro batzuk paper zurian lapitzez idatziak kontserbatu dira. Eskala, bidezko denez, Turingo oinetan indikatua dago (oin 1 = 0,34m.). Bolumenaren konposiziorako ikus WITTKOWER,»Vittone Drawings» *op. cit.*, 165-172 or.
- 57.- Ikus BRAHAM-HAGER, *op. cit.*, 362. lam.
- 58.- H. HAGER, «La Capella del Cardinale Alderano Cybo in S. María del Pópolo, *Commentari*, XXV, 1974, 47-61 or.
- 59.- NOEHLES, *op. cit.*, 73. or., 55. fig.
- 60.- HORNEDO, *op. cit.*, 410. or.
- 61.- Montefiascone-ko katedralaren historiarako Renazimendu aldiari, ikus HANS OST, «S. Margherita in Montefiascone. A centralized Building Plan in the Roman Quattrocento», *The Art Bulletin*, LVII, 1970, 373-389 or. (Barrukobistak, 9, 10 **lam.**). Fontanak ze lan egin zuen jakiteko, cf. H.HAGER, «Die

- Kuppel des Domes in Motefiascone. Zu einem borrominesken Experiment von Carlo Fontana», *Römisches Jahrbuchfr Kunstgeschichte*, 15, 1975, 143-168 or.
- 62.- WITTKOWER, *Art and Architecture, op. cit.* 245 or.
63. WITCOWER, *Art and Architecture, op. cit.*, 386 or., 16 z. Norbaitek zera objeta dezaidake, Canal Grande-ko eleiza oktogono-plantakoa dela eta, horregatik, beste kategorikoa dela. Alabaina, objektu horri erraz erantzun dakioke, oktogono- eta zirkulo-eleiz tipoak oso estu lotuak bai daude heuren artean, eta beren desarroiloan bata besteekin elkartuak bai daude (cf. Hager, «Zwillingskirchen», *op. cit.*, 261ss.). Obelisko kerako pinakuloak kupulari eusten dioten hormen oinean (59. **lam.**) seguru asko della Salute eleizatik zuzen aldatutako zerbait izango dira, hango linternan antzeko posizioan bai daude.
- 64.- HORNEDO, *op. cit.*, 410. or.
- 65.- Hospizio etxearen historiarako, ikus H. HAGER, »Carlo Fontana e l'ingrandimento dell'Ospizio di S. Michele», *op. cit.*, eta BRAHAM-HAGER, *op. cit.*, 137-150. or.
- 66.- London, British Museum, Map Department, 7 table 57, «Disegni diversi», 50. fol. Idazkera eta diseinutinta paper zurian tinta ilunakin, 26,9 á 48 zm., eskala gabe. Proiektu hau 1700. urte inguruan fetxa daiteke. Dagozkion planuak eta marraren sekzio bat 38, 41, 44 eta 48 fol. daude. Bolumen honi doakona ikus bedi BRAHAM-HAGER, *op. cit.*
- 67.- *Loiola, Histori-Arkibua, Libro de visitas que hazenlos PP. Provinciales; Libro de las Consultas deste R. Colegio*, Uztaila, 1711; *Liro de la fábrica desde Septiembre de 1702 a Agosto de 1736*: cf. Urria 1702; Martxua, Apirila, Maiatza 1713; Urtarrila, Maiatza 1717.
- 68.- WITTKOWER, *Art and Architecture, op. cit.*, 245. or.
- 69.- Eleizaren arkuen eta haren Atearkupearen konstrukzioarekin elkarturiko problemak argitzeko, ikus bedi JOSE RAMON EGUILLOR S.J., »Intervención de Joaquín de Churriguera en la construcción de la Basílica de Loyola», BRSBAP, San Sebastián 1977, 441-450 or., eta liburu honetan bertan 62-63 or.
- 70.- Carlo Fontanak Clemente XI. ari berriz ere bere lehen proiektuaren bertsio aldatu bat aurkeztu zion, baina turkuen gerragatik ez zuten hura egin. Cf. H. HAGER, «Carlo Fontanas Project for a Church», *op. cit.*, 334 or.
- 71.- H. HAGER, «Carlo Fontanas Project for a Church», *op. cit.*, 329 ss.
- 72.- H. HAGER, «Progetti del Tardo Barocco per il terzo braccio del colonnato di Piazza S. Pietro a Roma», *Commentari*, XIX, 1968, 299-314 or.
- 73.- TIMOTHY K. KITAO, *Circle and Oval in the Square of St. Peters. Berninis Art of Planning*, New York, 1974, 61-66 or. Cfr. Review by John A. Pinto, *Journal of the Society of Architectural Historians*, XXXV, 1976, 234 s. or.
- 74.- LIONE PASCOLI, *Vite de pittori, scultori ed architetti moderni*, II, Roma, 1736, 542 ss. Ikus HENRY MILLON, BRAHAM eta HAGER-EN reseña, *Carlo Fontana. The Drawings at Windsor Castle, Journal of the Society of Architectural historians*, XXXIX, 1980, 74.

Loiolako errege-kolejioaren eta eleizaren konstrukzioa 1688an hasi zenetik 1767an eten arte

Rafael M^a de Hornedo S.I.k

1956. urtean, San Inazioaren heriotzaren laugarren mendea betetzen zelako, Loiolako Basilikaz (1) nere lehen estudioa argiratu nuen, nere lehen iker-lan azkar baten frutu bezala. Geroago gai horretara osatzeko asmoarekin itzuli naizenean, Loiolako Arkibura (2) behin eta berriz joan ondoren, hainbeste datu berri aurkitu dut, lana burutik burura berritu beharra dagoela iruditu zait.

Carlo Fontana arkitektu aukeratu (1681)

Zera pentsa zitekeen, errege-fundazio bat zelako, Loiolan Salamankan bezala gerta zitekeela, hau da, han Erregearen emazte Erreginak, Austriako Margarita Andreak, fundatutako Kolejioaren proiektua egiteko, Felipe III.ak bere arkitektu haundia, Juan Gómez de Mora (3) aukeratu bait zuen.

Alabaina, ez dugu daturik ezagutzen Austriako Mariana Erregin Ama Andreak, Loiolako Patroi eta fundadoreak, puntu hau tratatu duenik esateko.

Hori ezik, badago ordea, 1682.go maiatzaren 24ko fundazio-eskripturan orientatzen duen klausula bat honela dioena: «Probintziak (jesulagunenak) Eleiza eta Kolejioa, esandako gainontzekoekin, haundia eta ona, fundazioko errentei dagokiena» (4) egiteko obligazioa eduki behar du. Hitz hauek zera adierazten digute, Loiolan Lagundian indar zegoen arauari jarraitu zitzaioela, hau da, konstrukzio berriak tokiko jesulagun Probintziako Superioreen gain egoten zirela. Gehienbat, Superiore hauek designatzen zituzten arkitektuak eta haien gain zegoen obren finantziazio eta direkzioa. Baina, Loiolako kasuan, exzepzio bat izan zen: Juan Pablo Oliva A. Jeneralak, agian etxea Fundadorea jaiotako lurretan eraiki behar zelako, arkitektuaren elekzioa beretzat reserbatu zuen.

A. Olivak oso lagunkiro tratatzen zuen Bernini Jaunarekin, eta probable hitz ere egin zuen harekin geroko Loiolako Kolejioaz. Baina, fundazio-tramiteak atzeratzen zihozelako, luzapen honetan hil egin zen Bernini (1680, azaroak 28) eta abagune hori galdu zen; bestela Espainan, Urola ibai ertzean eta Izarraitz mendi haundiaren oinean, Gipuzkoako Iraurgiko ibarrean, arkitektu eta eskultore jenioaren obra bat edukiko genuen.

Bernini gabe gelditu zenean, A. Oliva Carlo Fontanagana joan zen; Berniniren ikasle eta haren enkargu batzuek egiteko haren jarraile zen, eta Loiolako San Inazioaren Errege-Kolejioaren planuak enkargatu zizkion.

Handik urtebetera hil zen ere A. Juan Pablo Oliva (1681, azaroak 8), eta haren ondoren, Jeneral A. Carlos Noyelle egin zuten; honek Fontanaren proiektuak Espainara bidali zituen.

Lehen planuak. Aldakuntzak.

Fontanaren diseinu orijinalen azterrenik ere ez zegoen batere, orain dela gutxi, 1974an, Hellmut Hager-ek, Fontanaren obra, bai egin bai proiektua, hain ondo ezagutzen duenak, Andres Busiri-Vici-ren, arkitektu eta arte-historigilearen kolekzioko plano bat (25. eta 30. laminak) Loiolako (5) planua zela arkitu arte.

Busiri-Vici-ren planuak zera zekarren: estruktura zabal baten erdian zirku-eleiz bat eta atzean rektangulo-konstrukzio haundi bat, barruan bost bailagibel zituena. Bi planu horiek berdinak direla, oraingo konstrukzioaren planuarekin alderatu hutsez errez ikus daiteke (2. eta 25. laminak).

Hager-ek zera uste du -eta hortan arrazoi du-azken planu-aurreko proiektu bat dela (6).

Azken proiektu hauetan ez dira lehenengo proiektuko rotondako zutabe biribil dupleak agertzen eta haien lekuan zutarri laukituak daude. Aldaketa hori atzen planuak Erromara bidali baino lehen sartu zuten, ohartzen du ondo Hager-ek, oinarriak eleiza orain dagoen bezala pentsatu ondoren bota bait zituzten. Ondorengo dokumentuetan reforma honen daturik ez aurkitzea Hager-ek dioenaren aldeko argumentu bat da, beste aldakuntzen daturik bai bait dago, gero ikusiko dugunez.

Azkenik, zutabe biribilen ordeztuak Fontanak berak jarri zituela zerak baiesten du, «oraingo erdi-leku haundi horren estruktura, arkuak zutabe laukotueta bermatuekin, Carlo Fontanaren beste konstrukzioen antzekoa izateak (Koliseon eraiki behar zen eleiz baterako proiektuan, adibidez) (37. lam.)» (7).

Horrela, ba, hain erroma-estiloko zutabe biribilen motibuak, Fontanari oso begiko zitzaionak, aldaketa tokiko maisuek sartu zutela pentsatzera eragingo baligu ere, ez zela horrela izan onartu behar da Hager-ekin, sustutuzioa Fontanari berari zaiola zor, agian diru gastuek behartuta, Hager-ek susmatzen duenez.

Aldaketa hauek eta litezkeen beste batzuk egiteko nahiko denbora izan zuten, A. Olivak Fontanari enkargua egin zionetik obrak hasi arte, zazpi urtebete igaro bait ziren.

1688an hasi ziren zimentuak irikitzen (8). Hala ere, hilabete baino gehiago pasa zen, Azpeitiako Rejimentuari jakin erazi baino lehen. Hori 1689go martxuaren 26an egin zen, A. Azconak korporazioari lehen harria jartzeko aktura hotsegin zionean. Baina, ordurako bazekiten zeredozer. Izan ere, 13an edukitako batzarrean alkateak zera esan zuen, Kolejioa lehen harria jartzeko gertutzera zihoala: «Orduan Jaun haiek harat joateko erabakia hartu zuten, eta ehun mosketero eramango zituzten zupin-agurra egiteko eta Castillako zuriaren bi karga prepara zitezela, moskete-

ruer eta obran lanean ari ziren ofizialei refresko bat emateko». Halaxe, 1689go martxuaren 29an, mosketeruen zupin-agurren tartean eta Rejimentua eta Azpetiako eta Azkoitiako Jaunak aurrean zeudela ospatu zen lehen harria jartzeko zeremonia. (9)

Saneamentua

Loiolan ur problemarik bazegoela gauza jakina da, *loiolak* euskeraz *loitsua* esan nahi bai du, espaineraz Nabarra herriaren *lodosa* izenak ere hori esan nahi duen bezala.

Historiko, gainera, gauza jakina da, Loiolako orubean, etxe ate ondoan igara bat jarria zegoela (10).

Baina, igara hori non zegoen? Berri jakingarri bat zeran aurkitzen da: *Libro grande de Acuerdos de la Justicia y Reximiento de Azpeitia liburuan*. Hemen hau irakurtzen da, 1689go Urriaren 16an auzo batzuk keja egin zirela Azpeitiako Udalean, izan ere «Errekarte bien artean Loiolara zihoan errekarri ohiko bidea aldatu ziotelako -Loiolako San Pedro baseleizaren ondoan igarotzen zen- bide hartatik ibili behar zutenei kalte haundia egiten bait zien» (11).

Hemendik zera ateratzen dela dirudi, 1689an Sistiaga erreka bidea aldatu egin zutela, eta ordurarte bezala haren urak Loiola aldera errotari eragiteko Errekarte eta Errekartexo bi baserrien erdian joan beharrean, baserri haietara iritsi baino lehen okertu egin ziotela bidea, eta horrela bere berezko bidean jarriko zutela, seguru asko igara egin baino lehenago izango zuen bidean.

Litekeenez, auzo kaltetuen keja-unean, ez zioten bide berriari soluzio egokirik eman. Dena dela, ziur behintzat zera dirudi, Loiolako orubean eraiki nahi zen edifizioarekin, igara kendu egiten zela; horrela saneamentu-problema betiko garbitua gelditzen zen.

Eraikuntzaren lehen pausoak

Kolejio berriaren obrak dirijitzen, beste inor baino lehen, Juan Begrand Anaia agertzen da. A. Jeneralaren Jesulagun-Probintzi berekoa izateak, zera sujeritzen du, A. Noyellek berak designatuko zuela kargu honetarako. Alabaina, seguru asko Loiolara -zuzen noiz etorri zen fetxarrik ez badago ere- Noyellen heriotzaren (1686, Abenduak 12) (12) ondoren etorriko zen.

Nola aukeratu zuten atzerritar hori Loiolako konstrukzioa dirijitzeko? Zerk explikatzen du hori? Zerak, ordurako hil bait ziren Espainako izen haundiko jesulagun arkitektoak: Pedro Sanchez, Francisco Bautista eta Pedro Mato (13) Anaiak, XVII. mendeko Espainako jesuit-arkitektura argitu zutenak.

Braun-ek dioenez, Bergrand bere Probintzian hark eraikitako eleiz batzuen konstruktore bezala seinalatu zen; eleiz horiek, gehienetan, besteen proiektuak ziren (14).

Loiolan oso aukera ona eskaini zitzaion Begrand A.ari bere konstruktzeko eskola agertzeko, etxeazpiko obra izugarrian, haien normen, harroinen eta arkuen ziklope-egituran; Echeverriak atsegin eta astiro deskribitzen ditu denak (op.cit. 92-93 or).

Fontana behin ere Loiolara etorri ez zenez gero, zera pentsa daiteke, Begrand-ek nahiko esku edukiko zuela obra gainean sortzen ziren eragozpenak resolutzeko, hori bai, proiektuari oso ertsi lotzen zitzaioela, beti «proiektuari osoro jarraitzeko agindua betez, eta zera itxaron dut, ez dela aldaketarik batere izango, hemen eta Erroman nabari izango ez eta inola ere utziko ez litzatekeenik». Honela urjitzen zuen Gregorio Sarmiento Probintzialak 1689.go irailaren 1ko oroit-agirian, eta dokumentu horretan eskerrak ematen zizkion Francisco Alençon Erretore Aitari «konstrukzioan zeukan arduragatik, lan asko egin zelako» (15).

Etxeazpiko konstrukzioaren martxa moteldu egingo zen 1690an, urte horretan, edifizio berriaren eskubi aldean, Arrotz-etxe bat eraiki bait zuten, Santutegia bisitatzera zetozenak alojatzeko. Horrekin -ohartzten zuen Probintzialak 1691.go uztailaren 16ko bisitaren oroit-agirian- obra horretan, fabrikatik kendutako diru asko gastatu da, eta dirurik batere ez okertzeko eskatzen du, lehenbaitlehen burutu dadin, eta Kolejio horretan bizi direnentzat bizi-gelarik dadin, eta horrela ahal bezain estu agintzen dut, ez dadila eskubete igeltsurik ere sar obra horietan» (L.V. 10. eta 11. or).

Alabaina, oroit-agiri horretan Probintzialak zera aitortzen du, «obra asko haunditu dela atzeneko ikustalditik nona».

Izan ere, 1690tik Loiolan, Begrand-en mendean, Jose de Laincera (16) obra-maisua aurkitzen dugu obra dirijitzen, eta horregatik, dudarik gabe, langileak ugaritu egingo ziren, eta hortik sortuko ziren Probintzialak aitortutako «haunditzeak».

Honek aurrerako zera agintzen zuen: «batez ere etxealdeak egiten jarraitu behar da Eleiz eta etxearen zolaraino berdindu arte, gero arroztegi aldera dagoen etxealdean

ofizial gehiago jartzeko» (L.V. 11. or).

Beraz, eskubi egoan egiten zen lan, Azpeitira begiratzen duen ego aldean, eta haren perpendikularrean, ego aldera, arrotz-etxera begiratzen duen aldean. Alde hauek 1691.go udazkenerako etxondoaren zolaraino iritsi hurren egongo ziren; altura hori erabaki zuten eleizarentzat eta gainontzeko edifizio berriarentzat.

Hurrengo urtean, 1692.go urriaren 14ko bisitaren oroit-agirian Antonio Caraveo A. Probintzialak berriz esaten zuen, azkar ibili behar zela Kolejio berrian bizitzeko gelak gertutzen: «Obra hain aurrera doanez gero, eta Etxe Santuko tokia hain estua Kolejioak dituen lagunentzat -denak Etxe Santuan bizi ziren- oso on egingo da gelen egitura, pertsonak bizitzeko izango dena, aurreratzen bada, eta horrela A. Erretoreak zera disposituko du, fabrikatik, batez ere Eleizatik, eskurik kendu gabe, ardura haundiena gelak bukatzen jar dezala» (L.V. 14. or.) (17).

Ohar horiek emanda ere, eta Erromak eta A. Probintzialek Erromatik etorritako proiektuak ez aldatzeko eta kanbiatzeko behin eta berriz agindu arren, 1692an garrantzi haundieneko inobazio bat sartu zen, proiektu hauen bukaera atzeratu zuena.

Eskailera haundia. Martín de Zaldúa (1692-1695)

A. Francisco Ballesteros Erretore berriak, Espainan kolejio, konbentu, jauregi eta are etxe pribatuetan eskailera ederrak egin ohi zirela kontsideratzean, Fontanaren planuetan eskailera haundi bat falta zela ikusten zuen, eta zera pentsatu zuen «oso gauza egokia izango zela Errege-Kolejio honetan ahalik onena egiten bazen» (18).

Nahitako eskailera hura, alda haundirik gabe, lehenengo planuetan bost bailagibeletako bati destinatutako tokian, Kolejioaren sarrera ondoondoan, egin ahal izango zen. Gainera lekua irabazten zen: kendutako eskaileraren tokia berriz betetzen bait zen, eta lau ertzak zuzentzetik, hau da, haren zola zatitua osatetik sortutako lekua irabazten zen (2. **lam.**); horrela aurrekaldeek ertzen lerro zatitutik, Fontanaren lehen planuan zutenetik, sortzen zen mugimendua galtzen bazuten ere.

A. Ballesteros-ek guzi honetan alda haundirik ikusi ez bazuen, ez eta A. Antonio Caraveo Probintzialak ere ez zituen aurkitu, gorago aitaturiko 1692.go bisitako oroit-agirian zera konsignatu bait zuen: «A. Jeneralak behin eta berriz agindua dauka ez dela inola ere aldatu behar garrantziko gauzarik Erromatik etorritako proiektuan; eta maisuei zerbaitetan aldaketa haundi samarren bat egin behar dela iruditzen bazaie, jakin eraz biezadate neri lehen, eta bidal biezazkidate horretarako eskaintzen zaizkien arrazoiak, Erretorearekin hitz egindako eta maisuen iritziarekin erabakitako guzietan ez bestetan.» (L.V. 13 or.).

Baina, gaur miresten dugun monumentu-eskailera hori, ez Lainerak, baina arkitektu berriak egingo zuen.

1693.go urte hasieran, A. Ballesteros-ek, seguru asko A. Begrand-ek (19) osasun gutxi zuelako, Martín de Zaldúa arkitektu maisua admetitzeko erabakia hartu zuen, eraikitzen ari ziren Kolejioaren obrak zaintzeko.

Martín de Zaldúak orduan berrogei urte zituen (20) eta Lázaro de Laineraren emaztearekin ahaidegoren bat bazuen; agian, hark zituen aldeonekin batera, horrek lagunduko zuen, urte haietan lurraldean lan egiten zuten obra-maisuen artean Zaldúa aukeratzeko.

A. Ballesteros-en eta Martín Zaldúaren arteko kontratua biek Loiolako Kolejioan 1693.go Urtarrilaren 30an firmatu zuten. Begrand Anaiak obraren Maisu titulua eta

harén goi direktziora kontserbatzen bazuen ere, praxian direktorea aldatu egiten zuten, kontratuagatik Martin Zalduak obligazio hauek hartzen bait zituen: «egunero obran aurkitu behar zuen, eta dena berunean eta nibelean doanez zaindu... Langileak egunero askotan bisitatu behar zituen bakoitzak bere eginbeharra betetzen duen ala ez eta emandako molde eta neurrien arauera lan egiten duten ala ez ikusteko. Eta hori bai udan bai neguan egin behar duela ulertzen da. Eta arku, ate, leiho eta gainontzeko guzirik behar diren molde eta monteak seinatu behar ditu. Eta baldintza honen behan, ez duela molde bakar bat ere egingo, ez obra hartan inon ere lan egiten hasiko, eta hori arzolatik beretik, haren maisu Anai Begrand-ekin hitzegin eta kontsultatu baino lehen... Eta harroin-gain edo armarrari edo antzekoren bat landu behar denean, buztinean edo egurrean grabatzera edo inprimitzera behartua dadila. Eta armarrari bere eskuz landu eta iriki behar ditu. Eta baldintza berezi honekin: ez du bere kontura inon ere beste obrarik hartu ahal izango, ez da ere haietakoren bat bere begiz ikustera irtengo, Igande eta jai egunetan izan ezik. Eta noizbait, interes handia duelako, A. Erretoreak batenbat ikusteko baimena emango balio, hutsegingo litukeen egunak bere jornaletik kendu egingo zaizkio, eta gauza bera ulertzen da beste ausentzi eta gaisoaldiengatik».

Biek batera onartutako jorrala obra-maisuek jaso ohi zutena zen «egunero hamabost Belloiezko Errial bai lan-egunengatik bai eta Igande eta jai-egunengatik ere... Eta ohar honekin, halabehar batez obrak gelditu egin beharko balu, Martin Zalduaren jorrala ere gelditu egingo litzateke» (21).

Loiolara lan egitera sartu bezain laister, Zaldua beste ezertan baino lehen eskaileraren proiektuan okupatu zen. Haren historia honela laburtzen zion urte batzuk geroago, A. Tirso Gonzalez Jeneralari 1702.go agostuaren 16an idatzitako eskutitzan:

A. Francisco Ballesteros-ek oso astiro kontsultatu eta hitzegin zuen gai horretaz nere aurreko Anai Begran eta Joseph de la Yncera-rekin... eta azkenik nerekin gustuari buruz. Zera uste izan genuen batere diferentziarik gabe, eskailera, eskaileraren lekuan etorriko zen Bailagibela aina kostako zela; eta berebat zera uste genuen nahiko eta behar ziren argiak edukiko zituela» (22).

»Gauzak horrela, Joseph de la Yncerari proiektu bat egiteko enkargatu zion. Eta hark egin egin zuen. Azkenik, orain dudan arlo honetara etorri nintzenean, Erretore Jaunak beste bat egin erazi zidan; Anai Begran-ek oso astiro aztertu zituen, eta aztertu ondoren, nerea aukeratu zuen eta zera esan zuen, Martin de Zalduaren proiektuaren arauera joan eta egin zedila eskailera; eta tramite guzi hauek egin ondoren, nere aurrekoen direktzio behan egindako zimentuen gainean hasteko erabaki zuen» (23).

Beraz, monumentu-eskailerari oinarria jartzea 1692an Begrand eta Lainerari dagokio, eta 1693an, oinarri horren gainean, Martin de Zalduak diseinatutakoa hasten dira jasotzen (49. **lam.**). Horrelaxe erabaki zuen bertan A. Ballesteros eragileak, zeukan diru ugariari esker (24).

Eskailera berriak edifizioari halako jaun-aire bat emanez gainera, oso ondo resolutzen zuen Kolejiotik Konbertsio-Kapilara zuzen doan bidea. Baina, hori lortzeko, Etxe Santuaren hormak ikutu behar izan ziren, eta gai horretan agindua hautsi.

Etxe Santua eta eskailera

Puntu honek, oso garrantzikoa delako, reflexio bat merezi du, gai horretaz kontserbatzen diren dato bakan horiei buruz.

Dokumentu zaharrenetatik nabari da Etxe Santua ikutu gabe kontserbatzeko akordua. 1681.go uztailaren 14ko Carlos II.aren errege-zedulan ohar hau egiten da: «Loiolako Etxearen antzinatasunak iraun dezan, ez dezala konstrukzio berriak, gaur zutik dagoen (25) lehengo Etxearen hormarik lurreratu, eta zera bakarrik uzten da, haren ondoan eraikitzen» (26). Eta 1684an zera agintzen du «konstrukzio berriarekin ez dadila Etxearen obrarik batere ondatu».

Interesko gauza izango litzateke, lehenbizi Fontanak arau hauek nola bete zituen ikertuko bagenu; gauza zaila benetan, izan ere, Hager-ek ohartzen duenez, Busiri-Vici-ren planuan (25. **lam.**) «ez da Etxe Santuaren kubo-egitura bere horma lodiko kajarekin agertzen» (2. **lam.**). Zergatik omisio hori? Explikaziorik egokiena hau izango litzateke: Fontanaren planua kopiatu zuen arkitektuaren gogoia. «hari, batez ere, eskema bera zen bezala interes zitzaiola dirudi, eta oso proiektu simetriko bat lortzeko asmoarekin, abagune on baterako inspirazio-iturri bezala erabiltzeko, aldatu egin zuen» (27).

Zeinen egia den Hager-en egiantzeko hipotesi hau alde batera utzirik, ziur behintzat hau ikusten dugu, Busiri-Vici-ren planuaren bidez, ez daitekeela dirudienez Fontanaren soluzioa ezagutu -soluziorik eman bazion- Etxe Santua bakar uzteko problemari. Agian, litekeenez, tokiko konstruktoreen asmamenari utziko zion. Egiaz, A. Ballesteros-en erretore-aldian, textuaren letrari, «lurreratzea» edo «ondatzea» debekatzen zuenari, atxiki eginez, hala dirudi behintzat, zera ulertu zutela, ez zela Etxe Santuko hormak ikutzea, ikutu zituzten bezala, debeku horien aurka. Horrela ulertu bait zitekeen «ondoan» eraikitzeko baimena. Horrela bide da ulertu zuela Fontanak ere, haren planuan (25. **lam.**) Etxe Santuaren aurrekaldeari erantsitako eskailera bat ikusten baita; hark emango zion jendeari zuzen sarrera Konbertsio-kapilara.

Baina 1695an, A. Andres de Zupide Erretore berriarekin (lehenago, 1686tik 1688ra izan zenarekin) eta A. Gregorio Sarmiento Probintzial berriarekin, gauzak aldatu egiten dira. 1695.go urriaren 22ko bisitaren oroit-agiriari esker, badakigu Erroman zer pentsatzen zuten eta ondoren Probintzialak ze disposizio eman zituen:

»Erromatik behin eta berriz agintzen dute ez dela Etxe Santuko hormarik ikutu behar, eta ez direla betetzen ikusten dut eta eskaileragatik bi hormei arku eta bobeda batzuk egozten zaizkiela; eta soluzio errezik ez duelako, zera ohartzen dut, beste biak ez direla ikutu behar, eta Etxe Santuaren aurpegi aurreko horman bobedentzat hasitakoa Erretoreak dakien bezala eta Maisuarekin hitz egin bezala erremitu behar dela». Eta arau horri obedientziaren indar osoa emateko, zera erasten du A. Probintzialak: «Eta erretoreari begira beste ohi bezalako agindurik behar ez bada ere, baina gerta litekeen edozein ezbeharri aurrea hartzeko, Erretoreari eta haren orde gelditzen den edozeini, Obedientzi Santuaren birtutean zera agintzen diot, esandako bi hormei, Etxe Santuaren aurpegira eta Eleiz aldera jotzen dutenei ez dadila ezertarako heltzen utzi, eta beste biei, bobedentzat arkuak egiteko dispositu dena bakarrik, Etxe Santuko hormarik batere kareztatu, zuritu eta leundu gabe» (L. V. 16. eta 17. or.).

Hau honela dela, Etxe santuaren lau aldeetatik, gehien sufritu zuena, bidezko denez, Etxe Santua eskailera haundiarekin batzen duena da, honen arku eta bobedak haren horman bermatzen bai dira. Beste ikutu bat hartzen duena, eskailera ondoko transituaren aldamenekoa da: egoaldera jotzen duen Etxe Santuaren hormari zutarri batzuk -klastroaren egiturari dagozkionak- adosatu zaizkio, eta hauetan bermatzen dira bobedei eusten dieten arkuak, eta haien gainetik, kanpora, harrizko normaren gainkaldea ikus daitekeela gelditzen da, bai eta alde horren arriluzko mudejar

konstrukzioa ere (53. eta 54. **lam.**). Eta barruan ikus daitezkeen horma-zatiak, hemen agintzen den bezala, kareztatu, zuritu eta leundu gabe agertzen dira.

Egoera horretan aurkitzen ziren obrak Etxe Santu inguruan 1695. urtean. Orain, beste aldeak ikutu gabe zaindu nahi ziren: eleizari begiratzen diona eta Etxe Santuaren nagusiena, edifizio berriaren aurrekaldeak jarraitzen duen gezur-hormaren aurrekoa (51. **lam.**). Honetaz zera bakarrik esaten da, aurrekaldeko horman, hau da, gezur-horman, hasi zirela zerbait egiten bobedei eusteko. Eta, zera erasten da, hori Erretoreak dakien eta maisuari jakin erazi dion moduan erremitu behar da. Ez dakigu ze erremeio zen hori, baina ez bide da ezer ere egin zutenik. Izan ere, Bolandisten planuak (10. **lam.**) egiari erantzuten badio, fetxa horretarako, 1721, Etxe Santuaren eta gezur-hormaren tartea abra egongo zen, han ez baita eleizaren eta atealdearen arteko gaurko arkupe-pasuaren zantzurik ageri. Eta horrela iraungo zuen 1747 arte; orduan berri hau aurkitzen dugu: «harri lantzen joan daitezela, Atealdetik eleizaraino doan pasua estaltzeko (50. **lam.**)» (L.V. 76. or.).

Horregatik, arrautz- edo elipse-arku bitxizko arkupe-pasu hori, baranda sendo batez bukatzen dena, Eleiz eta Atealde arteko leku hori estaltzen duena, ez zuen Martin de Zalduak egin -eskailera eta haren inguruak eraiki ba zituen ere- baizik askoz ere geroagoko obra da, 1747an egina, obrak Ignacio de Ibero maisuak dirijitzen zituen garaikoa.

1696an erretore Zupidek jarraitzen du, hark karguan 1702. urte arte irauten du; Francisco de Alençon —1689tik 1692ra Loiolako erretore izandako- Probintzialaren bisita-oroit-agirian, 1696.go azaroaren 20an, zera irakurtzen dugu: «Bete bedi hautsi gabe A. Probintzialak joandako bisitan prezeptuz agindua utzi zuena bai eta proiektutik ez dela ezertan separatu behar ere; eta zera eras ten du, horretarako haren oltxoak etxean ondo gordetzea komeni da eta, Maisuak, ateratako eta berekin daukan kopia bat erabil dezala gehienbat». Proiektuez gainera bazen edifizioaren maketa bat; hartaz zera esaten da, «kartoiez egindako eredua, oso ondatua dagoena, konpon dezatela eta osoro ondo jarri eta era berean gorde dezatela» (L.V. 18. eta 19. or.).

Zoritxarrez, zentzuzko neurri hauek hartu arren, III. Carlos erregeak jesuitak expultsatu ondoren, bai planuak bai maketa desaparitu egin ziren.

Fetxa hauetarako, eskaileraren obra gelditua egongo zen, A. Zupidek bait zekien «hasieran pentsatu eta erabaki zenaren arauera, atzeneko truinartea egiteko hiru zutarri erdi jaso beharko zirela Etxe Santuaren hormari atxikiak». Horregatik, kosta ala kosta saihestu nahirik, zearo uzteko agindu zuen, eta aurrerakoan hasitakoa jarraitzeko asmorik izan ez zedin, «ertzetan sartuak zeuden erro edo sustraiak, atzeneko truinarteak egiten jarraitzeko beharrezkoak, erauzteko agindu zuen» (28).

Eleizaren proiektua (1696-1700)

Behin, eskailera berriaren obra, A. Zupidek agindu zuelako, Zalduaren sentimentua haundia bazen ere, eten zenean, hau eleizaren, eraikuntza-ren zatirik behinenaren, planuak ejekutatzen hasi zen.

Ez dira Fontanak proiektutako eleizaren azken planuak kontserbatu, ez eta gero Zalduari enkargatuak ere. Fontanaren proiektuak, dirudienez, Busiri-Viciren koleziokoan antzekoak izango lirateke (30. **lam.**): Erdiko zirku zabal bat, alboko kapilez inguratua, bata bestetik zutarriez separatuak. Hori deduzten da 1696.go azaroaren 20an Francisco Alençon-ek egin bisitaren aitaturiko oroit-agirian kontserbatzen den notizitik. Han Probintzialak A. Zupide Erretoreari zera enkargatzen dio: «eragin Maisuari proiektuta dagoen bezala Eleizaren planu egoki bat egitera,

kapilen arteko pasua zabaltzearekin, proiektu berri hau gabe aurrera itsu joango bait litzateke» (L.V. 19. or.).

Azpirarra dezagun pasu hauek zabaltzeko erabakiaren garrantzia.

Rektangulo-planta eduki ohitako jesuiten eleizetan, pasu hori, kapilak separatzen zituen horman irikitako ate beteko hutsunea izaten zen. Busiri-Viciren proiektuan pasu horiek pixka bat zabalagoak dira. Agian gora-behera horrek emango zuen Loiolan pasuak zabaltzea pentsatzeko bidea, kapilek okupatutako lekua, etengabeko eratzun antzeko arkupe eder bihurtzeraino.

Idea hori Zalduarena izan zitekeen, baina, horrela izan balitz, badirudi «Zalduak ideatutako» expresioa erantsiko zutela, atikoez tratatzean esaten den bezala; aitzitik, «proiektuta dagoen bezala» formulak hobeto bat baino gehiagoren artean planotu zutela adierazten du. Maisuaren idea bakarrik ez zela izan, A. Probintzial Francisco Javier-ek 1698.go ekainaren 30an idatzitako oroit-agiriko hitzetatik deduzten da; «Zorrotz zera engargatzen eta agintzen dut, plantari osoro jarraitzeko, eta agian zerbaitetan aldatu behar dela irudituko balitz, ez bedi Maisuaren iritziarekin bakarrik egin, neri jakin erazi gabe eta nere erabakia ikusi arte» (L.V. 20-21 or.).

Dena dela, alde batez bakarrik balitz ere Martin Zalduarena, hargatik eta ez Fontanagatik ikus daiteke gaur eratzun antzeko arkupe hori, Loiolako basilikaren berezgarria, eta hori egin zelako, geroago garrantziko arkitektu-kontsulta bat egin behar izen zen, aurrerago esango dudanez.

Eleizaren eta eskubi egoaren obrak. Italiako itxurako solairua eta Zalduarena.

Eskaileraren obrak, eskubi egokoak pixka bat atzeratu bazituen ere, XVII. mende azken aldera hirugarren pisua bukatzen ariko ziren, A. Zupidek 1698an Lazaro de Lizardi Arotz Maisuarekin teilatuen egikeraren tratua egin zuenean (29).

Eleizaren obra ere aurrera zihoan; gai horretaz A. Francisco Xavier Perez Probintzialak 1699.go agostuaren 23ko bisitaren oroit-agirian zera agintzen zuen: «Eleizaren konstrukzioa hemendik urte gutxi barru burutzeko, eta are gutxiago asentatzeko eta horren obra haundia seguru joateko, asko inporta du handik eskurik ez altxatzea, eta horrela A. Erretoreari behin eta berriz eskatzen eta enkargatzen diot, ez dezatela ofizina aldearen obra bakarrik egiten jarraitu, baina bai eta Eleizaren obra ere, eta, hala, urtero jar daitezela han lau edo bost errenkara bederen» (L.V. 21. or.). Fetxa hauetan, beraz, 1699an, eleizan eta eskubi egoko sailean, lan-tokietarako destinatuan, baratzara begiratzen duen aldean, lan egiten ari ziren.

Obrak dispos zezakeen dirutzak -larogeita hamar mila errial zenbatzen bait zituen diruan, eta hamar mila dukado inguru doazen eta erori efektuetan 1699. urte arte- A. Francisco Xabierri hitz hauez konstrukzioari eragitera bultzatzen zion: «Ondo egingo dugu obra ahalik gehien aurreratzen badugu, udazken honetarako alde aurrez karea eta harriak ekarriz eta neguan ahal den aina lan eginaz. Horregatik zera enkargatzen dut, oraintxetik has daitezela harri ateratzen eta ekartzen, eta hau neguan ere landu dezatela, langile asko sartuz, Salamanca-ko gure obran egin ohi den bezala» (30).

1702. urtea Loiolako konstrukzioaren historian urte berezi seinalatua da. A. Salvador de Ribadeo zen Probintzi-buru -geroago (1715-1719) Loiolako erretore izan zena-, superioreetan konstrukzio berria gartsuen eta gogotsuen hartzen zuenetako bat. Haren bisitaren «Oroit-agiria» luzea da, hamasei puntu ditu, bere aurrekoek bostetik pasatzen ez zirenean. Azkeneko hiruak -14, 15 ea 16- monumentu-etxeari dedikatzen dizkio.

Fontanaren proiektuan, baratzara begiratzen duen egoaldeko krujian, eguzkitoki edo solairu bat proiektua zegoen. Hau irikia zen, Italiako modura arku altuekin, Pompeo Ferrariren proiektuan agertzen den bezalako (13. **lam.**). Bisita garaian arkupe hau jasoa zegoen, 1702.go agostuaren 30ko oroit-agirian zera ordenatzen baita «Italiako planta eta moduko solairu hori estaltzeko» (L. V. 27. or.). Gero ikusiko dugu ze gorabeherak izango dituen solairu horrek.

Bisita horretan bertan erabaki zen «Martin de Zaldua Maisuak etxearen aldea edertzeko ideatu dituen solairu bietako bat egiten hasteko, Kolejoari egoki zetorkiona eta aldeon gutxi ekarritako Italiako moduko solairuen orde» (L. V. 27. or.)

Erabaki hau hartu zutenean, etxalde hori estaltzen zuen teilatua egina zegoen, horregatik, kendu egin behar izan zuten, Zalduak erantsitako solairu edo atikua eraikitzeko (3. **lam.**) (31).

Dirudienez, solairuez eztabaidak (32) izan zituzten, eta diskusio horiek obra pixka bat atzeratu egin zuten, arazoa garbitzeko bi arkiteturi galdegin bait zitzaion. Hauek arrazoia Zalduari eman zioten, eta horrekin haren izen ona gora igo zen, A. Ribadeok egiztatzan duenez: «Martin de Zaldua Maisuak bai arteari bai seguruari begira oso egoki egiten du lan».

Eskailera nagusia aurrera jarraitu (1702)

Beste garrantzi haundieneko puntu bat erabakita gelditu zen bisita hartan: burutu gabeko eskailera. A. Zupidek bere erretore-aldia bukatu ondoren, bai Probintzialak bai Erretore berri A. Fernando Navarretek, zera pentsatuko zuten, heldu zela aurrera jarraitzeko garai egokia, eta horreta-rako Zalduari eragin zioten, monumentu- etxearen maisu bezala, propos ziezaiola A. Jeneralari eskailera bukatzeko lana. 1702.go agostuaren 16ko eskutitza luzean egin zuen; aitatu dut lehenago eskutitz hori. Han Zalduak zera adierazten zuen, «A. Andres Zupideren ekitaldi partikular batzuegatik» suspenditu zela. Batean bidaltzen zizkion proiektuekin, egindako bi etxaldeetan biziko zirenek ze eragozpen izango zituzten agertzen zion, eskailera zegoen bezala gelditzen bazen, eta zera erasten zuen argi eta garbi «eskailera-kajaren hutsuneak garrasika azkeneko truinarteak egiteko eskatzen duela, betea, ondo jantzia, eta horrelako eraikinak eskatzen duen bezain Haundi eta eder geldi dadin, Berorrek ikusi duen bezala, ez dute eta denak jasan behar -neri behintzat ez zait ondo iruditzen- norbaiteren bekaitzez edo beste grinaren batez sortutako tema edo profeziagatik, horren zentzu gabeko gauza bat».

A. Zupideren aurkako erresumina agertzen duten hitz gogor hauen ondoren, zera expositzen du, lehenago ikusi dugun proiektuaren hasiera eta egikera eta, azkenean, gelditzen den lana zehazten du: «Azkenik, atzeneko harrizko truinarteak egiteko erabakia hartzen bada, lau zutarrierdi berri eraiki eta egin beharko dira lau zutarri nagusien aurrean, diferentziarik batere gabe egingo dira, eta beste hiru, Etxe Santuaren horma nagusiari atxikiak, hasieran pentsatu eta erabaki zen bezala. Eta azkenik horrela eginda, dena oso seguru eta eder ejekutako da» (33).

Hemen ekspreso adierazten da nola ikutu behar zen Etxe Santuaren horma nagusia, eta ohar hau egiten da, ez dela gauza berri bat esaten ari, Erromak hasieran onartutako gauza baizik.

Probintzialak ez zuen bere on ikusia ematen atzeratu: «Martin Zalduak pentsatu duen eran, aurrera egin dezakeela orain arte bezala dena harrizkoa eskailera nagusiak, arriskurik edo argi faltaren objeziorik gabe, nahikoa izango zuela sinistarazi bait zuten; G. A. Jeneralak zer erabakitzen duen jakin arte, ez da eskailera

hau egiten segiko» (L.V. 28. or.).

Monumentu-etxeak fetxa hauetarako (1702) diru asko gasta zezakeelako, Probintzialak 15. puntuan zera dispositzen du: «behar bezain bizkor joan dadin, A. Erretoreak ardura edukiko du, horretarako den diruak uzten duen aina ofizial daitezzen, eta ez da diru gutxi, ba, gaur egun, Kolejoaren janariak eta zamak ordaindu ondoren, larogeita hemezortzi mila errial gelditzen zaizkio libre; baitere, zor dituzten efektuak kobratzetik jasotzen dena, eta Ana de Lasalde Andrearen ondaretik larehun eskudoko errenta hartuko dueña. Eta neguan ere konstrukzioan ahal den guzia lan egin dadin, zera agintzen dut, aldi horretan gutxienez hamalau ofizial eta hiru argin-mutil ari daitezela han lanean».

Azkenik, 15.puntu berean, zera dispositzen du A. Ribadeok, «ez dezala utz Erretoreak obrarako gairik -egurrik, harririk, karerik etab— erosten, Maisuek, hau da, gai bakoitzeko ofizialek, haren ona aztertu eta onartu gabe, hortan hutsegin delako, gai txarrak erosi bai dira» (L.V. 28 or.).

A. Salvador de Ribadeo Probintzialaren disposizio hauek 1702.go agostuaren 30eko oroit-agirian daude, eta horien arabera, A. Fernando de Navarreteren erretore aldian, 1702an, behin etxeurrearen aldea estaltzen zuen teilatua kendu ondoren, Zalduaren solairuaren egala egin zen; haren teilatua 1703. urtekoa da, bai eta etxalde berriarenak ere. Gainera, urte hartan bizi lanegingo zen eskaileraren harriekin, obrak garai horretan zenbatzen zituen langileak asko bai ziren.

1703.go udan Elgoibarko Bartolome eta Antonio de Elorza saregile ospatsuekin hamabi burdin-sare eder egiteko kontratua egin zen; 18.827 errial kosta ziren, etxeurreko eta etxeatze zati baterako lehenengo pisuko dimentsio haundiko leihoentzat. Enkargu honen atzetik, hurrengo urteetan, beste enkargu batzuk egin zizkieten, baina horiek bere garaian adieraziko ditugu.

Obrak asko gutxitu (1704). Osatzeko obrak (1704-1711)

1704tik aurrera ekonomi-egoerak erro-aldakuntza sufritzen du, suzesio-guda dela eta, juroak kobratzen eragozpenak jasaten bai dira. Egoera hori hamalau urtean luzatzen da 1704tik 1717ra arte.

Obran ze aldakuntza sufritu zen jakiteko, aldera ditzagun urte horietako gastu guziak.

Monumentu-etxearen gastua, 1702tik 1704ra bi urte horietan belloiezko 180.056 errial zena, 1704tik 1707ra, hiru urte horietan, 82.184 errialera jaisten da, eta hurrengo bi urteetan, 1707tik 1709ra, 25.613 errialera, eta 1711 tik 1713ra 19.937 errial eta 23 marabedira bakarrik iristen da; horixe izan zen aldi honetan gasturik txikiena.

Gastuen horren beheraldi haundia eta ondoren konstrukzioarena, haatik gertatu zen, suzesio-gerra aurrera zihoalako Loiolak ez bait zituen juroak jasotzen, eta handik sortzen zuen sortu ere diru gehien eta seguruen.

Juro hauek zenbat balio zuten, 1682.go martxuaren 25an Valladoliden fetxaturiko eskripturan ematen da; han A. Pascual de Casanueva Probintzialak zera deklaratu zuen, Loiolako fundazioak urte batzuez gero, zenbait jurotan 4.134.817 mr. zituela, hau da, 121.612 Er. »*Eta in verbo sacerdotis* zinitz egin zuen, Errege-Kolejio eta -fundazioaren onerako Kapital eta Errenta zitezen beti, eta urtero kobra eta jaso zitzan sekulako» (*Juros fundacionales del Colegio de Loyola*, LHA 2-2).

Kapital horren erdia baino gehiago, hau da, 2.786.380 mr. Loiolara II. Carlos Erregeak 1679an emandako Pribilejio-Kartagatik etorri ziren.

Juro hori nola sortu zen seinalatzeak interes duela uste dut: 1653.go agostuaren 18an, Limatik A. Alonso de Buiza irtetzen zen. Berekin berak bildutako limosna asko zekarren; batez ere Perun bizi ziren giputzen artetik jaso zituen, Loiolan kolejio bat fundatzeko. Baina, A. Buiza bidean hil zen, Cartagena de Indias-en, 1654.go martxoaren 13an, eta A. Juan de la Rocha, haren bidelaguna, egin zen hark zekarren guziaren kargu.

A. Rochak (34) zekartzan ondasunen gorabeherak, Espainan isilean eta rejistra gabe sartu zirelako, zeintzuk izan ziren alde batera utzirik, zera gertatu zen, 37.552 pesuak -hainbeste zenbatzen ziren ondasunak- Hazienda Kontsejuaren disposiziora gelditu ziren IV Felipe Erregearen aginduz. Egoera horretan iraun zuten 1679 arte, 25 urtean. Orduan II Carlos Erregeak ordaindu egin nahi izan zizkion Castillako Probintzialari 32.060 pesuak -horretaraino jaitsi ziren 37.552 pesuak- eta mila bakoitza hamar milako juroetan eman zizkion, eta Sevilla hiriko Erreinuko ardoaren, ozpinaren, olioaren eta haragiaren extrakzioan situatu zituen. Pesu haiek zera balio izan zuten, zilarra ehuneko 75era gutxituz, beiloiezko 498.875 Er., hau da, 15.261.750 mr.

Castilla Probintziak juro hari 300.000 Er. erantsi zizkion, lehengo kondizio onetan - orduan juroak askoz ere merkeago ematen bait ziren-, eta haiek 10.200.000 mr. balio dute. Bi kopuru horiek 25.461.750 marabedi egiten zuten, eta horiengatik juro-errentan urtero 2.546.175 mr. Eman behar dira, mila bakoitza hamar milan. Geroago juro horretan bertan beste 240.205 mr. situatu ziren, mila bakoitza hamar milan ere, eta lehengoei erasten zaizkiela, urtero 2.786.380ko juro-errenta egiten dute. Hauxe zen, Madriden 1679.go agostuaren 8an Carlos IIak emandako, Pribilejio-Kartan agertzen zen zifra.

Horrela, suzesio-gerragatik juroak kobratzen ez zirenean, Zalduarekin egin kontratuan jarritako kondizioa betetzen zela kontsideratu zen: «Ezbeharren bategatik, obrak gelditu egin beharko balu, Martin Zalduaren jorrala ere gelditu egingo litzateke». Eta, halaxe, 1704.go urriaren lehen egunetik, ez dira konstrukzioaren jorral-liburuko zerrendan, maisuari eta aparejadoreari dagozkionak agertzen (35).

Zaldua bere kargu gabe gelditu zenean, obra gelditu egiten da, baina ez osoro. A. Ribadeok, bere bigarren bisitan -haren oroit-agiria 1704.go agostuaren lehen egunekoa da- obra nola jarraitu behar den erabakitzen du: «5^a, harri-lanari dagokionak ez dezakeela oraingo aurrera egin; eta horrela Eskailerari dagokiona bukatu eta beheko transitua harlosatu ondoren utzi bedi lan hori. Eta orain ahal denarekin eta kobratzen diren efektuekin bakarrik, etxalde berria bukatzen jarraituko da eta honako eran: 6^a, lehenik Etxeaurre goian eginak dauden hiru Gelak bukatuko dira: Ateak, Ataurreak, Logelak, Estudio-Mahaiak, Liburu-Baldak, Leihoak bere leiarrekin eta behar den gainontzekoa jarriz. 7^a, gero, era berean, eginda dauden 1^{en} eta 2^{en} pisuko Gelak, aletegira eta konbentu-atera jotzen dutenak, bukatuko dira. 8^a, Hirugarren, baratz aldera jotzen duen transituko leiho haundira arte falta diren burnisareak, klausurarako beharrezkoak, jarriko dira. 9^a laugarren, Eskaileraren barandak egingo dira, Eskailera hartako leihoei dagozkien kalostrekin. 10^a Bosgarren, Atealdeko atea seinalatutako tokian, hau da, Etxe Santuaren eta etxalde berriaren arteko arkuan. 11^a Seigarren, bukatzeko erabakita dauden gelak zuritu bitez. 12^a Zazpigarren, esandako guzia bukatu ondoren, baratzara jotzen duen etxaldean jarraituko da. 13^a Esanaz gainera, zera agintzen dut, ez dadila Etxe Santuko gauzarik ikutu, ikutu gabe geldi dadila, bere Eskripturan Alcañicesko Markesek jarritako baldintzak eta antzinako etxe eta Fabrika horren iraupen agurgarriak eskatzen duen bezala. 14^a Etxalde berrian bizitzera sartu ondoren, Etxe Santua, Kapila Santurako bidea sekulokoei libre utzi ondoren, nola geldituko den klausura barman, Martin de

Zaldua Maisuak pentsatu duena egingo da. 15^a Kolejio hau Kapila Santuan argi-ontzi bat bizturik edukitzera behartua dago, horretarako Ana de Lasalde Andreak emandako limosnagatik; has bedi segituan obligazio hau betetzen, hori eskatzen bai dago, eta A. Erretorearekin hitzegin bezala bete bedi, argi-ontzian Andre honen leinargi-armarria eta izena grabaturik» (L.V. 30-32 or.)

A. Probintzialak markaturiko lan-proiektu honi jarraituz, 1704an Yeldoko harlosen lehen igorpena heltzen da Loiolara, beheko transituak lauzatzeko. Harlosa hauek, lauko berdinean moztuak, Donostiako Igeldo menditik zetozen, eta Beduatik barrena ekartzen zituzten, Beduatik Loiolarako bidea harlosa bakoitzagatik errial bat ordainduz. Berebat, Yeldoko harrizkoak dira etxeurreko egaleko eta teilatuetako ur-askak; Yeldotik ekarri ziren ere isur-zuloetarako harri haundi batzuk: antza denez, etxe-alde honetan agertzen diren xurrut-harriez ariko da.

1705an goiko pisuko gelei egurrezko zola jartzen zaie. Eskailerako, bizilekuko transitu, ate eta leihoetako harriak bujardatu egiten dira (bujarda: harginek harria leuntzeko eta berdintzeko erabiltzen duten mailua). Baitere, Atealdeko ate haundia jartzen da, regula-atea, etxean bizi zirenen sartu-aterak regulatzen zituena eta eskailera nagusira, joan-etorriko marratu asmakorreko jaun-eskailera haundira bidea zabaltzen zuena. Eskailerak ere altura erdira tranpain zabal bat du erdian. Zutarri sendoetan bermatzen da eskailera, dena burnizko apaingarri aberatsez edertua.

1705an egin ziren atzen pisuko hamabi balkoi txiki politik eta hurren beheko beste laurak, inguruko trasitotara irikitako leihoen edergarri. 1705tik 1710era, bere truinarte guzietan kalostra eleganteko baranda eder bat jartzen joan ziren, buruetan bere azpi-harri eta zutarriekin, besteak bezain ederrekin (36).

1711an, osatzeko Bilbotik ekarritako 67 brontzezko apain-bola erantsi zituzten; haietatik 35 barandetan jarri zituzten; 24, balkoi txikietan, eta gainontzekoak Etxe Santuko eskaileretan.

Beheko transituak harlautzen jarraitzen da. 1708an bidali zuten berriz ere Yeldotik 1.576 harlosen karga haundi bat; hura Donostitik Beduara eramateagatik 991 eta 1/4 zilarrezko errial ordaindu ziren, errial erdi bana bakoitza. 1710an beste 1.576 ekarri zituzten.

1709an bailagibelera eta baratzara jotzen duten leihoetan hamabi burni-sare apaingabe jartzen dira.

Aldi honetan egur-arotz-lanak ze garrantzia zuen, urte hauetan kontuetan zenbat aritz eta gaztain egur karga agertzen denetik ikusten da (37).

Eta edifizio berrian jesulagunen bazkuna bizitzen jartzeari gagozkiola, gogora dezagun A. Ribadeok 1704an erabakita utzi zuela, «esan guzia bukatu ondoren» - etxeurre nagusiko goiko pisuei eta egoaldeko 1^{en} eta 2^{en} pisuei dagokiena- «baratzara jotzen duen etxaldean jarraituko da». Zati hau da eskubi egoan atzen eraikitzen dena, eta han lan-tokiak, jan-lekua eta sukaldea jarri behar ziren. Honekin bat datorrena zera da, 1707.go udaberrian datu hau aurkitzen da: «Egiten ari den jan-leku berrirako zolan egurra jartzeko eta mahai berriak egiteko 240 er.» Aldirako jan-leku hau -betirakoa, oraingoa, askoz geroago egin zen-1707an egiten ari zirena, 1709an erabili egiten zuten, eta urte honetako kontuetan, Etxe Santu barneko zaharrari kontraposten zaio, «hamabi burni-sare apaingabe: bost bailagibelera erortzen dira eta bost baratzara, eta bat jan-leku zaharrean eta beste bat sukalde zaharrean» anotatzean. Berebat Etxe Santuan egindako obra batzuk 1710an zenbatzen direnean, expreso seinalatzen da «burni-sare laukotua, jan-leku zaharreko leihoan jarri zena».

Oraindik ere zehatzago seinala daiteke Kolejio berria zein egunetan aldatu zen, 1708.go martxuan zera esaten bai da: «hiru sarrail: bata, baratzara jeisten den sukaldeko aterako (38), eta beste biak klausura ixten duten ateetarako». Hilabete hauetan beste datu adierazgarria zera da, regula-atea ixteko ataka.

Datu hauek garbi adierazten dute hurren zegoela, Loiolako Aita eta Anaiak, Etxe Santuan 26 urte bizi izan ondoren, edifizio berrian bizitzen hasteko 1708. urteko eguna (39).

Kontsultak. Solairuak eta klaustroa itxi (1711-1712).

1711. urtetik beste interesko jakin-iturri bat dugu: Kontsulta-Liburua (40). Kontsulta Lagundian ondo errotutako instituzio bat da: superioera eta kontsultoreak bildurik, ohiko arazoak tratatzen zituzten, eta, batzutan bai eta deliberatzeko ekarritako puntu bereziren bat ere. Dirudenez, Loiolan ez zituzten kontsultak behar bezain maiz eduki; ardura gutxi hori aspalditik zetorren: 1700an, Erretore A. Zupide zela, A. Francisco Javier Perez Porbintzialak zera urjitu zuen, atzen Batzar Jeneralaren gomendioen arauera, kontsulta horiek aldizka eduki zitzatela. Ez da itxura enkarguari kaso haundia egin ziotenik. 1707an, A. Navarrete Erretore zela, Probintzialak bisitan zera agindu zuen, gaurgero ez dadila obrarik hasi kontsultoreak bat ez badatoz eta Probintzialak onartu gabe». Agindua, berebat, bete gabe gelditu zen, 1711.go agostuaren 8ko oroit-agirian, A. Beau-mont Probintziala keja egiten baita, agindu arren, lau urte kontsulta bakar bat gabe pasa zirelako: «Nahiko harritzekoa da Lagundi-obedientzian ho-rrelako gauza bat, penitentzi gogorra merezitzen zuena, aldi honetan izan den Superioreak bere kargua bukatu izan ez balu. Bere kargua hasten duen A. Erretoreagandik oso fiatzen naiz kaso ge-hiago egingo diola agindu horri, bai obedientziari doakolako, bai eta gaia garrantzikoa delako ere» (L.V. 37 or.).

Erretorea, A. Pedro Caballero, segituan hasi zen Probintzialak agindutakoa betetzen, eta, hala, uztaila barman, bi aldiz bildu zuen kontsulta; eta gero aldizka edukitzen jarraitu zuten. Kontsulta Liburuari esker dakigu Italiako estiloko solairuak ze gorabeherak pasa zituen, eta Fontanak Loiolako inguru-giroa kontuan eduki ez zuelako Zalduak erantsitakoaren gorabeherak.

1711.go uztailaren 11an, Probintziala bisita egiten ari zela, kontsulta bat egin zen, baratzara jotzen duen etxalde gainean dagoen solairua zeinen kaltegarri zenaz, «arkuak hain goiak zirelako, haizeekin ura asko sartzen bait zen eta bobeda txikiak hain bustitzen ziren, haietako batzuk erori egin ziren. Zera erabaki zen, kendu egin behar zela eta besteetan bezala teilatua jarri behar zela». Alabaina, erabaki horrek ez zuen aurrera egin, A. Beaumont Probintzialak 1711.go agostuaren 8ko bisitaren oroit-agirian -kontsultoreei azken erabakia utzirik baino- zera ohartzen bait zuen, «ez daitezela solairua kentzen hasi, aldi hartan euri egiten badu ere, haren azpian eraikitakoari kalterik egingo ez diona ondo aseguratuta gabe. Eta hau aseguratuta ahal izango ez balitz, neurrikerik onena arkuak ixtea litzateke, bakoitzean behar denean itxi eta iriki daitekeen leiho bat utzirik» (L.V. 39 or.).

Probintzi-Buruaren oharra kontuan hartu zuten, eta horrela zera ikusten dugu, 1712.go apiril edo maiatzan, berriz ere Italiako estiloko solairuaren gai hori kontsultara eraman zutela eta astiroago explikatuta zituztela gai hartaz arrazoiak:

»Zera aurkeztu zen, nola A. Probintzialaren aurrean egindako kontsultak (1711.go uztailaren 11an) baratzara jotzen zuen solairua kentzeko erabakia hartu zen etxaldeari hain kalte haundia egiten ziolako; baina, egiten zuen kaltea erremitu zitekeela ikusirik; berriz kentzen zenbat kostako den; euri asko eta etengabe egiten

duelako zeinen arrisku-lana den teilatu-zaborrak kentzea eta etxalde osoa urez betetzeko zoria izango litzatekeela; eta arkuak leiho eta leihogainez itxirik heuren leiarrekin, kaltea erremitzen zela; zera ikusi zutela, Ganbara oso zabala izan zitekeela artua zabaltzeko eta lehertzeko, bai eta erropa eta beste gauzetarako ere; kontsultari zera iruditu zitzaion, kontserbatu egin behar zela eta esan bezala itxi». Solairu hau -lurreratze zorian egon zena- horrela itxia kontserbatu zen, Fontanaren proiektuan zeukan Italiako estilo haizetsua galdu bazuen ere (41).

1712.go apirilaren 17an ere kontsulta bildu zen «eskailera ondoko behe trantsituko Arkuak ixteko erabakia hartu behar zen. haize eta euriak molesti handia ekartzen bait zuen. eta ixteko erabakia hartu zen. baino eskailerak argi izan zezan leiho, leihogaineko eta leiarrekin».

Transitu hau, eskailera eta bailagibelaren artean, eskailerari argi gehiago emateko bailagibel aldera irikia zegoen, eta haize- eta euri-egun asko zirelako lurraldean, paso hura gozagaitza egiten zen. Horregatik bailagibelaren alde hau, bailagibelaren beste hiru aldeak bezala, leiho eta leiho-gain duen horma batekin ixtea erabaki zen.

Honela iritsi nahitako euri eta haizearen aurkako babesa lortu zen, baina argia oso gutxitu zen. Horregatik, urte batzuk geroago, aurrerago ikusiko dugunez, berriz ere horma iriki egin zen, gaur dagoen bezala uzteko.

Eskailera nagusiaren ondoko transitua ixten zuen horma bere leihoekin egiaz izan zela, Pedro de Recondo Jaunaren aitorrak baiesten du. Hark zera dio, 1885an Loiola bukatzeko kargua hartu zuenean, ezker-egoan eskailera ondoko simetrialdean, eskubi-egoan seinatu dugun bezalako horma bere leihoekin aurkitzen zela (42).

Garai honetan ere -1712.go apiril edo maiatzan-fetxa jakirik gabe, beste kontsulta batean zera proposatu zen «etxeaurrera dagoen solairuan (Zalduaren han) leihoak jarri bere leihogaineko eta leiarrekin; eta era honetan egiteko erabakia hartu zen».

Honela itxi ziren, bai solairuak -Italiako estilokoa eta Zalduarena- bai eskailera ondoko transitua, iparreko eguraldiak agintzen zuelako.

Obraren direkzioa

1713.go agostuaren 8ko bisitaren oroit-agi-rian, A. Caballero Erretore zela, A. Nicolás Bordas Probintzialak ondorengo disposizio hau utzi zuen idatzita: «igaro aldietan konstrukzioan ideatu edo eginga aldatzeko errezak gastu eta atzerapen handiak ekarri dituelako, zera agintzen dut oso zorrotz, ez dadila Kolejoaren konstrukzioan ez Kapila Santuan ezer egin edo aldatu aurreko kontsultarik gabe, AA. Kontsultoreek *litteris separatis* (bakoitzak bere aldetik) kargu honi bere iritzia idatzi gabe, arrazoiak ikusi ondoren, zer egitea komeni den erabaki dadin» (L.V. 40. or.).

Hitz hauek A. Caballeroren aurreko aldietako erretoreen gainera erortzen den gaitzespen nabaria adierazten dute. Eta haien gainera erortzen da, izan ere Loiolan ez da Salamancan -Austriakoen beste fundazio handian- bezala gertatzen, han, Lagundiaren aldetik obraren arduradun berezi bat bait zegoen (43), eta Loiolan obraren direkzioa Erretoreak eramaten zuen, Anai Prokuradorea lagun.

Horrelako diru- eta denbora-gastua berriz alperrik gerta ez dadin, erabakiak Probintzialak beretzat reserbatzeko disposizioa hartzen du, Kontsultoreek bakoitzak bere aldetik idatzirik informatzen diotela. Kontsultoreen esku gehiago hartze honek, dudarik gabe direkzioaren jarrairi laguntzen zion, kontsultoreek karguan gehiago irauten zutelako.

Loiolan, gehienbat, sei urtetik denak pasatzen dira, badira zortzi, hamar eta hamalau

urte irauten dutenak, eta A. Larramendi, beste gauzen artean euskera ondo zekielako oso estimatua lurraldean, 24 urte etengabe izan zen kontsultore.

Hemen jarritako araua, Kontsultore bakoitzak bere aldetik Probintzialari idaztekoa, gero Probintzialak erabaki dezan, behin baino gehiagotan bete bazen ere, egiaz direkzioa Erretoreak darama bere kontsultoreekin. Horrela ikusten dugu, 1717.go abenduaren 7ko kontsultan, A. Bazaren erretoretzaren hasieran, aldare nagusiaren posizioaz deliberatu zela, ea haren tarimak kapilek markatzen zuten zirkutik atera behar zuen ala ez; eta garrantziko puntua bazen ere, zera iritzi izan zioten kontsultoreek «horretarako ez zegoela Erromara ez Probintzialagana jo beharrik».

Baitere, direkzioari jarraia emateko, zerak laguntzen du, Erretore batzuk, Ribadeo eta Francisco Javier Pérez AA.ak esate baterako, lehenago Probintzial izateak eta kargu hori zutelako Loiolako obran esku hartu izateak, eta, batez ere, A. Francisco Bazaren erretore aldi luzeak, obra 16 urtean dirijitu bait zuen (1717-1733), eta gero ere beste lau urtean Kontsultore bezala esku hartzen jarraitu zuen; Probintzial direnek haren jestioa baiesten zutenaren seinale.

Loiolan direkzioari jarraia ematen dion beste elementua zera da, Erretorearen direkziopean konstrukzioaren ardura duten AA. Prokuradoreek beren karguetan luze irauteak: Martín de Vergara A.ak 1714tik 1737ra irauten du, eta Francisco de Anduaga A.1730tik 1738ra Prokuradorearen Lagun bezala agertzen da eta 43tik 64ra Prokuradore bezala. Aitatu ditzagun, azkenik, konstrukzioaren maisuari aldika laguntzen zioten jesuita langilezainak; haien artean nabarienak hauek dira: Sagastume A.; honetaz 1737.go kataloguan zera esaten da *assistit fabricae huius Collegii* eta 1740.goan *Architectus* deitzen zaio; eta Lecuona A.; honen eginbeharra 1742tik 1748ra zera zen *curat de constructione fabricae*.

Arroztegia

1690an eraikitako Arrotz-Etxea ez zen nahikoa izan, 1711.go uztailaren 11ko kontsultan «berriz ere arrotz-etxe bat egiteko» hitzegiten baita. Eta 1713.go martxoan edukitakoan berriz ere «Lander-Etxeaz» (horrela deitzen bait zioten ere Arrotz-Etxeari) tratatzen dute.

Handik hilabete gutxira, 1713.go hadaren 15an, Antonio de Larraza aparejadorearen direkziopean Arrotz-Etxearen obrari hasiera ematen zaio. Baina, 1714.go martxoko kontsultan proiektuaren aldaketa bat deliberagai jarri zen: «ea lehengo proiektua aldatzea» komeni izango zen ala ez; «eta, kontsultoreei erakutsi ondoren eta denak bigarrenetan reformatu zena hobeto zegoela esa-nik, denak eskutitzez informe hau bidali zuten, ez lehengoa, baina bigarrena egiten bazen asmatuko zela, eta A. Probintziala Kontsultoreen iritzira egon zen, eta erabaki horren arauera ari dira eraikitzen».

Eta urte horietan horrela joan ziren Arrotz-Etxea egiten; jakina da, 1717an jarri zirela dagoeneko leihoretako burni-sareak eta eskaillerako kalostrak.

Konstrukzioaren gastua

Kontuak Probintzialaren bisitan garbitzen ziren eta haren firmak ematen zituen ontzat.

Loiolan ez zegoen diru jakinik monumentua eraikitzeko; Bazkunak gastatzen zuena kendurik, libre gelditzen zen gainontzekoa obran erabiltzen zen. Lehenago esan dugu nola gastatzeko presupostu-lerroa jaisten joan zen 1702-1713 tarrean. Aitzitik,

1713-1715 bitartean asko igo zen: belloiezko 60.575 Er. gastatzen dira; eta 1715tik 1717ra igotzen joaten da, duple eta gehiago egiteraino, eleizan berriz ere lan egiten hasten denean. Orduan 121.617ra iristen da, hurrengo urteetan igotzen jarraitzeko: 1717tik 1719ra 142.123 dira, eta 1719-1722ra, hiru urte horietan, 295.582era igotzen da, hau da, urte bakoitzean bataz beste 98.527; eta 1722tik 1724ra 194.245 gastatzen dira, hau da, urtean 97.122.

1724-1734 hamar urte bitartean, urtean 100.427 gastatzen dira. «1734.go martxuan denboral-gauzen Estadua» tratatzean zera esaten da, «Errentak 159.524 Bel. Er. direla. Haietatik 131.724 Jurotatik sortzen dira, eta gainontzekoa zentsu gutxi batzuetatik eta etxe, baserri, igara eta baratzetatik». Etxeko gastuak 43.400 Er. dira.: konstrukziorako 116.124 libre gelditzen dira. Datu hau ere ematen du: «Kolejioak eleizaren konstrukzioan -haren kupula eta linterna egiten ari ziren garai honetan- erabiltzen duen errenta, urte bataz beste, 105.000 Er. da».

Zera erasten du, gainera 88.000 Er. itxaron direla, Errege-Haziendak Kolejioari, Ignacio Maleo (44) Jaunaren oinordekoa delako zor dizkionak, eta haiak kobratzeko oso itxaropen gutxi dagoela. Baitere, bi Maiorazguen deiak dituela, deitutako lerroak ahitzen direnerako».

Itxaropen hauek urtez urte berritzen doaz behin ere kobratu gabe. 1761tik aurrera ez dira Maleo-ren ondarearen esperantzak agertzen. Agian zera ulertu liteke, urte horretan kobratu zuela.

1737an errenta 162.800 Er. da; haietatik 132.352 Jurotatik datoz. Jateko eta abar. gastuak alde batera utzirik, konstrukziorako 115.350 gelditzen dira. 1743an errenta 137.639 da; janari eta kargak ordaindu ondoren, konstrukziorako 107.239 gelditzen dira. 1746an errenta 126.789 da; konstrukzioan 94.789 gastatzen dira. 1751an errenta 127.812, konstrukzioko eta reparuetako gastuak 96.412, urte hauetan jesulagun bazkunak zenbatzen dituen hogeiren bat lagunen janariak ordaindu ondoren. 1761an, errenta 125.086, etxe-konstrukzio eta -reparuetan 83.686 gastatzen dira. Azkenik, 1764an errenta 126.366 da, eta konstrukzioaren gastua 93.966.

Hogeita hamar urteko azken aldi honetan 1734tik 1764ra, konstrukzioko gastua urte bataz beste 105.350 Er. da: seinale nabaria, ez zuela Lagundiak Loiolako obra haundiaren konstrukzioan jarritako ardura gutxitu; konstrukzioak lehen aldi honetan 79 urte luzatu zuen.

Eleiza. Deliberazioak (1717)

Dirua hamalau urtean gutxitu ondoren, berriz ere Juroak jasotzean, 1717go ekainaren lehen egunean, eleizaren konstrukzioa aurrera egiten hasten da. Horren garrantzi haundiko obraren jarraipenak eragozpen bat baino gehiago izan zuen.

Hauetako lehena proiektuari doako; haren berri 1717.go abenduaren 7ko etxeko kontsultagatik dakigu; han «Kontsultore guziek denak batera zera erabaki zuten, Eleizaren aldare nagusia, haren tarima zirkutik ateratzen ez zela jarri behar zela, hori akats nabaria bait zen, eta horretarako ez zegoela Erromara ez Probinzialagana jo beharrik».

Alabaina, garrantziko gauza zelako, deliberazioak eduki ziren, orri ertzean aitatuak: «den hau obrako 3 Maisuei kontsulta ondoren egin zen», eta agian gehiagoei ere bai, azkeneko hau ziur ez bada jakin ere, eta, dena dela, ez da ze izeneko ziren jakin.

Hiru Maisuetatik bi Martín de Zaldúa eta Lázaro de Laincera izan ziren (45),

hirugarrena orduan Loiolako obraren maisu bezala agertzen zena izango zen, etxaginarde bat -agian Antonio de Larraza-, hamabi errialeko jorjala bait zeukan asignatua, eta horixe zegokion aparejadoreari. Kotsultatuek zera irizten zioten, aldare aurreko tarimak ez zuela bere lerrotik atera behar eta eleizaren erdiko rotondaren kanpo-zirkuan sartu; horretarako aldare nagusia pixka bat aldatu egin behar zen, kapila nagusiaren barrena zabalduz; horrela beste alboko kapilak baino ederragoa geldi-tuko zen, ez baino, bere dimentsioak haunditu ahal izan baziren bezain eder.

Horrela ba, urte askotan gure egunera arte, aldare aurreko eskailerak atera egiten ziren pixka bat bere zirkutik, 33,b. laminan agertzen den bezala. Baino, gaur, liturji-reforma berriaren ondoren, aldare-aurrea oso haunditua izan da eta erantsitako egurrezko tarima nabari sartzten da zutarrien barne-lerroraino, hasieran erabakitakoaren aurka; hori, arkitekturaren aldetik, bidez «akats nabari» epaitu bazitekeen, eraztun antzeko arkupea horrela etena gelditzen delako, nolabaitere konpentsatua gelditzen da praxian aldare aurreko leku haundiarekin, egokia baita liturji-eleizkizun solemneak ospatzeko.

Obran Sebastián de Lecuna sartzten da (1719-1720)

Gero eta eragozpen gehiago agertzen zen; horregatik arkitektu ikasiago bat bilatzea pentsatu zuten.

Hau Sebastián de Lecuna (46) izan zen, Oiartzunen jaioa, lurraldeko obra-maisuen artean oso estimatua, Loiolako Arkibuan (LHA, 2-3) kontserbatzen diren eskutitzetan agertzen den bezala. Haiei esker zera dakigu, 1726 eta 1733 urte tartean, Loiolako maisu zela, Erretorearen baimenarekin, behin baino gehiagotan esku hartu zuela, garrantzi haundiagoko edo txikiagoko gauzetan, Roncesvalles, Ermuako, Oiartzun, Elorrio, Bergara, Lesaka, Tolosa eta Alkizako eleizetan. Lan horiek egiteko eta tasatzeko enkarguak, alde haundi batez, Loiolako maisu haundiaren karguak emandako izen onaren ondore bezala ikusi behar badira ere, konstruktore bezala zuen jakintzaren eta famaren seinale dira.

Lecuna Loiolan 1719an hasi zen lan egiten. Lehenbizi zertan aritu zen, konstrukzio-Liburuko datu honek jakin erazten digu: «1620 Er., haietako 1500 Sebastián de Lecunari, Oiartzungo auzoari, emanak, hilabete baino gehiago Eleizako arkuen monteak egiten, moldeak ebakitzen, arkuak marratzen eta beste gauzak egiten aritu delako. Eta gainotzeko 120 Er. bere morroiari emanak, denbora horretan lagundu ziolako» (L. V. 145 or.).

Jakina da ere hura obran admetitzeko ze gorabehera bereziak izan ziren; 1720.go urtarrilaren lehenengo egunetako etxeko kotsultgatik dakigu. Han «zera propositu zen, ea Sebastian de Lecuna, Obraren Maisua, Kolejioan ademetitzea komeni zen ala ez, gure artean bizitzeko erabakia hartuko balu, alde horretara jotzen bait zuen; eta Kotsultore guziek batera zera zioten, ez komeni bakarrik, baina oso onerako izango zela».

Lecunak bere gogoan behin eta berriz ekiten zuenez gero, A. Probintzialak Jeneralari idatzi eta eskatu egin zion. A. Jeneralaren erantzunean, 1720.go otsailaren 13an, Aitak «baimena ematen du Sebastian hori gure artean bizi dadin eta Kolejioan gela bat dezan, baitere Lagundian heriotzorduan admetitua izan dadin obran egiten duen lanagatik» (47).

Lecuna monteak egiten, moldeak ebakitzen, arkuak marratzen eta horrelako lanetan haatik aurkitzen dugu, Loiolako kupula astunari eutsi behar zioten arkuen

konstrukzioa tekniko oso zaila bait zen. Konstrukzioa, Sebastian de Lecuna haren kargu egin zen unean, arku horien oineraino eraikia aurkitzen zen.

Eragozpen hau ez zitzaion 1851an F. J. Echeverriaren begiari izkutatu: «Beti arkitektuek oso gutxi eraiki dituzte zirku-baseko arkuok, haien arku-molduren kurba-lerroak eragozpen haundiak eskaintzen bai ditu, bere berunetik separa egiten bai dira, Loiolako arkuetan ikusten den bezala; haien giltzarriek separazio haundia dute, horrela miretsi daiteke lan harro hori eta bobedetan harri moztailleen iaioa» (48).

Hortik Lecunaren zer egin ezjakina, eta ez zuen irten ahal izan egoera horretatik, gauza argitzeko deitutako maisu batzuekin hitzegin ondoren, haien artean «iritzi ezberdinak bait ziren». «Orduan zera erabaki zen, Lecunak kontsulta bat idatz zezala, gero hiru Maisu ospatsuri bidaltzeko». Hauek izan ziren: Martín de Zaldua Maisua -haren obra Loiolan lehenago ikusi dugu-, Fray Pedro Martínez beneditarra, Arkitekturaz idatzitako liburuengatik teoriko ezaguna, Burgosko Katedraleko Maisu haundi izana, eta Joaquín de Churriguera, sasoi hartan Salamancako katedral berriaren Maisu haundia.

Joaquin de Churrigerak esku hartzen du (1720)

Gai hau José Ramon Eguillor-ek artikulo argi batean azaldu du: *Loiolako basilikaren konstrukzioan Joaquin de Churrigeraren esku hartzea* (49).

Lecunak egindako kontsultaren hiru erantzunetatik Fr. Pedro Martínez-ek emandakoa bakarrik kontserbatu da. Kontsultari diseino batzuk erasten zitzaizkion, eta haien galduak asko zailtzen du textua ulertzeko lana, textuan behin baino gehiagotan aitatzen bai dira.

Fray Pedrori Lekunaren explikazio eta diseinuak ez zitzaizkion nahikoak iruditu, hala «haien eta diseinu sortaren bidez ez daiteke osoro jantzi proiektuak eta konstrukzioa ikusi ez dituen».

Ez zitzaion Zalduari hori gertatzen, Loiolako proiektuak eta han eraikia oso ondo ezagutzen bait zituen. Churrigerak, bere aldetik, horretara dudarik gabe A. Probintzialak, bitarteko egin zuenak, eraginda, obra bisitatzeko erabakia hartu zuen, problema berez ezagutzearen.

1720.go apirilaren erdi aldera heldu zen Joaquín de Churrigera Loiolara, «bere iloba bat, bi morroi eta beste lagun batzuk zekartzan lagun». Zaldua Lekeition Lagundiaren Kolejio bat dirijitzen ari zen eta handik etorri zen Loiolara, eta 18an izan zuen bilera Lecunarekin, Martín de Vergara Anaiak 19ko eskutitzan A. Probintzialari jakin erazten zion bezala:

»Onik heldu zen Churrigera Jauna, eta atzo hitzegin zuen Sebastián de Lecuna eta Martín de Zalduarekin, eleiz eder honen arkuak eta gainontzeko konstrukzioa nola egin behar diren; eta hain labur jarri ziren batera, hizketak ez zuen bi ordu luzatu, Churrigera Jaunak eta gainontzekoek obra osoa nola egin behar zen bait zekiten.

Ez dakit nola goratu Berorri zeinen pozez gelditu naizen, horrela Maisu argiak batera etorri direlako eta obra hau haien direkziopean egin behar delako; horrela ziur gaude oso ondo eta seguru egingo dela.

Joaquín Jaunak kontsultaren kopia bat darama Berorri erakusteko.

Joaquín Jaunari ehun dobloi bakun eman dizkiogu, motx ez gelditzeko Erretore A.ri eta neri nahikoak iruditu zaizkigunak» (50).

Zoritxarrez, «erabakitakoa idatzi eta heuren izenez firmatutako» papera, Loiolan

gelditu zena, ez da ageri, eta berebat Joaquín Jaunak berekin eraman zuen kopia ere.

Lecunaren kontsultan hiru puntu nabaritzen dira. Aurreneko eta haundiena, zirku-
lekua eta eraztun-
lekua separatzen dituzten zutarrien gainean eraiki behar ziren arku-
ez. Gai hau argitzeko deitutako maisuek bi iritzi zituzten. Batzuek zera zioten,
arku horiek turut-erakoak izan behar zutela. Iritzi hau Fray Pedro Matinez-ek guziz
sendo defenditzen zuen; bere alde Antonio Desgodetz ekartzen zuen, Verona-ko
Anfiteatroaren deskripzioan, Erromako Koliseoan eta honen antzeko beste
eraikuntzetan agertzen den bezala. Ez zitzaion laket Lecunari soluzio hau, eta hark
zera irizten zion «bai diametro txiagoko bai haundiagokoa eraiki behar zirela, eta
horrela lurrera begira dauden tartekak giltzarrian horizontal geldituko zirela, ertzak
rektu joango dira arku osoan, baina zirku pixka bat ere dutela».

Bere aldetik, A. Eguillor-ek, oso dokumentu gutxi aurkitzen zelako, zera dio «neronek
arkuak alde guzitatik ikusi nahi nituen soluzioa zein den jakiteko. Ez ninduen ezerk
asetzen; baina, egun batean, korora eta bobedetara daraman karakoleskaileratik
igotzea bururatu zitzaidan eta kanpoko eskubiko arkuaren altura berean, atarira
jotzen duen hiruangulo-leiho txiki batetik begiratu nuen. Ordurarte ikusi ez nuena
ikusi nuen; hantxe ikusten ziren oinarrietatik ertetzen ziren arkuaren barneko eta
ateko lerro biak; gero, kanpoko lerroa izkutatu egiten zen (barneko lerroa baino
gehiago igotzen zen seinale), arkuaren giltzarrira hurbiltzean berriz ere agertzeko;
eta giltzarria osoro horizontal zegoen zolari begira.

Zer pentsa behar zen garbi zegoen: Loiolako Basilikako arkuak, heuren aldeetan,
turut-erakoak direla, baino kanpoko aldekoaren bukaeran pixka bat beheratuak; goiko
harrien zama berune-berunean erortzen da giltzarrien gainera» (*op. cit.* 447).

[N.B. Horain dela gutxi obserbazio hauek beste batzuek hobetu eta osatu dituzte:
alde batetik, Francisco Javier Capote arkitekto Jaunak, eta, bestetik, Juan Angel
Serna Urbaneja Jaun eta José Luis Camara Sadurni Jaun arkitekto teknikoek. Haien
neurketak datu hauek ekarri ditu:

- 1.- Inpostak edo arkuen oinarriak, eta haien giltzarria ere, zolari begira guziz horizon-
tal daude.
- 2.- Haien aldeak turut-erakoak dira, hau da, kanpotik irikiagoak barnetik baino, alde
batetik barneko lerroa igotzen doala, eta bestetik kanpokoa beheratzen giltzarria
ikutzeraino.
- 3.- Arkuaren kanpoko eta barneko lerroen artean irudimen-erdi-lerro bat marratzen
badugu, sortzen den arku -planua, ez alabeatua- erdipuntukoa da osoro; beste biak
-barneko eta kanpoko lerroenak- ez dira regularrak.
- 4.- Makoarriak barneko erdi-puntuko lerro gainean balantzan doaz; barnez beheratu
egiten dira barneko arkuaren lerroraino, eta kanpotik igo, kanpoko arkuaren
lerroraino, eta zirku-erari egokitzen zaizkio.
- 5.- Alde bietako lehen makoarriak bakarrik dira erabat turut-erakoak, hau da,
estuagoak barnetik eta zabalagoak kanpotik; besteek, gehienbat, konstruktzeko
praxi-arauari jarraitzen diote: egitez, bere lerroak paraleloak dituzte, ajuste arin
batzuekin.
- 6.- Estudioan alde batera utzi da arkuek agertzen duten okerkera eta, rotondaren
mugimendu guziari jarraituz, kuadroan sartzeko erabiltzen diren petxinak, eta hori
haatik, haren efektua deskarga-arkuek eta horma-bularrek errez konpentsatzen bai
dute.

7.- Baitere, kanpoko faja ere -dena oso turut-erakoa- arkuak jirolako bobedekin elkartzen dituena, alde batera utzi da.

Signatua: José Ramón Eguillor S.I.] Kotsultaren bigarren puntua eraztun-arkupearen edo jirolaren bobedei zegokiona zen. Hemen textua hain laburra da, Fray Pedrok hala dio, «ez du haiez inork juzgatu ahal izango explikazio zabalagorik gabe eta proiektu osoa ikusi gabe, ez bai daki zein den haren konstrukzioaren dispozizioa eta horregatik ez bai du haren zama neurtzen, hortik eusteko ze indar behar duen kontsideratzeko».

Bigarren puntu honetaz, bobedei doakienaz, A. Eguillor-ek zera komentatzen du: «Bobeda horiek ikusteak neri zera esaten dit, eraztun-arkupe horren zati bakoitzean, aldare bakoitzari eta koroko organuari dagozkionetan, zera berezi behar dela, alde batetik bobeda bera, uztaiez egindako gezur-bobeda dena (beti uztaiezkoa, eta ez txandaka uztaiezko bobedak ertz-bobedekin, O. Schubert-en marrak bere obran Historia del barroco en España-n supositzen duen bezala); apaintzeko besterik ez da, ez dio ezeri eusten, kotsultan uste zenez; hori agertzen zaio eraztun-arkupeko zolatik gora begiratzen duenari; eta gero bestetik deskarga-arkuak, horma-bularrak, zintoi rektu eta zeharrak, eta ganbaretan eta teilatuetatik ikusten diren zutabeak, rotondaren bi hormekin -barneko eta kanpokoarekin- batera lan egiten eta goiko eraikuntzaren zamari eusten diotenak» (*Op. cit.* 447-448).

Bileraren ondoren, Zaldua segitun, Lekeitiora itzuli zen, baina Churrigera Loiolan zazpi egun gelditu zen, egun horietan Lecunak asko hitzegingo zuen harekin, bere dudak agertuko zizkion eta orientazio batzuk eskatuko. Beste puntuen artean, batez ere apainketari zegokionaz tratatuko zuten, horixe zen kotsultaren hirugarren eta azken puntua.

Han galde honi erantzuteko eskatzen zen: «komeni izango da zizel-lanen apaingarriez zer iritzi duten esatea, oraingo zirriborroan doazen erlaizpeak nahikoak diren ala ez, edo ea hauen orde zizelatu gabeko apaingaiak jartzea hobe izango ote litzatekeen, eta ea erlaizeko kartelak agertzen diren eran eta banaketan ondo dauden, eta ez daudenean, adierazi nola, berriz ere egingo den proiektuan, Eleizaren barruko eta kanpoko dena agertzean, egin behar dena marra dadin».

Garrantzi haundiko galdera honi Fr. Pedro Martínez-ek aurrekoei baino luzeago eta zehatzago erantzuten die: «Argiago adierazi behar zen -dio- bost ordenetako zeinetan eraikitzen zen basilika, haietako bakoitzak, berari dagozkion apaingai bereziak bai ditu. Diseinutik ez dut oraindik nabaritzen orden konpositua den ala ez, orden honetara korinto-ordenera baino gehiago hurbiltzen bada ere. Eta konstrukzioa orden hartan egin izan balitz, horrelako eleizetarako oso egokia delako, zera diot, zizel-lanak ez zaizkiola gaizki etortzen, neurrikoak, aukeratuak eta simetriko eta eratsu jartzen baldin badira behintzat».

Gero erlaizpetarako zera gomendatzen du «erredolatxo batzuk... hutsune batzuek bata besteen artean utzirik begiak deskantsa dezan, edo bata besteen artean serafin-joku batzuk eta horren antzeko beste zerbait». Haiek modu onean eta eratsu jarri behar dira -erasten du-, konstrukzio osoari ospe ona emateko hala, eta ez hainbeste gehiegizko jakingura txoraa bizteko moduan, eta ez bekizkie haren zatiei proiektuan bezalako tarjetak jarri, horiek erakus-tokietako eta pinturakuadroak apaintzeko egokiagoak bai dira, horrelako estilo serioko obretarako baino».

Beneditarraren lekzio pseudoklasiko neurritsu eta eratsu hau alde batera utzirik, ziur eduki dezakegu, Churrigerak, ez bakarrik zituela zizelapaingai haiek, Lecunaren «zirriborroen» ornamentu ugariak baiestuko, baina hartutako barroko-lerroan

jarraitzera eragingo ziola, Fray Pedroren oharrei kaso egin gabe.

Burgosko Maisu Haundiaren eta Salamancakoaren arteko iritzi ezberdin hau batez ere petxi-nen ornamentuan agertzen da. Burgoskoak hala idatzi zuen: «Arkuen petxinetan ez dut uste zizel-apaingairik jarri behar denik, konstrukzioa jantzi gabe dagoelako, hemen gogaikarri izango litzateke eta gaizki etorriko; eta horren lekuan hustu batzuk barman moldura jaiki batzuekin egoki izango lirateke».

Ze urruti gelditzen diren Fray Pedrok gomendaturiko moldura lau hauetatik, Eleiz atariko eta barneko petxinak hain oparo estaltzen dituen osto-anabasa eta roleo bihurriak!

Baitere nabari da Churrigeraren seilua erlaizpe, kapitela, moldura eta giltzarrien apaingai aberats eta ugarian.

Salamancara itzultzerakoan, Churrigera eta haren lagunak Burgos-en gelditu ziren A. Probintziala agurtzeko.

Loiolan guzi haiei jaten ematen 20 errial gastatu ziren egunero, 140 errial guzira zazpi egun luzatu zelako haien egonaldia (*L.F.R.* 160). Horri Joaquin Jaunari bere lanagatik emandako 6.000 errial erantsi behar zaizkio.

Aukera eskuan zutelako, Churrigerari kontsulta hau ere egin zioten: «ea Kapila Santuaren edo Konbertsio Kapilaren goia altxatzea komeni zen ala ez. Churrigerak ezetz esan zuen, eta A. Pedro Basterra jesulagun arkitektoak ere ia berrehun urte geroago, 1915an, hark ere ezetz esan zuen -Arkibuko dokumentuan ageri denez-haren iritziari jarraitu ez bazioten ere» (51).

A. Probintzialak Burgostik honela laburtzen zizkion bere inpresioak Martin de Vergara Anaiari maiatzeko 7ko eskutitzan: «Oso pozik gelditu naiz Churrigerari entzun ondoren eta arkuen eta Eleiz osoaren egikera, horren guzien iritzi berdinean konpondu dela jakitean. Hortan gastatua ondo enpleatua dagoela uste izen behar da, orain ikararik gabe egingo baita lan. Eta ni honekin oso pozik nago Churrigeraren eskuartzea erabaki nuelako; hau bere aldetik oso kontentu dihoa hartutako tratu eta ordainarekin» (450. or.).

Eskailera nagusiko lore haundia (1720)

Garain honetako datu bat gelditzen da esan gabe eta kronologiko orain da hura gogoratzeko ordua. Zera da, eskailera nagusiko bobedaren giltza-lekuko lore haundi ikusgarria; 4.670,5 errial kosta zen.

1719ko azken hilabeteetan hura zizelatzen kostatako 1601 errial anotatzen dira; 1720.go urtearen hirugarren laurdenean hura urrezten kostatako 2772 errial. Gainontzeko 297,5 errial, hura bobedan jartzen gasta ziren (*L.F.* 157.or.).

Bolandisten bisita (1721)

1721.go azaroan, Loiola bisitatzera, Francisco de Baza Erretoreak inbitaturik, Flandesko Bolandistak, Juan Vinnio edo Pinnio eta Guillermo Cupero AA.k etorri ziren. Egun bat eta erdi egon ziren eta gero Madrid-era igaro ziren (*Diario histórico de Loyola*, 21. or.).

Santuetxea, San Inazioz uztaileko 31ari dagokion santoralean egiten duten estudio luze eta dokumentatuan, azkeneko orrietan (777-780) deskribitzen dute. Estudio hau, santuen idatzi bati dagokionez, batez ere, Etxe Santuan luzatzen da, haren kapilak, erretaulak, erliki-kutxak eta apaintzen zuten dekorazioak xeeki kontatzen, baina

Kolejio berriaren obrak ere zehatz azaltzen ditu, eta humanista retoriko argiei zegokienez, eskailera ederraren egitura deskribitzen gelditzen dira.

A. Bazak, alde zaurretik, Loiolaz eskuidatzi bat bidali zien, diseinu batzuek osatzen zutela.

Kolejio berriaren obrari doazkonak garrantzi haundikoak dira, ze konstrukzioaren fetxei dagozkien kontuan hartzen badugu. Izan ere, aldi hartako proiekturik ez dugunez gero, Bolandistek argiratutako ebaki eta altxatu horiek (10. lam.) ez digute argi gutxi eman ahal izango, bere orduan adieraziko dudanez.

Eleizari doazkionak, Lecunak egiteko asmoa zuen barne eta kanpuaren proiektuaren kopia izan badaitezke ere, ez bide da orduan egina zegoenik, eta hobeto zera esango genuke, Fontanaren azken proiektuaren kopia, Erromatik bidalitakoak, izango direla.

Atearkupea (1720-1724)

Churrigera-Zaldúa-Lecunari egindako kontsultaren ondoren zizel-lanetan mugimendu handia ikusten da. 1720.go maiatz-ekainean Izarraiztik sei harri handi ekarri zituzten, Ate-arkupeko kapitela eta erdiko arkuaren giltzarria egiteko. 1721.go martxoan urriara beste lau ekartzen dituzte kapitela eta moldurak egiteko, eta urte horretan bertan azaro eta abenduan beste bederatzia, molduretako.

Hilabete horietan (agostu-urrian) lanean ari ziren zizelkari batzuen izenak ezagutzen dira: Tomás de Ponte, José Antonio de Iparraguirre, Miguel de Aranaz, Antonio de Maíz (L.F. 182 or.).

Beste batek, Abalia zeritzanak, «Eleizaren arkupean dagoen aurrekalde gaineko tarjeta» zizelatzen du. Lan honegatik eta «kapitel baten lehen orriak zizelatzeagatik» 732 er. ematen dizkiote 1721.go urrian (L.F. 170 or.).

Beste batzuk etor-tokiko izenez bakarrik ezagutzen dira. 1722.go martxoan «valenciano»ari 5.280 Er. ordaintzen dizkiote «8 kapitel egin zituelako, 44 zilarrezko eskudo bakoitza». Kopuru honetan hiru ofizialen, harriak leunduak eta gertuak eman zizkietenen, jorنالak ere (1524 Er.) sartzen ziren (L.F. 177. or.).

Beste kasu bat da Vianatik etorritako zizelkari batena, «haren zizel-lana kolejioko obra-maisuaren gustokoa ez zelako, ez ere Eleizako kapitelen gainean jartzeko bezain ona, gainontzeko aurrekaldeko kapieteletan egindako zizel-lanen parekoa izan behar bait zuen», horregatik kontsultoreek bidaltzeko erabakia hartu zuten, «baina bere Herrikoen artean izen onik ez galtzeko moduan... eta, hala, zera adierazi zieten kanpokoei, ez zegoela naranja erdiko zutarrien kapitelen zizel-laneko harri gerturik, eta horrek haren kontura joan behar zuela, hori zela baldina. Horrela egin zen, kolejioko egindako lan-egunak ordaindu ondoren». Erabaki hori hartu zuten 1722.go urtarrilaren 4an egindako kontsultan; horrek zera agertzen du, nola begiratzen zuten langileei kalterik ez egiteko.

Beraz, aitaturiko datuetatik zera ikusten dugu, lehenbizi ateko arkupetan egin zela lan, eta ondore-ondoren zirkuaren barneko zutarrietan.

A. Baza erretoreak egindako lan eta erabilitako arduragatik, A. Probintzialak hari 1722.go agostuaren 12ko bisitan zorionak ematen dizkio (L.V. 50.or.) eta Etxe Santuko obra aurrera eramatera eragiten dio, «Lagundi osoak amesten duen gogoia baita». A. Argis Probintzial berak 1724an halaber zorionak ematen dizkio Erretore eta Bazkunari «beren garra santuz horrenbeste on bizten dutelako».

Armarriak (1717-1722)

Hasieratik izen zan puntu hau deliberatzeko gai. 1717.go abenduaren 7ko kontsultan «Kontsultoreek zera erabaki zuten, Eleizaren aurrekaldean Alabastrozko edo Navarrako har zurizko erregearmarria jar zedila» eta berdin egin zedila Eleizan jarri behar zen beste edozein armarrirekin ere, horrela hobeto geldituko bait zen, Eleiza egiten ari diren harriarekin baino, honi distira aterako baliote ere. Alabaina, armarri hauez ez da beste notizirik aurkitzen hiru urte geroago arte. 1720.go abenduaren 13an Probintzialak zera agintzen du, delibera dezatela kontsultoreek «ze armak jarri behar diren alboko armarrietan, hau da, erdiko arkuan jarri behar den errege-armarriaren bi aldeetan, etxeurreko arku gainetan. Eta denak zera esan zuten, Jesus eta Maria izenak jar zitezela, Loiolako Etxearen armek eragozpen bat baino gehiago zutela eta gainera Mariana Erregin Andreak, berak hartutako Kolejio honen patrona-tuan, zera agintzen zuela, ez daitezela aurrekalde horretan Erregearen armak baizik jarri».

Dokumentu honetako hitzen aurrean, A. Probintzialak zera erabaki zuen «Errege-armarria Felipe V.ak daukan bezala jar zedila, eta alboko armarrietan YHS eta M^a jar zitezela». Horrela, bada, obrak hasi zirenean errege Carlos II.a bazen ere, orain Austriar armarriaren orde Borboiena jartzen da.

Baina, armarri hauek ez ziren Loiolan landu. Haiengatik 16.200 Er. ordaindu ziren. 15.000 Er. Eleizaren aurrekaldeko hiru armarriak ajasta zirenak, itsasontzi barruan kajoietan arrisku guzira jarriak, eta gainontzeko 1200 Er. bidean ekartzeko, 15.000 Errialen ehuneko 8an Genovan jarriak; gastu hauek Madridedeko ofizioari kargatzen dizkio 1722.go urtarrilaren 1go kontuetan (*L.F.* 173 or.).

Ateko arkupea egiterako, izan ziren edo zitezkeen aldakuntzak, interes haundiagoko edo txikiagokoak, ez dira aitatu gabe utzi behar.

Fontanak urte hauetan egindako etxeurreak, H. Hager-ek (52) ikertuak, kontuan hartzen baditugu, Loiolako atearkupean probable frontiseko erlaizpea trigliforik gabe aurkituko litzateke, eta han zehar, beste aurrekaldeetan bezala, dedikatzeo idazkuna. Alabaina, erlaizpea dekorazio-barrokoharburuez zatitua agertzen da; dudarik gabe, apaingai horiek lekuko artistei eta Churrigeraren influjoari zaizkie zor.

Hala ere, Alcañicesko Markesen expreso agertutako nahia betetzeko, ikus daiteke -neurriagatik eta zolatik urruti aurkitzen delako nekez irakur ba daiteke ere- idazkun bat, erdiko eta ertzetako arkuen artean banatzen dena; honela dio: «Luis Henríquez de Cabrera Jaun eta Teresa Henríquez de Velasco Andre Agurgarriek, Alcañizasko Markesek, Etxe Santua eta Patronatua aske eta bere oldez eman zioten Austriako Maria Erregin Ama Andreari. 1681. urtea». Urte batzuk geroago, akats hau erremitzen saiatu ziren eta monumentuaren bailagibel nagusian, erraz ikus daitezkeen tokian, ohore-harri lau batean, bigarren idazkuna jarri zuten.

Atearkupean beste aldakuntza bat azaltzen da. Zutabe eta zutarrien alturaren eta zokalo edo puntuen alturaren proportzioa Loiolan ez da San Marcelo-ren aurrekaldean, Faustino eta Jovita Santuenean eta Bolandisten marrazkian agertzen dena bera; hemen zutabe eta zutarriak Loiolan baino luzeagoak dira eta ez hain altuak plintuak. Baitere zera ikusten da, bolandisten alboko arku tarrean baranda bat agertzen dela, gaur ikusten den harrizko karel betearen orde.

Oraindik ere beste aldakuntza bat aurkitzen da. Bolandisten marrazkian, atearkupea burutzen duen barandan, su antzeko bola eta eskultura batzuk aurkitzen dira, seguru asko Fontanaren diseinuan zeudenak; hori gainera *Libro de fábrica-n* agertzen den datu bategatik dakigu; 1723.go maiatz-ekaineko kontuetan zera esaten da: «120 Er.,

Bernardo de Frias eskultoreari, Burgosko auzoari, eman zitzaizkion, aurrekaldeko harrizko irudiak tajutzera etorri zenean, etorri eta joateko gastua ordaintzeko» (L.F. 189.or.). Beraz, Fontanaren apaintzeko eskulturak egitea pentsatu zen; baina, lehen saio hau ustel gertatu ondoren, ez da gehiago irudi haiez hitzegiten, eta ez ziren egin.

Atearkupearen beste alde batean Fontanak bere seilua nabari utzi zuen. Loiolako ateadoko hiru arkuko arkutaria, Hager-ek uste duenez, Ariccia-ko Maria Assunta Santutik dator; hura eraikitzen eskuartu bait zuen Fontanak, garai hartan Bernini-ren laguntzaile bezala.

Wittkover-ek, Hager-ek gogoratuak, dioenez, «Fontanaren konstrukzio guzietatik, agian horrek atera du besteak baino lehenago eta gainera oihartzunik haundiena». Handik datoz S. Girolamo della Carit Erroman, Turin-go Cristina Sta., Trinit dei Pellerini (Erroma), Maria del Suffragio Sta. Tarquinian, l'Annunziata Napoles-en, Catania-ko Collegiata eta Wurburgo-ko Neumünsterkirche. Wittkower-ek egindako zerrenda honi, Hager-en iker-lanaren ondoren, Loiolako Ate-arkupea erantsi behar zaio.

Idurigileak (1723-1729)

Ez zuen suerte haundirik izan Loiolako konstrukzioak idurigileekin. Dirudienez, XVIII. mendeko sasoi honetan, aurreko mendeetako idurigileen historia argia ilundua aurkitzen zen: Araozkoak (Andres, haren semea Juan, eta haren anaia Diego); Anchieta-ko Juan, Camón Aznar eta Azcaratekoak uste duenez, Espainako Miguel Ángel zena, eta Anchieta-jarriztaile Bengoecheako Ambrosio, Goroako Domingo eta Larreako Jeronimo; Iriarteko Juan, Goicoecheako Pedro, Arizmendi Felipe, etab., Asunción Arrazolak estudiatu dituenak. Behintzat zera gertatzen da, obra dirijitzen duten arkitektoek ez diotela lurraldeko idurigile bakar bati ere deitzen.

1723an «aurrekaldeko harrizko iduriak» tajutzeko, Burgostik Bernardo de Fríasi etor erazi zioten, ikusi dugunez.

Suerte ez haundiagoa eta garestiagoa oraindik gertatu zen Flandesko Pedro de Banderka Anaiaren lana; Erromak esanda, 1727.go udaberrian Dunquerquetik Loiolara Bilbon barrena etorri zen, Flandesko beste lagun interprete batekin. Gozakaitza benetan Flandesko «idurigile» honen aiurria -horrela agertzen da dokumentuetan-; superioreek atentzioa deitu behar izan zioten, Loiolako obraz egindako zenbait «aprehensio» eta kritika zuzendu zitzaizkien. Gauza bakar bat egin zuen hemen: 1727.go agostuan, San Inazio egun zortzi barruko igandean, Luis Gonzaga eta Estanislao de Kostka santu egin zituztelako, Loiolan ospaturiko jaiarako perspektibako erretaula bat. Haatik 664,3/4 Er. eman zizkioten. Gero, gaiso zegoela aitzaki jarri eta, ez zuen ezer egin nahi izan. Ho-rregatik Probintzialak -harén eskura bidali zuen Erretoreak asuntua- hari herrira itzultzeko baime-na ematea erabaki zuen. Anaiaren eta harén itzultzailearen gastuak -biderako eta beste ka-pritxo batzuk, gozokiak eta tabakoa adibidez, erosteko- ez ziren 5.326 errialetik jaitsi. Diru hori Kolejoaren konstrukzioak ordaindu behar izan zuen aldeonik batere gabe (F.L. 226-228, 230 eta 239).

1729. urtean Loiolan beste idurigile batek egi-ten zuen lan, Portugalko Jacinto de Vieyrak; baina Etxe Santuko kapilaren sapaia zurlanez apaintzen bakarrik aritu zen. Vieyra Banderkaren alderantzia da: bere lanagatik ez zuen jornalik batere jaso nahi izan; Kolejoaren konstrukzioak harén janariak bakarrik ordaindu zituen: 948 Er. 253 egungatik, 3,75 Er. egun bakoitzean.

Eleizaren konstrukzioaren jarraipena

Zaila da, Konstrukzioaren liburuetan eta Kon-tu-Liburuetan zehar Eleizaren obraren martxari segitzen. Ate arkupeaz esandakoaren ondoren, la-burpen bat egin daiteke eta gainontzekoaren da-tuak osatu.

Probintzialak 1699.go agostuaren 23an zuen gogoia, urte gutxi barra eleizaren obra bukatze-koa, oso berandu bete ahal izandako amets-xede bat besterik ez zen izan.

Hamalau urteko etenaren ondoren -habetan **ez** zen juro-errentarik jaso- 1717.go ekainetik eleizaren obrak berriz hasten dira «maisú» deitzen dioten baten direkziopean, bere hamabi errialeko jornala aparejadorearena baizik ez bada ere.

1718.go urtarril-otsailaren kontuetan 120 Er. agertzen dira; Zalduako Martini eta Lincerako Lazarori eman zizkieten Eleizaz egindako kontsulta bategatik.

1718. urteko hilabete horietan ere, brontzezko bi eraztun pare jartzen dira eleizaren ate nagusiaren orpoetarako.

1719. urtean zehar, ondar-harri sartze batzuk registratzen dira, Getari eta Zarauztik ekarriak; eleizan zertan erabiltzen dituzten geroago esango dut.

1719.go irailaren lehen egunean hasten da Lecunako Sebastian argin maisuarekin lan-kontratua; hark 3.000 errialeko jornala jasotzen du, eta gainera haren janariagatik kolejiari ordaintzen zizaitona, ezagutzen dugun kontratuaren arauera.

1720an hartu zuen obrak eragin haundia Joaquín de Churrigerak eskuartu zuenean.

Adierazi ditugu lehenago 1721 eta 1724 bitarteko zizelkari lanak.

Zizelkari horien artean badago bat gure atentzioa berezi eskatzen duena. *FL.an*, 190 orrian, zera irakurtzen da: «720 Er. zizelkari bati emanak esker ona agertzeko, gainera 5 Er. lan egindako egun bakoitzagatik, eta urtebete egin du lan, 1722.go Agostuaren 5tik 1723.go Agostuaren 6rarte»; eta 202. orrian: «Berebat 720 Er. Ygnacio Yuero zizelkariari, emanak, urtebeteko esker ona agertzeko, 1724.go uztailaren azkenarte, gainera 5 errialeko jornala egunero».

Ignacio de Ibero honetaz zera esaten zen, 1684an jaio zela, baina A. Eguillor-ek zera jakin erazten dit, hamar urte geroago, jaio zela, 1694an. Hórrela dago idatzia Daniel Gutierrez zilarginaren 1730ko -haren heriotz-urteko- testamentuan. Agiri horretan Ibero lekuko bezala agertzen da eta orduan hogeita hamasei urte dituela dio.

Azpeitian jaioa zen Ibero eta Ugarteko Juan Franciscoren eta Erquiciako Maria Anaren semea. Loiolan 1717an hasi zen lan egiten. 1720an ezkondu zen.

Oso zizelkari ona zenaren irargi bezala, ikusi dugu zer esker onezko sari jasotzen duen 1722 eta 1724 urteetan. 1724.go azarotik zizelkari bezala hartutako 5 errialez gainera, 7 hartzen ditu egunero bere kargu berriagatik, orain gainera etxaginarde baita eta Lecuna maisuarekin batean lanegiten du. Oso interesko gauza litzateke, obra dirijitzen batean aritu ziren hamar urte haitan ze obrak dirijitu zituen berak jakitea, baina ez dago daturik bakoitzari zer zor zaion erabakitzeke. Orain dela gutxi A. Eguillor-ek berak RSBAP Boletinean, 1987, 281-197 or., interesko estudio bat argiratu du (gehiago ezin esan L.H.A.ko dokumentuetatik); hau da haren izenburua *Los Maestros Ibero de Azpeitia en la construcción del Santuario de Loyola*; harat jo beza gehiago jakin nahi duenak).

Francisco Javier Pérez Probintzialak 1699an Eleizan urtero lau edo bost lerro eraiki zitezela propositu zuen, baina seguru asko gutxitu egingo ziren, batez ere kapitela zizelatzerak heldu zirenean.

Obra noraino igoko zen ordurako jakiteko, datu hau dugu, 1728.go uztailean eta agostuan Segurola arotzak bere ofizialekin (53), eleizaren teilatua, eratzun-arkupe gainekoa, bukatzen dute. Beraz, fetxa horietarako, kupularen danborra bere erdiraino eraikia egongo zen.

1728.go agostu-urrian Loiolan Aragoi Probintziako Arkitektu Anai bat egon zen (*FL.* 240. or.). Ez da esaten zergatik etorri zen, agian geroago Madrیدهko arkitektuei egingo zitzaizkien kontsulta-rekin elkartua egongo zen.

1729.go azaroan, harritu egin zen A. Probintziala «naranja erdi barrurako are-harriak pilatzen ari zirelako», horregatik Erretoreari idatzi zion «bil zezala kontsulta eta agindu ziezaiela kontsultoreei idazteko denak, *litteris separatis*, bai eta obra Maisuak ere, eta jakin eraz ziezaiotela zergatik erakartzen zuten Harri hura». Bildu zuen Erretoreak agindutako kontsulta eta Madrیدهko arkitektu kontsultatuen iritzia bidali zuen, «haiek denak batera Naranja Erdi barruaz eta haren konstrukzioaz, iritzi hau eman zuten, obra egiten ari ziren kare-arria ez bezalako zedila».

Notizi hau Kontu-Liburuan osatzen da, 4 z.a.n, 37 r or.: «baitere 180 Er., Madrیدهko ofizioari kargatzen dizkionak, Naranja Erdiaren proiektua ikusitako eta bere iritzia emandako hiru Maisuei emanak» (Urtarrila-Otsaila, 1730).

Ez dira arkitektu horien izenak ezagutzen. Erantzunean explikatua daukagu, zergatik erabiltzen den arearria kupula barnean.

Kupula

Kupularen gauza argitzeko Coudenhovek Fontanaren proiektu batzuez egiten duen reflexioak lagundu diezaguke.

Coudenhovek, Loiola, Fontanak proiektutako zirku-plantako beste bi eleizekin konparatzen du: *Santa Maria dei Miracoli* eleizarekin -han lehengo konstrukzioek artistaren asmatzeko askatasuna mugatu egin zuten- eta Koliseo barruan sartu beharreko Zirku-Eleizaren proiektuarekin -proiektu huts baizik izan ez denarekin-. Proiektu honen marrazki eta estudio batzuk haren hil-ondoko *L'anfiteatro flavio descritto e delineato* obran gelditzen dira, La Haya 1725. Konparatzean, diferentziak antzak baino interesago zaizkigu. Eta hauetako bat -Coudenhovek oharterazi zuen bezala- zera da, *Santa Maria dei Miracoli* obran eta Coliseo-rako proiektuan ziskuen antzeko kapilakoroe bat aurkitzen dugun bitartean, Loiolan, haien lekuan, zirku pasaleku bat dago. Coudenhovek hortan, ez arkitektuaren baina enkargua egin zuenaren eskua ikusten du. Halaxe izan zen. A. Francisco de Alençon Probintzialak, bere 1696.go azarearen 20ko oroit-agirian A. Zupide Erretoreari oso benetan zera enkargatzen dio «eragin diezaiola Maisuari proiektua dagoen bezalako Eleizaren marrazki bat egitera, baina kapilen arteko pasua zabalagotzen dela» (*L.V.* 19. or.). Honelaxe sortu zen Eeleiz barneko eratzun-arkupea, Loiolako eleizaren berezgarria.

Disposizio honi esker, Coudenhovek ohartzen duen bezala, bidezkoa da ikusleari egin ohi zaion oharra-Bolandistek 1721an dagoeneko badakarte-, hau da, zirku erdian jarri eta, begiak biratzen baditugu, sei aldeetako aldareak ikusten ditugula, eta batean zutarrien aurrean dauden ateak ikustezin gelditzen direla, eta horrek gainera zera adierazten du, zeinen gutxi ikus daitekeen ate gainetan doazen tribuna edo balkoietatik.

Coudenhoverekin afirma badaiteke, basilikaren be-estrukturan Fontanaren planuak bete zirela, horren ziur da, urte batzuk geroago, kupulari forma ematean, haiek alde batera utzi zituztela jasoagoa egiteko. Be-aldea baju samarra da, baina kupulak

Fontanan ohiezlako altura du. *Santa Maria dei Miracoli-ren* neurriak Loiolako basilikarekin konparatzen badira, zera ikusten da, rotondaren diamentruaren eta bealdeko alturaren erlazioa ia berdina dela bietan; baina danborraz goitik nabari hazitzen dira Loiolan numero-erlazioak gora aldera *Santa Maria dei Miracoli-rekin* eta Coliseo-ren proiektuarekin konparatzen baditugu. Horregatik separatzen da Loiolako kupularen eta linternaren orrazea beste Fontanaren obretatik (54).

Bai eta Braun-ek ere detaile hau seinalatzen du. Hark kalkulatzen duenez, danborrak bere atikuarekin 15,5 metro neurtzen ditu, eta 13,5 be-aldean. «Kupularen be-estruktura neurri hauen arauera baju samarra da; hori garbi ikusten da jeometri-altzatu batean (ikus Schubert-ek argiratutako orraze zeharra). Alabaina, barnetik erdi-lekua ikusten denean, kupularen neurriek beste aurpegi bat eskaintzen dute. Orduan ulertzen da zergatik egin zituen Fontanak apropos hain altuak danborra eta kupula, horren egal atereak alturaren efektua galerazi egiten bai du, eta galera hori konpentsatzeko» (55). Braunen oharra egia da, baina hau bakarrik seinalatu behar da, asmatu hori ez zaiola Fontanan zor, tokiko arkitektuei, ikusi dugunez Superioreek dirjituei, baizik.

Fontanak Loiolarako diseinaturiko kupulari gagozkiola, zera esango nuke, lehenago egindako batzuen antza haundiagoa duela. Horrela Hugo Donatik Montefiascone-ko katedralarenakin konparatzen du -hartaz zera dio «piuttosto tozza e bassa» dela (motz eta baju samarra)- eta *Santa Maria dei Miracoli-renarekin*, hura ere bajua zela esan zuen, eta hartaz Donatik hau erasten du «Loiolako jesulagunentzat, sasoi hartan baina haundiagoa, egin zuena bestearen eredu izan zela, haren proiektu bat egin bait zuen Fontanak 1681. urte aldera» (56).

Kupularen beste berezgaiei begira, zera ikusten dugu, danborraren oinarrian eta bere bira osoan bere zokalo bezala, bi ozkairudi agertzen direla, eta Bolandisten marrazkian tokirik ez dutelako, Fontanaren planuak baino geroagoak direla epaitu behar da.

»Lehen, ozkairudiak, Eleizaren sarrera gainean, Inazioren lehen soldadu-bizitza azaltzen du; guda-trofeo asko han: banderak, kaskuak, rodelak, alfanjeak, danborrak, arratzak, sutauts-upelak, mortero eta kañoiak; Braun-ek rokoko-apaingaien antza seinalatzen du (*op. cit.* 185.or.).

Bigarrena, aldare nagusi gainean, Inazio iadan santuaren oso korputz berezi eta ederra; bere eskuekin gora marmolezko oihal bati eusten dio; han Jesusen izenaren anagrama (IHS) dago idatzia. San Inazioren eskubira Eleizaren irudia dago (ekisaindu bat, gurutze bat eta kaliz bat...) bake-posesioan; eta haren ezkerrean San Inazioren eta bere Lagundiaren ondorengo espiritu-guda dramatiko adierazia, bere borroka eta garaipenarekin. San Inaziok jasotzen duen IHS izenetik tximistaren antzeko sua irtetzen da eta Lutero zegoen artzola bat lurreratzen du, eta, tximista berak, aurrerago jarraituz, jeometriko mehetua zeharka-meharka, bere lantza-puntarekin piztitzar bat bere sabelean zauritzen du; piztia bere bost buruekin herejiaren irudi da» (57).

Danborraren hasieran dagoen zokalo hau eleizaren apaingairik aberatsena eta alda gehienak dituena da.

Aitzitik, bolandisten marrazkitik epaitu daite-keenez, argien estruktura Fontanaren diseinuaren arauera marratua dagoela ematen du. Leihoak moldura-marko barruan agertzen dira: alboetan, boluta haundiak eta haien gainetan lurrin-ontzi batzuek intzentsu-ke bihurri arina gora bidaltzen; eta gainean, frontoi mako bat, elipsoide-ispilu batek zatitua (41. eta 44. **lam.**).

Naranja erdia

Naranja erdiaren dekorazioaz (42. eta 44. **lam.**), garrantzi handia du H. Hager-ek egiten duen oharrak; «horren arauera, Fontanak barneko kaskua dibisiorik gabe utzi ohi badu ere -eta hortik konklusio hau atera ahal izango balitz ere, fajak geroago erantsiak izango liratekeela-, arkuen tartean zabaltzen diren errezel haundiak bere barnean errege-armarriak hartzen dituztenak, Fontanaren gairik begikoenak dira eta horregatik segura asko bere diseinuaren seilua dute» (58).

Gainera, bere geroagoko beste obra batzuekin -Austriako Leopoldoren hil-mahaiarekin (1705) eta Portugalko Pedro II.arenarekin (1707)- duen antzak konfirmatzen du.

1730.go azken hilebeteetan eta 1731.go aurrenekoetan, naranja erdian jarritako toldo bat aitatzten da; hori, Madridede arkitektuen iritziari jarrituz, eleiza osoan egin zen nabarduraren antzera, kupula barnean erabilitako arearriaren pinturarekin elkartua egongo litzateke. Toldo harekin zera lortu nahi izango zuten, naranja erdiaren pintura ez zedila erori ahal izan eleizaren erdi-leku hartan zebiltzanen gainera.

1731.go martxoaren 5. eguneko fetxa duen kontratu bat aurkitzen da; naraja erdiaren alboko dorre biak burutu behar zituzten bolez da kontratua: «Pedro de Estebanot eta Pedro de Casas, Azpeitiako auzokoekin -dio idazkiak- hontan gelditu nintzen, dorreak buratzeko bolak, egurrez eginak daudenak, txapaz edo brontze-orriz estali behar dituztela, oso ondo soldatuak, eta, Sebastian de Lecunak, Kolejio honetako Maisuak, agintzen duen lodian, eta Estebanoti eta Cassasi

egiteko eta neurtzeko lana libra bakoitzagatik belloiezko bost Er. emango zaizkie, eta behar den kuprea Kolejioak emango die, eta urte horretako ekainaren 24rako bukatu behar dituzte (*L.Cu.* 4. z., 10r. or.).

Kontratuan bigarren atal bat zihoan, naraja erdiaren bolari zegokiona; bola hura urte horretako Santu Guzien egunerako bukatu eta estali behar zen; baina hori ez zen orduan egin, pixka bat geroago baizik.

1731an (martxo-apirilan) 2.452 Er. ordaindu ziren dorreetako bolentzako 450 libra kupregatik, eta 2.062 eta 1/2 bolak egiteagatik. Eta 1732an (martxo-apirilan) 1.615 Er., bi dorreetako bolak eta gurutzeak urretzeagatik. Horretarako 3.000 urre-xafla erabili ziren, mila bakoitza zilar dupleko 130Er. (*FL.* 264 eta 273).

1732.go agostuko 18ko bisitaren oroit-agirian, A. Manuel de Prado Probintzialak eskerrak ematen dizkio A. Pedro Casas Erretoreari «eleizaren konstrukzioan duen ardura eta axolagatik».

1732ko udazken aldera 1.275 errialeko kontu bat agertzen da; Juan de Lane edo Laune-ri, frantzes irudigile bati, eman zizkieten: 1.050, iradi bat egin zuelako, eta gainontzeko 225, zortzi Birtuteen sinbolo-irudientzat egindako zortzi ereduengatik, heuren ikur-hitz eta aktitude bereziekin; irudi hauek naranja erdiaren oinean jarri behar ziren.

Alabaina, ez zituen eredu hauek Lanek egin, geroagoko Italiako irudigile batek baizik.

1733an eskaileren bantzuetan lanegiten da. Eleiz sarrerako eskailera haundiaren datu bat izango da. Eskailera hau Fontanak asmatutakoa eta Hager-ek argiratutakoa baino askoz ere ospetsuagoa da (25. **lam.**).

Lecuna 1733.go abenduaren 8an hiltzen delako, eskaileraren proiektua Lecunak

maisua bezala eta Iberok aparejadore bezala dirijitzen duten aldikoa da. Iberoa da hura bukatzen eta haren zatirik haundiena dirijitzen dueña ere, eta probabile hari batez ere zaio zor haren eder miresgarria.

Urte horretan ere maiatz-ekain aldera naranja erdiaren kanpoko burnizko mailak jartzen dira.

1734. urtekoa da eleiz ateko eskailera nagusirako bi orriko atea: 38 kalostra zituen heuren beheko eta goiko burniekin. Eleizaren ateko arkupea ixteko proiektu bat zen, baina ez zen egin. Kontu honen nota batean, 1759ko fetxan, zera esaten da, haietako sei kalostra, aldare nagusiko sagrario atzean jarri zirela, eta han aurkitzen dira gaur. Besteak beste gauzetarako erabili ziren.

1734. urteko udarako kontu bat aurkitzen da; berak Lane-ren ondoren etorri zen irudigilearen berri ematen digu. Honela dio: «1.244 eta 1/2 Er. Horrenbeste kostatzen dira Erromako irudigile Gaetano de Pace-ren eta haren morroiaren janariak, eta hura, haren morroia eta haren ereduak, erramientak eta gainontzeko trasteak Lisboatik Baionara itsasoz eta Baionatik kolejio honetara lehorrez ekartzeko fletatu eta alkilatut behar izan diren morroi eta mandoak».

Pace Baionara 1734.go agostuaren 13an heldu zen. Ez zen Loiolan luzaroan egon, gaisoaldi motx baten ondoren, 1738.go otsailaren 13an hil egin bait zen. Urte hauetan hark arte-lan gutxi samar egin zuen.

1734.go urte horretan beste kontratu bat aurkitzen da, 1731an atzeratu egin zela ikusi duguna. Kontratuak honela dio: «1734.go Abenduaren 14an, Thomas de Airanot eta Pedro de Casasekin, Azpeitiako auzoekin, Eleiz berriaren Linterna burutzeko Errege-Kolejio honetan egin dagoen egurrezko bola kuprez lantzeko edo estaltzeko tratua egin dut: Ignacio de Luerok seinalatuko duen lodiko 19 zati jarri behar dizkiote, eta hurrengo 1735. urteko otsailaren 20rako bukatu behar dute; zatiak iltzez gogor josi ondoren soldatu egingo dituzte, eta Kolejioak horretarako behar den kuprea eman behar diete eta gainera plantxa horiek egiteko lana zidar zaharreko 2 errialean ordaindu behar diete, eta kupreak edukiko dituen galerak prezio horretan sartuko dira».

1735.go maiatzaren 18an edukitako kontsultan A. Erretoreak zera propositu zuen «Obraren Maisuak Eleizaren naranja erdiak bizio bat zeukala nabaritu zuenez gero, eta beste kalte haundiagoren bat saihesteko, Maisuak zera irizten ziola, bi burnizko uztai jarri behar zitzaizkiola, biak Naranja erdiaren inguru osoa hartzen zutenak, eta honekin kalteari aurrera joaten eragotziko zitzaiola. Kontsultoreek zera uste izan zuten, Maisuak esaten zuena segituan ejekuta zedila».

F.L.an, Maiatz-Ekain hilabeteetan, zera anotatzen da «5.366 1/2 Er. Naranja erdiari bere inguruan kanpo aldetik jarri zitzaizkion bi uztaiengatik; 57 kintal zen haien zama; kintal bakoitza 5 pesu kostatzen zen, hor sartzen ziren ere uztai horiek eta haien gartzak egiten, lantzen eta gabilak kos-tatuko 894 Errialak etab.»

1735. udazken aldera Arabako Salvatierratik bost harri ekarri zituzten: bata ateko G.A.S.aren irudirako, eta beste laurak ateko eskaileraren leoiak egiteko.

Azkenean, «1735. urte honetako urriaren 25an Eleizaren linterna burutzeko Gurutzea asentatu eta jarri zen. Gurutzearen buruan, sortzen zaion ontzi erdian Lignum crucis bat dauka sartua. Berebat, azkeneko harriaren gainaldean, berunezko kaja batean, ondorengo Erliki hauek jarri ziren: Lignum crucis, G.A.S. Inazioren hezurak, Xabierko S. Franciscorenak, Alcalá-ko S. Diegorenak, Victorino Martir S.arenak, S. Paulo Apostoluarenak, eta Petronila S.arenak; Agnus Dei, Carabaca-ko gurutzeak, Burgos-ko Kristo S.arena eta gure Andre Edurneren domina bat» (F.L. 302 or.) (59).

Buru-gurutzea jartzearekin eleizaren kanpoko obra bukatu zela egiten zen; horregatik, obra bukatu zelako, saritzeko 3.830 Er. eman ziren: 3.012 maisuari eta gainontzeko 818 ofizialei eta peoiei; gainera 201 Er. kanpo-egun bateko janaria ordaintzeko (F.L. 307 or.). Aktua ospatzeko ez zuen, jakina, musikak hutsegina behar, eta hala 7 eta 1/2 Er. seinalatzen dira eman zitzaizkiola «ttuntuneruari».

1735. urte beraren azarearen 5an, linternaren leihoetarako burnizko eta kuprezko ajustea anotatzen da.

1736.go urtarril-otsailaren kontuetan zera agertzen da: «119 Er.; hori kosta zen Gure Aita Santuaren harrizko irudiaren kuprezko buru-uztaia egitea, eta gainera horretarako behar zen kuprea. 2.672 eta 1/4 Er. 47 eta 1/2 kintal burni, kintal bakoitza 56 eta 1/4 Er., Naranja erdiaren 16 leihoen marku eta burni-sareentzat». (F.L. 311 eta 314 or.).

Holandatik eta beste ipar aldeetatik ekarritako lankaiak 1.447 pesu, 7 Er. eta 18 marabedi zilarrezko balio izan zuten, hau da, 11.583 Er. eta 18 marabedi zillar zaharreko. Hauek izan ziren: «Amburgotik berin eta alanbreak, Baionatik kuprea, Amsterdambatik berun zuria, Leusaina, Minio eta gardinga, Eleiz berriaren leihoen leiarretarako eta haren naranja erdiarentzat naslika egiteko».

»4.156 Er. hori kosta izan da naranja erdi nagusia urreztea; horretarako urrezko 17.800 xafila behar izan dira. Baitere 1.055 Er. nabardura egiteko eta kanpo aldeko zirrikituak betetzeko» (L.Cu 4. z., 62v or.).

Pace-ren kontuetatik ere badakigu honek, 1735 eta 1736 tarrean zilarrezko 8 errialeko 1.750 pesu kobratu zituela, hau da, 26.503 Er. eta 18 marabedi Eleizaren naranja erdian arbotante gainetan dauden zortzi irudiengatik, bakoitza 220 pesu 8 zilarrezko errialetan.

Jasotako diruari begiratzen badiogu, bere aurreko Lanek egindako zortzi ereduak reproduzi besterik ez zuen egin.

Aitzitik, «400 Pesu, hau da, 6.023 Er. eta 18 mr. hartu zituen, Eleiz Ateko Arkupean dagoen G. Aita Santuaren irudiagatik, eman egiten dizkiot, bukatu gabe utzi bazuen ere, irudiari beste repaso bat ematekotan bait zegoen».

Eleizaren zola

1736.go matxoaren 8an A. Erretoreak kontsulta bildu zuen, «Eleizaren zola egiteko ze harri iruditzen zitzaien egokiena, Billabonako harria ala Izarraitzkoa, erabaki behar zuten, eta A. Kontsultore denak obraren Maisuaren iritziarekin bat etorri ziren, hau da, Izarraitzkoarekin egin zedila, eta horretarako Bilabonatik harria ekartzea asko kostako zitzaiena ere kontuan eduki zuten».

Agostuaren 8an edukitako kontsultan, -A. Probintziala ere aurrean aurkitu zen- obrak ofizinetan ala Eleizan jarraitu behar al zuen diskutitu zen.

Lehena aukeratu zen; horretarako «ofizinen obra jarraitzeko -oso beharrezkoak bait ziren ofizinak Kolejioa lasaiago ibiltzeko- 30 mila pesu zentsura hartzea erabaki zuten, eta gainera honetara behartzen eta obligatzen ziren: urtero 6 mila dukadu reserbatu behar zituzten poliki-poliki bahitua ordaintzeko».

Hemen ohar hau dago orri-ertzean: «Ez zituzten hartu, Probintziako kontsultak ez bait zuen aprobatu».

Gainera, Cayetano hark 1736.go agostuaren 17an tratua hau egin zuela anotatzen da: «gure santuen Salbatierrako harrizko irudiak: San Inazio gure aitarena, Xabierko

Franciscorena, S. Luis Gonzagarena, S. Estanislao Coscarena, 400 pesu zilarrezko 8 errialekotan, eta bukatua dagoen gure Aita Santuarena bezain politak egin behar ditu».

Baina, tratu egindako irudi hauetatik -S. Inazioarenaz gainera- bat bakarrik hasi zuen, Borjako S. Franciscorena; hau bostetik bat argaindu zuen, eta horregatik 1.215 Er. jaso zituen.

1737.go otsailaren 5an, Japongo Martire Santuen egunean, tximist bat sartu zen, nonbait oskolpe ondoko leiho batetik; oraindik ere leiarrak gabe zeuden. Ez zuen kalte hau besterik egin, IHS anagramaren urre zati bat eta naranja erdiaren apaingai batzuk jan. Baitere, Agustin Conde maisu urretariaren sonbrerua jan zuen pixka bat, lanean ari zen bitartean. A. Erretoreak zera agindu zuen, hurrengo egunean Aitek heuren mezak eta Anaiek heuren errosarioak eskerrak emateko aplika zitzatela, kalte haundiagorik gerta ez zelako (*Diario*, 88-89 or.).

Otsailaren 9an Eleiz sarreran aldirako sarraila eta ate bat jarri zuten, eta maiatzaren 31an, eleizaren ate nagusi gainean, Gaetano de Patek egindako San Inazioaren irudia (*Diario* 89 eta 92 or.).

Lehenago zolaz esan dugunaren ondoren, harritzeko gauza da urtebete geroago Probintzialaren eta Probintziako kontsultoreen proposizio hau aurkitzen delako; haiek zera irizten zioten, «kolejioak aurka aurkezteko arrazoirik ez bazuen be-hintzat, Eleizan harlosezko zola jarri beharrean, olazkoa jar zedila, egokiagoa zela iruditzen bait zitzaien, herri honetako giroa oso bustia delako».

»Baina, etxeko Kontsultak -1737.go martxoaren 11an edukiak- zera irizten zion, eragozpena horrela ez zela kentzen eta gainera ez zegoela honez gero harlosatu gabe uzterik, harri sail haundia landua zegoelako eta Kolejioak han gastatuan kalte haundia izango zuelako; eta gauza hau bera aurkeztu zioten A. Probintzialari».

Jakina, ordurako obran horrenbeste gastatu ondoren, etxeko Kontsultaren iritzia artu zuten on, eta horri esker gaur eleizaren harlosatu ederra mirets dezakegu (63. **lam.**).

1737.go agostuaren 11ko kontsultan berriz ere zera deliberatu zuten, ea obran eleiza ala ofizinak egiten jarraitu behar al zen. Gauza honetaz aurreko urteko agostuaren 8ko kontsultan aritu ziren tratatzen eta ikusi genuen nola ezezkoa gertatu zen Probintziako Kontsultak ofizinen obretarako behar zen zentsurako baiespena eman ez zuelako. Orain etxeko Kontsultari zera iruditu zitzaion «Eleizari eta sakristiei falta zaiena egiten jarraitu behar dela Kontsekrazioa aurrera ahal izateko eta lehenbaitlehen eleiza kontsekratua ikusteko poza guziei ematearren, eta hori erabaki zen».

1737.go irailaren 12ko kontsultan «zera erabaki zen, Kolejioan horrenbeste urtetan zegoen erlojua jar zedila». Baina, 1738.go otsailaren 27an «igo zituzten dorrera erlojuak jotzeko behar diren hiru kanpai berriak; haundienak 55 arroba zituen, erdikoak 8, eta txikienak 4, libra bat gora-behera. Eta martxoaren 17an bukatu zuten dorreko Erloju jartzen, eta hura erabili zuen Bazkunak bere distribuzioetara jotzeko» (*Diario* 96. or.). Gero, 1760an, ikusiko dugu zer gertatu zen kanpai hauekin.

»1737.go azarearen 20an kontsultako Aita guziek zera erabaki zuten, oskolpean bi kalostra mailak jar zitezela, Maisuek zera bait zioten, eder egiten zutela eta irudiak garbitzeko han ibili behar zutenak seguruago ibiliko zirela».

1738. urteko kontuetan martxo-apirilan zera agertzen da, «5.663 Er. eleizaren 2en gorputzeko egalean dagoen barandagatik; 4.814 libra pisatu du barandak bere azpi-eta gain-burniekin: 2.870 Er. kosta dira 215 kalostra eta zutabeak, eta gainontzeko

1.944ak, azpi- eta gain-burniak, libra bakoitza 40 mr».

Uztail-Agostuan «6.355 Er. eta 10 mr. Eleizaren lehen gorputzaren egalean jarritako barandagatik. Barandak 5.402 pisatzen du, libra bakoitza 40 mr. 248 kalostra eta zutabeek 3.487 libra pisatu zituzten, eta azpi- eta gain-burniak 1.915 libra.

Baitere, 75 eta 1/4 Er. Burni-sare-Maisuari esker oneko sari bezala eman zitzaizkionak» (*L.Cu* 4. z., 66r eta 58 r or.) (42, 43 eta 44 **lam.**).

Burni-sare-maisua Pedro de Echeverria izan zen. Hasieran Gregorio Aguirrek, Elgoibarko auzo batek, haien eredu bat egin bazuen ere, Echeverriak burutu zuen lana (*L.Cu*. 4. z., 70r or.).

1738.go martxoaren 8an Fernando de Anillok, Trasmiera (Santander) merindadeko Meruelo ibarreko auzoak, kontratu bat firmatzen du; Etxe Santuko Konzepzio kapilan, obraren maisu Iberoren diseinuaren arauera erretaula bat egiteko konpromisua hartzen zuen.

1738.go martxoaren 28ko kontsultan, kontsultore guziek batera, Anai Sagastumek eta Ibero maisuak zera erabaki zuten, «admeti zedila Miguel de Mazo Kolejio honen irudigile bezala, bai gizon iaioa zela dirudi zuelako, -hala irargitu zuen lehenago bi Aingeruak egitean; aingeru horiek Eleiz aurrean dagoen G. A. S. Inazioren irudiaren alboetan daude- bai eta irudi bakoitza, haren aurreko irudigile Cayetanorekin egindako tratua aldean, lau mila Errial jaitsi zuelako ere».

Miguel del Mazo berebat Merueloko auzoa zen. Eta batagatik edo besteagatik explikatzen da zergatik aurkituko ziren biak aldi berean Loiolan. 1738.go ekainaren 11an Miguel del Mazok Xabierko S. Franciscoren, S. Luis Gonzagaren eta S. Estanislao Koskaren irudiak egiteko konpromisua hartzen zuen; Patek utzitako ereduaren arauera eta hark marratutako harri beretan egin behar zituen, edo Erretoreak nahiago bazuen beste bere ereduaren arauera, Beiloiezko bi mila Er. bakoitza.

»Baitere eskaileran eginga dagoen bezalako bost leoi egiteko obligazioa hartzen du, bakoitza hirurehun Er.» (60).

1738.go ekainaren 23ko kontsultan «guzien botoekin zera erabaki zen, eskailera nagusiaren igoera aurrean dauden hormak hautsi zitezela, eskailerak argi gehiago eduki zezan, akats hori bakarrik bai dute».

Gogora bedi horma hau 1712.go apirileko kontsultak dispositu zuelako eraiki zela, «haize eta euriek eragozpen handia sortzen bait zuten» eskailera ondoko transitu alde honetan. Argirik ezak, nonbait, oso toki iluna egiten zuen, eta horregatik utzi zuten toki hau 1712an agindua baino lehen zegoen bezala, haize eta eurien eragozpenak iraun airen.

1738.go maitz-ekain aldera, Atearkupeko salomon-zutabe gainetan bi aurrearri jartzen dira.

Ekainaren 18an A. Francisco Baza hil zen; haren izena Loiolaren konstrukzioarekin elkartua dago, lan horretan oso okupatu bait zen bere erretoradu luzean, 1719tik 1734ra (*Diario* 97. or.).

Diario historicoan (97. or.) zera esaten da: «1738.go uztailaren 10an irten ziren Kolejio hontatik Zaragozakora Ignacio de Sagastume eta Jose de Lecuona Anaiak, Kolejio hartako anai batengandik harnabarra imitatzeke sekretua ikastearren; José de Lecuona biaje honetarako Lequeitioko Kolejiotik etorri zen».

Notizi honek fetxagatik deitzen du atentzioa. 1736. urtean eleizaren nabarduran lan

egiten bait zen ordurako. Zera pentsa daiteke, Zaragozan anai horrek Loiolan ordurarte harnabarra imitatzeko erabilitako metodoaz beste berri bat, hobe, erabiliko zuela.

Egia zera da, egun horietan azkar zebiltzala eleiza inauguratzeko. Saritzeko kontuetan esaten den honek konfirmatzen du: Joseph Uzini 66 Er. eman zizkioten eta peoi bati 16, aldamuak kentzen lan oso ondo egin zutelako.

Eleiza inauguratu (1738)

Uztailaren 31an, G.A.S. Inazioren egunean estrenatu zen Eleiza berria; labaindu gabe bazegoen ere, kapiletaraino bai, eta horrela labaindu gabea dena tapizez eta zola belarrez estali zuten, eta horrela aldare ona jarri zen, eta han bi Meza kantatu eta meza errezatu asko eman zen» (*Diario*, 98. or.).

1739.go A. Francisco de Rábago Probintzialaren bisitan zera agintzen da, eleiza labaintzen bukatzean, ardura guzia ofizinak egiten jar dadila.

Urte honetako maiatzaren 12ko kontsultan diru kezka nabaritzen da; han Loiolaren erro-ondasunak hazitzea komeni zen ala ez tratatu zen. Izan ere, Kolejioaren errenta haundiena juroak zirenez gero, Erregearen nahira egon behar zen, Erregeak moztuko zituen arriskoan, Errege honen aldian gertatu zen bezala, hamalau urtean berak erabili bait zituen. Eta konstrukzioak Kolejioaren errenta besterik ez zuelako, are eta komeniago zen; batez ere, konstrukzioa bere gorputz haundiagatik urte askotan bukatu ahal izango ez delako.

Sagastume aparejadore (1739)

1739.go azarearen 23ko kontsultan, A. Erretoreak zera propositu zuen: «argin gazte bat, aparejadore lan egiten zuena, kanpora joan zela, Erretoreari eskatu zion baimenarekin, obra bat hastera, hilabete baterako edo; baina, uda guzian itzuli ez-eta, neguan berriz ere gure obran egin nahi zuela lan; oso bidezko gauza zela kanpoan hasitako lana jarraitzera joateko gogoia uda hasten zenean; bestalde, ez zela oso beharrezkoa gure obran, Josepf de Sagastume Anaiak, mutil gazte hori kanpuan egon den bitartean haren orde aparejadore egon denak, lanbide hori bete ahal izango duela. Eta horrela, ikus zezatela ea admetitu behar ote zen gazte hura Kolejioan lan egitera, esana dagoen bezala, neguan bakarrik lan egin nahi bazuen. Kontsultore guziek zera iritzi zioten, ez zela gazte hura admetitu behar, eta Joseph de Sagastume Anaiak jarrai dezala Aparejadore ofizioan, bestea kanpuan izan denean egin duen bezala».

Juan Antonio Claesens-ek 1739. urte honetan A. Andiazabali egindako eskutitzei esker dakigu, Loiolan eleizako ate eta atearre ederrean erabilitako kaobaren berri. Urtarrilaren 26ko batean zera dio, heldu direla Habana-tik Caracas-era 56

kaoba-tabloi, eta haietatik 16 San Sebastián itsasontzian sartu dituztela eta gainontzeko 40ak San Ignacio ontzian bidaliko dituztela. Martxoaren 13ko beste batean zera jakin erazten du, Pasaian daudela 16ak San Sebastian barman, eta otsailaren 22an heldu zela Cadiz-era San Ignacio ontzia, maiatzerako Pasaia helduko den itxaropena dutela.

1739ko iraileko kontuetan, Miguel de Mazori, egindako irudiengatik ordaindua agertzen da, eta zeinen azkar egin zituen hark adierazten da, eta zeinen motel haren aurreko Cayetano de Pacek.

Mazori 9.985 Er. eman zitzaizkion; hauetatik, sei mila, Lagundiko Santuen irudiak egin zituelako, bi mila errial bakoitza; laugarren irudiagatik, Borjako San Franciscorenagatik, 1.585 kobratu zituen, Patek egindako bostena gutxiturik. San Inazioaren irudiarentzat bi serafinengatik 900 Er., 450 errial bakoitza. Eta gainontzeko 1.500, bost leoiengatik, 300 bakoitza.

Dena 1738.go ekainean firmatutako kontratuaren arauera.

Gainera kontuetan zera aurkitzen da, 18 eta 1/2 Er. Migueli bere irteeran egin zitzaion adiguri bategatik.

Eleizan aldaketak

A. Erretoreak propositurik, 1740.go apirilaren kontsultan hiru aldaketa sartzen dira. Lehenbizi zera esan zuen, «Eleiz aurre gainean dauden harrizko kalostrak, arearri gezaltsuzkoak zirelako, apurtzen zihoazela, eta Maisuak zioenez, denborarekin puskaka erori egingo zirela; horregatik Maisuak berak zera irizten ziola, karearriz egin zitezela berriz; eta berebat, Eleiz aurrea gutxi jaikia zegoelako, Maisuak, altura eta aire pixka bat gehiago emateko, proiektu bat egin zuela, Probintzialak aprobatu zuena, eta ikus zezatela A. Kontsultoreek egitea on iruditzen zitzaien ala ez. A. Kontsultore guziek iritzi berekoak izan ziren, bai kalostrak bai eleiz aurrearen rematea Maisuak ideatu bezala egin zitezela».

Ez dakit zergatik erabili ziren arearriak kalostra horiek, hemen esaten denez horren ondore txarra izan zutenak, egiteko, itsasertzetik ekarritako arearria gezalak apurtzen bait zuen. Gainerakoan, ez zuten proiektua aldatu izan behar, baina arearriaren orde karearria jarri besterik ez eta Fontanaren proiektuari eutsi. Aitzitik, oraingo Atearkupean, Fontanaren isoszelez apaisatuaren, ordurate burutzen zuenaren orde, beste bat eraiki zen 1740an, pixka bat goiagoa, jaikiagoa, Iberoren idearen arauera.

Atearkupeak, frontoi aldaketarekin, ederrean irabazi zuen ala ez, eztabaidatu ahal izango litzateke, alderatzeko Fontanaren altzaturen bat aurrean eduki ahal izango bagenu. Dena dela, arkupe konbexuak, bertatik begiratzen bada, ez du kupula hainbeste ikusten uzten.

Fontanak, egiaz, etxeurrearen horizontala nabar-erazi nahi zuen eta konstrukzio lodiaren sendoa sentiarazi, gorputz haundi zamatuen oreka, zirku zabalean bere arkupe konbexuarekin -bere astuna haunditzen duenarekin- eta bere kupula bikainarekin, osoro lortzen duena. Hor dago kupula bi alboetako karga haundiko ego apaingabeen erdian jaun eta jabe. Agian efektu hau osoago lortuko zen Fontanaren diseinuan Zalduek erantsitako atikorik gabe, batzuek etxeurrea horrela ederrago dagoela uste badute ere.

Hirugarren aldaketa A. Erretoreari bururatu zitzaion; «honek zera pentsatu zuen, eleizan Zutarrien artean dauden arearrien hutsunetan zenbait koloretako nabar-harriak sar zitezela, arearria ez baita horren ederra, eta Maisuari hori galdetu zionean, ea harri horiek sartzeko horma pikatuko balitz eragozpenik izango al litzakeen, zera erantzun zuen, ez zegoela hortan arriskurik ez eragozpenik; eta hori horrela zenez gero, ikus zezatela Kontsultoreek egitea komeni litzatekeen ala ez. Kontsultore guziek zera iritzi zioten, A. Erretoreak pentsatu bezala egin zedila».

Hasieran zeuden «arearrien hutsuneak» kendu zirenean, barruak, dena labainduak, nabar-harri aberatsei, denak kolore berdintsukoei esker, oso eder egiten du.

1740.go martxo-apiril inguruan 50 Er. agertzen dira, Agustín Conde urrezitariari eta haren morroiari emandakoak, eleizako zortzi zutabe edo zutarriak lau egunean

nabartzen aritu zirelako (*L. 4. Cu. 763 or*). Lan hau, dudarik gabe, lehengoa, arearriak okupatutako hutsunetan harnabarriak sartzekoa, osatzeko izango zen.

1740.go udan edo udazkenean, sakristia berrian, bailagibel aldera jotzen duten leihoetan bi burni-sare jarri ziren; 3.049 Er. eta 14 mr. balio izan zuten, 2.594 libra pisatu zuten bien artean, eta libra bakoitza 40 mr. kosta zen (*Ibid. 77r. or*).

Sakristi berri honetan kajoi askoko haltzari eder eta zabal bat dago, Antonio de Erquiciak egina; hargatik, 1715.go azaro-abenduan, A.Erretoreak agindu zuelako, esker oneko sari bezala, 240 Er. eman zitzaizkion, ohiko jornalaz gaineratik (*L.F.*).

Ez du gutxi edertzen sakristia hau marra politeko, bi koloreko -gorri eta orikaileko-harnabarrezko iturri ederrak. Garbi-ontzi bikain honen aurreko bezala zerak seinala daitezke, 1738.go maiatzean, Santanderko Kolejioaren sakristirako Loiolan landu ziren iturriak, eta Villagarcía de Campos-ko Kolejiorako landu zena; orain hark etxe hartako San Inazioaren kapilako sakristia apaintzen du.

1740.go abendutik 1741.go otsaila bitartean kontu hau aurkitzen da: 30 Er. «brontezko bi iltze suaz urreztuengatik; iltze hauek Eleiz berriaren Ateetarako eredu egin ziren».

1741.go uztailaren 27ko kontsultan zeraz deliberatu zen, ea juroak hipotekaturik, 12.000 dukadu zentsuan hartzea komeni izango litzatekeen, lehenbaitlehen Atearkupea bukatzeko eta Eleiza konsekratzeko. Ezetz erabaki zen, redituak ordaindu behar bait ziren eta Eleiza ordurako ministeriorako gertu zegoen.

Berebat, 1741.go abenduan hau idazten da, 80 pesu; «hori kosta ziren Eleizaren ate Nagusietarako Brontze urreztuz egindako IHS eta MA bat. Lan hori Manuel Ripando eta Francisco Xabier de Aguinagalde zilarginek egin zuten» (4. *L.Cu.*, 79r or.)

1741.go abenduaren 20an Ignacio Sagastume Anaia hiltzen da (*Diario 122 or.*). Lagundian 1733.go maiatzaren 13an sartu zen, Villagarciako Nobiziatuan; bi urte ondoko botuak 1735.go maiatzaren 15an egin zituen.

Segituan Loiolan lan egitera destinatu zuten, eta han ikusi dugun karguak bete zituen.

Berebat, 1742.go urtarril-otsailean zera idazten da: «105 Er. Atearkupeko lau Santuen Burestunentzat 44 libra kupre txapetan» (4.*L.Cu.*, 82v or.).

Ignacio Ibero erretaula egile

Zera uste dugu, Ibero Loiolako eleiza berrian egin behar zuen erretaulagatik urduri zegoela. Hori egia dela, hark egindako erretaula batzuetatik atera daiteke.

1738an, Iberoren direkziopean, Bernardo del Anillok Etxe Santuko Konzepzioaren kapilarako erretaula bat egin zuen; gaur Oñazen aurkitzen da. Hauxe uste dut dela hark diseinaturiko lehena.

1740. urtekoa da Azkoitiako Brigiden erretaula nagusirako Iberoren proiektua, Anillok ere egin zuena. Mojek baldintza hau jarri zuten, ez zezala obra ejekutatzeko beste maisurik erabil ahal, ez ere Azpeitia herri bi lekua inguruko ofizialik, eta hori, lana hobeto egiten saia zedin.

Kontratua 20.000 errialekoa firmatu zuten; baina gauza batzuk erantsi zituztelako, 21.104 Er. eman zizkioten, 1742.go agostuaaren 16ko ordain-karta baten bidez.

Azkenik, Tolosako Klarisen erretaula berria Iberoren proiektuari dagokio; Iberok 1744.go martxoaren 11an Francisco Ignacio de Azpiazu arkitektua kontratatu zuen,

eta honek irudi-lana Santanderko Tomás de Gargallori, Anillo bezala Meruelo ibarrean jaiolari, enkargatu zion (61).

Erretaula hauek zurezkoak dira. Atzen biak osoro urreztuak.

Alabaina, Loiolako erretaula nagusia dena harnabarrezkoa da. Agian Andres Pozzo Anaiaren ejenpluari segiko zion. Bazen haren *Prospettiva de Pittori e Architetti* obraren, 1723.go Erromako edizioaren, ale bat Loiolan, Iberok, dudarik gabe, asko erabiliko zuena. Liburu honen 62. irudian, Erromako Kolejioko San Inazioaren eleizako Luis Gonzaga Beatuaren aldarea reproduzten da; haren erretaula dena antzinako harnabarrezkoa da, eta metal urreztuko apangaiak erasten zaizkio; salomon-zutabeak dira batez ere nabari, eta orri-uztaiak biribiltzen zaizkie.

Loiolako erretaularekin elkartua dago ere notizi hau, A. Francisco Javier Pérez Erretoreak, 1745. hasieran, Erromatik eskutitz bat hartu zuela eta han formula bat zetorrela estukoaren konposizioaz; haren gainean egiten ziren mosaikoak. Harekin zera bidaltzen zion, «orduko modako mahaien, Erromako onenen, diseinu bat; halatzat dauzka bere jauregiko geletan Payo Jaun Agurgarriak, Portugalgo Ministroak».

Ez zen formula hori alperrik heldu Loiolara; 1746an mahai bat aitatzen da, enbutidu horiez aberastua, Kapila Santurako egina (62).

Lehen saio hauetatik, gero enbutidu horiek eleiza berriaren erretaula nagusian sartu ziren, eta han horien ale bikainak aurkitzen dira, Echeverriak gehiegi goresen baditu ere: «Konstrukzio honetako zenbait lekutan, batez ere haren eleizaren aldare nagusian, ikusten diren enbutiduak, esan dugunez, horren finak dira, horren doi-doiak eta meritu haundikoak, haien egileen izenak urre edo harnabar gogorrenetan zizelatuak egon behar lukete, haien ondorengo oroimen atseginerako, espainiar-arten eta gerokoen aintzarako; baina, gure antzinakoen ardurarik eza halakoa izan da, ez bakarrik ez dituzte material gogor haietan idatzi, baina ez eta paper txikienean ere ez dituzte signatu, eta tradizioak Ignazio Ibero Jauna, haren seme Francisco Jauna eta haren suhi Echeverría Maisuen izenak bakarrik gogoratzen ditu» (63).

Egiaz, aldare nagusiar buruz aitaturiko izen bakarra Ignacio de Iberorena da, eta hori A. Salvador Ossorio Probintzialaren gorespen merezituarekin; hark bere 1757.go agostuaren 4ko oroit- agirian zera dio: «Ibero Maisua oso antzetsua da erretaulak ideatzeko, Aldare Nagusian ikusten den bezala, eta haren ereduak, Erromatik asko kosta eta onik batere gabe etortzen direnak baino askoz ere egokiagoak» (L.V. 82. or.).

Zehatz hitzegiteko, zera erantsi behar dut, beste izen bat ere aitatzen dela, oker bada ere: *Historiae Collegii Loyolaei Compendium* haren autoreak, 1738. urtean, Cayetano Pace-renak direla dio harnabarrezko aldarea apaintzen duten aingeru eta beste irudiak: »*Cajetani extitere opera angelorum eta aliae effigies quae altare maius marmoreum per summa eius latera adhuc illud exornant*» (64).

Nere ustez, *Compendium* haren autoreak, aldare nagusian lan egindako beste irudigileen ize-nik ez aurkitzean, zera pentsatu zuen, Pace izan zitekeela haien autore; baina, ez hark, 1738. urtean hiltzen denak, ez haren ondorengo del Mazok, Loiolatik 1739. urtean irten zenak, egin zuten lan Loiolan erretaula egindako urte haietan; ikusiko dugunez, urte batzuk geroago, 1750 eta 1757 bitartean egin bai zuten.

Echeverriak Ignacio Ibero, haren seme Francisco eta haren suhi Echeverriakin batera aitatzen dituen izenak, ez da ageri urte horietan irudigile-lan egin zutenik. Francisco orduan Loiolatik at zebilen, eta Echeverría Ignacioren orde obra dirijitzen 1766.

urtetik hasi zen, urte hartan ekaina-ren 30an hil bait zen Ignacio Ibero. Beraz, Echeverría eta Abasolorekin batera, gure antzinakoen ardurarik eza deitoratu beharko dugu eta artista horien izenak legegabe ez direla ageri.

Konstrukzioaren erdi aldea

1747.go agostuaren 13an, A. Diego de Tobar Probintzialak zera dio: «A. Erretoreari (Francisco Javier Perez-i) hau enkargatzen diot, ardura guzia jar dezala ofizinen obra bukatzeko, horren aurreratua dagoenez gero» (L.V. 75. or.).

Hemen aitatzen diren ofizinak, behin eskubi egoa, bere aurrekaldetik arrotz etxera eta atzetik baratza begiratzen duena, bukatu ondoren, konstrukzio erdi aldekoak izango dira.

Hain zuzen ere, eskubi egoko bailagibelak badu gauza raro bat. Echeverriak ohar hau egiten du (*op.cit.* 85. or.), bealdi batean rektangulo forma duela ematen badu ere, egiaz trapezio bat dela, haren alde haundienak 52 oin eta txikienak 50 oin dituenak. Echeverriaren ohar hau entzun ondoren, zera ikusten da, lau aldearen ertzak ez direla rektuak. Detaile hau «Echeverriari arkitekturarik ikusgarriena» dela iruditzen zaio, ez bide da arkitektuak hori egiteko asmoa zuenik, baina kons-truktoreak nahi gabe egindako akatsa izango dela.

Orain azkar egin nahi diren ofizinak zerak dira, bazkunaren janlekuaren gorputz haundia bere janlekuarekin, eta goiko pisuan, janleku gainean, liburutegi edo biblioteka bat egongo zen, erdiko bailagibelera jotzen duena. Haren aurre nagusian, Alcañicesko Markesen enkargua beterik, idazkun luze bat aurkitzen da, hitz labur asko dituenak -ohikoez gainera, letra txikiko beste batzuk maiuskuletan sartuak-, dena marrazki eleganteko marku barruan (46. **lam.**). Honela dio:

LUIS ENRQUEZ DE CABRERA JAUNAK ETA HAREN EMAZTE TERESA ENRIQUEZ DE VELASCO ANDREAK, ALCAÑICES ETA OROPESAKO MARKESEK, S. IGNACIO, PATRIARKA AINTZATSUA, IHS-EN LAGUNDIAREN FUNDADOREA JAIOTAKO LOIOLAKO MAIORAZGU ETA ETXONDO AGURGARRIAREN JAUN ETA JABEEK, ETXE HURA ASKE ETA OLDEZ AUSTRIAKO ANA M^a ANDRE AGURGARRIARI, ESPAINAKO ERREGIN AMARI EMAN ZIOTEN, HAN LAGUNDIAREN ERREGI-KOLEJIO HAU FUNDATZEKO. 1681. URTEA.

José Lecuona Anaia.

1748.go urriaren 26an Loiolan Joseph de Lecuona Anaia hiltzen da. Hark Iberori oso berezi lagundu zion. Inor gutxiren berri badugu ere, hauxe da haietako bat. Oartzunen jaioa zen, Lecuna Maisua bezalaxe; haren ahaide zen, eta hari esker sartu zen zizelkari bezala Loiolan 1728.go irailan. 1734.go abenduaren 24an bere jaioterrira itzultzen da bere fameliari agur egitera, eta 35.go urtarrilaren 9an Villagarcía aldera abiatzen da. 1735.go otsailean egin zen nobizio eta bi urte ondorengo botuak 1737.go otsailaren 24an egiten ditu. Urte horretan Lekeitiora destinatzen dute eleiz berriaren obra dirijitzeko. Kataloguak harez hau dio: »*Est arkitektus, cui incumbit cura novam ecclesiam construendi*». 742 edo 743an Loiolara itzultzen da obran lan egitera: »*Laborat in fabrica*»; han irauten du bere goiz heriotza arte. 40 urtebete zituen eta ez oraindik 14 bete Lagundian. Haren heriotzaren berri ematen duen 1748.go azaroaren 17ko Probintzial-kartak, gorespen batekin egiten du, oso gutxitan egiten den gauza eta ohiezlako birtuteko pertsonekin bakarrik. Han, haren birtuteak goratuz gainera, haren antzearen iaioa laudatzen da: Bere heriotza

oso kolpe mingarria izan da Loiolako Kolejio oso honentzat; Jospeh Anaiari konstrukzio galant honek aurrerapen haundiak bai dizkio zor, lan etengabe eta oso iaio egiten zuelako; iaiotasun horrek, zizel-lan fin-finetan, marra lirainetan eta arkitektura sendoan agertzen zuenak, gauza egiten zuen hura bere sekuloko Maisu direktorearen orde jarraitzeko. Horrelako pertsona galdu dugu».

Haren apalkera goratzean, zera zioen «kolorea aldatzen zitziola norbaitek haren eskuak egindako lan eder batzuk, gaur Kapila Santu eta Sakristian apaingai daudenak, goersten zituenean».

Hare obra nabarien artean Eleiz berriaren aldare nagusia aitatzen ez badugu - Lecuona Anaiak hura egiten eskurik hartu ez zuela deduzi daiteke- baina bai Etxe Santuko sakristian dauden mahaiak heuren enbutiduekin eta haien gainean dauden armarioak, horren zur-lan fin eta landuak.

Aldare nagusia

Lecuona Anaia 1748. urte azken aldera hiltzen dela kontuan hartzen badugu eta 1757an aldare nagusiaren agarria bukatzen ari zirela, kalkula

daiteke, aldarea 1750 eta 1757 bitartean egin zutela.

Echeverriak gorespen haundienak ematen dizkio: «Arkitekturaren gauzik bikainena eta gorena, zenbait Erreikutako harnabar eta jaspeen baliotsuena, brontze-lan eta urreztu zoragarriena eta mosaikorik aukeratuena. horixe da erretaula honen amets-obra bere irudi-grupoekin batean» (*Op. cit.* 56. or.).

A. Braun-en iritzira (*Op. cit.* 157. or.), erretaula haundia (39. **lam.**) «rokoko arkitektura ohiezla aberats eta bizia da, zutabe bihurriekin, orain aurrerago gero atzerago, egitura han eta hemen nolana h j hausten dela, ausarki gailentzen eta konstrukzioan anarkiko sartzen diren remateekin, ziskuak hiru gingileko arkuekin, dena harnabar baliotsuez jantzia. enbutidu lan finenez apaindua, ez zokalo gain lauetan bakarrik, baina zutabeetan bihurturik, bai eta salomon-zutabeetan ere».

Erretaula -azpimarratzea komeni da- guziz Churrigeraren estilokoa da. Haren elementu nagusiak eta haien distribuzioa José Churrigeraren erretaula haundiekin bat datoz: plantaren mugimendua, salomon-inbelpak, baldakino kupulatuarekin, alboko ziskuak erdikoarekin anguloko planotan, egalaren apaingaiak, denek Churrigeraren erretaulatan bere parekoa dute, batez ere Salamancako San Estebanen. Baina, Ibero zurezko erretaulen ondoago dago -ez dugu ahaztu behar Iberoren lehen hiru erretaulak ere zurezkoak izan zirela-, Jose de Churrigerak proiektaturiko harrizkoen baino, han ia neoklase estilokoa agertzen baita, eta salomon-zutabearen orde inbelpak zuzen leunak jartzen ditu, lore-apaingairik gabeak (65).

»Erretaularen goiko aldean dauden akademia-ereduko irudiak, Bergaz-en eskulturaren antza dute, eta hau Renteria-ren (1777) erretaularen Italiako erreduetan ispiratua dago, eta hemen bezala. haiek ere gizu disditsuko gusto gozagaitza dute» (66).

Erretaula haundian hiru zisku daude, eta bakoitzean irudi bana. Alboko bietako irudiak Debako Komendadoreen etxe nagusiko otoitz-lekutik datoz. Loiolak erosi egin zituen: San Jose haurrarekin 1.200 errial ordaindu zuen, era San Joakin 1.500, Biak 1725tik Loiolan zeuden. Ez da ezer esaten nor den edo nor diren haien autoreak, Erdiko ziskuan, aldareari izena ematen dion San Inazioaren (67) zilarrezko irudia aurkitzen da. Caracas-ko Real Compañía Guipuzcoanak erregalatu zuen; haren

akzionistek, 1741.go uztailaren 1ko bileran, «San Ignacio de Loyola» itsasontzia bere atzen bajeaz Pasaiara onik iritsi zelako eskertzeko, irudi hura erregalatzeko erabakia hartu zuten, eta horretarako 4.000 pesu eta 15 mr, seinatu zituzten, San Inazioaren irudiak, eleizari izen ematen diona, egiteko pausoak ematen hasi zirenean, irudigilea Erroman ere bilatu zen, baina aldi honetan ez zuten atzerriko bat aukeratu Lane eta Pace-ren kasuan bezala, baina espainar bat, Valencia-ko Francisco Vergara, Erroman igaro zuen denboragatik *eta beste irudigile ahaideengandik bereizteko* Romano deitzen ziotena. Haren izena, San Pedroren erlijioen fundadoreentzat egindako Alcantarako San Pedroren iduriagatik, asko igo zen urte haietan. Enkarguan. dudarik gabe, zera edukiko zuten kontuan: Erroman Gesu-ren San Inazioaren hilobi-aldarean, haren Le Gros-ek modelatutako zilarrezko irudi ospatsu bat zegoen, eta Loiolan haren antzeko edo are hura baino hobe bat jarri nahi zuten. Vergarak ez zituen harengan jarritako esperantzak hutsal egin. Haren San Inazioaren irudia ez da hain nabaria, egin gaia -zilarrezko Grapa lodia- oso aberatsa delako, haren antzeak asko balio duelako baizik. Francisco de Vergarak» Erroman urte asko igaro bazituen ere, AlcanJarako San Pedroren irudian, Lozoyako Markesaren iritzira, obra eder bat utzi zigun, Valencian gelditutako bere ahaideena baino espainagoa eta Loiolako Fundadore Santuaren irudian ere berebat, Le Gros-en irudiaren kutsua badu ere, bere seilua daraman lana egin zuen, espain-barroko sailekoa, haren buru adoretuaren energia- eta aszeta-espresioan, haren dinamismo bizian. meza-jantziaren airean, gerri bihurrian eta ezker-hankaren flexio kementsuan agertzen dena.

Aldare nagusiaren elementuetan zera nabaritzen da, etxola edo exposizio-lekua (hasieran eta gaur ere Ama Birjinaren irudi txiki baten egon-lekua), «antzerik finenak idea dezakeen etxolarik ederrena; idea eder eta antzetsukoa da; egingai aberatsekoa, Errege bezala bere aulkian eserita... Arku nagusitik konjuntio honi begiratzean, arkitekturaren disposizioa miresten da, bere lerroen proportzioa, bere zatien distribuzioa, eta, batez ere, bere ejekuzio nabari, ikusgarri eta harrigarria, maisu haundien eta ofizialen pazientzia argi erakusten duena» (ECHEVERRIA, *op. cit.* 63. eta 65. or.).

Zera dakigu, etxolaren kanpoko brontzetan Eibarko Juan Bautista Alberdik eta Andres de Ibarzabalek egin zutela lan. Brontzeak urrezten ere Iruñan jaiotako Ignacio de Ozabalek lagundu zuen; lan hau egiten ari zenean hil zen, hain zuzen, Loiolan 1757.go maiatzan.

1750, urte aldera egin ziren janlekuko mahaiak. Hamabi mahai ziren; bat 19 oin luze; hiru, 17 oin; lau, 14 oin, eta lau 13 oin. Zera erasten da, 1750.go agostuaren 9an Domingo de Azpitarteri mahai haien ordaina bidali zitziola (5, L.Cu.).

1756.go ekainaren 28ko kontsultan, zera tratatu zen, langileek ze ordu distribuzio gorde behar zuten lanean, es bait zuten ordu seinaturik. Zera erabakitzen da, Ibero Maisuak seinala ditzala lana hasteko eta bukatzeko orduak.. Erabakitako ordu distribuzioa hau izan zen: Urtarril eta Abenduan goizeko 7tik 4 1/2ra; Otsail eta Azaroan 7tik 5ra; Martxo eta Urrian 6tik 5 1/2 ra; Apiril eta Irailan 5 1/2tik 6 1/2ra; Maiatzan, 5 1/2tik 7ra; Ekain, uztail eta Agostuan 5tik 7 1/2ra. Bazkaltzeko edo atsedean aldi bat hartzeko ez da denborarik seina-latzen.

Hurrengo urtean, 1757an, agostuaren 4ko bisitaren oroitagirian, A. Ossorio Probintzialak zera exijitzen du «aro bakoitzean seinalatutako orduen arauera sartu eta irten daitezela»; eta bai Ibero Maisuak bai Anai lanzainak exijitu eta zigortu dezakete hutseginarean arauera; baina beti haien eskubideak A. Erretorearen menpean egon behar du, eta hark ardura hori edukiko du, ez dezatela eskubideaz

abusa ofizialekin tratatzean (1757.go urte honetan 60 ofizial ziren), baina beti Gure Lagundiari dagokion gizabidez eta era onez trata ditzatela» (L. V. 81. or).

Hauxe da Iberok berarekin aldare nagusian lan egindako maisu eta ofizialen preparazioan hartu zuen ardura. Batzutan lau urtera arte ere luzatzen zen ikastaldia. Haien jorjala 3 Er. zen egunean; errial 1/2 erasten zitzaion 2.en urtean; Er. 1, 3.ean; eta errial 1 eta 1/2,4.ean.

Datu jakingarri bat bezala 1757an, A. Ossorio Probintzialaren bisitan, zera aurkitzen dugu, batzutan bigarren mezarako laguntzailerik ez zegoelako, hau dispositzen du: «marratzaileetako bi, ordu hartan meza laguntzera doazela, ez bai dute horregatik lana galduko eta bidezko gauza egingo dute zerbaitetan laguntzen badute, ikasten horren mesede haundia hartzen dutenez gero» (L.V. 82.or).

Echeverriak zera nabar arazten du: «eleizatxo oso apaintzen duten lau zirku-harriak -inork ez daki nongoak eta ze motakoak diren- baina berezko gabarro politengatik lau agata direla ematen du» (op. cit. 64. or.).

Egiatzko agatak direla, Leongo Prokuradorearen Arkibuko (LHA,2- 3) eskutitz batek. A Zubimendiri 1750.go urtarrilan idatzitakoak, baiezen du; karta hartan harri hau ateratzeko baldintzak seinalatzen dira. Kondizio bat zera da, atera aurretik errege-iaholaren baimena behar dela, hura gabe inork «ez bai dezake Harrobitik Harriarik atera, Erregeak debekatua bai dauka». Baimen honekin iritsi ziren agata hauek Loiolara.

Pulpituak, albo-aldareak, kanpaiak

1757.go agostuaren 4ko bisitaren oroit-agirian A. Salvador Ossorio Probintzialak zera dio: «Eleizaren proiektu eta ejekuzioan kontuan hartu ez zirelako, orain erantsi egin behar zaizkio, obraren haundiari dagozkionak. Aldare nagusiaren hurrengo bi zutarrietan jarriko dira eta Ibero Maisuak (68) marratzen dituen bezala osoro; eta batere atzeratu gabe egingo dira, aldare Nagusiaren agarria bukatu bezain laister, eta txapelak ahotsa bidaltzeko moduan jarriko dira» (L. V. 81.or.).

A. Ossoriok ere, 1757.go agostuko bisita horretan garrantziko abisu bat ematen du obra jarraitzeko moduz: «Ez da horma jasoko bobeda guziak bukatu arte, zera esan bai didate, modu hori gordetzen badugu, gutxienez mila Dukado ahorratuko direla» (L. V. 82. or.).

A. Ossoriok berriz zera esaten du, egin behar diren albo-aldareetan Ibero Maisuaren proiektuen arauera egin dadila: «Zera agintzen dut, Eleizako gainontzeko Aldareetako ez daitezela Erromara ereduak enkargatu, baina Ibero Maisuak lehenbaitlehen marra ditzala, eta haren iritziari osoro jarraituko zaio, bai marran, bai moduan, bai harri klasean eta erretaula bakoitzeko apainkian. Eta obra honetaz edo gainontzekoaz garrantziko dudaren bat sortuko balitz, A. Erretoreak Kontsultari proposituko dio, onena aukeratzeko» (L. V. 82. or.).

Probintzialaren agindu hauek oso garbi adierazten bazuten ere nahi zena, A. Joseph Zubimendik, Erroman Loiolako obraren enkargatuak, Francisco Anduaga Anaiari, Loiolan obraren Prokuradoreari, eskutitz bat idazten zion Erromatik 1757.go ekainaren 15an; honela zioen:

»Gaur edo bihar helduko den postan, Etxe Santu horretara Aldaretxoa eta Kardenalen kuadroak (69) iritsi diren abisua espero dut, eta A. Erretoreari eta gainontzekoei bai bata bai bestea zer iruditu zaien entzuteko oso gogo bizia dut; eta batez ere aldaretxoa, nere ustez oso gauza bitxia baita; eta Eleizako lau aldare

berdinak, edo bi behintzat, horren eredura egiteko erabakia hartzen badute, dudarik gabe esango nuke, haietako bakoitzean lau edo sei mila pesu ahorratuko dituztela, eta aldare nagusiaren ideari eta metoduari jarraituko baliote baino ederragoak eta askoz ere denbora gutxiagoan aterako lirakeela».

Dudarik gabe, beste eskutitz batzuk ere izango ziren gai honetaz, baina ez ditut aurkitu. Badago hala ere, 1759.go maiatzan, A. Jeneralak eta A. Zubimendik, Loiolako Errege-Kolejioaren izenean, horretarako Aitak zituen eskubideekin, Juan Andres Volpini arginarekin, Erroman egindako kontratu bat. Oso kontratu zehatza, biajeen gastuen ordainaz, ze jornal hartu behar zuen, hau da, Erromako hamabost eskudo hilean, 10 zilarrezko errialetan; «gainera, Loiolan jana, bizilekua, ohea eta erropa zuri bai sendo bai gaiso da-goenean, eta gaisotuko balitz beharko litukeen mediku eta zirujaua». Eta gainera ohar hau: «gaiso egunetan gaitzagatik lan ezin egin egunak 20tik pasako ez balira, ez zaio bere jornaletik ezer kenduko, baina 20tik pasako balira, gainontzeko egun guztiak, den proportzioan, deskontatuko zaizkio, eta jana, sendagaiak eta abar. bakarrik emango zaizkio».

Eta kontratu honen beste baldintza batzuk datoz ondoren; kondizio horiek Volpini gizon berekoi samarra agertzen dute.

1760.go maiatzaren 4.koa da A. Fernando Ibañez Erretorearen eta Antonio Palacios-Loiolako obran eskuartzen duen beste Santanderko- kanpaigilearen arteko kontratua, kanpai haundiena funditzeaz. Kontratu hau Olasso Jaunak, Vergarako auzoak -han egiten bait zuen lan orduan Palacios-ek- informe onak eman zituelako egin zen.

Fusio duple batean kanpai batzuk nahastu ziren.

Lehenbizi, aurreko kanpai bat urtu eta haunditu behar zen, nonbait pitzatu egin bait zen. Kanpai hau agostuaren 20an puska asko egin zen, eta puskek 55 arroba eta 13 libra eta 1/2 pisatu zuten. Pisu hau, dorrean, ikusi dugunez, 1738.go martxoan jarritako erlojuko kanpai haundienarena delako, berak zera adierazten digu, puskatutako kanpaia ez zela erlojuko haundiena baizik izan.

1760.go azarearen 3an bigarren kanpai bat urtu zuten erlojurako, lehengoaren lekuan jartzeko; harek 42 arroba eta libra bat eta erdi pisatu zuen. Fusio berrian sartzen diren gai zahar eta berriak zehazten dira; hauek Loiola inguruko herrietako kanpai batzuk izan ziren: Azpeitiako parroikiko dorrekoa eta Azpeitiako San Martin eleizako dunba haundia; Azkoitiako San Juan baseleizakoak eta Azkoitiako gure kolejiokoak; bere aldetik Loiolako kolejioak dorreko kanpaia eta lehenengo fusioko metal-kondarrak jarri zituen eta beste kupreko eta estainuko kantidade batzuk. Bigarren kanpai hau dorrean 1760.go azarearen 8an jarri zuten (*Diario*, 177 eta 178 or.).

1761.go ekainaren 14ko oroit-agirian A. Colmenares-ek zera dio: «obran lan egiten duten argin ofizial gehienek gatzel hizkera ulertzen ez dutelako eta ditudan beste arrazoi batzuegatik, zera uste dut, erraz gauzak diren ez bazala esaten direla, gaizki ulertzen direlako. Kolejioko lagun guziei zera enkargatzen diet, ez dezatela errez entzuten dien gauza ziurtzat hartu, ondo explikatzen ez dakitenei edo, jakinda, nahi ez dutenei; horrela esamesa eta atsekabe asko saihestuko dira Kolejio barruan « (*L. V. 86. or.*).

Baitere, 1759.go agostuaren 5an, A. Eugenio Colmenares Probintzialak zera enkargatu zuen, «erretaulak egitean, zehatz ejekuta dadila Ibero Maisuak eta Italikoa batean onartzen duten guzia» (*L. V.85.r.*).

Ez du ematen haien artean diskusiorik zegoenik, baina datu batzuek zera jakin

erazten dute, zizelkarien artean esamesak ibili zirela Erromakoari ematen zitzaion jornalagatik. Horri Fernández Ibañez Erretoreak zera erantzun zion: «guzien bakerako, Erromakoari ematen zitzaion jorjala kontratu idatzian Erromatik etorri zela Gure A. Jeneralaren baiezkorekin; haren lanari zegokionaz bi kontsultetan tratatu zutela gauza hura, eta bidali zitzaiola A. Probintzialari Iberoren iritzia hark berak signatua; eta azkenik, A. Probintzialak bata eta bestearen arrazoiak entzun ondoren, Kolejio honi egin behar zion bisitarako reserbatzen zuela zer egitea komeni zen». Horrela ageri da 1761.gootsailaren 17ko Kontsultan.

Dirudienez, Probintzialak, bere bisitan zera erabaki zuen, albo-aldareetako obrak aurrera jarraitzen bazuen ere -han egiten zuen lan Volpinik- honek utz zezala Loiola 1762. urte azkenean.

1763.go urtarrilaren 11an Loiolan firmatutako paper batean, Juan Andres Volpinik zera aitortzen du: «Loiolako Errege-Kolejio eta haren prokuradore Francisco de Anduagagandik, Valladoliden -Erroma utzi zuen ordurako- A. Joseph de Zubimendi Prokuradore Jeneralaren bitartez, Erroman Aita harekin firmatutako eskripturari zegozkion jornal guziak hartu zituela, Erromatik 1759.go maiatzaren 23an irten nintzenetik 1762.go Abenduaren 31 arte, eta horrela zera aitortzen dut, Errege-Kolejio honek delako eskriptura horren zer-nola guziak bete dituela» (70).

Ikusi da A. Ossoriok 1757an pulpituak egiteko erabakia hartu zuela. Haien kontratua Errege-Kolejioaren aldetik Anduaga Anaiak firmatu zuen eta gainera Ibero Maisuak eta Gregorio Aguirre saregileak, Elgoibarko auzoak, Antonio Elorza ren suhiak. Hark zera zioen, «nola gaurko egunean, Ibero Maisuak egindako marraren arauera-ko, bi pulpituak bere eskaileren armazoiarekin egiteko kontratua egin dudana». Ondoren eskaile-raren zati guziak zehatz deskribitzen ditu; «bere-zi, eskailera biek daramatzaten Hamasei kalostira oblikuo eta kalostren arteko apaingai guziak eta haien mendelak, libra bakoitzagatik belloiezkoko 5 Er. ordain biezaidate. Baitere, hiru kalostraka gainkaldetik dagozkien ziriak utzi behar dira Cor-nixa edo zurezko eskudela tinkatzeko, eskailera-koa ere sartzen dela eta beheko bi abe laukituak bere apaintzeko bolak jartzeko... eta esan Pulpitu horiek urte honetako Ekainaren azken aldera entregatu behar ditut».

1759.go apirilaren 11ko kontsultan A. Fernando Ibañez Erretoreak zera propositu zuen, ordurarte bezala urteko hilabete guzietan lan egiten bazuten, Kolejioak urtero 40.000 Er. zorra egingo zuela; hori erremitzeko neguko hilabeteetan batzuk bidali ahal izango lirakeela, eta guziekin apiriletik Santu Guzietara bakarrik lan egin zedila.

Kontsultoreek horrela egiteko iritzi zioten, eta beste hilabeteetan, Kolejioaren errentak mantendu ahal zituenak baino gehiago ez zitzala admetitu.

1759. urte horretako ekainaren 23koa da, beste saregilearekin -Pedro de Echeverriakin- egin kontratua, Jantokiko pulpitu Ibero maisuaren marraren arauera egiteko.

Seminarioa

Hilabete batzuk geroago, 1759.go urriaren kontsultan, proiektuko Seminarioa fundatzeko ze arrazoi zeuden pentsatzeko erabakia hartu zen, bisitan A. Colmenares Probintzialak enkargatu zion bezala. Arrazoi hauen artean fundadorearen (Erreginaren) asmoa gogoratzen da, hau da, Jainkoa aintzatzeko eta arimak erakartzeko; eta bigarren helburu hau oso berandu iritsiko zen, gelditzen zen obra, larogei urte baino gehiago hasi zena, bukatzen ez zen bitartean.

1759.go abenduaren 12ko eskutitzan A. Lorenzo Ricci Jeneralak seminarioa fundatzeko baimena ematen zuen, eta A. Colmenares-i idatzitako kartan honela esaten zion: «Ondo iruditzen zait Loiolan orain egiten ari diren etxaldea (konstrukzioaren ezker egoa) Seminarioa izateko hala dispositzen badute, han gaztedia letretan eta Jainkoaren beldurrean hezitzeko» (*Diario* 173. or.).

Direkzio honetan, Erretoreak propositu eta Kotsultoreek 1761.go uztailean aprobaturik, geroko Seminarioari zegozkion gauza batzuk erabaki ziren, liburutegia, kapila eta seminaristen logelak ze etxealdetan joango ziren. Denek Erretoreak propositutako toki eta lekuak on hartu zituzten.

Urte batzuk geroago, 1765an, A. Idiaquez Probintzialak uztaileko 23an egindako bisitaren oroit-agirian zera enkargatu zuen, «azter eta erabaki beza Erretoreak, Ibero maisuarekin batera, ea komeni izango den eta agian utilago ofizialei, hobeto lan egin dezaten, arratsaldean, gurutzetik gurutzera ordu erdiko atsenaldi bat ematea» (L.V. 92. or.)

Hemen seinalatzen diren fetxak hauek dira maiatzaren 3, Gurutze Santuaren aurkikunde egunetik, irailaren 14.an haren goreskunde jai eguna arte (71).

Oroit-agiri hartan A. Idiaquez-ek hau erasten du: «Tamalez Eleizaren erretaulean gastu-kontua orain arte gainontzeko konstrukzioaren gastuarekin nahastua joan da, eta horregatik ez da sekula jakin ahal izango zenbat kosta izan diren erretaulak. Eta, hala, zera agintzen dut, hemendik aurrera Erretaulen liburu bat izan dadila eta han jar dadila harriak, lorketak eta ordaintzen diren jornalak zenbat kosta izan diren».

Gainera zera agintzen du, bukatutako Erretaula biak erabil daitezela (haiez gero hitzegingo dut), eta haietan meza eman dadila, urtean zehar oso beharrezkoak ez badira ere, zortziurren aldian bai behar bai dira.

»Hasita dauden Erretaula biak jarrai bedi egiten» (oraingo Jesusen Bihotzaren eta Manaren Bihotzarenak dira); «baina ez beza haietan lau ofizial baino gehiagok lanegin, eragozpen gutxi bai da, dauden Aldareak daudela, gainontzekoak egiten luzatzen bada, fabrikan hain atzeratuak joatearen eragozpenaren aldean; hemen beherago disposituko dudan eran egingo da lan».

Arduratu egiten da, beraz, Probintziala, eta nobleen Seminarioaren obrari aurrera eragiten saiatzen da, dudarik gabe Erreginari hori atsegin bai zitzaion, eta gainontzeko konstrukzioari helburu bat ematen zion, horregatik alboko erretaulak beranduago bukatuko baziren ere; erretaularen gastuak aparte eramateko dispositu zuen.

Gastu honen ondoan beste detaile batzuk ere jarri ahal izango liriteke, Atealde berriaren atea apaintzeko iltzeak adibidez; haien kontratua 1764.go Azarearen 21an egin zen, Ibero Maisuak emandako zurezko ereduaren arauera, eta bakoitzagatik 3 Er. eta 1/2 ordaindu zen.

Dena dela, 1765. urtean gastuetarako zuten dirua, 100.000tik pasatzen zen urteetan baino pixkabat gutxiago bazen ere, 96.599 Er. zen. Probintzialak honela banatzen zuen: Harrobietan zortzi ofizial enpleatuko dira eta hamar peoi; zizel-lanean, 22 ofizial fijo, bai neguan bai udan, eta 12 peoi; ate eta leihoak bere tokietan jartzeko 6 ofizial eta 6 peoi.

Eta oraindik egin gabe gelditzen diren ofizinei buruz, Erretoreari paper bat firmatua uzten dio, eta beste bat Ibero Maisuari.

Eta ez da ezer aldatuko, aurretik kotsultatu gabe eta *litteris separatim* Erretoreari eta Kotsultoreek Probintzialari idatzi gabe, erabaki bat har dezan.

»Zera enkargatzen diot Erretoreari, zaindu dezala Kolejioko inork obran, Ibero Maisuari iruditzen zaionaz bestera egiten eskurik sar ez dezan». Eta zera erasten du haren izena oratzeko, eta «lanzainek ere uler bezate ofizialei lana eragiteko zaindu behar dutela, eta ez direla Ibero Maisuaren zain, obra dirijitzeko.

Oso bidezkoa da, kolejioko kontsultaren iritziaren -onartzen dudanaren- arauera, Ibero maisuari jornal osoa ematea, ausentziren bat egingo lukeen egunetan ere. Esker on hori agertu behar zaio horrenbeste urtetan lan asko eta ondo egin duelako» (L.V. 92. or.).

1760. eta 1767. urte bitartean egindako aurrerapenak, bai konstrukzioaren ezker egoan, Seminariorako destinatuan, bai alboko aldareetan, urte horietako *Litterae annuae-tan* protokolo-expresio samarrez aitatzen dira, horrela adibidez, konstrukzio erdira baino gorago jaso zutela, »*iam ultra medium assurgit*», eta, alboko aldareak, bukatutako bien ondoren datozenak, laister bukatuko direla.

Obra zehatz nola zegoen, 16. laminan reproduzten dugun XIX. mendeko fotografia batek agertzen digu; han ikusten dugu nola zihoan obra 1767. urtean, bigarren pisuko leihoen alturan.

Erdiko gorputza eta konstrukzioaren eskubi egoa osoro bukatu ondoren, eta ezkerreko egoan eraikitakoa -bukatu gabe bazegoen ere- ikusi ondoren, batek irudi zezakeen nola izango zen monumentu osoa bukatzean.

Etxeatzea. Etxe barnea

Etxeatzea, egoetzaldera eta baratzara jotzen duena, erdiko gorputz zabal batek eta bi ego berdinek osatzen dute. Lehenago konstrukzio osoaren berezgarri bezala seinalatutako horizontala, hemen gehiago nabari da, alboko gorputzek ez bai dute atikorik, eta egoen altura erdikoarena bera baita.

Lerro honi, bere luzean begiez jarraitzen bazaio, ez da atzean etengabeko lerro, han barneko krujiaren bi solairuak nabaritzen bai dira, eta, ba-tez ere, kupularen orraze haundia alboko dorre buruekin.

Etxeatze honi begiratzen zaionean, batez ere atze erditik egiten bazaio, bere atze serioak inpresioa egiten du. Azkoitiko kamiotik begiratzen bazaio, haren gorputzak mugimendu gehiago duela ematen du. Azpeititik Loiola aldera, ibilbide zuzenean aurrera bazoaz, ia beti aurpegi berdina agertuko zaizu; baino, Azkoititik bazatoz, harrizko gorputz haundia agertu eta izkutatu egiten da, eta ez duzu behin ere alde onetik ikusiko (61. **lam.**).

Erdiko gorputza ere, bere apaingabeko eta kanbio gutxiko estiloarekin, eleizaren Atearkupe galantaren ohiezlako arkitektura ederraren aldean oso urruti gelditzen da. Atzealdean dena bakuna da; leiho asko, dena berdin serioa -Loiolako obra Fontanak geroago egindako konstrukzioarekin, Erromako San Michel hospitalaren anpliazioarekin, elkartzen duena- pisu nagusian hiru karpanel-arkuek bakarrik hausten dute; eta horrek zera adierazten du, etxe-alde horren ederra, arkitektuaren asmoan eguzkitoki eta solano izateko destinatua zegola, bazkunak bere txolarteak igarotzeko, arkuek helburu hori galtzean, irteerako atearen hutsean bakarrik egin badaiteke ere.

Puntu honetara ailegatzean, bai haundia dela aurrekalde eta atzekaldearen diferentzia, konstrukzio alde honetan dagoen altura haunditik jaisteko, aurrekalde nagusiko eskailera ederraren ordean, atzekalde honetan eskailera apal bat besterik ez bai dugu aurkitzen, eta eskailerak ere bi hanka eduki beharrean -bikoa pentsatuko

zuten noskiez du pretil beteko hanka bat baizik, soluzioa herri txiki bateko obra-
maisu ezjakin bati konfiatu izan baliote bezala.

Barneari gagozkiola, Loiolak duen gauza bereziena zera izango litzateke, bere
transitu edo ibilbide luzeek sortzen duten monastetxe-inpresioa. Transitu horietan hor
datoz txandaka bata bestearen atzetik kontaezin harrizko arku grisak eta arista-
bobeda zuriak.

Sakon-sentsua nabariago izango litzatekeen transitu luzeenetako batzuetan, efektu
hori galdu egin da, tartean manpara bat, praktikua bezain itsusia, jarri delako.

Ertzetako leihoen arteko erdi-ilun hori arintzeko, baratzara jotzen duen gela bat
destinatu dute, transitua argitzeko.

Azken datu bezala zera biltzen dugu, *Kontu Liburuan*, 6. t., 1765.go azaroaren 22an,
Ignacio Iberok eta bere suhi Javier Echeverriak Enetorearen gelan bi giltzako kutxa
batean deposituan zeukaten diruaren beni ematen dela.

Dirua dena urrezkoa zen: 8ko bost dobloi; 5ko 185 dobloi; 20 errialeko 10 urrezko
txanpon eta 18 mr. zilarrezko bakarrik. Denak 15.954 er. eta 12 mr. ziren. Haietatik
10.883 eta 28 mr. Ignacio Iberorenak ziren, eta 5.070 er. eta 18 mr. Echeverriarenak.

Ignacio 1766.go ekainaren 30an hil zenean, haren seme Franciscok, oinordeko
deklaratuak, 1767.go uztailan aitaren dirua exijitzen zuen, berak ere kutxan
deposituan zeukan beste diruarekin batera. Jesulagunak expulstatzeko dekretua,
Carlos III.ak 1767.go apirilaren 3an emana, ejekuta zutenek, kasuak eskatzen zituen
zer-nolak gorderik, haren exijentzia adituko zuten.

Carmonaren irudiak

Lehenago esan genuen, Loiolako obran ez zela, zoritxanez, irudigile ezagunik
agertzen, baina azken urte hauetan guziz aldatu egiten da gauza, eta hala,
Madridede irudigile inspiratu eta ugari Luis Salvador Carmonak eskuartzen du;
Valladolidede Nava del Rey-koa zen, eta XVIII. gizaldian, Castellako XVII. gizaldiko
irudigile haundien erlijio-tradizioari janaitzen dio.

Carmona Vergaran eta Seguran egindako obra askogatik ezagutuko zuten (72).
Vergarako erretaulan 1747. urte aldera Ignacio Ibero tasadore bezala aurkitu zen
tartean. Baitere, urte batzuk geroago, A. Antono Javier Bermejok, 1763. urtetik
Loiolako Enetoreak, Carmonagan haatik janiko zituen bere begiak, haren irudi
ederra, Salamancako Clereciakoa *Cristo recogiendo sus vestiduras después de la
flegelación*, 1760an fetxatua, oso ondo ezagutzen zuelako.

Hiru irudi egin zituen Carmonak Loiolarako: Luis Gonzaga Santuarena, Estanislao de
Kostka Santuarena eta Virgen del Patrocinio-rena. Haiez astiro hitzegin dut nere *Luis
Salvador Carmona en el santuario de Loiola artikuloan*, *Goya aldizkarian*, 154. z.,
1980, 194-199 or. argiratuan.

Jesulagun Santuen irudiak 1763. eta 1764.goak dira, Virgen del Patrocinio-rena
1765.goa. Ez ziren Carmonaren atzen urte hauetako irudiak ezagutzen.

Hirurak hasieratik eleiz beniko alboko aldareetarako eginak izan ziren; alperrik
bilatuko genituke gaur lehenengo toki horietan. Hala ere, Carlos III.ak 1767an
jesuitak expulstatu zituen garaian, toki bat okupatu zuten enetaula horietan; artean
bukatu gabe zeuden, eta aldare nagusiaren hunengo bi ez bestetan jani zituzten.
Honela agertzen da 1768.go inbentario batean: «Aldare nagusiaren hurrengo lau
aldareetan S. Inazioen, Xabierko S. Franciscoren, S. Luis Gonzagaren, S.

Estanislaoen eta Maria Txit Santuaren irudi estofatuak». Atzen hirurok, dudarik gabe, Carmonarenak dira.

Compendium-dik zera dakigu, San Luis eta San Estanislaoen irudiak 1854an barneko monumentu-eskaileraren tranpain zabalean jarri zituztela, hantxe daude gaurko egunean ere. *Virgen del Patrocinio*-ren irudiak Eleizan iraun zuen puska batean; eta orain dela gutxi berriz ere han jarri dute, ezkerreko bigarren alboko aldarean.

Jesuiten arkitekturaren Loiolaren influjoa

Bi iritzi ezberdin formulatu dira ondorengo jesuiten arkitekturaren Loiolaren influjoaz: Schubert-en iritzia, Thieme-k onartzen duena, eta A. Braun-en iritzia. Schubert-ek zera esaten du, «Loiolaren ejenpluak indar handia izan zuela eta Espainako jesuiten ondorengo konstrukzioetan eredu izan zela» (73). Braun-ek berriz beste hau, Loiolako Eleizaren konstrukzio ederretik itxaron zitekeenaz bestera, ez zuela eskola egin ez Espainako jesuiten eleizetan ez eta Orden osoaren arkitekturaren ere.

Schubertek ez du bere afirmazioa baieستeko irargirik ekartzen. Braunek arrazoi du, baina zera ahaztuz du, jesuitek arkitekturaren lanik ez egiteko arrazoirik handiena zera izan zela, gizaldi bat baino gehiagoan jesuita haiek atzerrian eta extingituak edo barreiatuak bizi izatea.

Estudio hau 1956ko atzen hitzekin bukatzen dut: zera aitortu behar da, San Inazioaren basilika handia bakar gelditzen dela Espainako arte-giroan. Baina, halabeharrezko zirkunstantzi batzuek bere barnean itxia gelditu bada ere, esan nahi sakona gordetzen duela: bera inguratzen duten mendi eta ibarrekin ondo elkartua, eta han kooperatu zuten artista-sorta aberatsari esker (Fontana, Churrigera, euskal arkitektoek), Loiola, jesuiten espain-berant barrokoaren prototipo baino areago, Erromako, Espainako eta Euskal herriko gustoak funditzen direlako, San Inazioaren espirituaren egiazko irudia izatera heldu dela, harengan Erromaren debozioa, Espainaren eta bere jaioterriaren maitasuna elkartzen bai dira.

Oharrak

- 1.- *La Basílica de Loyola, Miscelánea Comillas-en* argiratua, XXV bol. 1956, 383-430 or.
- 2.- Datu eta orientazio berri hauek, sail handian, A. José Ramón Eguillor arkiburuaren laguntza efikaz eta sarriari, Loiolako Histori-Arkibua hain ondo ezagutzen duenari, zor dizkiot; hemen nere esker on handia erakutsi nahi diot.
- 3.- Erregeak eta Lagundiko Aitek izendatutako albazeak 1614. go martxoaren 13an bildu ziren Salamancako ErregeKolegioaren fundazioaz deliberatzeko; han beste ebazpenen artean, konstrukzioaren proiektua eta forma Erregeari bidaltzeko erabakia hartu zuten. A. RODRÍGUEZ G. DE CEBALLOS S.I., *Estudios del Barroco salmantino. El Colegio real de la Compañía de Jesús (1617-1779)*. Salamanca 1969, 25 or.
- 4.- HENAO VILLALTA, *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria*, V. Tolosa, 1894, 159 or.
- 5.- H. HAGER, *Cario Fontana and the Jesuit Sanctuary at Loyola, Journal of the Warburg and Courtauld Institutes*-ean, XXXVII, 1974, 280-289 or.
- 6.- *Cario Fontana autor de la traza de la iglesia y colegio de Loyola*.
- 7.- H. HAGER, *Carlo Fontana's Project for a church in Honour of the «Ecclesia Triumphans» in the Colosseum, Rome (Journal of the Warburg and Courtauld Institutes, XXXVI, 1963) 319-337 or.*
- 8.- *Historiae Collegii Loyolaei Compendium 1609-1856*, HENAO- VILLALTA-n, *Averiguaciones de las Antigüedades de Cantabria*, VII, Tolosa, 1895, 340 eta 343 or.
- 9.- Berri hau kronologiko ez da guziz zehatz agertzen A. ASTRAINEN, *Historia de la Compañía de Jesús*

- en la Asistencia de España*, VII, Madrid, 1920, 29. or.
Hemen bildutako datuak XIX.go kopia berri batean ikus daitezke, L.H. A.an (*Archivo Histórico de Loyola*), 1-4-1, 30 z. Batez ere, Loiolako eta Azpeitiko Parrokiko obrei dagozkien apunte batzuk dira, *Libro Grande de Acuerdos de la Justicia y Reximiento de Azpeitia desde 1686 hasta 1694*, liburutik atereak.
- 10.- Gizaldi haietako agirietan horrela agertzen da. 1405an egindako Beltrán de Ibañez Jaunaren, San Inazioaren hirur Aitonaren, testamentu-zati batean, Henaok azaldutakoan, (*op. cit.* VI, 289-290 or.) Dorre-Etxearekin batera «tolare-etxea agertzen da, Loiolako etxondo eta tokian dagoena, eta errotak (hau da, igara) tokiari itsatsiak daudenak».
Berebat, Oñazko Martín García Jaunak, San Inazioaren anai zaharrenak, 1536.go martxoaren 15an Loiolako maiorazgua bere seme Beltran Jaunaren alde institutako eskripturan, ondasunak zenbatzean, zera esaten da: «Gainera Loiolako etxondoa, bere baratz, usategi eta tolare-etxea, eta etxondoaren ondoan dauden igarak».
Francisco Pérez de Yarzaren Oroit-agirian, 1569.go *Honor y calidad de la Casa de Loyolan*, »etxe atarian dagoen igara» aitatzen da.
Hiru zita hauek C. Dalmases-engan ikusi daitezke, *Fontes Documentales de S. Ignacio de Loyola, Monumento Historica Societatis Iesu-ko* 115 bol., Roma 1977, 764, 484 eta 740 or.
- 11.-L.H.A., 1-4-1,30. z.
- 12.- Harritzeko gauza da nola ez den Bergrand izena 1690ko hiru urteko katalogoan agertzen; baina 1693koan bai aurkitzen da, eta handik zera dakigu Yprés-en jaio zela 1624.go urtarrilaren 29an, Malinas-ko nobiziaduan 1653an sartu zela, eta betiko 1664.go otsailaren 2an inkorporatu zela. Orain zera erasten da, haren indarrak ahulak zirela (*vires infirmae*) eta etxe-lanetan okupatzen zela. Alabaina, obraren direkzioarekin jarraitzen zuen, 1692-93ko katalogo laburrak zera ekartzen bai du, *Arkitektus Joannes Bogran*, eta 1693-94ak *Joannes Bodgran Praefectus fabricae*. 1694.go otsailaren 19an hil zen.
Hauek dira Anai Bergrand-ez ditugun histori-datuak. Hauen ondoan gogora daiteke hemen F.J. ECHEVERRIA ETA F. ABASOLOK heuren liburuan *Descripción Artístico-Religiosa e Histórica del Grandioso Edificio de San Ignacio de Loyola*, Tolosa, 1851, 100- 101 or. dakarten berri laino bat. Obrak izan zituen direktoreez hitzegitean, zera dio, lehenengoa «bai jesulagunen artean, bai instituto honetakoak ez diren beste askoren artean Altuna izan zela uste da». Berri horretatik, erasten dutena bakarrik onar daiteke, hau da, Altuna izenekoa, Jesusen Lagundiko Anai Koadjutore bat izan zela; honekin tradizioaren oihartzun ezgarbia jasotzen dute.
- 13.- Ikus *El Hermano Francisco Bautista, arquitecto* E.TORMON, *Pintura, escultura y Arquitectura en España*, 442-449 or. A. RODRIGUEZ G. DE CEBALLOS S.I., *El Arquitecto Hermano Pedro Sánchez, Archivo Español de Arte-n*, 1970, 51-58 or.; eta autore berak Pedro Mato anaiarentzat, *Estudios del Barroco Salmantino. El Colegio real de la Compañía de Jesús (1617-1779)*, Salamanca, 1969, 80-82 eta 146-149 or.
- 14.- J. BRAUN, *Die belgischen Jesuitenkirchen*, Friburgo, 1907, 116or.
- 15.- *Libro de Visitas* (1684-1765), 9. or. Liburu honetako zerbait aitatzeko V.L. sigla erabiliko da.
- 16.-Obra-Maisu berria argin-famili batekoa zen (haren aita Francisco eta haren anaia Lázaro argin maisuak izan ziren ere). Laineratarrak jaiotzez Somo (Santander) lau herrien jurisdikziokoak ziren. 1685 eta 1690 bitartean Josek bere aitarekin Gipuzkoan, Oiartzungo Udalean, Segurako Eleizan eta Irungo Parroki Eleizan egiten du lan. Eta 1692an bere anai Lazarorekin Zumaiako konbentuko Eleizan hartzen du esku.
1690.go irailaren 20an, Loiolako Kolejioan, bere amaordeko Echaondoko Angelari eskubide-karta bat eman zion, Irunen berak eta bere aitak egindako obrak kobratzeko.
Datu hauek XVII. azken aldeko eta XVIII gizaldiko Gipuzkoako arkitektura horren ondo ezagutzen duen Astiazarain de Valbuena Maribelen bihotz onari dizkiot zor.
- 17.- Horrela agintzen da behin eta berriz 1689, 1691, 1692 eta 1693. urtean (*L.V.* 9, 11, 13 eta 14 or.).
- 18.- Martín de Zalduak A. Jeneralari, Tirso González-i, Loiolatik 1702.go agostuaren 16an idatzitako eskutitza. *Documentos Históricos de Loyola Señorial y Religiosa*. L.H.A., 1-4-1,52. z.
- 19.- Horrela deduzten da 1693.go Katalogotik. Ikus 12. oharra.
- 20.- 1711an Agustinoen Konbentuaren aurka Lázaro de Lainerak edukitako pleito batean, Lazaroren alde lekuko bezala Martín de Zaldúa, obra-maisua Azpeitia Herriko auzoa agertzen da; hark «gutxi gora-behera berrogeita hamazazpi urtekoa zela aitortu zuen».
- 21.- A, Ballesteros-ekin Martín de Zalduaren kontratua. *Documentos Históricos de Loyola Señorial y*

Religiosa. L.H.A., 1-4-1-,49. z.

- 22.- A. Tirso Gonzalezi idatzitako eskutitzaren doinu baikor honek explikazio hau du, Zalduaren kartak A. Jeneralagandik etendako eskaileraren obra jarraitzeko baimena iritsi nahi bait zuen. Nekez onartu daiteke, hemen Zalduak esaten duena, eskailera kostako zena eta Fontanaren projektuan eskaileraren lekuan zetorren bailagibela kostako zena gutxi gora-behera berdin izango zela. Baitere baikorregia da, gero ikusiko dugunez, eskailerak izango zituen argiak nahikoak eta bidezkoak izango zirena.
- 23.- *A. Tirso Gonzalezi Zaldúak idatzitako eskutitzaz ikus 18. oharra.*
- 24.- 17692.go urriaren 14an A. Antonio Caraveo Probintzialak egindako bisitaren oroit-agirian zera esaten da: «Konstrukzioa oso aurreratua aurkitzen dut eta asko haundituko dela itxaron dugu, G. J. oso eskuzabal agertzen bait zaio limosna asko bidaltzean; eta poztu egiten gaitu askoz ere gehiago bidaliko dituen itxaropenak, eta, haiek Kolejioa-ren errentekin batean, hura opa diogun azken ederrera eraman dezaten» (L.V. 13. or.).
- 25.- Gaur *en su ser* (bere izanean) esango genuke, baina *en ser* (izanean) forman Cervantes-en aurkitzen da, Quijote-ren lehen zatiko XXIX. atalean. Cardeniok Doroteakin hitzegiten du, eta, haren kontua entzun ondoren, honela dio: «Luszinda nerea delako Fernando Jaunarekin ezkondu ez daitekeenez gero, ez eta Fernando Jauna ere harekin, zurea delako, bidez espera dezakegu zeruak itzuliko digula gurea, oraindik ere izanean bai dago (*está todavía en ser*), eta ez da besterendu ez hautsi ere».
- 26.- HENAO-VILLALTA, *op. cit.* V, 135 or.
- 27.- HAGER, *Carlos Fontana autor de la traza de la iglesia y colegio de Loyola.*
- 28.- Zaldúak A. Tirso Gonzalezi egindako eskutitzaz, ikus 18. oharra.
- 29.- Datu hau, 1702. irailetik 1737.go agostura arteko *fabrikaren Liburuaren 1717. urteko kontuetan aurkitzen da.*
- 30.- 1700.go irailaren 29ko bisitaren oroit-agiria (L.V. 23. or.). Suzesio Gerra aurreko urte haietan oso bizkor ari ziren lanean Clereciaren Etxearen sarkaldeko ego handia egiten. Hortik eragiten zien Probintzialak Loiolakoei Salamancaren ejempluarekin (A. RODRÍGUEZ G. DE CEBALLOS, *op. cit.* 112 or.).
- 31.- Lázaro de Lizardik egindako arotz-obran zera zenbatzen da, «etxeaurrera, orain azotea txikia dagoen lekura, erortzen den teilatu osoa, kendu» (L.F. 1717. urtean).
- 32.- 1702.go agostuaren 30ko Oroit-agirian honen kontu, hitz garratz samarrekin ematen da: «Eta aurkako iritzien eragozpena saihestearren, arte-estudiorik eta jakintzarik gabe konstrukzioa kalte askorekin atzeratu dutelako, garbi dago ikustera etorritako bi Maisuen iritzira (haren orijinala Erromara bidali zuten eta kopia bat Erretorearen eskuetan gelditzen da) Italiako azotea oso seguru gelditzen dela, eta fabrikaren ederrerako eta Kolejioaren onerako beharrezkoak eta seguruak direla esandako solairuak» (L.V. 27-28 or.).
- 33.- 1702.go agostuaren 16an Martín de Zaldúak firmatutako karta, *Documentos Históricos de Loyola Señorial y Religiosa*. L.H.A. 1-4-1, 52. z.
34. Kondaira zehatzago bat ikus daiteke nere artikulok *Fundación del real Colegio e Iglesia de San Ignacio de Loyola*, liburu honetan bertan aurrerago argiratuan eta *J. Ignacio Tellechea Idígorasen Omenaldirako, Boletín de Estudios Históricos sobre San Sebastián* aldizkarian, 16-17. San Sebastián 1982-1983, 551-553 eta 557-559 or.
- 35.- Zalduaren izenean dagoen azken ordaina Probintzialak erabakitako sari antza du, despuiduaren gusto mikatza gozatzeko: «390 er. ordaindu zitzaizkion Martín de Zaldúa Maisuari A. Salvador de Ribadeo Probintzialaren aginduz, 26 egunetako jornalak, 15 jaiegunekoak eta 11 Donostira egin joanak, han eguneko 15 er. emandakoaz gainera».
- 36.- Saregileekin egindako kontratuen ejemplu bezala, aita dezakegu Loiolan 1709.go urtarrilaren lehen egunean Antonio Elorzak firmatua; han eskailera nagusiaren bigarren tranpain arteko kalostrak eta haien abelaukotuak egiteko konpromisua hartzen du eta urte hartako maiatzaren erdi alderako entregatu behar zituen (*Libro de Cuentas*, 3.z., 24r or.)
- 37.- Haritzak gehienbat Zestuatik ekartzen dituzte: Zestuatik menditik 102 haritz (1704), Zestuatik 87 haritz tantai. Baina. Urrestillatik (1714) eta Villarrealetik (1724) ere ekartzen dira. Gaztainondoak Azkoititik etorri ohi dira: Olanan mendiko gaztainondoak (1715), Azkoitiako jurisdikzio-ko gaztain

- tantaiak (1730); baitere, Debako gaztain oholak (1727).
- 38.- Etxearen egoetzalde ondoko eskailera, orain behepi-suan bukatzen dena, garai hartan sotano-erdiraino jaisten zen, eta handik irtetzen zen baratzara; oraingo irteera, kanpoko eskailera batetik, oso berria da.
- 39.- Hemen bildutako datuei *Libro de fabrican (1702-1736)* kronolojiko jarrai dakieke. Baina, diskisizio guzi hauek utzi ahal izango ziren aldi honetarako *Diario* liburua izan balitz, 1714. urtean hasten baita, eta han agertzen dira etxe-notizi horiek.
- 40.- *Libro de las Consultas de este Real Colegio*. 171 I.go ekainaren 8tik 1767.go martxora arte hartzen du.
Liburu honek ez du orri-nerorik. Baina, kontsulta bakoitzaren egunari jarraituz kontsulta daiteke berak dakarrena, kontsulta bakoitzaren eguna, hila eta urtea seinalatzen baita.
- 41.- Italiar estruktura iriki lerdena, euri-giro lehorrakorako egokia, azken aldi honetan osoro galdu da, lehengo arkupetan bi bizitzeko pisu eraikitzean (58. **lam.**).
- 42.- Recondo izan zen XIX gizaldian Loiolako obrak, Lagundia expulsa zutenean etenak, aurrera eraman zituen arkitektua. Haren *Proyecto de la terminación de las obras del Colegio de Loyola. Reseña descriptiva-n*, 1884.go agostuaren 31an firmatua (L.H.A., 2-4), aurkitzen da textuan anotatzen den oharra.
- 43.-Salamanca kargu honekin hasieratik, 1616. urtetik, A. Montemayor azaltzen da, eta kargu horretan bere heriotza arte (1642) irauten du, eta gainera bi aldiz Erretore izan zen. Motemayor beti proiektua errespetatzen saiatu zen, eta diru arlo neketsua bere gain eraman zuen.
1642an Pedro Mato Anai arkitektua etortzen da Salamancara; 1646. urtetik haren heriotz urte arte (1673), «fabrikaren maisu» bezala agertzen da, eta bere direkzio aldi oso garrantzitsuko lana egin zuen. (A. RODRÍGUEZ G. DE CEBALLOS, *Estudios del Barroco Salmantino. El Colegio real de la Compañía de Jesús (1617-1779)*, XIV. Salamanca, 1969, (35,44, 80-82 eta 146-149 or).
- 44.- Santiagoren zaldun Ignacio Maleo eta Aguirreren Argentinako herentzi honetaz, datuak *Loyola señorial y religiosa-ko 91*. dokumentuan aurkitzen dira (L.H.A., 1-4-1).
- 45.- 1718.go otsailan kontu hau aurkitzen da: «120 Er. eman zitzaizkien Martin de Zalduari eta Lázaro Lainzerari, Argin Maisuei, Eleizaren obra aztertzen egun batean aritu zirelako». (F.L. 130. or.).
- 46.- *Lecuna* grafía erabiltzen dut, abizen honetan erabi-liago den *Lecuona-ren* orde, horrela maizago azaltzen baita Loiolako dokumentuetan, eta, batez ere, horrela erabiltzen bai du berak firmatzean.
- 47.- *Diario Histórico de Loyola*, 16. or. (L.H.A., 1-4).
- 48.- *Op. cit.* 38. or.
- 49.- *Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País*, 1977,441- 450 or.
- 50.- EGUILLOR, *op. cit.* 446 eta 450 or.
- 51.- EGUILLOR, *op. cit.* 449 or.
- 52.- H. HAGER, *La facciata dei SS. Faustino e Giovite, Commentarii-n*, 1972, 262. or., eta *La facciata di San Marcelo al Corso, Commentarii-n*, 1973, 63. or.
- 53.- Haietako hiruk erori bat jasan zuten; kolejoan 50 egun sendatzen egon ziren; hiruengatik 750 er. ordaindu ziren.
- 54.- E. COUDENHOVE-ERTHAL, *Carlo Fontana und die Arkitektur des römischen Spätbaroks*, Viena, 1930, 137. or.
- 55.- J. BRAUN, *Spaniens alte Jesuitenkirchen*, Friburgo, 1913. *Ergänzungscheft zu den «Stimmen aus Maria Laach»*, 155 or.
- 56.- H. DONATI, *Artisti ticinesi a Roma*, Bellinzona, 1942, 271. or.
- 57.- EGUILLOR, *op. cit.* 449. or.
- 58.- *Carlo Fontana and the Jesuit Sanctuary at Loyola*, 1974.
- 59.- Textu osoa nere artikulo *La Basílica de Loyola-n* 426-27 or. ikus daiteke.
1954. udaberrian bola askatu egin behar izan zen, erortzeko arriskoa bait zegoen, egurra guziz usteldua zegoelako. Orduan berunezko erliki-kutxa agertu zen. Oso ondo itxia eta soldatua bazirudien ere ez zeukan erlikirik, eta bai oso ondo kontserbatua Caravaca-ko gurutzea, Burgosko Kristoren gurutzea eta Gure Andre Edurneren zilarrezko domina.

- 60.- *Loyola Señorial y Religiosa*, 109. dok. (L.H.A, 1-4-1).
- 61.- S. INSAUSTI, /// *Centenario del Monasterio de Santa Clara*, Tolosa, 1966, Orri-nerorik gabeko liburu bat.
- 62.- *L.Cu.* 5. z. (orriak numeratu gabe).
- 63.- *Op. cit.* 101-102 or. Echeverriaren zita honengatik idatziko nuen, agian, 1956an Franciscoz «ez dakigu hark Loiolan zertan eskuartu zuen, baina zera esan daiteke, haren lana erretaula haundian zentratzen zela» (*op. cit.* 23 or.). Gaur zuzendu beharra daukat, Francisco Iberoren 1766ko eskutitz batek Francisco de Anduaga Anaiari, zera dio «bada 15 urte nere famili eta Aberritik at nabilela gehienbat», eta hori ez dator bat nik orduan supositu nuen Franciscoren lanarekin erretaula haundian.
- 64.- HENAO-VILLALTA, *Complementos a la obra de averiguaciones cantábricas e ignacianas* VII t., Tolosa, 1895, 343 or.
- 65.- A. GARCÍA Y BELLIDO, *Estudios del barroco español. Avances para una monografía de los Churrigeras, Archivo español de arte y Arqueología-n*, 1929, 42 eta 43 or.
- 66.- Ohar hori F. CHUECA GOITIA-RENA da, *Ventura Rodríguez y la escuela barroca romana, Archivo español de Arte-n*, 1942, 209. or.
- 67.- Ikus R. LETURIA, *Estatua de plata de S. Ignacio*, Donostia, 1954. Orain dela gutxi JOSÉ MANUEL CRUZ VALDOVINOS JAUNAK, *La Estatua de Plata de S. Ignacio de Loyola-n* (Ediciones Mensajero, Bilbao, 1989, 43-56 or.), zera irargitu du, irudiaren eredia Vergarak egin zuela, baina zilarrezko ejekuzioa Josef Bauer aleman zilarginari egotzi behar zaiola; hark Erroman bere izena itzulirik honela firmatzen zuen: Giuseppe Agricola.
- 68.- Hemen aitatzen den Ibero Maisua Ignazio da, ez haren semea Francisco. Alabaina, *Compendium-aren* autoreak eleizaren egitura hauek eta beste batzuk Franciscori atributzen dizkio; zera dio: »*ad mentem et ideam architecti Francisci Ibero*» eginak izan zirela (HENAO-VILLALTA, *Antigüedades de Cantabria*, VII, Tolosa, 1895, 344. or.). Braun-ek *Compendium-dik* hartzen du.
- 69.- Jesuíta kardenal hauez Echeverriak dato batzuk ematen ditu (*op. cit.* 89-91 or.). Lehen aitatzen duena Casimiro da, Poloniako Erregea, Inocencio X.ak 1645an kardenal egina. Casimiro hau, *Synopsis historiae Societatis Iesuk* (Lovaina, 1950), dioenez Jesusen Lagundian 1643an Loreton sartu zen, nobiziadua Erroman egin zuen, eta Lagunditik 1645an irten zen. Kardenal 1645an egin zuten, 1648an bere aberriak bere anai Ladislao IV.aren ondoren errege izateko deitu zion eta Polonian 1668. urtera arte izan zen errege.
Beste jesuíta kardenalak kronologiko hauek izan ziren: Toledo kardenala, Clemente VIII, 1593; Belarmino, Clemente VIII, 1598; Pedro Pazmany, Clemente VIII, 1602; Lugo, Urbano VIII, 1643; Sforza Palavicino, Alejandro VII, 1657; Nithard, Clemente X, 1672; J. Bautista Tolomei, Clemente XI, 1712; J. Bautista Salerno, Clemente XI, 1719; Cienfuegos, Clemente XI, 1720.
XVIII.go Italiako eskolako Kardenal hauen erretratuak, janlekua apaintzen dutenak, Markes de Lozoyak, 1976.go ekainean egindako bisita batean esan zuenez, ez dira txarrak; alabaina, janleku buruan dagoen Afari Haundia, 1754an Erroman Siziliako Filiberto Larcanak firmatua, txarra dela uste du.
- 70.- Aitortza honi esker, *Compendium-aren* autoreak emandako beste datu oker bat ikus daiteke; hark Volpini-z zera dio, Loiolan 1764. urtera arte egon zela: «ad annum saltem 1764» *op. cit.* 344. or. Transkriptutako testu horretatik zera ikusten da, Loiolatik urte hori baino lehen irten zela.
- 71.- Ez da Probintzialaren proposizio honi emandako erantzunik aurkitzen, orri batzuk zuri gelditzen badira ere, hemen bukatzen baita *Libro de Visitas-en* testua. Agian hurrengo bisita, 67.goa, Lagundia expulstatu zutelako, ez bait zen egin.
- 72.- Ikus M.C. GARCÍA GAINZA, *Dos grandes conjuntos del barroco en Guipúzcoa. Nuevas obras de Luis Salvador Carmona, en Revista de la Universidad Complutense*, Madrid, 85, (1973) 81-110 or.
- 73.- *Geschichte des Barock in Spanien*, Esslingen, 1908. Espain edizioa 1924koa da. Cfr. 314 or.

Azpeitiako Ibero maisuak Loiolako Santutegia eraikitzen

José Ramón Eguillor, S.I.

(N.B. Atal hau lehenago R.S.BA.P.aren Boletinean argiratu nuen. XLIII. urtean. Kuadernoak: 1-2-3-4. Donostia 1987. Haren baimenarekin argiratzen dut hemen berriz).

I. Iberotarren jatorria

Lehen iker-puntu honek helburu zera du, ez Iberotarren sendi-jatorria argitu bakarrik, baina ea XVI, XVII eta XVIII. mendeetako Iberotarrak XIX mendeko Azpeitiako Iberotarren -mende hura bete ondoren XX.an ahitu direnen- aurrekoak ziren ala ez ikusi; gauza hori denak horrela zela uste bai genuen, baina inork ere ez zuen irargitzen.

Ez da lan erraza izan Francisco de Iberoren Hidalguia-Ejekutoriaren (1761) datuak bilatzen eta extraktzen. Datu horiek Gipuzkoako Ahaldundegian, eta Beizamako, Errezilko, Azkoitiako eta Azpeitiako bataiatu, sendotu, ezkondu eta hildakoen parroki-liburuetan aurkitzen dira; liburu hauek orain Donostiako diozesi-arkibuan daude. Eskerrak nere lagun gazte Azkoitiako Juan Bautista Mendizabali, hark egin du lan neke hori.

Iker-lan horretatik datu hauek ateratzen dira:

1. XVI. mende lehen erdian Ibero (Nabarra) herri txikian *Martin de Ibero* jaiotzen da eta Catalina de Salinas-ekin ezkontzen. Bi seme izan zituzten, Pascual eta Pedro, apaiza azkeneko hau eta Irurzungo bikarioa.

2. *Pascual*, XVI. mende bigarren erdian jaioa, 1612an Maria de Iberoekin ezkondu zen eta bi seme izan zituzten ere, Juan (1618) eta *Pedro* (1623).

Bi belaunaldiko gizon horiek Pascualena etxeko Jaun izan zirela esaten da, eta abizen horren orde gero bere jaioterri Iberorena hartu zutela, eta haietako batzuk Beasoaingo alkate izan zirela.

3. *Pedro de Ibero eta Ibero*, gazte zela, Gipuzkoako Beizamara aldatzen da Oyanzabal (Oinzabal) baserrian morroi lan egiteko; baserri hau Azpeitira begiratzen duen Kantea mendi atze aldean dago. 1642an Francisca de Ugartekin ezkondu zen; hargandik hamar seme-alaba izan zituen: Jorge (1643), Juan de Oyanzabal eta Ibero (1645), Estefania (1646), Martin (1648), Maria Ignacia (1650), *Juan Francisco* (1655), Josefa (1658), Carlos eta Sebastian bizkiak (1659), eta Ignacio (1661).

Baina, Francisca 1665an hil zen, eta Pedro berriz ezkondu, oraingoan Graziana de Usarragakin; ezkontza honek beste lau alaba ekarri zituen: lehena, Francisca (1668) artean Beizaman, eta beste hirurak Ana María (1670), Margarita (1672) eta Maria Josefa (1675) Errezilen, Igortegi baserrian, ibarretik gora aldera Goiaz inguruan.

4. *Juan Francisco de Ibero eta Ugarte* 1692an Urrestillan Mariana de Erquiciarekin ezkondu zen; Mariana hau Errezilgo Susoko Erquicia baseritik zetorren, eta Azpeitiako Barrenola errotara joan ziren bizitzera, Errezilera doan kamioan hiru kilometrorra. Hura, esaten denez, gazte zela soro-gizona izan zen eta gero argin maisua, lehen pauso ederra, gero 1694an Ignacioren, Loiolako obraren maisu izango zenaren, eta lau urte geroago, 1698an, Joseren, aita izateko.

5. *Ignacio de Ibero eta Erquicia* 1720an Antonia de Odriozolakin ezkondu zen; hau

bere aitamengandik Odriozola Haundi eta Beristaindik zetorren. Sei seme-alaba izan zituzten: Maria Ignacia (1721, Ignacio Xabier (1722), apaiz izan zena, Francisco Antonio (1725) geroko arkitekto maisua, Ana Joaquina (1727), Maria Ignacia (1729) eta Manuela Dominica (1732). Loiolan 1766an hil zen.

6. *Francisco Antonio de Ibero eta Odriozola* Maria Ignacia Lecuonakin ezkondu zen. Semealaba hauek izan zituzten: *Ignacio Antonio* (1751), Maria Joaquina (1752), Francisco Marcos (1754), Manuel Ignacio (1755) apaiz izan zena, eta Maria Josefa. 1793an Azpeitiko alkate izan zen (honen eta hurrengoek alkatetzarako cf. Imanol Elias-en «Guía histórica y taurina de Azpeitia», Azpeitiko Udala 1986, 469-482 or.) eta 1795an hil zen.

7. *Ignacio Antonio de Ibero eta Lecuona*, Azpeitiko alkate eta Lizentziatu izan zela esaten da. Ataungo Josefa Ignacia de Beguiristain-ekin ezkondu zen eta seme bat izan zuten: *Ramon Francisco*.

8. *Ramon Francisco de Ibero eta Beguiristain* Donostian jaio zela esaten da eta lizentziatua ere izan zela. Beasaingo Josefa Martina de Maiz-ekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten: *Ignacio Maria Carlos*, 1824an Azkoitian jaioa, eta Ana Maria. Ibero sendiaren famili-dokumentu batzuetan, Loiolako Histori-Arkibuan (LHA, 17-3) kontserbatuetan, Ana Maria Baionan Máximo Mauroner-ekin ezkondua agertzen da. Bi bider Azpeitiko alkate izan zen: 1837an eta 1848tik 1851ra.

9. *Ignacio María Carlos de Ibero eta Maíz* Azpeitiko Luciana Orendain eta Azpiazu-kin ezkondu zen, eta zortzi seme-alaba izan zituzten. Denak erlijioan ingresatu eta iraun zutelako -bost semeak Jesusen Lagundian, eta beste hiru alabak klausura ordenako erlijioetan- dinastia ahitu egin zen. Ondoren haien zerrenda jartzen dugu, hildako fetxaren arauera:

Gurasoak:

Ignacio Jauna, bi bider Azpeitiko alkate: 1855tik 1859ra eta 1882tik 1887ra, 1897an Azpeitian hil zen.

Luciana Andrea, 1912an Azpeitian.

Seme-alabak:

Jorge, jesulagun ikasle, 1885an Loiolan (Azpeitian).

Felix, jesulagun apaiza, 1905an Orduñan.

María Magdalena, Konzepzioko frantziskanua, 1912an Azpeitian.

Cesáreo María, jesulagun apaiza, 1942.go apirilan Bilbon.

Ignacio María, jesulagun apaiza, 1942.go maiatzan Bilbon.

María Guadalupe, Manaren Lagundikoa, 1944an Orduñan.

Emilia, Bisitazioko (salesa), 1951an Santander-en.

José María, jesulagun apaiza, 1961an Burgos-en.

II. Ignacio de Iberoren curriculum vitae.

Ignacio de Iberoren eta haren seme Franciscoren bide-pausoak zein izan diren argitzeko, batez ere Loiolako obraren fabrika-liburuak miatzen aritu naiz; liburu horiek Loiolako Histori-Arkibuan aurkitzen dira, 2. estante, 3. pluteo (LHA, 2-3) eta haien izenburuak hauek: *Cuentas de Particulares* 1,2 y 3 (PC 1,2 y 3); *Cuentas Borradores* 1,2,3, 4, 5, y 6 (BC 1,2,3,4, 5 y 6); eta *Libro de Fábrica* 1702-1736 (FL).

Labur zera esan daiteke, Ignazioaren bizitza osoro eta bakar Loiolari konsekratua izan zela; Franciscok, berriz, Loiolan bere aritzeko lehen lan-lekua besterik ez zuen aurkitu.

Eta beste ezer baino lehen, Ignazioaren jaiotegunaz, liburuetan behin eta berriz zera esan da (nor izan ote zen lehen esan zuena?), 1684an jaio zela. Horrek ondore batzuk zerkartzan, haren lanaren zentzua, bai hasieran, bai batez ere haren bizitz azkenean, epaitzeko. Horregatik sorpres handia hartu nuen eta dena garbi gelditu zen, Ignazioaren jaiotzaren mendeurrena oker 1984an ospatzeko gaia aztertzen hasi nintzenean, ez 1684an, baina 1694an jaio zela aurkitu nuenean. Eta datu hau izan zen: Loiolan 1730an frantzes zilargin Daniel Gutierrez-ek (Gouthier-eren izen gaztelatuak, sorpres berriak) egindako testamentuan, Ignazio de Ibero lekuko izan zen eta zera aitortu zuen, «hogeita hamasei urte zituela» (LHA, 2-2 *Testamentos*, 9. z.), eta datu hau gero bataioagiriak sendotu egin du.

Ignazio lehenbizi Loiolan lan egiten 1717.go abenduaren 29an agertzen da. Oso esanahiko eguna da, obra-zatirik haundiena, 1704. urtetik -Suzesio Gerragatik errege-juroen errentak, fundaziodiru kopururik haundienak, rekisatu zituztenean- etena gelditu bait zen, eta 1717. urte horretan, hain zuzen ere, Fabrika Liburuak zera konsignatzen du: «Ekainaren lehen egunetik eleizaren obra jarraitzen hasiko da» (FL, 147. f.): hala, Ignazio garrantziko une hartan beste langile askoren artean kontraturiko bat izan zen. Orduan 23 urtebete zituen, eta borra-liburuko hitzek beste langile batekin konkurtso batean ari zela ematen dute: «Asteazkena, 1717, abenduak 29, goizean Ibero ziskua ixteko harria lantzen hasi da (dudarik gabe San Inazioaren irudiarentzat eleizaren ate nagusi gainerako). Eta bere parekoa Sagastume 1718,go urtarrilaren 4an, arratsaldeko 3 1/2 hasi zen lantzen. Baina, harrobian 2 harri horiek argaintzen 8 ofizial aritu ziren» (BC 3, 134 eta 43). Bai Sagastumeri bai Ignaziori lehen lau urte horietan «argin» izena ematen zaie (CP 2, 134 eta 43 f.).

Hasieran ezkongabe agertzen da eta behin edo behin haren «ama» aitatzten da. Baina, egun batean -1720.go ekainaren 9 eta agostuaren 11 bitartean- administradoreak zera anotatzen du, Iberok «ezkondutako egunean eman nizkion 7 er. eta erdi zor ditu», 26 urte zituela ezkondutako egunean (CP 2, 147 f.). Hortik aurrera behin baino gehiagotan aitatu da «haren emaztea» eta geroago haren seme-alabak ere bai: Xavier, Villagarcía de Campos-era jesuitekin ikastera bidaliko duena (CP 3, 57v., 213, 110 eta 111v f.) eta apaiz izango dena; Francisco, geroagoko Arkitekto Maisua eta Loiolako liburuetan Pachi deitu ohi zaiona; eta haren alaba bat Ignacio Xavier Echeverriarekin ezkondua, hura hil ondoren obran haren orde jarraituko duena.

1721. urtetik ez zaio gehiago «argin» deitzen, «zizelkari» baizik (LF, 168. f.) eta dagokion jorna, 5 errial, kobratzen hasten da; gehiago oraindik, ordutik horren estimatzen zuten haren lana, ohiezlako sariak ematen zizkioten, eta esker oneko hitzak ere adieraziz:

Urte hartan bertan: «720 Er. Ignazio de Ibero zizelkariari emanak, esker onez saritzeko (lan egindako egun bakoitzagatik 5 Er. ordainduz gainera), eta hori urte bategatik, 1721.go agostuaren 6tik 1722.go agostuaren 6arte» (FL, 177. f.).

Horrela konsignatu zuten kontu-liburuan garbi, borragaiko lehen formula oraindik ere biziagoa bazen ere; «Ignazio de Iberori, zizelkariari, delako (Agostu hileko) 9an entregatutako 720 Er., urtebete honetan esker on hori zor zaiola kontsideratuz, lan egindako egun bakoitzagatik 5 Er. jorna baizik eramaten ez duelako» (BC 3, 48v f.).

Gauza bera gertatzen da hurrengo bi urteetan 1723 (FL, 190. f.) eta 1724an (FL,

202. f.), baina pixka bat geroago 1724. urte horretan bertan zizelkari bezala lantzen badu ere, obraren Aparejadore izatera igotzen da. Horrela esaten da 1725.go azaro-abenduko kontuetan: «2.150 3/4 Er. Ignacio de Ibero Aparejadorearen jornalak, 307 egun eta 1/4 lan egin duelako, 1724.go azarearen lehen egunetik 1725.go abenduaren 23 arte, 7 Er. eguneko, beste 5 Er. eguneko ordaindu zaionaz gainera denbora horretan, aurreko hilabeteetan kargatuak daudenak» (FL, 210. f.).

Kargu horretan eta 12 Er. jornal horrekin jarraituko du bederatzi urte bitartean 1733.go abendura arte; orduan, Sebastian Lecuna Maisua hiltzean, Iberok jarraitzen dio obraren goren karuan. Baina, ez ditzagun gauzak behar baino lehen ekarri eta, aurrera jarraitu baino lehen, kontsidera dezagun astiro lehen hamasei urte horietan, aurrena argin bezala eta, batez ere gero, zizelkari eta aparejadore bezala, egin zuen lana.

Etenaldiaren ondoren eleiza berriz ere eraikitzen hasi eta Ignacio han 1717an lan egitera sartu zenean, zutarriak eraikiak zeuden; haien gainean bermatu behar zuten eleizaren zortzi arkuek eta atrioko hiruek; eta alde batetik, Carlo Fontanak Erroman Loiolako Kolejiorako marratutako planuak mugagabe samarrak izango zirelako eta, bestetik, arkuen konstrukzioak -zirku perfektua zelako eta, horregatik, kurboak eta abanikoan zabalduak izan behar zutelako- oso problema zaila supositzen zuenez gero, lehen lanak astiro eta zalantzatsu eginak izan ziren. Hasieran Sebastian Arkitektu-Maisu berria «hilabete baino gehiagoan Eleizaren arkuen monteak egiten, moldeak ebakitzen eta arkuak eta beste gauzak marratzen» agertzen da (FL, 146. f.); gero hitzezko kontsultak etorri ziren, hala v.gr. Loiolako lehengo Maisu Martin de Zalduari, sasoi hartan Lequeitioko jesuiten kolejoaren konstrukzioa dirijitzen zuenari, eta Lazaro de Lincera Argin Maisuari (FL, 130. f.), baino bai eta idatzizko kontsultak ere, hala v.gr. Pedro Martínez benediktuari, Burgosko Katedralaren kargu zuenari (*Documentos Históricos de Loyola Señorial y Religiosa*, 52. z, LHA, 1-4); azkenean Superioreek Joaquín de Churrigera Jauna bere ekipoarekin Salamancatik ekartzeko erabakia hartu zuten, eta hark Lecuna eta Zalduarekin kontsultan eta 1720.go apirilaren Loiolan egondako zazpi egunetan kontsultako hiru problemei soluzioa eman zien: arkuak, arkuen ondoko bobedak, eta arkuei doazkien apaingarriak. Harrezkero -Burgostik A. Probintzialak zioenez- «susto gabe lanegingo da» eta obrak aurrera laister samar egin zuen (gauza guzi hau zehatzago jakiteko ikus bedi nere lana *Intervención de Joaquín de Churriguera en la construcción de la Basílica de Loyola R.S.B.A.P.*aren Boletinean, 1977, 441-450 or.).

Zera atera daiteke, Loiolatik urte hauetan harri zizelkari aldiko edo ez hain aldiko asko samar pasa baziren ere, Ignacio de Ibero «Loiolako zizelkaria» izan zela eta, horregatik, dirudienez, hari ezarri behar zaiola eleizaren apaingai haundien eta ederrena: arkuak, lehen gorputzeko erlaizpea, zokalo miresgarria, danborraren leiho eta zutarriak, dorreak eta naranja erdiaren zatirik haundiena.

Sebastián de Lecuna Ermuan (Bizkaian) lan bat dirijitzen ari zela, gaiso erori eta, 1733.go abenduaren 8an hil zen (PC,3 210v f.). Ezbairik gabe, azkar eta ia automatiko jarri zuten haren karguan, eta hurrengo egunetik *Libro de Fabrica-n* Maisuaren izen eta jornalarekin -15 Er,- agertzen da: 748 eta 1/2 Ignacio de Iberori, Fabrika Maisuari, ordainduak, 149 egun eta 1/2 aritu delako han, 1733.go abenduaren 9tik 1735.go urtarrilaren 2.ra arte, gainera eguneko 12 Er. ordaindu zaizkio» (FL, 3101 f.).

Karguan sartu eta handik gutxira oso detaile bitxi bat agertzen da liburuan: «140 Er. eta 1/2; hori kostatzen da Iberori egindako jantziaren azpikoa, botoiak, seda eta haria» (FL, 290. f.). Horren argitsu hasi zen bere misioaren azken aldia; 33 urte luze iraungo

zuen 1766an hil arte. Zein dira hark egindako lan haundienak urte horietan?

Lehenbizi, eleiz-kupularen naranja erdia itxi bere linterna eta orratzarekin gurutzeraino; *Libro de Fabrika-k* honela kontatzen du: «1735.go urte honetako urriaren 25an bermatu eta jarri zen Eleizaren linterna gaineko gurutzea. Gurutze buruan, egiten duen ontzian, Lignum Crucis bat dauka sartua. Baitere, atzen harriaren gainkaldean, berunezko kutxan, erliki hauek jarri ziren», eta erliki asko enumeratzen ditu. Eta hau anotatzen da: «3.830 Er. eleizaren bukaera saritzeko: 3.012 Er. Maisuari, eta gainontzeko 818 ofizial eta peoiei; gainera 201 Er. eman zitzaizen landa-egun bateko bazkaria ordaintzeko» (FL, 307).

Borra-liburuan aurreko hori honela banatzen da: 240 psu eta 1/2 saritzeko emanak: 200 obraren Maisuari; 35, ofizialei, bakoitzari bana; eta 5 eta 1/2, peoiei, bakoitzari erdibana.

7 Er. eta 1/2 ttuntuneroari emanak.

201 Er. kargatzen ditut hemen Kolejioari abonatu zaizkionak landa-egun baterako ofizial eta peoiei emandako ardo» ogi, ahari eta behiagatik, Gurutzea jarri-eguna ospatzeko, eta 40 Er. sartzen dira San Juan egunean eta linterna itxi zen egunean emandako ogi eta ardoagatik» (CB 4, 57v eta 58 f.).

Eleiza, ofizial. handik hiru urtera inauguratu zuten, 1738.go uztailaren 31 ondoren, obrak hasi zirenez geroztik berrogita hamar urtebete justura. Irakur dezagun Loiolako kronistak bazkunaren *Diario-an* egun hori nola kontatzen duen: «Gure Aita Ignazio Santuaren egunean beste urteetan bezala egin zen, eta urte honetan Eleiz berria inauguratu zen; dena labaindu gabe bazegoen ere, kapiletaraino orde bazegoen, eta labaindu gabea dena tapiz-oihalez estali zen eta zola belarrez, eta aldare on bat jarri zen; han eman ziren bi Meza kantatuak eta meza errezatu asko; jauna eman zen, eta aitor-leku guziak jarri ziren han; eta hala dena egoki eta behar bezala egin zen». (*Diario*, 48.f.,LHA,I-5).

Ikusten denez, oraindik ere eleiza egiteko asko samar gelditzen zen, zehatz, aldare eta pulpitoak. Oraindik ere, konstrukzioaren eskubi egoan atealdetik atriora zihoan pasua estaltzeko zegoen.

Eleiz atze erdiko gorputz-zati haundia erdi egina besterik ez zegoen.

Eta ezker ego osoa egin gabe zegoen. Den horri eman behar izan zion aurpegi Ignacio de Iberok. Haren heriotzan hogeita zortzi urte geroago -III Carlos Erregeak jesuitak expulstatu baino hiru urte lehenago- zazpi aldareetako atzen laurak egin gabe egongo ziren, eta konstrukzioaren ezker ego osoaren erditik gorakoa ere bai.

Garai honetan Iberoren lanik argiena, erretaula egile bezala egin zuen, aldare nagusiaren eta alboko lehen aldare bien marra eta konstrukzioan. Irargitzeko A. Probintzialen aitormena ekartzea nahikoa izango da. Izan ere, azken urteetan, edo urte batzuk zituelako, edo lana berez zaila zelako, Iberok egiten zuena diskusiopean zegoen, eta hala ere Probintzialak, bazkunari eta Loiolako obrari egindako kanon-bisiten oroit-agirietan, haren alde atera ziren eta hari eutsi zioten azken arte.

1757an A. *Salvador Osoriok* hau idazten du: «Eleizaren planta eta ejekuzioan, pulpitoak gogoan hartu ez zirenez gero, obraren ederrari dagozkionak erantsi beharrak daude: aldare nagusiaren hurrengo bi zutarrietan janiko dira, guzian Ibero Maisuak marratuko litukeen bezalakoak izango dira, eta batere atzeratu gabe egingo dira, aldare nagusiaren agarria egin ondoren, eta txapelak ahotsa bidaltzeko moduan jar daitezela». («*Visitas*» *liburua*, 81. or., LHA, 1-5).

Eta beherago: «Experientziak zera erakutsi du, Ibero maisua oso artetsua dela

erretaulak ideatzeko, Aldare Nagusian ikusten den bezala, eta haren ereduak askoz ere egokiagoak, Erromatik asko kostatu eta onik batere gabe datozenak baino. Horregatik zera agintzen dut, ez dadila eredurik enkargatu Erromara Eleizako gainontzeko aldareetarako, baina lehenbaitlehen Ibero Maisuak marra ditzala, eta haren iritziari osoro jarraituko zaio, erretaula bakoitzaren bai marran, bai moduan, bai ze harri mota eta apaingai jarri behar den...» (Ib. 82.or.).

1759an A. *Eugenio Colmenar es-ik* zera agintzen du: «Erretaulak egitean ejekuta bedi zehatz Ibero Maisuak eta italiarrak (delako Volpini, Loiolan gutxi irauten zuenak) batera erbakitzen dutena». (Ib. 85. or.).

Eta 1765an, Iberok ordurako 71 urtebete izan eta haren heriotzarako ia urtebete besterik falta ez denean, A. Francisco Xavier de Idiáquez haundiak bere oroit-agirian zera enkargatzen du:

»9. Egiteko dauden ofizinei begira, Erretoreari nere eskuz firmatutako paper bat uzten diot eta beste antzeko bat Ibero Maisuari... (Ib. 91.or.).

10. A. Erretoreari enkargu hau uzten diot, zaindu dezala obra Ibero Maisuari iruditzen zaionaz bestera ez egiteko. Eta langile-zainek ere uler dezatela ofizialei lana eragiteko zainak direla, eta ez Ibero Maisuarenak, obra dirijitzeko.

11. Oso bidezko gauza da, Kolejio-kontsultaren iritziaren arauera -eta nik iritzi hori onartzen dut-, Ibero Maisuari journal osoa ematea, ausentziren bat egingo lukeen egunetan ere. Legez agertu behar zaio esker on hori horrenbeste urtetan lan asko eta ondo egin duelako.

12. Azter beza Erretoreak eta erabaki beza, Ibero Maisuarekin batera, ea komeni izango den eta akaso utilago ofizialek lan hobeto egin dezaten, haiei Gurutzetik Gurutzera (Maiatzeko 3tik irailaren 14ra) arratsaldetan orduerdi bateko deskantsua ematea». (Ib. 92. or.).

Ignacio Ibero 1766.go ekainaren 30an hil zen, Arrotz-Etxe zaharrean, han zeukan toki bat alkilatua Santutegiko baratzaren lurretan. Horrela konsignatu zuten *Rentas liburuan*, 142. f. (LHA, 2-2). Etxe eta alkilatu horretaz geroago hitzegingo dugu.

III. Argibide batzuk

Aurreko bi zati horietan esanarekin Ignacio de Iberoren Bizitz eta lanaren puntu batzuk, orain arte dokumentuak ezagutzen ez zirelako, oker esaten zirenak, argituak gelditu dira.

1. Haren jaiotegunaz hitzegin dugu gorago: 1694. urtea ukaezin gelditzen da, abenduaren 5ean bataiatu zuten eta, horregatik, 1766.go ekainaren 30an hiltzean, 71 urtebete eta erdi zituen.

2. Zeredozer fantasiaturik, Ibero, Aitasantuaren arkitektu Carlo Fontanarekin batean lan egiten iruditu da Loiolako obran. Ez da batere egia. Carlo Fontana 1638.go apirilaren 22an jaio zen, Loiolako planuak Erroman 1688an obra hasi baino lehen egin zituen, ez zen behin ere Loiolara etorri, ez planuak egitera ez obra dirijitzera, eta 1714.go otsailaren 6an hil zen, Ignacio Loiolan bere argin-bidea hasi baino hiru urte lehenago.

3. Bai eta fantasiatu da ere zeredozer Ibero Churrigerarekin batean kontsulta ospetsu hartan eskuartzen iruditurik eta are Churrigerak dirijitzen zuela eleizaren kupula larri ixten. Joan Churrigera Jaunak, kontsulta, Zaldúa eta Lecuna Maisuekin bakarrik egin zuen 1720.go apirilan; orduan Ibero argin besterik ez zen. Kontsulta ez zen kupulaz

izan, arkuez eta arkuen ondoko puntuez baizik; hura Loiolan zazpi egun bakarrik egon zen, eta 1724an hil zen. Kupula ixteko lana ere ez zen pintatzen den bezain zaila izango; Loiolako liburuetan, behintzat, ez da horrelakorik agertzen.

IV. Ignacio de Iberoren lan jakin batzuk

Batek zera nahiko luke, fabrikaren kontu-liburuek lanak eta izenak zehatzago adieraz zitzatela; baina, zer egingo da. Ala ere, ondorengo datu hauek gutxi eta txikiak badira ere, ez ditugu argiratu gabe utzi nahi, eta Loiolaren eskaintz apala daitezela, Ibero sakonago ikertuko duten ikerleentzat.

Loiolan bertan:

1. 29-XII-1717. «Ziskua ixteko harria» (Cb 3, 37v f.).
2. Maisu denez gero, maiz lan egin Santutegiaren baserrietan (v.gr.: CB 3, 35. f.).
3. 1735. Gure Aita Santuaren harri bat argaindu eta eskailerarako lau leoi (CP 3, 57. f.).
4. 1736. 4 harri atera irudiak egiteko eta 2 leoiak egiteko (Ib.).
5. 1757. Eleizako pulpituaren proiektuak, eta lehenago aldare nagusiarena (*Visitas*, 1757. urtea).
6. 1759. Janlekuko pulpituaren marra» (CB 6, 1759.go ekainak 23). Beste erretaulen marrak (*Visitas*, 1757 eta 1759 urteak).

Loiolatik at:

1. 1734. Azpeitiako bide berriaren marra (CP3, 34v f.).
2. 1734. Azkoitiako (Clara Sta.) erretaula bat (Ib.). (Cfr. María Isabel Astiazarain, *Sociedad de Estudios Vascos*, 1 Kuaderno, 1982, 174. ss).
3. 1735. Valladolideko San Ignaciorako bataio-arri txiki bat (CB 3, 35. f.).
4. 1736. Donostiako Hospital Berri eta Erruki etxearentzat marra (BC 1, *Quenta con Claesens*, 2r. f.) (BC 3, 35. f. 35r eta 35v).
5. 1738. Oinatiko Kolejiorako plantak, altzatua eta orrazea (CP 3, 57v. f.).
6. 1741. Zestuako armarrak (CP3, 111v. f.).

V. Francisco de Iberoren curriculum vitae

Loiolako liburuetan Francisco de Iberori buruz agertzen den lehen datua oso bitxia da. 1740. urte azken aldera gaude, Franciscok 15 urte ditu. Eta horra, liburuaren ezker ertzean (CB -4, 120. f.), izenburu eta laburpen bezala, hau anotatzen da: «Sakristia-mutil» (Loiolan orduan garbitzeko eta Etxe Santuko mezak laguntzeko mutil batzuk zeuden), eta orri barruan zera zehazten da: «Item tripe beltzeko (balusaren antzeko oihala) galtza batzugatik 30 Er. Pachi Iberorentzat».

1744-1747 urteetan *Borradores* liburuan A. Erretore eta langileen arteko mezulari bezala agertzen da, v. g.: jornalak ordaintzeko, eta Loiolaren eta kanpoko beste obren arteko v. g.: baseleiz, gurutze-toki eta Errezil arteko mezulari, material batzuek, burni-haria eta berun-hautsa esate baterako haiei eskuratzeko.

Baina 1746. urtetik aurrera Loiolako obran jornaleko langile bezala zenbatzen da. Eta hark jasotzen zuen jornalaz, ohar batzuk egin behar dira:

1^a Pachiren jornaleta beti beste guzien jornaletik aparte agertzen dela, eta horrek begirune berezia esan nahi du (Bere aitaren semea zelako?).

2^a Hasieratik dagoeneko eta lehen hiru urte bitartean haren jornaleta 6 errialekoa da, argin-mutilena eta are zizelkari arruntena baino haundiagoa (Lanerako besteak baino gehiago edo iaioago zela agertzen ote zuen?)

3^a 1749tik 1752ra arte haren jornaleta azkar igotzen dela: 1749an, 7 Er.; 1750an, 7 1/2 Er.; 1751an, 8 Er.; 1752an, 10 Er., eta jornaleta horretan (oraindik ere Aparejadorearen jornaleta -12 Er.-baino txikiagoan) irauko du bere azken urte arte, 1755. arte, Loiolako obran. (Bere aitaren izen onak zer ikusirik ba ote zuen igoera horretan? Haren iaioa eta lana haundiagoa ote zen? Besteak baino gehiago exijitzen eta behartzen ote zuen? Azkeneko urteetan zera dirudi, haren aspirazioek goia jo dutela eta ez daukala goi hori hausteko itxaropenik eta horregatik Loiolatik at beste bide bat bilatzeko erabakia hartzen duela).

4^a Egiaz Pachik Loiolan egiten duen bidean gauza jakingarri bat gertatzen da: lehenengo urteetan obran egunero egiten duela lan, eta gero hirutik behin eta gutxiagoan, 1756an haren izena kontu-liburutik izkutatu arte. Berak 1766an idatzitako -eta beherago jarriko dudana- eskutitz batean, zera esango digu: «Bada 15 urte nere sendi eta herritik at nabilela». Zer-nola batzuek pixkabat exajera eta numerua borobildu egiten duela onarturik ere, 1751tik zera ikusten da, Francisco Loiolatik at gehiago zegoela Loiolan baino, eta jornaleta egun haietatik, hain zuzen ere, ohiezla igotzeak zera esanahiko du, ez Franciscoren exigentzia bakarrik, baina bai eta Aiten ahalegina ere hari Loiolan eusteko.

VI. Francisco de Iberoren eskutitz batzuk

Urte askotan Loiolako Errege-Kolejoaren administradore izandako A. Francisco Anduagari eskutitz asko idatzi zioten eta eskutitz sorta hori Arkibuan aurkitzen da. Horien artean Francisco de Iberoren interesko karta batzuk agertu dira (LHA, 2-3), eta hemen aurkeztu nahi ditut. Eta gainera beste bat erantsiko dut Temporalidades liburuan kopiatua aurkitzen dena: *Diligencias practicadas en la extrañación de la Compañía de Jesús* Carlos III.ak 1767an (LHA, 2-5, 176. f.).

1^a. Lehenak bi zati ditu, eta bietan 1761an Iberori, Anduagak eskuartzen zuela, egindako diruprestamuaz ari da.

Gasteizko Juan Crisostomo de Porres Aitak, Anai Anduagari zera eskatzen dio «gure Maisu eta Lagun Francisco de Iberori entrega diezazkiola -Porres-en kontura-belloiezko seirehun errial. Iberok ertzean zera erasten du: «Hartu nituen belloiezko seirehun errialak. Franco, de Ibero».

Eskutitz horren paperean bertan, idatz gabeko leku zurian, Iberok beste egun batean A. Anduagarentzat txartel hau idazten du: «Ene Prokuradore Aita: Kolejio honetara etorri naizenean, zera jakin erazi didate, berori Echarreta aldera irten zela (Echarreta hau Loiola ondoko baserria da, Santutegiarena zen), eta berorrekin gaur ikusteko aukerarik ere izan ez dudalako, hemen errege hau jarri beharra daukat; eta zera da, Gasteizen ehun pesuko diruaren beharra izan dut eta Antonio Bueno Jaunari (Gasteizen jesuiten Prokuradoreari) kendu dizkiot, berorri beste hainbeste ematekotan, eta estimatuko dut segituan abonatzen badizkio eta nere kontuan kargatzen baditu. Beti berorrena Franco, de Ibero».

2^a eta 3^a. Bigarren eta hirugarren eskutitzak aitaren heriotzaz ari dira (aita 1766. go ekainaren 30an hil zen) eta haren ondoren Loiolako obraren Maisu izateko duen

pretentsioa azaltzen du; haren ezkon-anaia Xavier de Echeverriak kargu hori bera iritsi nahi zuen.

2^a ekainaren 20koa da: «Nere jaun eta jabe: nere aita azkeneko gaitzetik sendatzen ziholako oso pozik aurkitzen nintzenean, oso berri triste eta negargarriak jaso ditut, ikartzeko halakoak, eta badirudi ez dela haiei aurka egiteko gauza izango. Berri txar horiek, hatsekabe eta sentimendu haundiz, berorri hau esatera eragiten didate, hura gabea, Errege-Kolejio horretan Maisu bezala lan egiteko gogoia sentitzen dudala, nere Aitak izan duen jornal berarekin (A. Probintzialak azken bisitan hari begira jarritako klausulak gordetzen zaizkidala), nere jaiotzak sortzen didan gogoak, joerak eta maitasunak obra guzi horiek ondo bukatuak ikustera eragiten bai dit, eta arrazoi horretxegatik eta gainera nere sendi eta herritik at nabilela hamabost urte badelako, gehienbat nere herrira erretiratzeko gogoarekin aurkitzen naiz; horregatik zera eskatzen diot bizi berorri, baiezko erantzuna izango litzatekeela irudituko balitzai, jakin erazi diezaiola hau A. Erretoreari, baina inolaz ere ez, A. Erretorearen eta gainontzeko Aiten asmoak nere ezkon-anaia Xavier de Echeverria-ren aldekoak badira, hark Aita gabea kargua har dezan, nere gogo eta asmoak ez bai dira hari kalterik batere egitera zuzentzen, anaia bezala laguntzera baizik.

Osasun onez badago berori poztuko naiz eta Jaunak bere zorionean gorde dezala berori urte askotan.

Donostian, ekainak 20, 1766.

Zure morroi honek zure eskuari muin.

Franco de Ibero.

Nere Aita Francisco de Anduaga.»

3^a agostuko 11koa da: «Ene Jauna: Nere ezkon-anai Echeverriak joandako hileko 30ko eskutitzan, Errege-Kolejio horretako nere Aita defuntuaren ondorengo Obren Maisu gelditzeko suerte ona erori zaiola jakin erazten dit, eta berri hori ematen didanean, ez dut dudarik egiten segura edukiko duenik, baina hala ere, konfiantzan berorengana jotzen dut eta zera eskatzen diot, esan diezadala faborez gauza hori zertan dagoen, izan ere A. Probintzial agurgarriak, joandako hilaren 8an Montforten idatzitako eskutitzan, nere Aita defuntua hil baino egun batzuk lehenago idatzi nionari erantzutean, oso esker ona agertzen dit nik egindako pretentsioagatik eta zera esaten dit (bere aldetik behintzat) ni edo Echeverría geldituko garela delako Aita defuntuaren ondorengo, eta Kolejio horretatik informatu arte ez zela ezer mugituko iruditzen zitzaidanez gero, berorren kartagatik zera ikusten bai nuen, hura Kolejio horrekin fiatzen dela, baino A. Probintzialagana jo behar zela, Errege-Kolejio horretako bisitan nere Aitari egindako mesedeak ni ere hartu behar ninduen ez erabakitzeke; horregatik, nere Aita hil eta handik egun gutxi barrara berriz idatzi nion A. Probintzialari eta berorren karta bidaltzen nion, eta zera esaten, ez nuela beste inor baino gehiago batere interesatu nahi, eta erabaki zezala Hilean hiru edo lau egun libre nituela edo hori gabe, obra horietan Aitaren ondorengo sartu ahal izango al nintzen ala ez, eta erantzunaren zai gelditzen nintzela, berorri eta, berorren bidez, A. Erretoreari jakin arazteko, baina ez dut erantzun hori jaso, honez gero etorri behar bazuen ere; hortik zera pentsatzen dut, gomendazio batzuen bidez (nik ez bai diot batere egin) A. Probintziala Echeverriaren aldera makurtu dela, bati dira asko kostako ez zaizkion gomendazioei kaso egiteko beste ardurarik gabe, hala ibili bait ziren batzuek tarteko lana egiten, Aitak bere nahi osoaren aurka Echeverría ezkondu ondoren bere etxean har zezan, eta ez da mirestekoa orain horren urrutitik

proiektutakoa lortu badute, nere Aitak eduki edo eduki ahal izan duen ia dena gastatu ondoren, eta hala ere, ez ziren faltako serbitzu haundiaren lore sorta konpositu dutenak. Buka dezagun, agindu beza berorrek serbitu nahi bait dut, eta gure Jainkoak gorde dezala berori urte askotan. Donostia, agostuak 11, 1766.

(Ertzean hau erasten du). Ez nuke gauza hauez munduak par egiterik nahi, eta horregatik zera eskatzen diot berorri, ez dezala karta honek dakarrena zabaldu, A. Erretoreari eta berorren konfiantzako beste Aitei baizik.

Zure eskuari muin zure morroi leial honek

Franco de Ibero

Nere Aita Franco de Anduaga.»

Eskutitz hauen lekturak kontsiderazio bat baino gehiago sortzen du:

Lehena, Francisco eta jesuiten arteko harremanak oso onak eta oso konfiantzakoak zirela; hala ere, ez ziren nahikoak izan haren gogoak -Loiolan bere aitaren ondorengo izateko-onartzeko, eta Echeverria baino nahiago izateko; ba ote zegoen zeredozer tartean?

Bigarrena, Franciscok Loiola alderako adierazten duen gogo onak seme galduaren konbertsio-antza duela, galdu zuena min duenaren eta Loiolatik at aurkitu duen zoriarekin oso pozik aurkitzen ez denaren itxura.

Hirugarrena, Franciscok ez duela diru-interesa izkutatzen, lehen unetik ez bai du Maisuak jaso ohi duen jorrala bakarrik eskatzen, baina bai eta A. Probintzialak haren aitari, urte askotan lan egin zuelako, emandako ohiezlako irabaziak ere, Franciscok horretarako artean meriturik izan ez-eta.

Eta laugarrena, hasieran alderantzia esaten bada ere, gero oso garbi azaltzen da Franciscoren eta bere ezkon-anai Echeverriaren artean zegoen lehia, ez oraingoa batikbat, Echeverría ezkontzean hau nahiago izan bait zuen aitak bere etxean harekin bizitzeko; horregatik -susmariegiak izan nahi gabe- batek zera pentsatzen du: Aitak ere ba ote zuen bere seme Franciscoren aurka zerbait? eta hori, noiztik?

4^a Temporalidades liburutik kopiatutako eskutitza 1767.go uztailaren 30koa da eta han bi diru kopuru reklamaten ditu -bata berea eta bestea bere aita defuntuarena-, Loiolako Kolejoan aurkitutako diru guzien expolioan, Gipuzkoako Korrejidoreak Erregearen izenean konfiskatu eta inbentariatu zituela aurkitzen baita. Honela dio:

»Eskutitz honen bidez, nik, Francisco de Iberok, (Azpeitia) herri honetako auzoak, zera Diot, Loiolako Errege-Kolejoan, depositu gisan, nereak bakarrik ziren belloiezko hamabost mila errial neuzkala, eta, haiek, entzun dudanez, orain dela gutxi egindako Errege-Kolejio horren efektuen inbentarioan sartu direla. Eta berebat, Ignacio de Ibero nere Aita defuntuak, Errege-Kolejio horren Maisu haundiak, sueldo edo jornal kunpluetan hamazapi mila eta hirurehun eta larogeita bi Er, eta hiru mr. zeuzkala kontu ajustatuan bere alde, Errege-Kolejio horren liburuetan agertzen denez, han jartzen duenari nagokio. Horregatik. nerez eta nere anai Xabier Ibero apaizak eta Xavier Ignacio de Echeverría nere ezkon-anaiak, eskubide-agiri honetan eta horren indarpean egin eta ejekutako litzatekeena ontzat edukiko dutela forman hitz eta kaudimen eman ondoren: Miguel Antonio Sasiaini, Gipuzkoa Probintzi honetako Korrejimenduko Prokuradoreari, legez exijitzen eta behar den eskubide osoa eta berezia ematen diot, nere izenean eta nere orde eta esandako nere anai eta ezkon-anaiaren orde, zera eska dezan, entregatzeko neri nere hamabost mila Errialak, bai

eta nere Aitaren ondareari dagozkion belloiezko hamazapzi mila eta hirurehun eta larogeita bi Er. eta hiru marabediak ere.»

Protokolo-formulez beteriko orri bat dator ondoren, Sasian-i eskubide emanaz, eta azkenean bere firma signatzen du «Franco, de Ibero. Nere aurrean, Joseph de Ansotegui (idazkaria)».

Ondoren Sasiain-en ejekuzioa dator, suma bakoitzagatik berezi eske formal eta duplea egiten du. Bigarren diruaren esketik -Franciscoren diruari zegokionetik hain zuzen- interesko parrafo bat atera nahi dugu; Loiolako Kolejioan bere dirua ze kondiziotan -oso eskuzabal benetan- depositatu zuen azaltzen du:

»Zera diot, orain dela urte batzuk nere partea Loiolako Errege-Kolejioari eta bere Prokuradoreari, Belloiezko hamabost mila errial depositu gisan, kondizio eta egoera honetan, entregatu nizkiola, diru hura Kolejioak Seminarioko obretan (konstrukzioaren ezker egoan) lanean ari ziren ofizialei ordaintzeko edo beste beharrezko gastuk estaltzeko behar izaten zuen bakoitzean, erabil ahal zezan, eta esandakorako behar ez zuenean, deposituan eduki eta kontserbatu behar zezala, nere partea eskatu arte, eta hori hala agertzen da Kolejio horren liburuetako asientotan, hori ulertzen da nere partea han aurkitzen dela deposituan eta neri dagokidan partearen oharra daramala» (173. f.).

Eta halaxe zen izan ere, Tenporalidades liburuan *Diligencias Practicadas...*, Erretorearen gelan, arrapazka, lehen asalto- eta apresamentuegunean, apirilaren 3an, egindako lehen azter-inbentarioan (17. f.), gauza hauek aurkitzen direla esaten da:

»Beste boltsan urrezko hamabost mila eta bederatzirehun eta berrogita hamar Errial eta hamabi marabedi; Erretore eta Prokuradoreak Ignacio de Ibero defuntuaren ondareari zegozkiola aseguruatu zuten eta deposituan aurkitzen zirela, eta boltsa hartan bertan paper idatzi bat aurkitu zen, eta ohar hau zekarren, dirua esandako ondarearena zela...

Beste boltsan urretan belloiezko hamabost mila Errial aurkitu ziren eta paper bat; paperak zera esaten zuen, diru hura Francisco de Iberorena zela, eta Aita haiek deposituan zeukatela aseguruatu zuten».

Bigarren azter-inbentarioan, bi egun geroago, 5aren arratsaldean, astiroago egindakoan (46v -48r f.), diru hori bera agertzen da, sos motak berezten direla; haiek ere -Kolejioko gainontzeko diruarekin- Juan Bta. Landa idazkariak Azpeitiara eraman zituen eta bere etxean gorde.

Azkenik, hirugarren zenbaketan, Azpeitian, Korrejidore-etxean, apirilaren 19an egindakoan, diru bera agertzen da berriz; haiek pesatu eta dagokion deskontua egin ondoren, honetara gutxitu ziren: Ignazioarena, belloiezko 15.939 Er. eta 22 marabedira, eta Franciscorena 14.981 Er. eta 22 marabedira.

Zera supos daiteke, Franciscoren izenean Sasiainek egindako exigentzia adituko zutela.

VII. «Iberoren Etxea»

Ignacio Iberok Loiolan lan egin zuen bitartean zein etxetan bizi zen, batez ere »*Rentas*» *liburuak* informatzen digu, labur bada ere, bere 142. orrian (LHA, 2-2) eta informazio hori *Cuentas Particulares* 3 liburuan pixka bat anpliatu egiten da.

Ostatu edo Arrotz-Etxe Zaharrea bizi izan zen. Arrotz-Etxe berria XVIII. gizaldi

hasieran etxeurreko plazan ekialdean eraki zuten, horregatik deitzen zioten hari Zaharra. Etxea baratzan Kolejio ondoan eta haren egoaldean zegoen.

Kontserbatzen dugun »*Rentas*» *liburua* 1743. urtean hasten da eta hark hau esaten du: «Ygnacio de Iberok, Errege-Kolejio honetako Maisuak... goiko pisua -bi gela eta goian teilatupean dagoen saloia ez beste dena- okupatzen du, eta hauek gainontzeko behekoarekin Lizasso de Egaña Antoniok okupatzen ditu; honek 12 dukaduko errenta ordaintzen du eta Ignaciok 6 dukado urtean; guzira, 18 dukado», 1757. urte hasieran liburu berak hau esango digu: «Hemendik aurrera Ybero Maisuak 2 dukado gehiago ordainduko ditu, hortan gelditu da, eta Egañak urtean 3 dukado gehiago, eta guzira 8 dukado Yberok eta 15 Egañak, obrak gehitu eta gela berriak egin zaizkielako».

Halaxe, Ignacio etxe horretan 1718. go martxoaren I. en egunetik (PC 2, 134. f.) 1725. go apiril azken arte bizi izan zen, «orduak irten zen handik» (PC 3, 25v f.), ez da zergatik ageri. Aldi horretan apopilo bezala -Kolejioaren kontura- zizelkari batzuk eta beste bat ere eduki zituen. Eta 1733. go maiatzaren I. en egunetik berriz ere han bizitzera etorri zen (PC 3, 33. f.) 1766. go ekainaren 30an hil arte; gertatu honen fetxa »*Rentas*» *liburuak* konsignatzen du (142. f.).

Lehen ere esan digu Franciscok, Xavier Echeverria Ignacioren alaba batekin ezkondu zenez geroztik -ez dakigu noiz ezkondu zen-, suhiak aitagarrebaren etxean jartzeko suertea izan zuela; eta hau hiltzean, Echeverriak - »*Rentas*» *liburuak* dioenez- han jarraitu zuen bizitzen eta errenta ordaintzen, Kolejioari lehenbizi eta Temporalidades-i gero (Ib.).

Francisco de Iberoren etxeaz, José de Arteche Jaunak bere artikuloan *La familia de Ibero (La Voz de España, 23-XI-1958)* esaten dituen datuak bakarrik ezagutzen ditut: «Francisco de Iberok, bere izena gorenean zegoenean, bizitzeko Zulaica-ren etxea aukeratu zuela; etxe hau Azpeitia herriko Enparan kalean zegoen, eta hari gero «Iberoneko-echia» deitu zitzaion. Referentzi hau nere lagun on José Ignacio Alberdi Jaunari eskertzen diot. Enparan kaleko etxe horretan, Enparan zubi ondoan, 20. zenbakian, XV. gizaldi azken aldean eta ia XVI. osoan Konzepzioko Frantziskotar Amen fundazioa hasi zen, eta, etxeko azken andrearen -Luciana de Orendain, Ignacio de Iberoren alargunaren- borondatez, 1912an hura hil ondoren, Ema-erlijiosuek zuzendutako nesken kolejio bat jarri zen, eta azken aldi hauetan lurreratu eta bizitzeko bloke haundi bat egin dute. San Inazioren oroitza batekin bukatzeko, hau esango dut, toki horretan, hain zuzen ere, aktuatu zuela Loiolako Inigok, 1535an Paristik etorri zenean, lekuko eta lehen signatzaile bezala Parrokiak bere Patroi Loiolako Jaunarekin eta Konzepziokoek egindako «akorduan».

Loiolako San Inazioaren Basilikaren lektura

José Ramón Eguillor, S.I.

Loiolako basilikaren San Inazioaren zentzua ia oso osorik ateaurrean daukagu:

Zisku nagusian, eleizara sartzeko ate gainean, hantxe dago San Inazio, liturji-apaiz ornamentuez jantzia. Haren ondoan, beste lau Santuak -San Frantzisko Xabier, San Francisco de Borja, San Estanislao de Kostka eta San Luis Gonzaga- heuren ziskueta, denak Arabako Salbaterrako harri zurian landuak. Jesusen lagundiko lehen bost Santuak dira eta Fundadorea eta haren obra iruditzen dute.

San Inazioaren albo bietan, bi serafin txiki eta polit, tinpano hautsi baten kondar gainean eserita; horiek jarri zizkieten aztertze Santanderko Miguel del Mazo irudigileari, Santuen irudiak egiten ari zen Italiako Cayetano Pace hiltzean, haren ondorengo izan nahi zuenari.

Santuaren ezker aldekoak bere eskuez arros-koroe bati eusten dio, eta koroe erdian, Jesus izenaren anagrama: IHS dago idatzia.

Haren eskubi aldekoak bere eskuez ere zuzi biztu bat jasotzen du, eta horrek hiru zentzu, antzekoak bada ere, ezberdin eduki ditzake. Lehena zera, batzutan Ignazio izenarekin jokatu dela, latineko -ignis, su- hitzetik baletor eta su biztua esan nahiko balu bezala. Bigarrena zera, San Ignazio, sendatzen zihoan bitartean eta Kristoren Bizitza eta aren Santuena irakurtzean, Jesusen maitasunaz biztu zela. Eta hirugarrena zera, San Ignaziok Jesusen programa: *sua ekartzera etorri naiz lurrera, eta zer nahiko dut erretzea baizik*, bere programa egin zuela.

Hiru zentzu horiek batera datoz, hau da, San Inaziok Jesukristo guziz maite zuela, haren salbatzeko proiektua bere programa egin zuela eta, lan bakarrik ez egiteko eta efikazago eta zabalago aritzeko, gorputz bat osatu zuela, eta hari bere espiritua sartu ziola. Eta den hori *Jainkoaren aintza haundienerako*; ikur-hitz hori irakurtzen da, matelhaundi batek, Santuaren oinetan, bere sorbalda gainean daukan eta Santuak bere eskuez eusten dion liburuan.

Elementu hauek berriz agertzen dira eleiz barruan eta haunditu edo osatu egiten dira. Sar gaitezen barrara, eta jar ditzagun gure begiak batez ere aldare nagusian; Ignacio de Ibero Maisuak diseinatu eta dirijitu zuen; han daude har-nabar aberatsak -Carrarako zuriak, Genovako urdinak eta Loiola inguruko mendietako gorriak-, eta haren oso ondo egindako inkrustazioen ederrean eta haien marren politean gehiegi gelditu gabe, irakur dezagun bere Inazioaren espirtu-zentzua:

Goian, erdian, IHS urreztu bat, San Inazioaren pentsamentua adierazten.

Haren azpian, zisku nagusian, San Inazioaren zilarrezko irudi haundia, bere barroko-mugimenduaren dinamismo osoarekin, bihurtu egiten da, bere eskubiko hatz erakusleak, bere ezkerak eusten dion libura irikian irakurtzen den *Ad Maiorem Dei Gloriam* seinalatzeko; Jainkoaren aintza hori aldare osoaren gorenean adierazten da marmol zuriz egindako teofania bikain eta ederrean:

Jainko Aita odeien gainean doa: ezker eskuan agindu-makil bat darama eta mundua sortzen du, eta haren eskuinak bere Semea seinalatzen du; Semea odei gainean eserita dago eta haren ezkerak gurutzeari eusten dio; bien artean Espiritu Santua uso itxuran.

Atzean, saihetsetan eta tarteka, odei-zati tartean buru txiki egotuez insinuatua, aingeru-gorte osoa zabaltzen da, aintzindari zera ejertzituko bi printze doazkie:

eskuinean Mikel Santua suzko ezpatakin, eta ezkerrean Gabriel Santua bere eskuetan gaztelu bat daramala, biak aulki txikietan heuren sapaiekin.

Lehen lerroan, aldare-erlatzetan eseriak, lau aingeru musiko heuren arrabitekin. Eta neurri haundiagoko apaingarri hutsezko figurak bezala, oraindik ere aurrerago eta arku hautsi baten pusketan etzanak, bi Birtute: Sinismena eskuan Eukaristia duela, eta Itxaropena aingura batekin.

San Inazioaren Kristo-Zentzua aldare behe aldean gehiago adierazten da:

Lehenbizi, bankoan eta IHS anagrama txikian berriz jarriaren ondoan, Jesusen Bihotz bakar (exentu) eta txiki bat ere. Jesukristogan Bihotzak maitasuna guziz sakon adierazten du, eta maitasun horretara iritsi nahi du eta eraman nahi gaitu San Inaziok bere Ejertizioetan. Gainera, ez da ahaztu behar aldare hau 1750. urte inguruan egiten zela eta orduan Loiolako bazkun kide bat Agustín de Cardaveraz zela, Jesusen Bihotzaren lehen ikusle eta haren kultuaren lehen apostolu Espainan; dudarik gabe haren influjoari egotzi behar zaizkio Loiolan aurkitzen ditugun Bihotz horren irudi batzuk.

Eta Jesusen eta haren Bihotzaren ondoan, ez zuen ez-egon behar San Inazioaren espiritualdanean Ama Birjinak, haren bizitzan Loiolan bihurtu zenetik egon zen bezala. Horregatik, Jesusen izen eta Bihotzaren parean, bankoaren beste aldean, Mariaren izenaren anagrama eta Mariaren Bihotza aurkitzen ditugu. Eta gainera -sagrario gaineko eleizatxo Ama Birjinaren irudi txiki batentzat egin zela kontuan hartu gabe- ezker alboko bigarren aldarean orain dela gutxi «Virgen del Patrocinio»ren irudi ausart eta batean printzela, bere makil-ikurrarekin eskuan, Luis Salvador Carmonaren lana.

Eta -aldare nagusira itzulirik- Ama Birjina ez dago bakarrik, aldarearen alboko ziskuetan beste bi irudi aurkitzen bai dira: eskuinean, San Jose, haren senarra, eta ezkerrean San Joakin, haren aita. Irudi bi hauek Deban 1725an abagune on bat egokitu zelako adkiritu ziren, baina gero oso ondo etorri ziren Mariaren trilojia hori osatzeko.

Badago Loiolako basilikan haren San Inazioaren zentzua osatzeko beste adierazgai beharrezko bat: Eleiz-zentzua da, hau da, San Inaziok Kristorekin batean Jainkoaren Aintzarik Haundiena bilatzean, bere burua eta bere Lagundia Eleiza serbitzeko jarri zituen. Ikuslearentzat aspektu hau urruti eta izkutu samar gelditzen da, eta horregatik hain zuzen agertu eta explikatu beharra dago:

Eleizaren bigarren gorputz edo danborra, urruti samar eta lehen barandak galerazten duelako ikusten ez dena, zirku-zokalo haundi batez hasten da. Aldare nagusiaren ondoren, eleizaren barroko-dekorazio osoaren gauzik onena eta aberatsena da, eta guda gaiak dakartza (guda-oihalak, turutak, kañoiak, panopliak...), barrokoari oso ondo doazkonak eta hemen San Inazioaren gudaldira, lehen mundukora, gero espiritukora ondo ekarritakoak. Horregatik, koro gain aldean Inigo soldaduaren busto bat dago, eta aldare nagusi gainean Inazio Santuaren izaera ondo agertzen duen beste busto eder bat.

Honek bere eskuez marmolezko oihal bati eusten dio; oihal horretan IHS izena urrez idatzia dago: zera iruditzen du -sinbolismoarekin jarraituz- San Inazio Jesusen Lagundiarekin Eleiza serbitzen, bai bakean bai gudan. Eleiza, bakean, Santuaren eskuin aldean zerak iruditzen du: gurutzeak, kustodiak, kaliz eta intzentsu-ontzi batek; eta bere ezkerrean, guda, sinbolo hauez adierazten da: San Inaziok eusten dion IHS izenetik su antzeko tximista bat irtetzen da eta Lutero da-goena agarria lurrera botatzen du (Lutero fraile jantzia dago, gezur-profetaren bi adarrekin eta,

lepoko, bere buztanari kosk egiten dion suge gorri bat -heresiaren irudi- duela); agarria hautsi eta Lutero lurrera ondoren, tximistak aurrera jotzen du zeharka -hala iruditu ohi da- eta aitzaga-puntaz bost buruko -bost heresiko- piztitzar edo ur-suge haundia sabelean zauritzen du eta lurrean hil zorian uzten. Hauek dira Inaziori doazkon elementuak Loiolan; hauek osaturik edo han eta hemen behin eta berriz jarririk, haren espiritu-izaeraren antza ematen diote.

Atarreko bost irudietatik, barruan hiru berriz jartzen dira: San Inazioarena, Borjako San Frantziskorena eta Xabierko Frantzisko; hauei bi jesuita santuen irudi erantsi zaizkie: Alonso Rodríguez Santuarena eta Pedro Claver Santuarena.

Jesus eta Mariaren anagramak behin eta berriz agertzen dira bai barruan bai kanpuan, hala adibidez, haize-orratz nagusian, atarreko alboko arkuen gaineko bi armarietan, ate nagusian, linterna barne gorenean...

Jesusen eta Mariaren bihotzei gagozkiela, Jesusenak bere aldarea du, eskuin alboko bigarrena, gorputz osoko irudi eder batekin: irudi hori Felix Granda Jaunaren lantokian landu zen; eta bihotz soilak (exentuak) alboko dorreetako haizeorrazetan birkusten dira; Jesusenak berezi zurlanduko irudi eder-eder bat -IHSkin batean-sarrerako ate tarte goian.

Barruko zortzi arkuen gainean zortzi urretutako armari daude: erdiko gurutzea eratzen duten lauretan letra hauek A(d) M(aiorem) D(ei) G(loriam) daude idatzita; eta beste lau txikiagoetan VI-VA JE-SUS silabak.

Azkenik, zokaloko guda-sinbolo elementuak, urte batzuk geroago, erlijio-elementuekin batera, aldare nagusia printzel dekoratzeko elementuak izatera heldu ziren.

Naranja erdiaren zortzi irudi zuri haundiek -aldare nagusiko biek bezala- birtuteak iruditzen dituzte (3 teologalak, 4 kardinalak, eta Erlijioa, haiek Ripak klasiko definitu zituen bezala), eta armariak, etxeurreko frontiskoa bezala (V. Feliperena, alda batzuekin), apaingai huts besterik ez direla uste dut -lehenengoa erlijiosua, eta bigarrena historikoa- Eleizak duen Inazioren zentzurik gabeak.

HIRUGARREN ZATIA: OSATZEKO GAIAK

I. Loiolan jesuiten aldizkako egonaldiak

José Ramón Eguillor S.I.

Artikulo honek A. LESMES FRIAS S.I.ren hiru liburuetan banatuak aurkitzen diren datuak bildu besterik ez du egiten. Honatx liburua:

Historia de la Compañía de Jesús en su Asistencia Moderna de España. I. t. (1815-1835), Madrid, 1923. II. t. (1835-1868), Madrid, 1944.

La Provincia de España de la Compañía de Jesús (1815-1863), Madrid 1914.

La Provincia de Castilla de la Compañía de Jesús desde 1863 hasta 1914. Bilbao-Deusto, 1915

Detale batzuk Loiolako bazkunaren egunerokoetatik osatu ditugu, eta denbora berriagoetarako, aurrean aurkitu diren lekukoen ahozko aiterra jaso dugu.

1682.go uztailaren 1. egunean Jesusen Lagundiko Aita eta Anaien bazkun txiki bat lehenengo aldiz San Inazioaren Etxe Santura bizitzera sartu zen.

Handik sei urtera, 1688an, Etxe Santua bere barruan hartuko zuen monumentu handia eraikitzen hasi ziren; eta, lehenengo gelak han gertu zituztenean, jesulagunak hara aldatu ziren 1708. urtean.

III. Carlos Erregeak 19 jesulagunak -oraindik monumentua bezala, bazkuna ere eraikitzen zegoela- 1767.go Apirilaren 3. egun arte han bizi zirenak, erbesteratu ondoren, San Inazioaren konbertsio-kapila santuan ez zen behin ere, jai egunetan behintzat, mezarik faltatu, sekuloko edo erlijioso apaiz batek ematen bait zuen, hala adibidez, 1806tik 1813ra Azpeitiako Manuel de Furundarena benefiziatuak.

Monumentu handia, berriz, erbeste garaian, oraindik ere ezker ego osoaren goiko erdia eraikitzeko zegoen, eta egoera horretan bukatu gabe 118 urte luze iraun zuen. Nortzuk bizi izan ziren aldi horretan, eraikitako eta aprobetxa zitekeen monumentu-etxean?

Hasieran gobernuak Ego Amerikarako misiolariak formatzeko destinatu zuen, baina proiektu hori ez zen bete.

Espainia eta Frantzia arteko bi urteko gerran, 1793tik 1795ra, aldi labur batean Frantziako tropa alojatzeko serbitu zuen. Eta ondoren, 1797tik 1806ra, Urdax (Nabarrako) monako premontrearren bizitzeko toki izan zitzaizen, haien monastetxea, frantziarrek berek ondatua, berriz ere eraiki bitartean.

Independentzi Gerran, 1813tik aurrera, soldadu-hospital bat jarri zen Loiolan, eta misio hori betetzen zuen, berriz ere, behin Eleizak 1814an Lagundia restauratu, eta Espainan 1815an berriz admetitua izan ondoren, 1816.go Apirilaren 29an, antzinako erbestetik bizirik ateratako lau jesulagun zaharren bazkun txiki bat bere Loiolako etxera itzuli arte.

Agure-hazi txiki hori Loiolan gazte-ilusio handiz ernatzen hasi zen, ez santu-etxe bezala bakarrik, baina bai eta ibarrerako eskola txiki bat bezala ere eta Lagundia restauratzeko esperantza ederra ekartzen zuen jesulagun-gai etxe bezala ere. Baina, Espainako jendea oso kolokan zegoen, azpian liberalismo eta erlijiorik-ezak su ematen ziela, eta giro horretan ezin iraun sendo, absolutista eta reboluzaleen, kontserbadore eta progresuzaleen arteko politika mugikorraren erdian.

Ez ziren oraindik etxera itzuli zirenetik lau urte pasa eta, hara, berriz ere jesulagunak,

Riego altxatu zelako eta hiru urteko Konstituzio Aldian, 1820an jesuitek Loiola utzi egin behar izan zuten eta dispersatu.

1823an berriz ere bere etxeetara itzuli ondoren, Espainako jesuitek gehienbat ostera 1835an utzi egin behar izan zituzten, erlijio-ordenak barreatu eta Mendizabalek Eleizaren ondasunak desamortizatu zituelako. Baina, oraingo honetan Loiolari, lehen gerra zibilean eta karlisten erregearen mende eta babespean, oso ondo joan zirtzaion, eta, hala, ez bakarrik aurrera egin zuen bere bazkun txikiarekin, baina jesuítak askorentzat babesleku izan zen, Espainan eta atzerrietan besteek egin zuten bezala barreiratu beharrean, harresi sendo horien babesera etorri bait ziren eta nobiziatu ugari bat hasi zuten; eta gainera, aldirako bederen, 2.en ikaskintzako sekular ikasleen internatu ugaria ere hartu zuen bere barruan eta azkenean lehen letrak ikasteko externatu bat. Azkenean, ordea, dena galdu zen 1840aren bukaeran Bergarako Besarkaren ondore.

Ondorengo hamabi urteetan 1841-1852, Loiolako bazkuna erbestean bi etxe txikietan bizi izan zen: bata, Nivelles-en (Belgican) zegoen; bestea, Aire sur l'Adour-en, Frantzia egoaldean. Urte horietan Loiolako kapellau eta zain Fray Francisco de Abasolo izan zen, Azpeitiako Agustinoen Priore exkluatratua, lehenbizi Miguel de Mugarza anai lego batek laguntzen zion, eta, legoa hil zenean, Juan Jose Gogorza jesuita anaiak. Garai honetan behin eta berriz saiatu ziren inor ere bizi ez zen Loiolako etxean, erlijio-ordena batzuentzat Itsasoz Handiko Misiolari-Seminario bat jartzen: 1841an Valladolideko Agustinoentzat, 1848an Frantziskotar Deskaltzatuentzat, 1850an Ocañako Dominikuentzat, baina alperrik izan zen.

Azkenik, 1852an eta Sede Santuarekin egindako Konkordatuari esker, bi bide erabili ziren Jesusen Lagundia bere Loiolako Santutegira berriz ere etortzeko: alde batetik Iruñako Gotzaiak, Severo Adriani Jaunak, Gobernuagandik zera iritsi zuen, utzi ziezaiola Loiolan bere diozesiko lau edo sei apaiz exkluatratu jartzen (berak jesuitak aukeratu zituen), «batean bizi eta estudiora dedikatzen direla Euskaldunen misioterako gertu daitezten»; eta bestaldetik Gobernuak, Gipuzkoako Diputazioak eskatu ziolako, Loiolako monumentu-etxea A. Antonio Morey jesulagunen Probintzialari entregatzeko erabakia hartu zuen. Itsasoz bestalderako Misiolari-Kolejio bat jartzeko.

Eta bi urte geroago, 1854an, bazkunak irten egin behar izan bazuen ere eta alde batez Frantzia egoaidera, Hagetmau-ra eta alde batez Palma de Mallorcara aldatu, laister, handik bi urtera (Loiolan kapellau Artola eta Lasurtegi Aitek, Anai bat lagun zirauten bitartean) 1856an berriz ere denak Loiolan bildu ahal izan ziren.

Honekin Loiolarentzat eta Espainako Lagundi osoarentzat hamar urteko aldi bat hasten da (1856-1868) bokazio asko ekarriko dituen eta, erlijio-bizitz osoa eta estudioak egoki egiteko bidea zabalduko duena. Eta aldi honetan -1863anlehengo Probintzi bakarra, «España Probintzia» zeritzana bi probintzi egiten da: «Castilla» eta «Aragoi» probintzi berriak. Baina, zoritxarrez, martxa hori batbatean 68.go «Gloriosa» reboluzioak frenatu zuen eta ondoren berriz ere Lagundiak barreiatu egin behar izan zuen.

Orduan, beste hamabi urte bitartean 1868-1880, Castilla Probintziako nobizio eta ikasle juniore, filosofo eta teologo guziak «Poyanne» deritzan Landas-etako herri txiki bateko «Chateau» eder batek hartu zituen; Poyanne Frantzia egoaldean dago. Eta Espainatik hara bokazio asko zetorrelako eta estudioak eta erlijio bizitza oso serio zeramatelako, ondo esan daiteke, Probintzi gaztea hantxe hazi eta sendotu zela.

Lagundiak, bitartean ez zuen Loiola erabat utzi: hasieran Garciarena eta Goicoechea

Aitak, eta geroago, honen orde Aurquía Aita -apaiz soil bezala- Santutegiko kapellau izendatu zituzten; gero, Juan Aristi karmeldar exklastaratu batek hutsaldi bat bete ondoren, azken gerra karlista bitartean 1873tik 1876ra -Probintziako Komandante jeneralak utzi zuelako- A. Garciarena bere «Residentzia Azcoitiana» txikiarekin Loiolara aldatu zen, eta, batean, han aurkitzen zen soldadu-hospitalari atenditu zion; azkenik, 1877. urtetik eta diozesiko Gotzai Jaunak nahi izan eta izendatu zituelako, Bi Aita, Legarra eta Alcorta, eta bi Anai, eta haien itzalean beste batzuk gehiago, berriz ere Santutegiko kapellau eta sakristau bezala sartu ziren.

1880an jesulagunak Frantziatik expulsatzean, hemengoek utzi egin behar izan zuten Poyanne, eta Loiolara jo zuten. Segituan lortu zuten hemen jarraitzeko baimena, lehen bezala, Itsasoz bestalderako Misiolari-Seminario bezala egongo ziren.

Orduan bai hasi zela Loiolan formatzen zeuden jesulagunen lehen aldi haundi eta argia —lagun asko, espíritu eta estudioan bikain, eta hori dena Loiola beti izan den Santutegi eta Ejertzio Etxe edo espiritualdade-zentroaren inguruan edo alde-; denbora hori berrogeita hamar urtebetean zehar luzatuko zen, azkenean 2.en Republikak 1932an beste behin barreatu arte eta. formazioetxe haundiek atzerrira joan behar izan zuten.

Loiolako bazkunak -nobizio eta junioreak— ostera ere -aurreko gizaldi erdi aldean bezala-Belgikara jo zuen, «Crampon» zeritzan erlijio-etxe huts batera; etxe hori Tournai inguruan zegoen eta han iraun behar izan zuten sei urte bitartean.

Espainako gerra zibilean, 1936-1939, Loiolan hasieran «San Ignazio» zeritzan gudari-batailoi bat alojatu zen, eta 1937an emakume talde haundi bat, Bilbotik barku batean ihes zihoazela, nazionalen eskuetan eroriak.

Baina, 1937,go ekainean Azpeitian eta Azkoitian barreatuak bizi izandako Aita eta Anaiak Loiolara elkarrekin bizitzera pasa ziren. Eta urte horretan bertan Irailean, Belgikako erbest-lekua utzi eta, nobizioak, ez «Castilla» Probintziakoak bakarrik, baino bai eta «Toledo» Probintziakoak ere, aldirako Loiolara etorri ziren.

Eta 1938.go Agostuan, Tournai-ko juniore-taldeak, Marneffen filosofo eta teologoekin batean hiru hilabete edo pasa ondoren, Belgikatik Loiolara etorri ahal izan zuen. Orduan Loiolarentzat bere bigarren aldi haundi eta argia hasi zen, gerra ondoan erlijioa berriz ere biztu eta bokazioak ugaritu zirenean.

Aldi honen hasieran, bokazioak horren ugaritu ziren, 1948.go azaroan, lehengo monumentu-etxearen ondoan, beste konstrukzio berri bat inauguratu zen, jesulagun ikasleak alojatzeko; lehenbizi hamar urtean junioreak, gero beste hamar urtean filosofoak.

Geroago, 65. urte inguruan nabaritzen hasitako bokazio-krisialditik, eta gure gazteak formatzeko bide berriak sartu direnez gero, Loilako bazkunean gazte gutxiago ikusten da, baina bestalde 1948ko konstrukzio berria Ejertzio-Etxe edo Espirtualdade-Zentro bihurtu da eta han mugimendu haundia ikusten da, eta gainera 1980tik 1987ra Santutegian bokazioak lortzeko internatu txiki bat egon da; hauek urte horietan Azpeitiako kolejio batean batxileratua ikasten aritu dira.

Halaber, 1970. urtetik Santutegiaren ezker egoaren zati haundian, «ikastola» bat externatu bezala jartzen utzi zen, eta ikastola horretan Azpeitia eta haren inguruko neska-mutil asko eta asko ibili da batxileratua ikasten 1990. urte arte.

II. Loiolako momumentu-etxearen jabeak

José Ramón Eguillor S.I.

Artikulo honen lehen datuak liburu honek berak beste lanetan ezaguterazten ditu eta han dokumentatuak agertzen dira.

Loiola legez norena den agertzeko oinarri dokumenturik ez da Gipuzkoako Foru Ahaldundiaren Arkibuan aurkitu; baina, Loiolako Histori-Arkibuan, 2-4 («Compañía de las Obras de Loyola» kutxetan) dokumentazio orijinalaren extrakto batzuk aurkitzen dira, fetxarik eta izenik gabe badaude ere, oso ondo eginak daudela ematen du, osoak direla eta kakotx tarteko zati askorekin aurkitzen dira. Eta 1842, 1843, 1846 eta 1855ko oinarri-dokumentuen egiazko kopia osoak aurkitzen dira.

Konstrukzio haundiaren bukaerari doakon azken zatia eta 1885tik 1888ra egindako obra berria, legez nola gelditu zen agertzeko, III. Teman ekarriko dugun oinarri-dokumentazioak garbituko du.

1681 .go Maiatzaren 24an, Oropesa eta Alcañicesko Markesek, Loiola sendi barman alboko ahaide aldetik San Inazioaren Etxearen azken jabeek, Etxea Austriako Mariana Erregin-Ama Andreari ematen zioten. 1682.go otsailaren 19an, Gipuzkoako Korrejidoreak, Erreginaren eskudun bezala, haren izenean etxearen jabe egiten zen. Eta urte hartako bertako Maiatzaren 30an Erreginak Jesusen Lagundiari ematen zion.

Gauzok gertatzen ziren bitartean, jesuitek beiloiezko 58.187 Er. eta erdian Etxe Santuaren inguruko lurak erosi zituzten, eta Korrejidoreak Erreginaren izenean Etxe Santuaren posesioa hartu egunean, haiek terrenuen jabe egiten ziren; terrenu horietan, sei urte geroago, monumentu etxe handia eraikitzen hasiko ziren.

Loiolako jesulagunen bazkuna mantentzeko eta monumentu handia eraikitzeko behar zen dirua, batez ere -ez bakarrik- Jesusen Lagundiari Carlos II.ak pribilejio bezala eta egiaz kondizio onean emandako zenbait juroek sortzen zuten errentak ziren. Baina, juro horiek erosteko behar zen dirua Jesusen Lagundiak jarri zuen osoro; gainera, redituak edo errentak kondizio onean haatik eman zituen erregeak, Perutik jesuitek 1654an geroko Loiolako Santutegia fundatzeko ekarritako pesu kopuru handia ordaintzeko, haren aitak, IV. Felipek dekomisatu egin bait zituen pesu haiek, argi deklaratu gabe zetozelako.

Beraz, Loiolako Kolejio-Santutegiak, haren lehenengo pausoak horrela eman zirenez gero, ohorezko «Errege-» eta «Errege-Patronatu» izena badarama ere, *toto iure* Jesusen Lagundiarena izan behar zuen.

Monumentu handia, artean ere bukatu gabe zegoela, III. Carlos erregeak, 1767. urtean lehenengo aldiz expropiatu zien -Eleiza eta Etxe Santua ere sartzen zirela- Estaduaren alde.

XIX. gizaldian, Aitasantu Pio VII.ak 1814an berreraiki eta VII. Fernandok 1815an Espainan berriz admetitu ondoren, Loiola jesuitei itzuli zitzaien. Baina laister galdu zuten bigarren aldiz 1820. urtean Riego altxatu zelako eta Hiru urteko Konstituzio-Aldiagatik.

1823an berriz bereganatu ondoren, hirugarren aldiz eta, oraingo honetan behin betiko, 1835an galdu zuten, Jesusen Lagundia barreatu, erlijio ordena guziak exklaustratu eta haien ondasunak Mendizabalek desamortizatu zituenean; desamortizazio hau poliki-poliki hilabete batzutan gertu ondoren, 1836.go Martxoaren 8ko dekretuak burutu zuen.

Desamortizaio-lege horretan oinarriturik, Erreinuko Errege-Ordeak, Esparterok, 1842.go uztailaren 26an, dekretu bat eman zuen. Dekretuak Amortizazio-Arbitrioen Direkzio Jeneralari eskubide ematen zion «nazio-ondasunen saltzeko Batzarrean, herriaren onerako eskatutako konbentuak emateko erabakia azken batean har dezan».

Dekretu honen arauera, Direkzio Jeneralak, 1843.go Otsailaren 17an, «probintziako (Gipuzkoako) Diputazioari Azpeitiako Loiolako San Inazioen konbentu itxia emateko erabakia hartzen du, korrekzio-etxe egin dezan; eta helburu hori betetzen sei hilabete barruan hasi beharko du, eta gainera Probintziak Monumentua eta, batez ere, Eleiza eta Kapila sostentzeko ardura edukiko du, meritu berezia dutelako bertako eta atzerrikoei horiek admiratzen utzi behar bait zaie, eta kondizio hauek betetzen ez badira, mesede hau hutsala eta batere indargabea izango da».

Emaitza egin urte horretatik bertatik, Diputazioak monumentua korrekzio-etxe (edo beste dokumentuetan esaten den bezala, erruki-etxe edo umezurtz-leku) egiteko baldintza betetzen ez zuelako, Gobernuaren eta Diputazioaren artean egiazko guda hasten da: Gobernuak itzultzeko exijitzen du, Diputazioak bere jabetza reafirmatzen du. Diputazioak bere defentsa egiteko zera ekartzen zuen, batzuetan ezin bete zirela baldintzak seinalatutako epean; bestetan -geroago-, monumentua kontserbatzeko eta hobetzeko egin gastuak, edo bai eta kapellauak mantetzeko gastatutako dirua ere.

1845 eta 1846 urteetan Diputazioak behin eta berriz ekiten dio, eta Gobernuari eta Erreginari exposizio batzuetan, umezurtz-etxearen idea baztertu gabe, Loiolako Etxearen jabetza konfirma ziezaiotela eskatzen du, han, itxitako konbentuetako eta haien liburategietako bai eta Probintzi- eta juez-arkibuetako gauzen ere museo bat jartzeko.

1846.go Azaroaren 17an errege-agindu bat ematen da eta eskatuari bai esaten zaio, baina Santutegia kontserbatzeko ardura edukitzekotan.

Oso astiro bada ere, hurrengo urteetan zeredozer egin zen museo, liburutegi eta arkibuen proiektu berria burutzeko. 1849an Diputazioak zera dio, bete dituela etxea museorako etab. kontserbatzeko eta atontzeko baldintza guziak. 1852an, Korrejidore Jaunari bidalitako ofizio batean, Loiolan egindako obren kontu ematen dio. Badirudi toki batzuk konpondu eta Loiolako liburuak apal batzuetan jarri besterik ez dela egin. Eta bidezko agindu batzuk eman baziren ere Probintziako arte-objetuak hara bidaltzeko, laister, urte horretan bertan, alde batera utzi zen lan hori, Gracia eta Justicia Ministruak Loiola, Diputazioak berak eskatu zuelako, jesuitei eman zienean, Itsasoz handiko Misiolarien Kolejio bat eraikitzeko.

1852.go Urriaren 28ko errege-dekretuak zera dispositzen zuen, Probintziako Korrejidoreak «formal entrega diezaiola Loiolako San Inazioen konbentua Antonio Morey Aitari, J. L. Probintzialari.»

Gauza honek eta erabilitako formulak oso pleito gogor bat sortu zuen Gobernu eta Diputazioaren artean: Diputazioak 1853an bere jabetza baieztatu du eta Gobernuari zera eskatzen dio, deklaratu dezala, monumentua Lagundiari, 1846.go Azaroaren 17ko Errege-Aginduak Probintziari ematen dion eskubidearen kalte gabe entregatu ziola.

Irailaren 29an Errege-Agindu batek zera erantzuten du, monumentua Jesusen Lagundiari entregatu zaiolako indar gabe gelditzen dela 1846ko emaia.

Berriz ekiten dio Diputazioak eta zera esaten du «formal entrega» hura, erabiltzeko bakarrik izan zela, eta jabetza ere esan nahi bazen, berezi adierazi behar zela.

Batak besteari zenbait komunikazio bidaltzen dizkiote, bakoitzak bere posturaren alde, eta, txarrean, Diputazioak Loiolan egindako gastuen ordaina eskatzen du.

Azkenean, Lagundiaren bazkuna Loiolatik at zegoela, Diputazioak Gobernuari berriz ekin zion, eta 1855.go Maiatzaren 3an Hazienda Ministerioak, Erreginaren izenean, azken soluzioa Diputazioaren alde eman zuen eta «1846.go Azaroaren 17ko Errege-Agindua guziz indar zegoela» deklaratu zuen.

Hortik aurrera ez zen gehiago jabe nor zen diskutitu, ez eta baldintzak bete al ziren ala ez ere. Eta horrela zeuden gauzak, 68.go Reboluzioa igaro ondoren, jesuitak Frantziako bere azken erbestalditik itzuli zirenean, eta, beren buruak Loiolan seguruago aurkiturik, monumentuaren ezker egoa, XVIII. gizaldian osatu gabe gelditu zena, bukatzeko erabakia hartu zuten.

Horretarako, jakina, monumentuaren jabearekin, Diputazioarekin, tratatu behar zen, eta horri begira, Jesusen Lagundiak ez zuen asunto hori berez tratatu nahi izan, baina Elkarte Anonimo bat sortu zuen, «Compañía de las Obras de Loyola» zeritzana, bere lagun sekularrek osatzen zutena, bere ordeztu Diputazioarekin tratatzeko.

Oso tramite luze eta nekeak eduki behar izan ziren, bai Donostian bai Madridentan, elkarre hori bere estatutoekin eraikitzeko, eta, behin eraiki ondoren, aldeko eta aurkako proposizioen eta botazioen artean, alde biek erabaki batera etortzeko, obra ze kondizioetan ejekuta behar zenari buruz. Guzi horietatik gure propositora egiten duten klausulak bakarrik aterako ditugu 1885.go Otsailaren 26ko «Gaceta de Madrid»en eta urte horretako Martxoko 11aren «Boletín Oficial de Guipúzcoa»n konsignatzen diren bezala:

2^a Expositoreak, (hau da, «Compañía de las Obras de Loyola») 10 urte barruan Loiolako obrak bukatzera behartzen dira ...» (N.B. Egiat hiru urte baino gutxiagoan bukatu zituzten).

3^a Bere aldetik Diputazio Jaunak expositoreei San Inazioaren etxea bere dependenti guziekin 60 urtean erabiltzeko lagako die, eta 60 urte horiek igarotakoan, lagatutako monumentua eta han eraiki berri guzia ostera Probintziaren jabetzara itzuliko da, obrak egin dituen Elkarreak obren gastua reklamatzeko legerik batera gabe». (N.B. 1945an lehen 60 urte horiek bete zirenean, «Compañía de Obras»ek eskatu zuelako, Diputazioak beste 60 urterako luzatu zuen).

9^a Hirurogei urtean erabiltzeko epea bukatu ondoren, Diputazioak, Elkarte konstruktoreak emango dizkion obren orde, orain Loiolako etxeak duen erlijio-helburua ez aldatzeko konpromisua artzen du, eta San Inaziorik fundatutako ordena, Espainian onartua edo admetitua badago, beti hura bakarrik izan dadila han biziko dena. Eta, 60 urte horiek igaro ondoren, Loiolako etxea, adierazitako helburuaz bestera destinatuko balute, Diputazioak Elkarte konstruktoreari egindako obren prezioa itzultzeko konpromisua hartzen du, eta efektu horretarako konpromisua hau garantitzeko, monumentuaren ezker alde edo egoa hipotekatzen du, bai eta orain arte eta eraikitako etxalde osoa eta aurrerago eraikiko den guzia ere.

Posesio, bizileku eta hipoteka horretatik «Dukearen Etxea» alde batera utzi behar da, hau da, ezker egoan eleizari eratsikia dagoena eta gehienbat eskubi egoko Etxe Santuaren parekoa. Etxe alde horrek -funda aktuko kondizio bezala Loiola sendiaren oinordekoena izan behar zuen beti -orain Granada de Egako Dukeena- Jesusen Lagundiarentzat Erreginari emandako Etxe Santuaren truke. XVIII. gizaldian jesuitak ezker ego osarekin batera eraikitzen ari ziren, eta, jesuitak expulsatzean, erdi egina gelditu zen. XIX. gizaldian obra bukatu behar izan zenean, Dukeek bere interesko

puntu konkretu hori Diputazioarekin tratatu behar izan zuten, eta pleitoak ondore hau ekarri zuten, Diputazioak, gainontzeko konstrukzioaren jabeak, bere kontura bukatuko zuten obra, baina haren jabe -fundazio-asmoaren arauera- beti Loiola Etxearen oinordekoak izango ziren.

III. Loiolako obraren bukaera

José Ramón Eguillor S.I.

Gai honetaz, Loiolako Histori-Arkibuan dokumentazio ugaria aurkitzen da, 2-4, - dokumentu denak esan daiteke- bai «Compañía de las Obras de Loyola, S.A.»ak Gipuzkoako Foru Ahaldundiarekin obrak hasi aurretik egindako tramiteak, bai eta obraren ejekuzio berari dagozkionak ere.

Baina, horrez gainera, eskuz idatzitako 46 folio dupleko lan bikain bat dago; Superioreek eskaturik, azkenean A. VENANCIO LEGARRAK idatzi zuen. Jesuita hau Superiore horien eskubi besoa izan zen -»fac-totum»- ez esateko, bai tramiteetarako bai obra ejekutatzeke. Haren izenburua hau da, *Relación de las negociaciones y trabajos realizados para la terminación del Colegio de Loyola, 1883-1889*.

1767an Loiolatik expulsatuko jesuitek pena asko izango zituzten, baina bat dudarik gabe, raonumentu haundia, hainbeste urtetan -79- ilusio osoz eraikitzen aritu ondoren, haren ezker egoa bukatu gaben utzi beharra, eta hori azkeneko pausoak azkarrago ematen hasi zirenean obra bukatzeke ete bere izenak adierazten zuenez Errege-Kolejio bezala zabaltzeke. Bukatu gabeko egoera horretan -ruinaren antzean- nork esango zuen, 118 urtean gelditu behar zuela!

XIX. gizaldian, Eleizak Lagundia restauratu eta Espainak berriz admetitu ondoren, jesuitek Loiolan behin baino gehiagotan egon ziren, egonaldi bakoitzean indar hartzen saiatuz, baina reboluzio berriek eta ondorengo Lagundiaren disoluzioek eten egiten zituzten hasitako ahalegin horiek. Monumentua egoera hartan ikusteak sufrimentu haundia sortu behar zien.

Eredu-ale bat -berak bakarrik monografía bat mereziko luke- A. José Ignacio Gerrico izan zen. Belgikan, Espainan eta Filipinasen apostolo- eta misio-lanean meritu haundiarekin ari zen bitartean, Loiolako Santutegia obsesio bat izan zen harentzat. Hona ze aitormen ederra azaltzen duen 1851n lagun bati idazten dion eskutitzan: «Zenbat bider lotsatzen naizen San Inazioaren jaiolekua hutsik ikustean eta monumentu eder hura utziutzia!... Agian nik Loiolaz ditudan gogo eta asmo batzuen berri izango zenuen, urte asko bai da San Inazioaren semeak bere Aita santuaren etxean ikusi nahi ditudala, baina ez hori bakarrik, baina bai eta monumentu ederrari falta zaion zatia bukatu ere. Obra bikaina da, eta askok par egiten dio asmo honi, amets hutsa iruditzen bait zaie; baina, zera uste dut, ez naizela pozik hilko bukatua ikusi gabe; eta Santutegi hau lehen bezala gure eskuetan ikusteko poza izango banu, ez nuke nere proiektua burutzen etsiko, horretarako Jainko Probidentzia besterik ez badut ere lagun».

Gizon hau aintzindari bezala, eta A. Venancio Legarra -Azpeitiako Ignacio de Ibero zaldun haundi jauna lagun- bertako ejekutore bezala, kontsideratu behar dira, inor izatekotan, Loiolako Santutegiaren eta XIX. gizaldian haren bukaeraren meritu haundiko pertsonak.

Gipuzkoako Diputazioari gagozkiola -Mendizabalen desamortizazioaren ondoren munumentuaren jabeak- zera aitortu behar da, ez bakarrik egin zituela gauza batzuk, Gobemuak, etxearen jabetza kontserbatzeke, inpositzen zizkion kondizioak betetzeke (hala v.gr. kupula gainean tximist-orratz bat jarri, edo liburutegirako apal eder batzuk), baina bai eta behar ez zituen beste batzuk ere hobetzeke, hala nola -1866an- eleizaren erdiko aldare biak Jesus eta Mariaren Bi-hotz Sakratuei dedikatuak, San Fernandoko arkitektuak, Mariano José de Lascurain Jaunak proiektatu zituenak.

Berezi, Gipuzkoako Batzar Nagusian, 1868.go Uztail hasieran Zumaian eukitakoan, Azpetiako ordezkarien proposituari erantzunaz, Loiolako monumentua bukatzeko herri-suskripzio bat irikitze erabakia hartu zen, eta Diputazioari, obrei laguntzeko, ehun mila errial eskuratzeko baimena eman zitzaion. Loiolako Histori-Arkibuan, Santiago Sarasola arkitektuak, urte horretako Agostuaren 27an, aurkeztutako presupostu zehatzaren bi kopia gordetzen dira; presupostua, hogeita hamaika mila eta zazpirehun eta berrogeita zortzi eskudora eta irurehun milesimora igotzen zen (2.317.483 errial esaten da beste toki batean). Dena hogeita bi egun geroago hutsaldu zen «la Gloriosa» deritzan mugimenduak, altxa eta garaitu zuenean; baina, hamabost urte geroago, 1883an, Diputazioarekin Elkarte Anonimo pribatu bat, obra bukatzeko kargua izango zuena, eratzeko bideak tratatzen hasi zirenean, lehenbizi zera egin zuen, hark 1868an zuen asmoa gogoratu eta bera haren ordeko aurkeztu, asmo goresgarri hura burutzeko.

Goazen orain, Diputazioak eta Compañía de Obras de Loyola S.A.ak 1883-1885 urteetan, oso hartu-eman nekean, Donostian lehenbizi eta Madriden gero erabaki zutena -eta guk aurreko atalean aitatu duguna- resumitzera, nola 1885-1888 hiru urte horietan egin zen.

1. Bai ordurarte oinarri bezala eginaren, bai bukatzeko egin behar zenaren planuak, ez zituen Manuel Echave Jaunak, Probintziko arkitektuak egin, honek proiektatzen eta egiten zen guziaren inspektore izan behar bait zuen, baina Pedro Alejandrino de Recondo Jaunak egin zituen, diozesiko arkitektuak; Ibarra, Tolosa inguruan jaioa zen eta Irunen bizi zen. Ohar hau bakarrik egin behar da, Azpetiako José M^a de Aspiroz Jaunak, Loiolako elkartearen lagunak, agrimentsore expertuak, urte batzuk lehenago, bere zaharrean behar zenerako aurrea harturik, eraikitako beheko planta osoaren planua diseinatu zuela. Lan hau ondo etorri zitzaion Recondori, bai eta bere ezkon-anaia Aguinaga Jauna arkitektua eta harekin bizi zena ere, ondo etorri zitzaion.

Berez, alde berri honek lehengoaren berdin-berdina eta haren simetrikoa izan behar zuen. Alabaina, *bai a priori* bai egiten zihoazela, aldaketa txiki batzuk autorizatu ziren, batez ere diru kuestioagatik.

Proiektua egiteko aurre-presupostua 798.423,38 pta izan zen; diru hori, azken garbiketa egitean eta administrazio onari esker, 612.984,37 pta.ra gutxitu zen.

Obra gainean -Recondoren mendean- José de Lecanda Anaia, Oñatik ekarritakoa jarri zuten; eta honen eskuin beso, guzian lagundu ziona, Biskiturri izeneko Azpetiako argin haundi bat izan zen.

2. Eraikitze harria inguruko Izarraitz mendiko maldatik atera zen: lantzeko harria, lehenbizi Goikoetxea eta Aranaga baserrien ondoko harrobi berritik, eta, hura ahitu zenean, gero, Urreta baserri ondoko oso harrobi onetik; eta manposteriarako, Loiolatik, oso bertako, Azkiola baserri beheko harrobitik; handik, ekargailu artetsu baten bidez, harria bere zamak eraginda, ia obrarainoxe etortzen zen.

Carea, hasieran, Azkoitiako Santa Cruz Monastegi beheko labetik ekartzen zen; gero beste labe bat eraiki zen Azkiola baserri ondoan. Gisu gorbera merkeago Zumaian aurkitu zen.

Mortairuaren arerako oso pila ona aurkitu zuten Ule baserri ondoan, Loiolatik Azpetiara doan bide zahar gainean.

3. Abeak eta gainontzeko egurra lortzeko, Ibero Ignacio jaunak, esku-zabal, Elosiaga aldean zeuzkan 30 haritz tantai erregalatu zituen. Beste batzuk Urrestilla eta Errezildik etorriko ziren, 8 Aizarnatik, eta 20 Laurgaindik -askoz ere urrutiagotik- Aya

ingurutik, eta 700dik 800era Aldaba menditik, Vilafranca eta Santa Marinara jotzen duten maldetatik. Gainontzekoa Iparreko pinua izan zen, Bilbon eresia eta itsasoz Zumaiara ekarria.

4. Oso serbitzu ona prestatu zuen Inghend-en erositako, harri jasotzeko makina batek, mortairu egiteko zaldiak eragin behar zion beste batek ere bai; hauek geroago Azpeitiako eta Donostiako obretan erabiliko ziren.

5. Eta horrela heldu gara proiektua ejekutatzeke behar zen diruaren kapitulora.

Beste ezer baino lehen, eta behin «Compañía de las Obras de Loyola» Elkarte Anonimoa eraiki ondoren, herri-suskripzio bat iriki zen Probintzietan, geroago Madrideko dirudun familietara hedatu zena, baina batez ere eta ia Gipuzkoan bakarrik lortu zuen bere helburua.

Dirua biltzeko beste bide batzuk ere asmatu ziren, hala nola erromeriak Loiolara -lau egunetan arkiprestazgoka Gipuzkoan- 1886.go irailaren 5, 6, 7 eta 8an.

Hemen bildutako diruari Filipinas eta Cubatik eta Espain-Ameriketa eta Europatik zetorren ez diru gutxi erantsi behar zaio.

Diru egoerari asko lagundu zion ere, lehen aitaturako harrobi- eta egur-material gehienak hutsean ematen zirenak, eta, batez ere konstrukzioaren lehen aldietan, jornalik eskatu gabe egiten bait zuten lana obreruek; ikusi egin behar zen -obren hasiera zabaldu zenean- ze lehia biztu zen herri eta auzoen artean lanean aurrenak izateko, eta horretarako bakoitzak ze arrazoi ekartzen zituen: Oñaz, Loiola, Izarraitz, Oñate, Orio, Azkoitia, Azpeitia...heuren artean lehan nor lehenago.

A. Legarrak kuadro hau osatu egiten du bere deskripzioarekin eta zera kontatzen digu, nola Urrestilla, Aldaba, Villafranca, Legorreta, Alegi, Ikaztegieta, Laurgain, Albistur, Goyaz, Vidani herrietako jendea, bere apaizak aurrean zituztela, aritu zen haritzak oso neketsu gurdietan idiekin mendietatik, batzuek oso urrutitik gainera, Loiola ingurura ekartzen.

6. Obren hasiera triduo solemne batekin -Pentekosten-, 1885.go Maiatzaren 24, 25 (lehen harria) eta 26an ospatu zen

7. Konstrukzioan distribuzio hau eduki zen: Azpeitira begiratzen duen ekialdeko etxe-aurrea; ibaira eta iparrera jotzen duen saiheits aldea; baratzara eta Azkoitiara begiratzen duen sarkaldeko etxe-atzea; eta gero bailagibela. Kanpoko harlanduzko eta barruko manpostuko horma haundiak batean ari ziren jasotzen.

Hasi eta handik urtebetera, hau da, 1886ko ekainean, bailagibeleko eta etxeurretako erlatx haundien azken harria jarri zen, eta horregatik langile guziei, bai monumentuan bai harrobietan ari zirenei, -guzira 150-, apari eder bat eman zitzairen.

Bigarren urtean barruko eskailera haundia, Ekialdeko eta Sarkaldeko saiheits-atiko biak eraiki ziren; azken atiko hau frontoia zen, Isasondotik ekarritako harri zabalez losatua. Eta azkenik teilatu guziak estali ziren.

8. Lanak iraun zuen bitartean lau langile zauritu ziren: bi oso zauritu, bailagibeleko erlatxa gaizki jarri zelako; baina, zorionez ondo bukatu zuten. Hirugarren bat, egurra teilatura igotzean arin zauritu zen eta azkar sendatu; eta laugarren bat, arin zauritu airen -Goikoetxeako harrobiko harri batek oina zapaldu zion- Loiolako gaisozaina eta Azkoitiako osagileek heuren artean ondo entenditu ez zirelako, haragia usteldu eta hil egin zen.

9. Bigarren urte azkenean ego osoa bukatua zegoen. Zati berria zaharrarekin gonbaratzen badugu, hauek dira diferentzi haundienak: klaustroko arkuetan eta

leihoen barne-aldeetan harriaren ordez arrilua; beheko klaustroetan harlosen orde zementua; barneko eskailera haundian, arku irikiak argi gehiago emateko, eta harlosen orde zementua haren lehen tranpainean; eta bigarren pisuan, separa-horma batzuk kendu, ikasleentzako gela haundiak egin ahal izateko, eta horrela ahuldu egin zuten konstrukzioa, urte batzuk geroago esperientziak irargitu zuenez.

10. Hirugarren urterako, bi lehen alboko aldareak marmolez burutu, eta gainera - XVIII. gizaldian egurrez eginak zeudelako oso ondatuak bait zeuden- Eleiz sarrera ondoko bi aldareak eraiki, eta organo berri bat egin, XVIII. gizaldian Oinatiko Domingo de Garagalza organogileak egindakoaren orde; organo zaharra Arabako Arayako eleizara saldu zen.

Bai aldare bai organuarentzako murrak Recondok diseinatu zituen.

Aldareentzako harnabar gorria Izarraizko harrobitik atera zen; lehenbizi Zestuara jeisten doan Golzibar zulokatik, eta, gero, Xoxote deritzan lehen gain atzetik.

San Pedro Claver eta San Alonso Rodriguezen irudien diseinuak A. Victoriano Salmon-enak izan ziren, eta egin, Bilboko Larrea eskultoreak egin zituen.

(Jirolako aldareetan dauden edo gizaldi bat baino gehiagoan egon diren irudien autoreak, dakizkigunak, hauek dira: Borjako Frantziskorena, Madrileko Alsina lantokikoa da; San Pablo Miki, Ignacio Acebedo Beatua, eta Pedro Canisio eta Juan Berchmans Santuak Figueras irudigilearenak, Madrilekoa bera ere; Francisco de Regis eta Francisco de Jerónimo Santuak Francisco Muns jesulagun anai irudigileak egin zituen).

Organo berria jartzeko A. Jose M^a Mendiak, Toledo jesuita-probintzikoak eskeinitako 14.000 duro hartu ziren, bere azken erlijio-zinitzetan bere ondasunak uztean eskeinitakoak, kontuetan 7.000 duro Loiolakoak eta 5.000 Diputazioarenak zirela agertzen bada ere.

Enkargua Jose Ignacio Aldalur-en bidez egin zen; Aldalur hau apaiza eta Azpeitiako organista zen, eta Carlos Carloni Jaunari, Parisko Cavallé-Coll etxearen ordekoari egin zion. Hiru teklado eduki behar zituen -lehen eta 2.ak 56 nota eduki behar zituzten, eta 3.ak 30- eta guzira 36 rejistro eta 2.044 tubo, eta gainera beste oinpeko teklado oso bat. Horri, Aldalur-en mesedez, Errege-Tronpetaren rejistroa erantsi zioten, tuboak kanpo aldera zituela, Espainan ohi denez.

Korua txikia izan eta haren arku eta bobedak eskatzen zuen simetriagatik gutxi sar zitekeelako, auspoak izkutuan bobeda gainean jarri behar izan ziren; horrela eleizatik auspo-otsak kendu egin ziren. Gainera, musiko eta abesleentzat, baranda metro bat aurreratu zen sarrerako ate-tarte gainean; obra hori -organoaren aurrekaldea bezala Santutegiko Anai Koadjutoreek oso ederki egin zuten.

Lastima izan zen, Cavaille-Coll ez zela obrak bukatzeko jairako garaiz etorri, kontratua hori izan bazen ere. Jai hori oso solemne, eleiza eta aldareak kensekraturik, 1888ko San Ignazio egunean ospatu zuten, 1688an hasitako egunetik bi gizaldi betera hain xuxen!

Organoa hurrengo urtean, 1889an, entregatu eta inauguratu zuten, Pentekoste 2.en egunean, ekainaren 10an. Aztertzailer Cavaille-Coll-en aldetik Jose Ignacio Jauna izan zen, eta «Compañía de las Obras»en aldetik Felipe Gorriti.

11. Santutegia bera bukatu ondoren, hura osatzeko obra batzuk gelditzen ziren egiteko. XVIII. gizaldian dagoeneko, 1713 eta 1717 bitartean, Momumentuarekin angulo rektua formatzen duela, eta egoaldetik monumentu aurrean hedatzen den lur zabalera begira, Loiola ikustera zetozenentzat *Arroztegi Berria* eraiki zuten. Suzesio-

Gerragatik Loiolako obrak gelditu zirenean, obra txikienetan hori izan zen egindako haundiena.

Maisu eta Aparejadora bezala Antonio de Larraza arginak dirijitu zuen obra hori, beheko plantan ateurre gisan bost arkuko arkupe bat zeukan, pisu bakarrekoa zen eta goian ganbara bat leiho txiki batzuekin.

Etxe hori eta Santutegiaren baratza, Mendizabalen desamortizazioan azken galduak, Lagundiak berriz bereganatu zituen 1857an, baina oso koloka-egoeran zegoelako, lagun batzuen izenean erosi zituen.

1888-1889an eta Felix Barrena Jauna obren Maisu zela, beheko plantan, eta munumentu aldera, seigarren arku bat erantsi zioten, eskailera berrirako beste sarrera egin nahi zuten, eta, eskailera, ejertzizioak egitera zetozen emakumeen bigarren pisura igotzeko zen. Egoaldean, bi pisuetan, bi eguzkitoki erantsi ziren; barne osoa berriz estrukturatu zen eta gela gehiago jarri ziren, batzuk etxeurre aldera, eta, besteak, barneko bailagibel aldera, eta besteak eguzkitoki aldeetara. Eta gainera ganbara berri haundi bat bere sapai-leihoekin teilatuan.

Hau egin ondoren, Arrotz-Etxe Zaharra lurrera bota zuten, bere erroa garbi-lekuarekin. Etxe hau baratzan zegoen, Ego alde atzean, eta hutsa betetzeko Felix Barrena Maisu Jaun beraren direktiopean eta Santutegi eta Arrotz-Etxe berriaren tartean *jostundegi eta garbi-leku* berri bat eraiki zuten, oso egokia eta ornitua, eta gainera oso merke obra haunditik sobratzen ziren gaiak aprobetxatu zirelako.

Azkenik, baratzako eta Errekarte baserrira doan bideko harresia zuzendu zuten, monumentu aurreko ibilbide eta jardinei estructures berria eman zitzaientzen, eta San Inazioaren irudiaren -Bergarako irudigile Aguirre-ren obraren- zutoia berriz egin eta altura haundiagoa eman zitzaion. Irudi hau orduko monumentu aurreko erdiko eskailera haundiaren lehen tranpainean jarri zuten. Dena Recondo arkitektuaren direktiopean.

12. Azken urte hauetan eta 1982.go Azarearen 6an, Aita Santu Juan Pablo II Loiolara etortzeko zelako, monumentua ikustera eta aztertzerako Euskal Gobernuak arkitektuek zera epaitu zuten, monumentu ingurua bukatu gabe zegoela, eta, berezi, haren etxeurre nagusian goizoruko bat falta zitzaioela edertzeko, eta, bidenabar, kamioaren eragozpenak urrutira zitzala.

Proiektua Donostiako José Ignacio Linazasoro arkitektuari enkargatu zitzaion, eta orduan egiteko astirik izan ez bazen ere, 1983.go azarotik aurrera eta 1984. urte osoan zehar, erdiko eskailera haundiaren osagarri bezala, alboko bi plaza txiki - monumentuko bi egoen aturreko- egin ziren.

Baina, utz diezaiogun Linazasoro Jaunari berari bere idea eta proiektu osoa expositzen.

IV. Loiolako Santutegi-ingurua ordenatzeko proiektua

Jose Ignacio Linazasoro arkitektuak

(N.B. Artikulo hau *Revista Internacional de Estudios Vascos* aldizkarian argiratu zen (34. urtea, XXXI. T., Uztail-Irail 1986), eta haren eta autore beraren baimenarekin argitzen da hemen berriz).

Justifikatzeko agerbidea

1. Santutegi etxearen konzepzioa

1681an Juan Pablo de Olivak Carlo Fontanari, Gian Lorenzo Berniniren ikasleari, Loiolako San Inazioren Santutegirako plano berriak enkargatu zizkionean, espain-arkitekturaren, eta, berezi, euskal-arkitekturaren historian ohiezko gauza bat gertatu zen: lehenbiziko aldiz, Italiako arkitektu ospetsu bat, Europako arkitektura-tradizio bereziari -Erromako barroko estiloari- jarraitzen ziona, guziz bere kontextuaren ateko eta bere arkitektura-teoria problemen kanpoko obra bat egitera zihoan.

Berninik, Frantziako arkitektuen presioagatik frakasatzean, Parisen egin ahal izan ez zuena, hau da, Louvre berria eraiki, bere ikasle C. Fontanak Espain herrian egin ahal izango zuen: hemen oposiziorik batere gabe, eta are haren proiektuari guziz zehatz jarraitzeko gomendatzen zitzaioa.

Eta azkeneko hau gertatu zela dirudi; izan ere, ez Jose de la Incera-ren, ez haren jarraitzaile Martín de Zaldua-ren eskuartzeak, are gutxiago oraindik Joaquín de Churrigeraren iragaitzekoak utzi zuten indargabe Espainan XVII. gizaldi azkeneko ohiezko obra bat; Espainan, artean, Herrerari jarraitzen zioten maisuen -v. gr. Moratarren- atzetik bait zihoan, Erromako maisu moderatuagoen -v.gr. Pietro di Cortonaren- influjo txiki batzuk admetitzen ba zituzten ere, eta apaintzeko idea bitxi batekin; apaintzeko idea honek halako indarra hartuko du, Llagunok aldi honi egiazko «arkitektura-eremu» deituko dio, pinturak eta dekorazioak lekua jango diotelako.

Ez zen hori batere Erromako aldi bereko arkitekturan gertatzen, aurreko ekinaldiek solutu ahal izan ez zituzten hiri-arkitektura-problema solutzen saiatzen bait zen.

Idea berri hauen onerako, heredatutako printzipioak krisipean jartzeko erabakia zegoen arkitektura bait zen. Egiaz, «terza maniera»k denbora guzietako arkitekturaren oinarri-problemei -hiri eta zutik iraundako ondareei-, Miguel Angelen Capitolioaren ohiezko proiektuan aurpegi eman behar bazien, XVII. gizaldi hasierako arkitekturak, Sixto V.aren Erroma burutzera murgilduak bere Tridente ospetsuaren enblemarekin, Via Giulia desarrollatzen frakasatu zuenean, hiri-proiektu berrian aurreko etapa guziek sortua sistematzeko ardura edukiko zuen, Kontrarreformaren funtzio-eta ideoloji-orientaziopean.

Ikus puntu honetatik, bai eta Carlo Fontanak Loiolako proiektuan planteaturiko tema batzuk oso hurbil daudelako ere, ez digu ezerk hobeto argituko, Miguel Angel hil ondoren Batikanoko San Pedro eleizaren konstrukzioan gertatutako prozesuek baino.

Cario Maderno-ren proiektua, Trento ondorengo eleizburuen realismoari eta poliki-poliki latin gurutzeko tradizio-eleizetara itzultzeari «konzesio» bat baldin bada, Albertiren eta Alberti ondorengo zirku-plantan, bai eta Vignolaren Sant'Andrea dei Palafrenieri edo Francesco Volterrano-ren San Giacomo degli Incurabili-ren arrautz-

planten ere frakasua ekartzen duela, Berniniren Plazak Miguel Angelen eta Madernoren arteko kontradikzioak hiri barnean integratzeko gogoia adierazten du.

Plazak itxuraz solutu ezineko problema konpondu nahi du: bata bestearen aurkako arkitektura-elementuak -kupula eta ate aurreko arkupea-konposizio osoan, batean resaltatu.

Horrek dinamiko ikusi behar dela eskatuko du; arkitektura-objetua osoa batbatean eta dena ikusi beharrean, zera egin nahi da, orain bata orain bestea zatika ikusten joan: urrutitik kupula nabarmenduko du, bertatik Maderno-ren atearkupea. Arkitekturak, batzuek Erromako barrokoaren eszenografia deitzen dioten konzepzioetik, bere zatiak banatzera jotzen du, perspektibaren arauera zatika ikusten eta aldatzen joatera, eta batean arkitektura-elementuen, perspektiban ikusteko ase ezineko gogoak aldatuen, adieraz-indarra ahalik gehien haunditzera.

Ez dut sarrerako diskurtso honekin seirehuneko Erromako arkitekturaren bezalako fenomeno aberats eta konplikatu ahitu nahi; hartaz asko idatzi da eta batzutan exajeratu samar beste klaseko kezken paradigma bezala, baina planteatu bai nahi dut Loiolako organismo hori ulertzeko giltza bat, horren konposizioaren loturak berezi intereskoak bait zaizkit nere proiektua justifikatzeko.

Azken ikuspuntu honetatik, hiru aspektu berezi azpimarratuko ditut.

Lehenbizi, eleizaren gorputzak planta osoarekin eta kanpoko inguruarekin zer hartu-eman duen baloratuko da.

Berez, ez du zer ikusirik bere renazimenduko organismo klasikoarekin, askoz ere gutxiago oraindik Herreraren eskemarekin. Aitzitik, eleizak konposizioan bere seilua du, gainontzeko konposizioaren ardatz gidarien aurrean, eta bere seilu hori edifizio osoan nabari agertzen da; erdian badago ere, etxeurre zati haundia okupatzen du, eta horretan -Eskorial monumentuak egiten ez duen bezala, adibidez- kanpora ateratzeko gogoia erakusten du, bere seilua duen organismo autonomo bezala.

Honela, garai hartako Erromako hainbeste eleizetan bezala eta batez ere Santa Maria della Pace-n edo Rainaldi-ren Santa Maria in Campitelli-n, eleiza konjuntotik bere buruaren jabe den konstrukzio bezala nabarmentzen da eta perspektiba aldetik oso orraze mugatuekin.

Gainontzeko etxeurre nagusia kanon klasiko estriktuen menpean -kasu honetan tokiko maisu egileen «herrerianismoagatik» oraindik ere estriktuagoen menpean-gelditzen den bitartean, eleizaren gorputza, segituan explikatuko ditudan hiru garrantziko elementuen bidez guziz nabarmentzen da.

Lehenbizi, kupula, danbor exajeratu batekin; danbor hori ez dator batere ondo proportzio klasiko ortodoxuekin, baina Fontanaren beste hiru eleizen proportzioa bera du: eleiz horiek Piazza del Popolo-ko bi bizkiak Carlo Rainaldirekin batean egin zituenak, eta Koliseo barruan eraiki ez zena dira.

Proiektu guzi hauetan danborrak «kanpo» funtzio bat, Piazza San Pietrok sortutako problematik datorrena betetzen du: Kupulak organismo osoan nabari izan behar badu bai urrutitik bai bertatik, orduan gutxienez, oskola jendeak alde guzietatik ikusi ahal izan behar du.

Atearkupeak ez du, monumentu kerakoa bada ere, bisio hori galerazi behar, bertatik garrantzi samarra izan badaiteke ere. Hori lortzeko «danborra» sakrifikatu beharko da eta hura ikusi gabe utzi, baina hala ere naranja erdia ez izkutatzeko nahiko altura eduki beharko du.

Problema guzi hauek maisu soluzionatuak aurkitzen dira Loiolan. Hemen gainera, hirugarren elementu bat aurkitzen dugu, monumentueskailera, konjunto osoan eleizaren garrantzia azpimarratzen duena.

Ez bide da probatu azken elementu hau Fontanaren atzen proiektuari dagokiona dela. Alabaina, garai hartako Erromako arkitekturaren idearen hurbil aurkitzen delako eta berezi Piazza di Spagnaren monumentu-eskailerarako proiektuetako baten - ejekuta ez zen baten- hurbil, horrek zera pentsarazten dit «se non è vero è bene trovato» dela.

Monumentu-eskailerak atearkupearen funtzioari indar ematen dio; horren haundia eta inguruarekin oso ondo elkartua degoelako -handik beste inondik baino hobeto ikusten da inguruaren ederra Izarraitz mendi haundipean- dudarik gabe Santutegiaren arkitekturarik haundienetako bat dela egiten dugu.

2. Gaur egun monumentuaren ingurua

Hasieran esaten nuen bezala, ohiezlako gauza zen, Erromako seirehuneko bezalako arkitekturaren hiri-kontextu mugatutik, estilo hartako -irargitu dugun bezala- monumentu bat jartzea.

Behin eta berriz esan dugu ere, garai hartako Erromako arkitekturaren «kontextu» zentzu haundia, eta horren oso ejenplu nabariak daude, hala nola Santa Maria della Pace plaza-eleiza.

Alabaina, azken faktore hau, horren garrantziko, hau bezalako kasuan, oharkabe igaro zen Loiola eraikitzean, nahiz 1767an, obra bukatu baino lehen, jesuitak expulstatu zituztelako, nahiz -egiantzago- Espainako bezalako kontextuan eta berezi euskal-kontextuan monumentua behin ere ulertu ez zelako, gure artean «izadi-hiritu»aren konzeptua, oharkabe igaro beharko zuen XVII. mendearen bigarren erdira ondo sartu arte, bai eta XIX gizaldirarte ere.

Horrela ingurua «landa» batere hiritu gabea gertatu zen, monumentuak eskatzen zituen giroarauez bestera. XX. gizaldi hasieran bakarrik intentatuko dute problema honi aurpegi ematen, kera ezberdin samarrean bada ere.

Zentzu honetan, landa inguruan zuhaitz aldatzeak eta Loiola-Azpeitia ardatza irikitzeak, dudarik gabe ordenazioaren baiezkoko aspektuak dira, ez ordea hain baiezkoko ardatz hori etxeurre nagusiaren ardatzari begira baldar okertua egitea, ez eta monumentu inguruko jardina ziztrinak ere; ez dute horiek batere monumentua lurrarekin ondo elkartzen eta gainera plaza erdian zirkulatzeko sistema nahasi bat sartzen du.

Are, bi izai bikainak monumentu aurrean oso baldar aldatu zituzten, eta zorua berdindu gabe utzi zelako, konjuntoak itxura ziztrina du eta Gipuzkoako arkitektura osoaren garrantzi haundieneko monumentuari eta XVII. gizaldi azken aldiko espain-arkitekturaren inportanteenetako bati ez dagokiona.

3. Proiektuaren oinarri-planteamentuak

Orain arte esan dugun guzitik zera ateratzen da, hau bezalako kasuan, batez ere monumentuaren orijinal-inguruaren konzeptua rekuperatu behar dela.

Honek, alabaina, garrantzi haundiko teori-problema planteatzen ditu. Lehenbizi, ez dugu tema honen arkeoloji-urratsik, orijinal-proiektua, probable behin ere izan ez zena, rekonstruktzeko bide ematen duenik. Beraz, ber-eraiki ezina, egia da. Alabaina,

baditugu pentsatzeko elementu batzuk, monumentuaren proiektutik beretik datorren idea etengabe aurrera eramateko. Kriterio horiei eutsi behar zaie, berriz restauratu egin nahi gabe.

Argitutako antzeko problemen soluzioak konparatu eta analizatu bidez aktuatu beharko litzateke: hau da, planteatu eta soluzionatu behar diren problemetatik proiektatu; soluzioak, jakina, ez dauka bakarria izan beharrik, egokiena dena izango bada ere.

Ikuspuntu honetatik zera esan genezake, historiatik ateratako elementuekin lanegiten dugula, soluzioa orohar norberarena izango bada ere eta gainera ez nahiataez beste baten antzekoa.

Zera baiezteko gauza gara, gaurko gure arkitektura-analisi-jakintzak arkitekturaren historiatik datozkigun problema eta soluzioak recuperatzeko bide ematen digula, haatik XIX. gizaldiko eklektikuen estilo-moldetik aktuatzeko behartuak egon gabe.

Gauza guzi hauek argitzeko ejenplu ona, beste proiektu berri edo ez hain berrien artean, zera da, P.L. Troost-ek egindako Munich-eko Koniglicher Platz-aren -orijinean L. Von Klenze-k proiektatuaren- reforma. Nere ikuspuntutik, interesik haundiena hontan dauka, Von Klenze-n proiektuaren konpositzeko eskemei jarraitzen zaiela, horrekin azken honek proiektutako edifizioen estiloari osoro menderatzen zaionik esan nahi ez bada ere.

Aurreko teori-premisa hauetatik abiaturik, C. Fontanaren proiektuari dagokion monumentu-marko bat sortzen saiatu naiz.

Horrek zera esan nahi du, orain lekua erabiltzeko eskema batzuk, definituak dauden bezala, utzi egin behar direla; horrela adibidez, automobil-trafikoak eragozpen haundia jartzen du lekua egokiago erabiltzeko. Eta horrez gainera aparkamentu-problema, horrelako toki batean oraindik ere ezegokiagoa.

Zera uste dut, problema hauen soluzioa ez dagoela dena proiektua egiten duen arkitektuaren eskuan; baina «sine qua non» baldintzak dira, aurrean dauden arkitektura-problema guzien soluzioa serio planteatzeko.

Deskribitzeko agerbidea

1. Monumentu-ingurua berriz ordenatu

Monumentuak, orain dagoen bezala, ez du oinarririk eskaintzen lurra eta arkitektura heuren artean elkartzeko eta distributzeko. Oso Hiri-monumentu bada ere, lehenago irargitzen saiatu garen bezala, ez du edifizio kera horri dagokion «lurrik», eta horregatik beste nonbaitetik aldatua agertzen da.

Goizorua izan da, historiko, arkitektura eta lurra elkartzeko lagundu duen elementua eta horren ejenplu ona eskaintzen digu Escorial monumentuak.

Bestalde, Santuetxeak berak, monumentu-eskaileraren lehen tranpainetik, goizoruaren hasiera bat eskaintzen du, eta jarraitzeko asmoa duela dirudi, azkeneko hau behin ere egin ez bada ere. Horregatik, etxeurre alde bietan goizoru bana jartzeak monumentua eta lurra elkartzeko problema ondo soluzionatzen zuela ematen zuen, bai eta bere monumentu-keraz areago, bi leku haundi sortzeko aukera eman ere jendeak erabil zitzan.

Beste elkartzeko problema bat, monumentueskaileraren hasierak planteatuko luke, gaur egun soluzionatu gabe dagoen problema. Problema honek, atarkupearen eta edifioko monumentueskaileraren hiri-zantzu nabariekin batera, zera akontsejaten

zuen, harri losez egindako plaza zabal baten proiektua, berezi eskaileraren hasiera hartzen laguntzen duena.

Plaza, harlosen diseinuen bidez bi zati egina, bi pabeiloi simetrikoek burutuko dute; haiek funtzio hau edukiko dute, «hiri-plazara» bidea adierazi, eta haren dimentsioak luzean atearkupe osoa eta haren gaineko kupula ikusteko aukera emango du, baina ez kupula osoa danbor eta guzi.

Azkeneko hau alderatzeko bideari dagokio; hori geroxeago aitatuko dut.

Eginbehar hauei zera erantsiko zaie, orain dagoen baino jardín apainduago bat, belartxa sail haundiekin, oraingo zuhaitzen arteko bidexkak ondo zaintzen direla eta den hori berro-esiez inguratua, harri-txintxarra bidexketan eta floro eta irudientzako agarriak tarteka.

Jardín honek zera egiten du, goizorua definitzen duen arkitekturatik oihanak iduritzen duen izadira aldatzen dela adierazi, horrela jardín barrokoen berezgarri batzuei eusten zaie.

Berdintzeari gagozkiola, goizoruan ez bestean, gehienbat oraingo lurraren berezgarriak kontserbatzen dira, malda denak, baino, leunduz.

Ordenazio barruan, bere arkitektura-interesagatik, plaza alde batean aurkitzen den lekaimen konbentu txikia baloratu nahi izan da. XVIII.mendeko etxe bakun, baina bikaina da; haren arkitekturak inguru egokia exijitzen du.

Zoru berezi bat jartzen da, plaza txiki baten forman. Orain dagoen goibearen problema solutzeko eskailera batzuk, gero eta txikiagoak, jarriko dira. Den hori zehatzago batean doazen planuetan ikus daiteke.

2. Konstruktzeo gaiak

Ordenazio osoko oinarri gaiak harria eta jardinak dira. Goizorua harrizkoak dira, eta haren baraldak ormigoi gainean jarritako harlosezkoa egin daiteke. Zoruak, berebat, harlosezkoak izango dira eta adokinezkoak, dagozkion planuetan adierazten den bezala.

Orain arte egindakoa

1982an aurkeztutako orijinal-proiektuak-haren agerbide osoa berriz ekarri dugu-orain arte zenbait goraberagatik -batzuek proiektu egilearen gogo barneko, bestek kanpoko goraberagatik-aldakuntza batzuk sufritu ditu. Neri lehenengoz hitzegitea dagokit; bigarrenengoz besteek emango beharko bait dute kontu.

Lehenengo proposizioa, monumentu osoa begien aurrean edukiz idatzi zena, geroago bi faktore -lekua oinezkoentzat bakarrik jarri ezina, eta oraindik ere inguruan dagoen baserria ez expropiatua- sartzen zirelako, pixka bat aldatua, ez da orduan pentsatzen zen bezala egingo.

Horrek ez digu monumentuaren goizorua lehen forman egiten utzi eta haien orde eskailerari begira bi «lonja» simetriko jarri dira. Lonja hauek bere garaian jardinez inguratuak izan behar dute, eta horrela monumentuaren oinarria proiektu barrokoaren aldeago resolutzen da eta Erdiko nukleoaren -zirku eta eskaileraren-garrantzia sortzen da eta jardinei funtsezko funtzioa ematen zaie.

Direkzio horretan bertan eta ingurua oinezkoentzat bakarrik jarri ezinenez gero, oraingo hiruertz barrokoari eustea pentsatu da, Ejertzizio-Etxe aldetik doan marra itsusitu samarra zuzenduz.

Horrekin, perspektiba aldetik, monumentuaren erdilekuak indar hartzen du, baina hasierako proposizioak monumentua alde guzietatik berdina goa ikusten zuen.

Zera uste dut, azken proposizio honek -orain arte haren harlosezko lonjak bakarrik egin dira-egiteko realismo gehiago eskainiz gainera, bere balore behinenak mediatu ondoren, asmatu zenaren antza haundiagoa duela.

N.B. Orain (1989) San Inazioaren jaiotzaren bostehungarren urtea betetzen dela-eta, Gipuzkoako Ahaldundi Agurgarria Santuetxea eta haren ingurua rekonstruktzeko eta birmoldatzeko proiektu haundia ari da egiten.

Halaxe, alde batetik Santutegia, ez hiri-inguruan baina landa-inguruan aurkitzen den printzipiotik, eta bestetik lonja biak monumentu haundiaren ego bien atearre bezala eginak daudenetik abiatuak, Juan López Jaén arkitektuak lonja bien ertz puntuetatik hasten den zirku erdiko plaza haundi bat ideatu zuen, erdian harlosatua eta 17.000 pertsona hartzen dituen, eta albotan zirku-arresiz kanpotik eta barrutik jardinak dituen.

Plazaren zirkunferentzi erdia bere zentruan tanjenzial ikutzen duela, eta hiru zuhaitz-lerroek uzten duten tartean, bi adokinezko kamioek zabaltzen diete bidea automobilerik, aparka-lekuetara edo kamio nagusietara joateko.

Azkenik, Azpeitiatik Santuetxera datorren bidea automobilentzat itxia gelditzen da, haren azken aldera San Inaziori jaso dioten irudi inguruan, zuhaitz tartean, eta kamio zabala handik oinezkoentzat bi ibilbide zabal egiten da; harlosatuak daude eta bien tartean belar-jardin fin bat da. Bide horretatik monumentua eta haren kupula zabal eta eder ikus daitezke, eta bideak plaza haundira darama.

DOKUMENTU-ERAKINA

- 1 Institución del Mayorazgo de Loyola por Martín Garcia de Oñaz (años 1518 y 1536)
- 2 Honor y calidad de la Casa de Loyola (año 1569)
- 3 Luces en la Santa Casa en la noche del Jueves Santo (año 1655)
- 4 Juro Real número 1 (año 1679)
- 5 La casa y terrenos de Loyola desincorporados del Mayorazgo (año 1681)
- 6 Donación de la Casa de Loyola y fundación del colegio (año 1682)
- 7 Real patronato de la fundación del colegio de Loyola (año 1683)
- 8 Escalera de Zaldúa (año 1702)
- 9 Fundación del Real Colegio (año 1715)
- 10 Intervención de Joaquín de Churriguera (año 1720)
- 11 Acta Sanctorum (Bollandiana). Gloria postuma (años 1729 y 1642)
- 12 Expulsión de los jesuitas de Loyola y Azcoitia (año 1767)
- 13 Los elgoibarreses rescatan las imágenes y alhajas de Loyola y las llevan a la granja de San Ildefonso. El Rey nombra a San Ignacio capitán general del ejército de Guipúzcoa (año 1794)
- 14 Inventario de las reliquias y alhajas dejadas por los elgoibarreses en la granja de San Ildefonso (año 1794)
- 15 Los Pizarra, custodios de las alhajas de Loyola (años 1806-1816)
- 16 Carlistas en Loyola (años 1836-1840 y 1873-1876)
- 17 Documentos fundamentales de la propiedad de Loyola a favor de la Diputación Provincial de Guipúzcoa (años 1842-1855)
- 18 Terminación de las obras de Loyola (años 1885-1888)

1.- Institución del Mayorazgo de Loyola por Martín Garcia de Oñaz (años 1518 y 1536)

(En AHL se conservan la primera copia de la autorización real y el borrador de la primera institución de 1518. El texto de la institución definitiva de 1536 se halla en el archivo ducal de Villahermosa-Granada de Ega).

En el nonbre de Dios todopoderoso, Padre e Fijo y Espíritu Santo, que son tres personas y una esencia divina que bibe y rreyna por syenpre syn fin, de quien todos los vienes proceden, e de la vienabenturada Virgen gloriosa nuestra señora Santa María, su Madre, a quien pongo por mi señora e mi abogada, a cuya bondad e piedad ofresco la presente escriptura e lo en ella contenido, para que le plega guiarlo e conserbarlo de tal manera que en ello aya buen principio medio y fin y gloria y abalança de su santo nonbre Jhesús.

Por ende sepan quantos esta carta de mayoradgo e mejorazgo e de primogenitura bieren cómo yo, Martín García de Oynaz, señor de Loyola, consyderando la gran obligación que, asy por mandamiento e derecho divino e natural e posytibo, todos somos tenidos y obligados de nudrir y sustentar a nuestros hijos y nietos e decendientes dellos; e acatando otrosí que la casa diminuyendo e dividida y apartada por muchas partes es desolada e perece por tiempo, e quedando entera, permanece para el servicio de Dios y ensalçamiento de su santa fee católica, para honrra y defensa y memoria de los pasados, e se ennoblece la vida de los presentes y de los por venir, e los rreyes por ello son servidos, e rresplandece en ellos la grandeça y fechura de sus manos; y queriendo probeer en todo lo susodicho, y acatando que Dios nuestro Señor por su ynfinita clemencia me a dado hijo obediente a mi amado hijo Beltrán de Oynaz, y queriendo dexar en él e para sus decendientes perpetuamente mis casas, nonbre y apellido e linaje, quiero y es mi boluntad de fazer de los dichos bienes mayoradgo e mejorazgo e primogenitura e donación e mejoramiento al dicho Beltrán mi hijo e, después dél, a su hijo mayor e decendientes e sucesores, asy de las mis casas de Oynaz y Loyola y San Sebastián de Soreasu e rrentas y juros e de otras casas e caserías, molinos, ferrería, seles, rrobledales, castañales, montes e mançanales e otros bienes e heredamientos, prados, pastos, que yo tengo e poseo, asy por juro de heredad de los rreyes de gloriosa memoria, sus precedesores de la dicha rreygna y rrey su hijo, nuestros señores, como en otra qualquier manera.

Y para poder hazer el dicho mayoradgo e mejorazgo yo supliqué a sus altezas que me diesen licencia y facultad e autoridad para ello, porque la dispusyción que dello hiziese fuese válida e firme para syenpre jamás, e a sus altezas plugo de me la otorgar.

Después de esta solemne introducción, se siguen la autorización real de Carlos V, la institución misma del mayorazgo con la enumeración detallada de los bienes que han de quedar incluidos en él, y las leyes o condiciones por las que ha de regirse su posesión y sucesión.

2.- Honor y calidad de la Casa de Loyola (año 1569)

(De este llamado «Memorial de Francisco Pérez de Yarza» escrito por éste a petición de Don Juan de Borja, existen varias copias en Loyola. La que reproducimos -AHL, 1-4-3, n.6- es de 1632)

Por ser la declaración de las cosas que por este *Memorial* se mandan de tanta calidad y peso, y dever yo mucho respeto y obligación a la persona que me lo ha ordenado, aviendo tenido para el caso toda la inteligencia que requería, satisfaciendo a los capítulos en él contenidos, diré la realidad de la verdad de lo que es notorio y e podido entender, con la sinceridad que soy obligado al oficio que se me da en este caso.

1. Respondiendo al primer capítulo del sitio de la casa y solar de Loyola y su calidad y pueblos circunvezinos etc., aunque es bien notorio todo ello, a lo menos en la mayor parte de la tierra bascongada, digo que esta casa y solar está sita en jurisdicción de la villa de Azpeitia, de la provincia de Guipúzcoa; el pueblo es de los principales de aquesta provincia y tercero en votos en toda ella, y en vezindad y propiedad es de los crecidos y aventajados entre todas las villas mayores. Esta casa y solar está sita en distancia de algo menos de un quarto de legua de la misma villa, junto y algo desviado del camino real, que desde la dicha villa de Azpeitia va a la villa de Azcoitia, que es otro pueblo principal de la dicha provincia; que estas dos villas distan media legua de camino llano una de otra, y casi al medio camino, como está dicho, está sita la dicha casa, cuya calidad es conocida y notoria en toda esta tierra y en otras muchas partes; porque es muy antigua y noble, y como tal es de las solas del número antiguo. La cual es procedente de la casa y solar de Oñaz, que es en la misma jurisdicción de Azpeitia por Beltrán Ibáñez de Loyola, sexto abuelo de esta señora de Loyola, casa de mayorazgo. Y se halla por escrito haverse hedificado agora ducientos años, poco mas o menos, siendo señor de la dicha casa de Oñaz el dicho Beltrán Ibáñez, y de la fundación de esta casa de Oñaz no ay memoria de hombres ni escritos, por ser antiquíssima, y assí los señores de Loyola, su título verdadero y primero es como se ponen y dizen: señores de las casas y solares de Oñaz y Loyola, porque de los antepasados de esta casa de Oñaz fue su principio de ellos, y como tal es patrón de dos iglesias parrochiales que ay en la dicha villa de Azpeitia e su jurisdicción muy principales, cuyas dízimas goça por juro de heredad por merced de los reyes antepasados de Castilla, las quales valen mil ducados cada año, seguros y llanos, y demás de esto tiene la retoría de la dicha parrochia, que rentará cada año ducientos ducados, con frutos, pitaņas y administración, y de nueve beneficiados clérigos, que cada uno de ellos vive en esta república con mucho onor y buen entretenimiento.

Tiene assí bien en la iglesia matriz su assiento, entierro y ofrenda preheminentes de todos los otros, y demás de todo ello, tantos bienes rayzes, en la cantidad que abajo se especificará, que del honorario de todo ello se infiere bien la gran calidad della en toda esta tierra, pues es la principal casa que ay en ella, dueña y poseedora y preferida a todos honores y haciendas calificadas, en pueblo muy principal e antiguo, en tal suerte que en estas dos villas, ansí en la misma de Azpeitia, donde está sita esta casa, como en la de Azcoytia, ay en cada uno de ellos seyscientos vezinos, y entre ellos muchos idalgos muy principales, ricos, raygados y abonados, con otras gentes de menos consideración; todos ellos deudos, amigos, servidores y allegados de esta casa, y de los señores della.

La calidad de los cuales es notoria; porque de tiempos muy antiguos a esta parte fueron muy señalados, en tal manera que no se podría, con la brevedad que se requiere, satisfacer a declarar los hechos y ser de todos ellos. Pero en suma diré quel octavo agüelo de esta señora Doña Lorenza, que agora posee, y su hijo Gil López de Oñaz, fueron los que vencieron la vatalla (de Beotíbar). Beltrán Ibáñez fue quinto agüelo desta señora Doña Lorença que agora posee, al qual le fue fecha la merced del patronazgo del monesterio de S. Sebastián de Soreasu de la dicha villa de Azpeitia, con todo su pertenecido, por un Rey D. Henrique el año de mil y trecientos y noventa y cuatro años, por respecto de los muchos servicios que había fecho a la corona real de Castilla.

